



AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA
NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Eurorregión Akitania-Euskadi-Navarra
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

Interreg POCTEFA



UNIÓN EUROPEA
UNION EUROPÉENNE

AKITANIA BERRIA
EUSKADI
NAFARROA
EUROESKUALDEKO

**MUGAZ GAINDIKO
ENPLEGUAREN
DIAGNOSTIKOA**

Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatutako proiektua
Proyecto cofinanciado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
Projet co-financé par le Fonds Européen de Développement Régional (FEDER)

empleo-info.eu

1. SARRERA	9
2. EUROESKUALDEKO ENPLEGUAREN TESTUINGURU OROKORRA.....	14
2.1. Populazioaren egitura.....	15
2.2. Populazioaren prestakuntza maila	19
2.3. Hizkuntzak ezagutzea eta ikastea	20
2.4. Enplegua eta langabezia	25
2.5. Soldata mailak	30
2.6. Enpresa-egitura eta haien neurria.....	31
2.7. Jarduera ekonomikoa eta fluxu komertzialak	32
3. MUGAZ GAINDIKO ENPLEGUA EUROESKUALDEAN	36
3.1. Egoitza arloko interpenetrazioa	37
3.1.1. Egoitza arloko interpenetrazioaren kuantifikazioa	37
3.1.2. Etxebizitzaren merkatua, 90eko hamarkada amaierako eta 2000 hasierako egoitza arloko fluxuen azalpen-faktorea.....	43
3.2. Mugaz gaindiko enpleguaren kuantifikazioa	46
3.2.1. Datu estadistikoetatik abiatuta mugaz gaindiko enpleguaren hurbilketa	46
3.2.2. Gizarte Segurantzako datuetatik abiatuta mugaz gaindiko enpleguaren hurbilketa.....	51
3.3. Europako muga ugaritako mugaz gaindiko enpleguaren azterketa konparatiboa	54
3.4. Mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak	57
3.4.1. Mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak, biztanleriaren errolda ofizialeetatik jasotako datu estatistikoak oinarri hartuta	57
3.4.2. Mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak, datu fiskalen ustiaketa oinarri hartuta	62
3.4.3. Mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak, mugaz gaindiko langileen inkesta oinarri hartuta	69
4. EUROESKUALDEKO MUGAZ GAINDIKO LANGILEEN ESKUBIDE SOZIALAKE TA TESTUINGURU FISKALA	79
4.1. Mugaz gaindiko testuinguru fiskala.....	80
4.1.1. Mugako lanaren eta fiskalitatearen araudi-testuinguru orokorra.	81
4.2. Laneko eskubidearen eta babes sozialaren araudi-testuinguru orokorra	93

4.2.1. Mugako langilea	94
4.2.2. Langile desplazatua (zerbitzuak ematea)	97
4.2.3. Europako planteamenduak etorkizunera begira.....	101
4.2.4. Ondorioak eta hausnartzeko alderdiak.....	104
4.3. Frantzia-Espainia/Euskadi/Nafarroa arteko kostu sozialen eta fiskalitatearen alderaketa eta laneko errenten gaineko presio fiskal orokorra	105
4.4. Bizitoki arloan, arlo fiskalean eta lan arloan esku hartzen duten eragileen eta eskumena duten eragileen mapa	107
4.5. Etorkizunean hausnarketa eragin dezakeen mugako langileen babes sozialari eta fiskalitateari dagozkion gai batzuk.....	109

5. LANEKO MERKATUEN OSAGARRITASUNA EUROESKUALDEAN ... 110

5.1. Enpleguaren bilakaera-aukerak euroeskualdean	112
5.1.1. Akitania Berria.....	112
5.1.2. Euskadi.....	116
5.1.3. Nafarroa	119
5.2. Enplegu-eskaera eta -eskaintza euroeskualdean	121
5.3. Euroeskualdeko mugaz gaindiko enpleguari buruz enpresek, klusterrek eta enpresa-elkarteek egiten duten balorazioa	128
5.3.1. Mugaz gaindiko enpleguarekiko pertzepzioa eta itxaropenak .	128
5.3.2. Eragile ekonomikoen mugaz gaindiko esperientzia	130
5.3.3. Enpresek eskatutako profila eta arlo profesionalak	131
5.3.4. Mugaz gaindiko enplegua kontratatzeke zailtasunak.....	132
5.3.5. Euroeskualdean mugaz gaindiko enplegua sustatzeko ekintza-eremuak.....	133
5.4. Espezializazio Adimentsuaren estrategiak (RIS3) eta enpresa-klusterrak Euroeskualdean	135
5.4.1. Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak (RIS3)	135
5.4.2. Euroeskualdeko klusterrak	138
5.5. Enpleguaren lurralde mailako plangintza Euroeskualdean	140
5.5.1. Enplegu-politika Akitania Berrian	140
5.5.2. Euskadiko enplegu-politika	142
5.5.3. Nafarroako enplegu-politika.....	143
5.5.4. Hiru eskualdetako enplegu politiken ikuspegi orokorra	145
5.6. Euroeskualdeko Hezkuntza Sistemak eta titulazioen homologazioak ..	146
5.6.1. Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako hezkuntza-sistemen alderaketa	147

5.6.2. Hezkuntzako prestakuntzako ziurtagiri eta diplomak aitortzeko Europako esparrua	149
5.6.3. Profesionalen zirkulazio askea	151

6. PRESTAKUNTZAREN, ENPLEGUAREN ETA ENPRESA LEHIAKORTASUNAREN ARLOKO MUGAZ GAINDIKO EKIMENAK. 156

6.1. Prestakuntzaren eremuko ekimenak	157
6.1.1. Unibertsitateko hezkuntza	157
6.1.2. Lanbide Heziketa.....	160
6.2. Sektoreko lankidetzaren eta lehiakortasunaren eremuko ekimenak ..	162
6.2.1. Enpresa lehiakortasuna	162
6.2.2. Euroeskualdeko lankidetzaren estrategikoak	165

7. EUROPAKO MUGAZ GAINDIKO BESTE ESKUALDE BATZUETAN APLIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK..... 168

7.1. Sarrera	169
7.2. Erreferentzien aukeraketa.....	170
7.3. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak	184

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK 191

8.1. Laburpena eta ondorioak.....	192
8.2. Gomendioak	195

KOADROEN AURKIBIDEA

2.1 koadroa	Populazioa eta populazio-dentsitatea	15
2.2 koadroa	Adierazle demografiko nagusiak. 2016. urtea	16
2.3 koadroa	Populazioaren prestakuntza maila, 2016	19
2.4 koadroa	Eskola-uztea eta "ni-ni" populazioa, 2016	20
2.5 koadroa	Gaztelaniaren ezagutza Akitania Berrian	21
2.6 koadroa	Frantsesaren ezagutza Euskadin eta Nafarroan	21
2.7 koadroa	Euskararen ezagutza Euroeskualdean, 2016	22
2.8 koadroa	Gaztelaniaz ikasten duten Akitania Berriko matrikulatutako ikasleak	23
2.9 koadroa	Frantsesa ikasten duten Euskadiko eta Nafarroako matrikulatutako ikasleak	23
2.10 koadroa	Euskara duten eredueta matrikulatutako ikasleak	24
2.11 koadroa	Euroeskualdeko enplegua eta langabezia	26
2.12 koadroa	Erregistratutako langabezia.	26
2.13 koadroa	Enpleguaren sektore mailako banaketa	27
2.14 koadroa	Enpleguaren banaketa enpresen neurriaren arabera	27
2.15 koadroa	Enpleguaren banaketa kontratuen modalitatearen arabera	28
2.16 koadroa	Enpleguaren banaketa lanaldiaren eta kontratu motaren arabera	28
2.17 koadroa	Enplegua gertuko perimetro geografikoan	29
2.18 koadroa	Batez besteko soldata gordina	30
2.19 koadroa	Lanbide arteko Gutxieneko Soldata, 2017	31
2.20 koadroa	Enpresa-egitura, sektoreka	31
2.21 koadroa	Enpresa-egitura, neurriaren arabera	32
2.22 koadroa	Barne Produktu Gordina eta Balio Erantsi Gordina	33
2.23 koadroa	Sektoreen banaketa Balio Erantsi Gordinari egindako ekarpenaren arabera	33
2.24 koadroa	Akitania Berriko fluxu komertzialak. Helmuga- eta jatorri-herrialdeen araberrako rankinga	34
2.25 koadroa	Euskadiko fluxu komertzialak. Helmuga- eta jatorri-herrialdeen araberrako rankinga	34
2.26 koadroa	Gipuzkoako fluxu komertzialak. Helmuga- eta jatorri-herrialdeen araberrako rankinga	35
2.27 koadroa	Nafarroako fluxu komertzialak. Helmuga- eta jatorri-herrialdeen araberrako rankinga	35
3.1 koadroa	Espainiako nazionalitatea duten egoiliarak Akitania Berrian eta Frantziako nazionalitatea duten egoiliarak Euskadin eta Nafarroan, adinaren, sexuaren eta ikasketa mailaren arabera.	41
3.2 koadroa	Etxebizitzaren prezioa Euskal Eurohirian. 2000	43
3.3 koadroa	Etxebizitzaren parkea, tipologia eta ezaugarri orokorrak	44
3.4 koadroa	Etxebizitza nagusien edukitze-erregimena	45
3.5 koadroa	Etxebizitzaren prezioen alderaketa 2016an	45
3.6 koadroa	Mugatik gertuko udalerrietan etxebizitza saltzeko eta alokatzeko batez besteko prezioa	45
3.7 koadroa	Euskadiko eta Nafarroako autonomia-erkidegoek igorritako eta 2017/04/18an indarrean diren E-106-ES formularioak	51
3.8 koadroa	Euskadin bizi diren eta lanpostua Frantzian duten pertsona okupatuak ..	58
3.9 koadroa	Mugaren alde batean bizi den eta beste aldean lan egiten duen biztanleria okupatua	61
3.10 koadroa	Okupazioa, mugaz gaindiko lantokiaren arabera	71

3.11 koadroa	Egoera profesionala eta enpresaren neurria, mugaz gaindiko lantokiaren arabera.....	72
4.1 koadroa	Fiskalitatea Frantzian: aplikatutako tasak sarrera garbiaren baremoaren arabera.....	86
4.2 koadroa	Fiskalitatea Gipuzkoan: aplikatutako tasak oinarri likidagarri orokorraren arabera.....	88
4.3 koadroa	Fiskalitatea Gipuzkoan: aurrezkiaren oinarri likidagarriari aplikatutako tasak	89
4.4 koadroa	Fiskalitatea Gipuzkoan: langile autonomoen kotizazio sozialak.....	92
4.5 koadroa	Sozietateen gainerako fiskalitatearen alderaketa Frantzian-Espainian/Euskadin/ Nafarroan.....	93
4.6 koadroa	Ikuspegi fiskaletik eta lan-ikuspegitik gakoak diren eragileen mapa	107
5.1 koadroa	Akitania Berria: Enplegu-sorreraren zenbatespena 2017 eta 2022 bitartean, sektorearen arabera	113
5.2 koadroa	Estali beharreko lanpostuen zenbatespena (sarrerak) 2017 eta 2022 bitartean, okupazioaren arabera (urteko sorkuntza ≥ 2.000)	114
5.3 koadroa	Akitania Berria: 2017ko kontratazio-asmoak (2.500 lanpostu baino gehiago urtean).	116
5.4 koadroa	Euskadiko enplegu-prospekzioak sektorearen arabera. 2022	117
5.5 koadroa	Langileen eskaintzaren bilakaera epe luzean, okupazio-profilaren arabera.....	118
5.6 koadroa	Lan-aukerak ekonomia hazteagatik eta langileak ordezteagatik, jarduera-adarren arabera.....	118
5.7 koadroa	Nafarroan gehien eskatutako profil profesionalak (epe labur/ertainean, sektoreen arabera)	120
5.8 koadroa	Enplegu-zerbitzu publikoek eskainitako lanpostuak eta haietan izena emandako enplegu-eskatzailak	122
5.9 koadroa	Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak.....	136
5.10 koadroa	Hiru eskualdeetan dauden sektoreko klusterren zerrenda	139
5.11 koadroa	2016-2019 Nafarroako Enplegu Planaren oinarrizko printzipioak eta helburu estrategikoak.....	144
7.1 koadroa	Jardunbide egokien kasuak	172

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

2.1 grafikoa	ABEN Euroeskualdearen populazio-egitura, 2016 (% , populazio osoarekiko)	18
3.1 grafikoa	Espainiako nazionalitatea izan eta Pirinio Atlantikoetan bizi den egotiar kopuruaren bilakaera	40
3.2 grafikoa	Pirinio Atlantikoetan bizi diren eta Espainian lan egiten duten langileak, nazionalitatearen arabera	48
3.3 grafikoa	Datu estatistiko eta administratiboen desberdintasunak iturrien arabera	53
3.4 grafikoa	Espainiara lanera doan mugako langile kopurua, adinaren arabera	60
3.5 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen banaketa, lan-sistemaren arabera	63
3.6 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen alteen eta baje bilakaera 2007-2015	64
3.7 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen banaketa, bizi diren udalerriaren arabera	65
3.8 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen banaketa, lan egiten duten udalerriaren arabera	65
3.9 grafikoa	Mugako lekualdaketen arrazoiak	65
3.10 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen banaketa, sexuaren arabera	66
3.11 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen banaketa, adinaren arabera	66
3.12 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen banaketa, sektorearen arabera	67
3.13 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen banaketa, sarreraren arabera	68
3.14 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen banaketa, sarreraren eta sektorearen arabera	68
3.15 grafikoa	Mugaz gaindiko langileen banaketa, profilaren arabera	68
3.16 grafikoa	Mugaz gaindiko lantokia	69
3.17 grafikoa	Mugaz gaindiko enpleguak antzintasuna, lantokiaren arabera	70
3.18 grafikoa	Jarduera-sektorea, mugaz gaindiko lantokiaren arabera	71
3.19 grafikoa	Kontratu mota, mugaz gaindiko lantokiaren arabera	73
3.20 grafikoa	Lanaldi mota, mugaz gaindiko lantokiaren arabera	73
3.21 grafikoa	Soldata ordainsariaren maila, mugaz gaindiko lantokiaren arabera	74
3.22 grafikoa	Egungo lanpostuan erabilitako hizkuntzak, mugaz gaindiko lantokiaren arabera	74
3.23 grafikoa	Mugaz gaindiko lanaren arrazoiak, lantokiaren arabera	75
3.24 grafikoa	Mugaz gaindiko enpleguaren zailtasunak eta desabantailak, lantokiaren arabera	76
3.25 grafikoa	Mugaz gaindiko enpleguarekiko asebetetzea, lantokiaren arabera	77
3.26 grafikoa	Mugaz gaindiko enpleguaren alderdi asebetegarrienak, lantokiaren arabera	77
3.27 grafikoa	Mugaz gaindiko langile-izaera aldatu nahi izatea, lantokiaren arabera	78
4.1 grafikoa	Espainiak eta Frantziak bidalitako eta jasotako langile desplazatuak	98
4.2 grafikoa	Laneko errenten gaineko presio fiskala. Espainia eta Frantziaren arteko alderaketa, 2016	105
4.3 grafikoa	Laneko errenten fiskalitatea. Alderaketa: Gipuzkoa vs. Frantzia. 2017 ...	106
5.1 grafikoa	Enplegu-zerbitzu publikoek kudeatutako lanpostuen eskaintza, sektorearen arabera	123
5.2 grafikoa	Mugaz gaindiko hizkuntza ezagutzeko eskakizuna enplegu-zerbitzu publikoek kudeatutako lanpostuetan (eskaintako lanpostu guztien ehunekoa)	124
5.3 grafikoa	Aurreko esperientzia izateko eskakizuna enplegu-zerbitzu publikoek kudeatutako lanpostuetan (esperientzia eskatzen duten lanpostu guztien ehunekoa)	124

5.4 grafikoa	Enplegu-zerbitzu publikoetan izena emandako enplegu-eskatzailleen profila	126
5.5 grafikoa	Enplegu-zerbitzu publikoetan izena emandako enplegu-eskatzailleak, sexuaren, adinaren, maila akademikoaren, aurreko lan-esperientziaren, jatorriaren eta hizkuntza-ezagutzaren arabera (eskatzaille guztien ehunekoa)	127
5.6 grafikoa	Mugaz gaindiko izaera kontuan hartzea kontratazio-prozesuetan	129
5.7 grafikoa	Datozen 3-5 urteetan mugaz gaindiko jardueretan aurrez ikusitako bilakaera	129
5.8 grafikoa	Datozen 5-10 urteetan mugaz gaindiko enpleguaren bilakaeraren aurreikuspena	130
5.9 grafikoa	Eragile ekonomikoek mugaz gaindiko jarduera duten eremuak	131
5.10 grafikoa	Enpresek eskatutako profil profesionalak	131
5.11 grafikoa	Enpresen aldetik langile-eskaria dagoen arlo profesionalak	132
5.12 grafikoa	Mugaz gaindiko langileak kontratatatzeko zailtasunak	133
5.13 grafikoa	Euroeskualdean mugaz gaindiko enplegua sustatzeko ekintza-eremuak	134
5.14 grafikoa	2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren eremu operatiboak	143
5.15 grafikoa	Lanbide-profesionalen nazioarteko errekonozimenduen eskabideak (Frantzia eta Espainia)	154

MAPEN AURKIBIDEA

3.1 mapa	Mugatik gertuko udalerrietan bizi diren fluxuen kontzentrazioa	39
3.2 mapa	Frantziako nazionalitatea duten egoiliarak Euskadin eta Nafarroan, eta Espainiako nazionalitatea duten egoiliarak Akitania Berrian, adinaren arabera.....	42
3.3 mapa	Alboko herrialdean helmuga duten mugaz gaindiko langile kopurua.....	47
3.4 mapa	Mugaz gaindiko langile kopurua, nazionalitatearen arabera.....	50
3.5 mapa	Lan-arrazoiengatik mugako herrialdeetan mugitzen den biztanleria, 2015-2017.....	54
3.6 mapa	Mugaz gaindiko langile kopuruaren bilakaera, 2012-2016.....	55
3.7 mapa	Mugaz gaindiko langileak Frantziako mugetan	56
3.8 mapa	Alboko herrialdera lanera joaten den mugaz gaindiko langile kopurua, jarduera-sektorearen arabera.....	59
4.1 mapa	Frantziaren eta Espainiaren arteko Hitzarmenaren arabera, Frantzia eta Espainiaren arteko eremu fiskalaren perimetroa	85
5.1 mapa	Mugako eremuan kokatutako enplegu-zerbitzu publikoak.....	121

1. Sarrera

1. SARRERA

1. Sarrera

Langileen zirkulazio askea da Europar Batasuna sortze printzipioetako bat. Batasuneko araudiak¹ ezartzen du langileen zirkulazio askeak berekin dakartzala honako eskubide hauek: edozein Estatu Kideetan lan-eskaintza eraginkorretara sarbidea izatekoa, bertan bizi diren egoiliarren baldintza berberetan; horretarako Estatu Kideen lurraldean askatasunez mugitzekoa, Estatu Kideetako batean bizitzekoa bertan lanpostua izateko, eta Estatu Kide baten lurraldean egotekoa, bertan enplegua izan ostean, Batzordeak berak ezarritako araudietan aurrez ikusitako baldintzetan.

Era berean, komunitateko araudiaren arabera², "mugako langile" izendapenak zera adierazten du: Estatu Kide baten lurraldean eginkizuna egiten duen, beste Estatu Kide baten lurraldean bizi den eta bertara printzipioz egunero edo gutxienez astean behin itzultzen den langile oro.

Mugako eremuak³, duten kokapenagatik, langileen zirkulazio askearen errealitatearekiko sentiberenak izaten dira; izan ere, eremu horretan bizitzeak egunerokotasun handiagoa dute, errazagoa izan daiteke edo, are gehiago, heritarrek eguneroko bizimoduan muga gurutzatzeko beharra izan dezakete, egoitzagatik, lanagatik edo aisialdirako. Esan liteke, beraz, mugako eremu batean bizitea eta lan egitea mugako lanaren kontzeptua eratzen duen elementua dela.

Testuinguru horretan, 2013. urtean AECT Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak (orduan AECT Akitania-Euskadi Euroeskualdea) egindako diagnostikoak, 2014-2020 Plan Estrategikoa definitzeko garatutako hausnarketaren testuinguruan, Euroeskualdean lankidetzarako zenbait oztopo jarri zituen agerian, esaterako, hizkuntza-oztopoak, mugaren bi aldeetan elkarren arteko ezagutza gabezia handia, erakunde mailako asimetria eta abar. Enplegu-arro komun gisa benetan ez funtzionatzea izan zen diagnostiko horrek agerian utzi zuen beste gauzetako bat.

Zehazki, eta azterketaren ondorioekin bat etorruta, Euroeskualdeak ez du funtzionatzen enplegu arro gisa, lan-mugimenduetarako oztopo administratibo handiak daude, eskualdeetako enplegu-zerbitzuen artean lotura egonkorrik ez dago eta zerga, gizarte eta lan arloko legediari buruzko informazio egokirik ez dago mugako langileen kolektiborentzat. Era berean, mugaz gaindiko enpleguaren egoerari buruz eskuragarri dagoen informazioa –eskualde batean bizi eta beste aldean lan egiten duten langileen kopurua, haien ezaugarriak, jarduerak eta abar- oso urria da. Gauza bera gertatzen da mugaren beste aldean lanpostua bilatzen dutenean pertsonak gainditu behar dituzten oztopoen inguruko ezagutzekin, eta eskualdeen arteko truke profesionalen potentzialarekin.

¹ Langileen zirkulazio askea da Batasuneko oinarrizko lau askatasunetako bat eta merkatu bakarraren zutabeetako bat; hala, Europar Batasunaren Hitzarmeneko 3. artikuluan (2. atala) jasota dator, baita Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmeneko 4, 20, 26 eta 45-48 artikuluetan ere.

² 1408/71/CE araudia

³ Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmeneko 174 artikulua aitortzen ditu mugako eskualdeek dituzten erronkak eta zehazten du Batasunak arreta berezia eskaini behar diela eskualde horiei bere lurraldeko kohesioa eta kohesio ekonomiko eta soziala indartzera bideratutako ekintzak garatzeko eta hau lortzeko.

1. Sarrera

Testuinguru horretan, 2014-2020 Plan Estrategikoak, Euroeskualdeko ezagutzaren ekonomiari lotutako 2. ardatzaren arabera, enplegu integratuko Euroeskualdeko arroaren ezarpena sustatzeko beharra ezarri zuen. Ekimen horren helburua da Euroeskualdearen populazio aktiboak gaur egun dagoena baino mugaz gaindiko enplegagarritasun-mugikortasun maila handiagoa eskuratzea. Epe luzera lortu nahi den helburua, beraz, honako hau da: Euroeskualdeko biztanleriak dituen ezaugarrien eta itxaropenen arabera, egokiak diren lan-aukerak topatzeko eremu gisa bistaratzea mugaz gaindiko lurraldea, enplegagarritasuna areagotzeko eta euroeskualdeko integrazioa ahalbidetzeko. Europa langileen barneko mugimendutik ere eraikitzen da, lan-merkatu komuna sortuz, eta euroeskualdeko eremuak izaera hori irudikatu behar du, bere eskalan.

Zentzu horretan, AECTren estrategia koherentea da, gainera, enpleguaren moduko funtsezko politika baten erronka eta helburu orokorrekin, bai hiru eskualdeen mailan, baita Europako 2014-2020 kohesio-politikarenean ere.

Hala, eta zehazki jarduera ildo horren garapenerako, Plan Estrategikoak zenbait ekintza proposatu zituen lortu nahi den helburu hori burutu ahal izateko. Horien artean, mugaz gaindiko enpleguaren egoerari buruzko Euroeskualdeko diagnostiko bat egitea eta haren potentzialtasunen azterketa bat egitea (2.4.1 ekintza), enplegu-zerbitzu publikoen arteko lankidetzak (2.4.2 ekintza), mugaz gaindiko jardunbideak sustatzea, hizkuntza mailako gaikuntza eta beste ekintza osagarri batzuk (2.4.3 ekintza).

Badirudi garrantzitsua dela Euroeskualdeak ariketa hori egitea, eskualdeek arlo horretan dituzten osagarritasun eta potentzialtasunak ezagutzeak enplegu-zerbitzu koordinatuak eskaintzeko oinarriak ezar ditzan eta, epe luzeagoan, langileen zirkulaziorako beharrezkoak diren enplegu-politikak artikulatzeko.

Helburu horrekin, "ENPLEGUA: Europa sendotzen: Akitania, Euskadi eta Nafarroaren arteko euroeskualdeko enplegu-arroaren garapena"⁴, izeneko ekimenaren bidez, Euroeskualdeko AECTk euroeskualde mailan diziplina anitzeko arazo horri heltzeko helburua hartu zuen, bai maila teorikoan, bai maila praktikoan, enpresentzat eta langile okupatu eta langabetuentzat, Euroeskualdean langileen zirkulazio askerako zeuden oztopoak aztertuz eta horiei irtenbideak eskainiz.

ENPLEGUA proiektuak gerturatze teorikoa eta Euroeskualdeko diagnostikoan egindako irtenbideen azterketa ekintza zehatzekin konbinatzen ditu, hala, bi eskualdeen arteko harremanak arintzeko, esaterako, lan-informazioa emango duen mugaz gaindiko atari bat sortzea, edo dokumentuak itzultzea, mugaz gaindiko harreman ekonomikoetarako eta lan-mugimenduetarako eta administrazio-oztopoen eragina ahalik eta gehien gutxitzeko. Proiektu horren baitan sartu zuen, beraz, AECTk mugaz gaindiko errealitateari buruzko diagnostikoa egitea (langile-fluxuen estatistika, alderdi fiskalak eta legalak, enpresa-

⁴ ENPLEGUA ekimena Eskualdeko Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) finantzatzen du, INTERREG V A Espainia-Frantzia-Andorra- 2014/2020 (POCTEFA) programaren POCTEFA 2015 proiektuen deialdiaren baitan.

1. Sarrera

sektoreen osagarritasunak, etab.), Akitania Berria-Euskadi-Nafarroan mugaz gaindiko enpleguari buruzko irtenbideetan aurrera egin ahal izateko.

Ondorioz, ikerketa hau ENPLEGUA ekimenaren parte da, eta ikuspegi panoramikoa, estatistikoa eta soziologikoa eman nahi du, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean enpleguaren mugaz gaindiko gertakariaren egoerari eta haren inplikazioei dagokionez. Zehazki, txostenak zortzi kapitulu ditu, Sarrera hau barne. 2. kapituluak Euroeskualdeko (eta hura osatzen duten hiru eskualdeetako) enpleguaren egoera orokorra azaltzen du, bai testuinguruari dagokionez, bai biztanleriaren egiturari, haren prestakuntza mailari eta hizkuntzen ezagutzari dagokionez, eta alderdi espezifikoago batzuk ere aztertzen ditu, hala nola enplegu- eta langabezia-datuak, soldata mailak eta enpresa-egituraren eta jarduera ekonomikoaren ezaugarriak. Datuen eskuragarritasunaren arabera, informazioa eskualde mailan soilik zehazten da, edo ahal denean, azpieskualde mailan, mugatik gertueneko eremuetan arreta jarrita (Pirinio Atlantikoak, Gipuzkoa, Nafarroako Pirinioetako eremua).

3. kapituluak, funtsean, Euroeskualdeko mugaz gaindiko enpleguaren azterketa jasotzen du. Horretarako, lehenik eta behin mugaz gaindiko egoitza arloko interpenetrazioa aztertzen da, muga gurutzatzen duten lan-mugimenduetan garrantzi handia duen faktorea baita, eta horren kuantifikazioa iturri estatistiko ugariaren arabera egiten da. Horren ondoren, kapituluak azterketaren helburu nagusia garatzen du, hau da, mugaz gaindiko enpleguaren kuantifikazioa eta ezaugarriak (jarduerak, antzintasuna eta abar); hori ere informazio-iturri ugari hartuta egin da, eta horien artean, besteak beste, mugaz gaindiko langileen lagin bati inkesta espezifiko egin zaio. Kapituluaren amaieran, mugaz gaindiko enpleguak Europako beste muga batzuetan duen bolumena alderatzen da.

4. kapituluak mugaz gaindiko enpleguari eragiten dion araudi mailako testuingurua aztertzen da, eta modu erregularrean muga gurutzatzen duten langileentzat eragiten dituen zailtasunak, bai zerga mailan, bai babes sozial eta lan-eskubideen arloan. Horrekin lotuta, Bidasoaren bi aldeetako fiskalitatearen eta kostu sozialen alderaketa egiten da, eta egoitza, zerga eta lan arloko eragile instituzionalen zerrenda bat ere badator. Kapituluak amaitzeko, fluxuak ahalbidetzeko etorkizunean hausnarketa eragin beharko luketen mugako langileen babes sozialari eta fiskalitateari dagozkion gai batzuk aipatzen dira.

5. kapituluaren asmoa etorkizunera begiratzea da; asmo horretan, Euroeskualdeko lan-merkatuen artean osagarritasunak aztertzen dira, zentzu zabalean; izan ere, elementu horiek lan-fluxuak areagotzeko eta Euroeskualdeko integrazioa areagotzeko oinarri izan daitezke. Horretarako, Euroeskualdean enpleguaren bilakaera-perspektibak islatzen dira (eskualde mailan egindako azterketa ugari oinarri hartuta), baita enplegu-eskaintza eta -eskariaren azterketa ere, enplegu-zerbitzu publikoetako datuetatik abiatuta. Jarraian, mugaz gaindiko enpleguari buruz Euroeskualdeko enpresa, kluster eta enpresa-elkarteen balorazioa aztertzen da (horien lagin bati zuzendutako inkesta espezifiko aintzat hartuta, batez ere Euroeskualdeko eremuan aktiboak diren erakundeei). Hori guztia osatzeko, hiru eskualde bakoitzeko Espezializazio Adimentsuaren Estrategien (RIS3), dagozkien enplegu-

1. Sarrera

planen eta mugako langileei eragiten dieten hezkuntza-sistemen eta titulazioen homologazioen alderaketa-deskribapen bat egiten da.

6. kapituluak azken urteetan enpleguaren, prestakuntzaren, lehiakortasunaren eta sektore-lankidetzaren arloan Euroeskualdean garatzen ari diren mugaz gaindiko ekimenei errepasoa egiten die, horiek guztiak Euroeskualdeko eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzaz sustatzeko eta, ondorioz, mugaz gaindiko enplegua sustatzeko egiten dira. Bestalde, 7. kapituluan Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan mugaz gaindiko lan-mugimenduak ahalbidetzeko aplikatutako jardunbide egoki multzoari errepasoa ematen zaio; horiek erreferentzia izan daitezke Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen kasuan. Azkenik, 8. kapituluak txostenaren laburpen motza jasotzen du, ondorio batzuk ateratzen ditu eta mugaz gaindiko langileen mugikortasuna ahalbidetzen eta mugaz gaindiko harreman ekonomikoak sustatzen lagun dezaketen gomendio batzuk zehazten ditu.

Aipatu beharrekoa da ENPLEGUA ekimena (eta ondorioz, azterketa hau), Eskualdeko Garapenerako Europako Funtsak (EGEF), %65-ean diruz lagunduta dago, Interreg V-A España-Francia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren bitartez. POCTEFAren helburua Espainia-Frantzai-Andorraren arteko muga inguruko lurraldeen arteko integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da. Laguntza honek mugaz gaindiko jarduera ekonomiko, jarduera sozial eta ingurumen jardueren garapenean jartzen du arreta, lurraldeko garapen jasangarri baten aldeko talde-estrategia baten bidez.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2. EUROESKUALDEKO ENPLEGUAREN TESTUINGURU OROKORRA

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2.1. Biztanleriaren egitura

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen populazioa, 2016 amaieran, 8,7 milioi biztanlekoa zen (EB-28ko guztizkoaren % 1,7); hau da, 2010 urtearekiko % 2,8ko igoera izan da, aldi horretan batez beste urteko % +0,5eko igoerarekin. Eskualdeka, Akitania Berriak Hegoaldeko eskualdeetakoa baino bilakaera demografiko positiboagoa izan du, Euroeskualdean bizi diren biztanleen % 68 metatzen du, eta jarraian Euskadik biltzen du biztanleen % 25. Biztanleriaren gainerako % 7a, aldiz, Nafarroan bizi da.

Mugaz gaindiko eremuari edo mugatik gertueneko perimetroari begiratuz gero⁵, biztanleriaren bilakaera aztertuta ikus dezakegu bai Gipuzkoak, bai Pirinio Atlantikoek populazioaren igoera arinak izan dituztela (% +0,3 eta % +0,6 urtean, batez beste), aldiz, mugatik gertuen dauden Nafarroako eremuek/eskualdeek biztanleria galdu dute (% -0,3 eta % -0,2).

Euroeskualdeak 101.687 km²-ko azalera du eta Akitania Berria da eskualde zabalena, hari dagokio Euroeskualdeko lurraldearen % 83, aldiz, % 10 Nafarroakoa da, eta gainerako % 7a, Euskadikoa. Bi datuak gurutzatuta (biztanleria eta azalera), populazio-dentsitatearen adierazlea lor daiteke: Euroeskualdearen kasuan 2016an km²-ko 86,1 biztanlekoa zen. Datu hori, dena den, nabarmen aldatzen da zer eskualde aipatzen dugun kontuan hartuta. Hala, Euskadiko biztanle-dentsitatea 300 bizt./km²-koa den bitartean, Akitania Berrikoa eta Nafarroakoa askoz ere populazio-dentsitate txikiagoa da, zehazki, 71 eta 62 biztanle/km²-koa; eta horrek agerian uzten du Euroeskualdean biztanleriaren bi banaketa-eredu daudela.

2.1 koadroa Populazioa eta populazio-dentsitatea

	Populazioa, guztira 2010	Populazioa, guztira 2016	Batez besteko aldakuntza metatua 2016-2010	Biztanleriaren dentsitatea (Bizt./Km2)	Proiekzio demografikoak
▪ Akitania Berria	5.708.497	5.943.096	+0,7%	70,7	+0,6 (2016-2040)
▪ Euskadi	2.169.038	2.171.886	0,0%	300,2	-3,9% (2016-2026)
▪ Nafarroa	636.924	640.647	+0,1%	61,7	+0,1% (2016-2022)
ABEN Euroeskualdea	8.514.459	8.755.629	+0,5%	86,1	--
<u>Mugaz gaindiko eremua</u>					
▪ Gipuzkoa	700.314	710.699	+0,3%	359,3	-0,5% (2016-2026)
▪ Pirinio Atlantikoak	650.356	673.788	+0,6%	88,1	+0,6% (2016-2040)
▪ Nafarroa Atlantikoa	57.067	56.192	-0,3%	--	--
▪ Nafarroako Pirinioak	15.142	14.963	-0,2%	--	--

Iturria: INSEE, Eustat eta Nastat, 2016.

⁵ Ikerketa honen helburuetarako, eremu hori izango da Euroeskualdea osatzen duten eskualdeen artean mugatik gertuen dagoen eremua, eta egin beharreko azterketaren egokitasunaren eta estatistika-datuaren eskuragarritasunaren arabera, bi hurbilketa maila bereiziko dira: NUTS 3 (Gipuzkoa, Pirinio Atlantikoak, Nafarroa Atlantikoa eta Nafarroako Pirinioa) eta Udal maila (Irun, Hondarribia, Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Donostia, Hendaia, Urruña, Biriatu, Donibane Lohitzune, Ainhua, Bortzirak [Arantzeta, Igantzi, Lesaka, Etxalar eta Bera], Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi).

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

Mugatik gertuko perimetroan, populazioaren dentsitatea handiagoa da. Zehazki, Gipuzkoak km²-ko 359,3 biztanleko populazio-dentsitatea du (Euskadikoa baino % 21 handiagoa), eta Pirinio Atlantikoeak, 88,1 biztanlekoa (Akitania Berriko batez bestekoa baino % 25 handiagoa).

Estatistika-institutu ofizialek⁶ egindako proiektzio demografikoek ikuspegi desberdina eskaintzen dute eskualde bakoitzerako. Hala, Akitania Berriak ditu emaitza onenak, populazioaren bilakaera positiboarekin (% +0,57 2040an). Nafarroarako egindako proiektzioak populazioaren igoera arina ezartzen du (% +0,13); aldiz, Euskadira proiektzioak negatiboak dira (% -3,9). Gertuko perimetroan, Pirinio Atlantikoeak eskualdekoaren antzeko etorkizuneko hazkunde-tasa dute (% +0,55); aldiz, Gipuzkoak Euskadiko proiektzioak hobetzen ditu, nahiz eta ehuneko negatiboetan mantendu (% -0,5).

Azterketa Euroeskualdeko egitura demografikoan oinarrituta, zahartutako eskualdeen berezko egitura du, tasa oso murriztuetan hazkunde begetatiboarekin, eta 45 eta 65 urte arteko biztanleriaren kolektiboak gero eta gehiago handituz. Horrekin lotuta, Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeetako populazio-egitura antzekoa den arren, Akitania Berriak populazio-piramide orekatuagoa du, biztanleria gazteagoarekin. Euskadik, aldiz, populazio-piramide erregresiboa du, zabalagoa goragoko adin taldeetan oinarrikoetan baino.

2.2 koadroa Adierazle demografiko nagusiak. 2016. urtea

(%)

	65 urteko eta hortik gorako biztanleria (% guztizkoare kiko)	Gaztetasun- indizea (<15 / >64 urteko pop.)	Zahartze- indizea (>64 / < 15 urteko pop.)	Populazio aktiboa ordezkatz- indizea (20- 24 / 60-64 urteko pop.)	Populazio aktiboaren gaztetasun- indizea (15- 39 / 40-64 urteko pop.)
▪ Akitania Berria	22,5	72,9	137,2	74,8	101,1
▪ Euskadi	22,6	58,4	171,4	63,6	87,1
▪ Nafarroa	19,2	81,8	122,2	86,2	104,9
ABEN Euroeskualdea	22,3	69,8	143,3	72,8	97,9
<u>Mugaz gaindiko eremua</u>					
▪ Gipuzkoa	22,7	61,4	162,7	67,5	89,0
▪ Pirinio Atlantikoeak	22,5	70,8	141,3	72,3	99,3
▪ Nafarroa Atlantikoa	20,8	75,0	133,4	68,8	72,3
▪ Nafarroako Pirinioak	24,1	53,9	185,6	56,5	63,3

Iturria: INSEE, Eustat, Nastat eta Nafarroako Foru Gobernu Eskubide Sozialen Saila, 2016.

Adierazle demografikoek xehetasun handiagoz erakusten dute Euroeskualdearen errealitate hori. Zehazki, Euroeskualdearen gaztetasun-indizea (15 urte baino gutxiagoko populazioaren eta 65 urte eta gehiagoko populazioaren arteko zatidura gisa neurtutakoa) % 70ekoa da. Edonola ere, eskualdeka, Nafarroa nabarmentzen da Euroeskualdeko batez

⁶ INSEE, Eustat eta Nastat.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

bestekoarekiko gaztetasun-indize handienarekin (% 82), aldiz, Euskadik ditu Euroeskualdeko balio okerrenak (% 58), Nafarroako Pirinioekin batera (% 54). Zahartze-indizeak, logikoa denez, emaitza bera ematen du, baina alderantzizko ikuspegiarekin. Indize horrek populazio guztiarekiko 65 urte baino gehiagoko pertsonen proportzioa neurtzen du, eta % 143koa da; zahartze-tasa handieneko eremu geografikoak Nafarroako Pirinioak (% 186) eta Euskadi (% 171) dira.

Bestalde, populazio aktiboaren ordezkatzetazari begiratuz gero, Euroeskualdeko emaitzak, pixka bat hobetzen diren arren, negatiboak izaten jarraitzen dute, eta lan-merkatutik ateratzear dauden kolektiboarekiko (60-64 urte) etorkizuneko aktibo berrien kolektiboa (20-24 urtekoak) % 73 inguru dira. Kasu honetan ere Nafarroak Euroeskualdeko batez bestekoa (% 86) gainditzen du; aldiz, Euskadik hiru eskualdeetako batez bestekoa baino ordezkatzetasa baxuagoa du. Alderdi oso garrantzitsua da hori, etorkizuneko politikak eta estrategiak ezartzeko beharra indartzen du, datozen urteetan ordezkatzearen egoera landu ahal izateko; izan ere, gaur egun lanean ari diren eta laster adinagatik lan egiteari utziko dioten pertsonen bolumena handia izango da.

Populazio-egitura bera mantentzen da gertuko eremuetan, eta horrekin batera, eskualde bakoitzaren berezko ezaugarriak. Gipuzkoak du mugaz gaindiko eremuko populazio zahartuena, nahiz eta Nafarroako bi eskualdeek ere (Ipar-mendebaldea eta Nafarroako Pirinioak) emaitza negatiboak dituzten, Nafarroako Foru Erkidego osoko batez bestekotik oso urrun.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2.1 grafikoa ABEN Euroeskualdearen populazio-egitura, 2016 (% populazio osoarekiko)



Iturria: INSEE, Eustat, Nastat, 2016.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2.2. Populazioaren prestakuntza maila

Euroeskualdeko populazioaren prestakuntza maila altua da eta Europako batez bestekoa gainditzen du. Zehazki, 2016an, Akitania Berriko 25 eta 64 urte arteko populazioaren % 31k gutxienez hirugarren mailako ikasketak ditu, Euskadin, % 49k, eta Nafarroan, % 44,5ek. Aldiz, EB-28an batez bestekoa % 31koa da. Azken urteetan, hiru eskualdeek, oro har, hobekuntza handia izan dute arlo horretan.

Biztanleria gazteenari begiratuz gero, Euroeskualdean 30 eta 34 urte arteko goi mailako tituludunen proportzioa % 50 ingurukoa da, Euskadiren kasua nabamentzen da, 30 eta 34 urte arteko biztanleen % 57k baititu, gutxienez, hirugarren mailako ikasketak. Nafarroaren kasuan proportzio hori % 54 ingurukoa da eta Akitania Berriak % 39ko tasa du. Bai Akitania Berrian, bai Euskadin, 2012ko kopuruekiko okertze arina ikus daiteke; aldiz, Nafarroan hobetu egin dira. Edonola ere, Euroeskualdeko eskualde guztiak Europako batez bestekoan (% 39) edo haren gainetik daude.

Hala ere, tarteko kualifikazioen kasuan, eta hezkuntza-sistemen arteko ezberdintasunak direla eta (ikus 5.6. atala), Euroeskualdea osatzen duten eskualdeen errealitatea desberdina da. Akitania Berriak Europako batez bestekoa pixka bat gainditzen du (25 eta 64 urte arteko populazioaren % 49k Kualifikazioen Europako Markoko 3. eta/edo 4. mailako ikasketak egin ditu⁷, aldiz, EB28 osoa hartuta, % 46k). Euskadik eta Nafarroak kualifikazio maila horietan pertsonen defizita dute (populazioaren % 22 eta % 23).

2.3 koadroa Populazioaren prestakuntza maila, 2016

	(%)		
	Erdi mailako ikasketak egin dituzten 25-64 urte arteko biztanleak*	Gutxienez hirugarren mailako ikasketak egin dituzten 25-64 urte arteko biztanleak**	Gutxienez hirugarren mailako ikasketak egin dituzten 30-34 urte arteko biztanleak**
▪ Akitania Berria	49,1	30,8	38,9
▪ Euskadi	21,9	48,6	56,9
▪ Nafarroa	23,4	44,5	54,3

* Kualifikazioen Europako Markoko (CINE) 3. eta 4. hezkuntza mailak

** Kualifikazioen Europako Markoko (CINE) 5., 6., 7. eta 8. hezkuntza mailak

Iturria: Eurostat, 2016.

Ikasketa-sistemen antolaketa-arazoa da

Bestalde, bestelako alderdi batzuk ere ezin dira alboratu, hala nola eskola-uzte goiztiarra edo ikasketarik egiten ari ez den eta lanik egiten ez duen gazteen kolektiboa ("ni-ni" deitutakoak), Euroeskualdean errealitate nahiko murrizak badira ere, eragin zuzena izan dezakete epe ertain-luzean Euroeskualdeko lan-merkatuan.

⁷ Goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak eta goi mailakoak ez diren bigarren hezkuntza ondorengoak (Kualifikazioen Europako Markoko 3. eta 4. mailak).

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

Horrekin lotuta, Euroeskualdeko eskola-uztearen tasa oso maila txikietan dago, zehazki % 9 inguruan; Akitania nabarmentzen da⁸ % 6ko tasarekin, eta jarraian, Euskadi, % 8ko tasarekin eta Nafarroa, % 13koarekin. Poitou-Charentes eskualdeak % 13,5eko balioa du (ez dago daturik Limousinerako). Aipagarria da azken urteetan Akitania Berriak eta Euskadik emaitzak nabarmen hobetu dituzten bitartean, Nafarroak pixka bat okerragoak izan dituela.

“Ni-ni” populazioari dagokionez (lanik egiten ez duen eta ikasten ari ez den 18 eta 24 urte arteko populazioa), Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeetan antzeko errealitateak daude; Euskadik ditu emaitza onenak (% 10); jarraian, Akitaniak (% 13), eta Nafarroak (% 15). Poitou-Charentes eskualdeak % 20ko balioa du (ez dago daturik Limousinerako). Eskola-uzte tasarekin gertatzen den moduan, Akitania Berriak eta Euskadik emaitzak hobetu dituzte azken lau urteetan “ni-ni” populazioari dagokionez, aldiz, Nafarroako datuak okertu egin dira.

2.4 koadroa Eskola-uztea eta “ni-ni” populazioa, 2016.

	Eskola-uzte goiztiarreko tasa	Lanik egiten ez duen eta ikasten ari ez den 18-24 urteko populazioa (“nini”)
▪ Akitania Berria*	5,7 (AQ), 13,5 (PCH)	13,3 (AQ), 19,9 (PCH)
▪ Euskadi	7,9	10,4
▪ Nafarroa	13,4	15,2

* AQ: Akitania eta PCH: Poitou-Charentes

Iturria: Eurostat, 2016.

2.3. Hizkuntzak ezagutzea eta ikastea

Hizkuntzak ezagutzea funtsezko alderdia da mugaz gaindiko mugikortasuna oro har, eta laneko mugikortasuna, bereziki, aztertzean. Euroeskualdeko hizkuntza ofizialak (euskara, gaztelania eta frantsesa) ezagutzea da mugaz gaindiko benetako enplegu-arro bat konfiguratzekeko elementu gakoetako bat.

Testuinguru horretan, Frantzia gaztelaniaren ezagutzari dagokionez gaur egun eskuragarri dauden datu ofizialak urriak dira. Hala ere, eta Europako Batzordeak argitaratutako azken datuen arabera⁹, 15 urte baino gehiagoko Frantziako biztanleen % 1ek gaztelania ama-hizkuntza zuen 2012an. Gainera, biztanleriaren % 13k atzeriko lehen edo bigarren hizkuntza gisa hitz egiten zuen. Ondorioz, 2012an, Frantziako biztanleriaren % 14k gaztelaniaz hitz egiten zuen.

Akitania Berriari dagokionez, eta lehen aipatutako datu ofizialen urritasuna kontuan hartuta, INSEEk argitaratutako azken datuen arabera (2002 urtea), eskualde honetan bizi

⁸ Akitaniako eskualdeari soilik dagokio datu hori.

⁹ “Europako herriarrak eta haien hizkuntzak”, 386 Eurobarometro berezia, 2012ko martxoa.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

diren 18 urte baino gehiagoko populazioaren % 5,4k zioen gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko gai zela¹⁰.

2.5 koadroa Gaztelaniaren ezagutza Akitania Berrian

	(%, populazioarekiko)
Gaztelania	
Frantzia	
• Ama-hizkuntza	1
• Atzerriko lehen edo bigarren hizkuntza	14
Akitania	
• Gaztelaniaz hitz egiten eta idazten du	5,4

Iturria: Europako Batzordearen Eurobarometroa, 2012 eta INSEE, 2002.

Frantsesaren ezagutzari dagokionez, eta eskuragarri dauden azken datuen arabera¹¹, 2016an euskal populazioaren % 11k hitz egiten zuela zioen. Gipuzkoaren kasuan, frantsesaren ezagutza-tasa populazioaren % 17 artekoa da.

Nafarroaren kasuan¹², populazioaren % 21ek dio frantsesez hitz egiteko eta idazteko gai dela. Hala ere, paradoxikoki, Frantziatik gertuen dauden eskualdeetan, frantses-ezagutzak dituzten biztanleen ehunekoa murritu egiten da, pixka bat Nafarroako Pirinioetan (frantsesaren ezagutza % 19koa da), eta zerbait gehiago Nafarroa Atlantikoaren kasuan (% 12).

2.6 koadroa Frantsesaren ezagutza Euskadin eta Nafarroan

	(% , populazioarekiko)		
	Frantsesa		
Euskadi	Euskadi Guztira	Gipuzkoa	
• Hitz egin eta idatzi egiten du	11	17	
• Hitz egin bakarrik egiten du	5	10	
• Irakurri bakarrik egiten du	4	3	
• Ez hitz egin, ez idatzi, ez irakurri	80	70	
Nafarroa	Nafarroa Guztira	Nafarroa Atlantikoa	Nafarroako Pirinioak
• Frantses-ezagutzak dituen biztanleria (zertxobait, dezente)	21,1	12,2	19,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea, 2017 / Gizartearen eta Bizi Baldintzen Inkesta, Nastat, 2016.

Euskararen ezagutzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren, Euskarabidea-Nafarroako Foru Gobernuaren Euskararen Nafarroako Institutuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren (*Office Public de la Langue Basque*)

¹⁰ INSEEk 2002an argitaratutako "Lenguas parlées en Aquitaine: La pratique héritée" txostenaren arabera.

¹¹ Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2017an argitaratutako datuak.

¹² 2016ko Gizartearen eta Bizi Baldintzen Inkesta, Nafarroako Foru Gobernuak

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

artean egindako VI. Inkesta Soziolinguistikokoaren emaitzen arabera, Euskadiko biztanleriaren % 34 euskal hiztuna da, aldiz, beste % 19 euskal hiztun pasiboa da, hau da, euskara ulertzen du, baina ez du hitz egiten. Emaitza horiek hobetu egiten dira Gipuzkoaren kasuan, bertan, Gipuzkoako biztanleen % 51k euskal hiztuna dela dio, eta beste % 17 euskal hiztun pasiboa da.

Akitania Berriaren kasuan, eta zehazki Ipar Euskal Herrian (*Iparraldean*), biztanleriaren % 21 euskalduna da, eta beste % 9k ulertzen duela, baina ez duela hitz egiten dio. Ipar Euskal Herriaren barruan, Nafarroa Beherea eta Zuberoa nabarmen diren % 50 inguruko euskal hiztunen tasarekin, eta hori beste euskal hiztun pasiboak diren biztanleen % 14 gehitu behar zaizkio.

Bestalde, Nafarroa osoan euskararen ezagutza murriztagoa da, biztanleriaren % 13 da euskal hiztuna, eta beste % 10ek dio ulertzen duela baina ez duela hitz egiten (euskal hiztun pasiboak). Hala ere, Nafarroako eremu euskaldunean¹³ euskal hiztunen ehunekoa % 61era artekoa da eta beste % 13 euskal hiztun pasiboak dira.

2.7 koadroa Euskararen ezagutza Euroeskualdean, 2016

(%, populazioarekiko)

	Euskadi		Nafarroa		Akitania Berria		
	Guztira	Gipuzkoa	Guztira	Eremu euskalduna	Ipar Euskal Herria	BAB ¹⁴	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
• Euskal hiztuna	33,9	50,6	12,9	61,1	20,5	8,4	49,5
• Euskal hiztun pasiboa	19,1	17,3	10,3	13,4	9,3	5,7	13,7
• Ez daki	47,0	32,1	76,7	25,5	70,1	85,8	36,7

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Office Public de la Langue Basque, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza eta Euskarabidea-Nafarroako Gobernua), 2017

Bestalde, hizkuntzan ikaskuntzari dagokionez, eskuragarri dauden datuek erakusten dute gaztelaniaren ikaskuntza ohikoagoa dela Akitaniako eskola-umeen artean Euskadin eta Nafarroan frantsesaren ikaskuntza baino.

Egoera horren arrazoi nagusietako bat da Euroeskualdean dauden bi hezkuntza-sistemen artean atzerriko hizkuntzak irakasteari dagokionez aldeak daudela. Euskadiko eta

¹³ Nafarroako Foru Komunitatearen 1986ko abenduaren 15eko 18/1986 Euskararen Foru Legearen arabera, eremu euskalduna da euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak diren hura, eta herritarrek eskubidea dute administrazio publikoekin dituzten harremanetan bi hizkuntzak erabiltzeko eta aukeratutako hizkuntza ofizialean arreta jasotzeko. Nafarroako eremu euskalduna honako udalerri hauek osatzen dute: Abaurregaina, Aburrepea, Altsasu, Anue, Araitx, Arakil, Arano, Arantza, Arbizu, Areso, Aria, Arike, Arrazu, Atetz, Auritz, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erroibar, Esteribar, Etxalar, Etxarri Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garalda, Goizueta, Hiriberri, Igantzi, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Ituren, Iturmendi, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leiza, Lekunberri, Lesaka, Luzaide, Oiz, Olazti, Orbaizeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Sunbilla, Uharte Arakil, Ultzama, Urdazubi, Urdiaín, Urroz, Ziordia, Zubieta eta Zugarramurdi.

¹⁴ Agglomération Côte Basque - Adour (Ilehen, Baiona-Angelu-Biarritz)

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

Nafarroako hezkuntza-sistemetan atzeriko lehen hizkuntzaren ikasgaia aukeratzea nahitaezkoa da eta bigarren atzeriko hizkuntza, berriz, hautazkoa. Aldiz, Frantziako hezkuntza-sisteman, biak dira nahitaezkoak.

Desberdintasun garrantzitsu hori kontuan hartuta, atzeriko hizkuntza gisa gaztelania ikasten duten 11 eta 18 urte arteko Akitania Berriko ikasleen (*collège* eta *lycée* mailak) ehunekoa % 66koa da 2017ko ikasturtean erregistratutako matrikulazio guztiekiko; dena den, % 3,5ek atzeriko lehen hizkuntza gisa (LV1) du eta % 62,5ek atzeriko bigarren hizkuntza gisa (LV2).

Pirinio Atlantikoko Departamentuaren kasuan, eta bigarren hezkuntzako (*collèges*) matrikulazioari dagozkion datuen arabera, ikasleen % 73k ikasten du gaztelania atzeriko hizkuntza gisa. Zehazki, % 16k atzeriko lehen hizkuntza gisa (LV1) eta % 58k atzeriko bigarren hizkuntza gisa (LV2).

2.8 koadroa Gaztelaniaz ikasten duten Akitania Berriko matrikulatutako ikasleak

(%)

	Collège		Lycée		Guztira		
	LV1	LV2	LV1	LV2	LV1	LV2	Total
Akitania Berria	2,8	82,8	4,5	83,4	3,5	62,5	66,0
Pirinio Atlantikoak	15,6	57,9	--	--	--	--	--

LV: Atzeriko hizkuntza bizia 1 eta 2.

Iturria: Frantziako Hezkuntza Ministerio Nazionalea. 2017-2018 ikasturtea

Euroeskualdearen Hegoaldean, egoera oso bestelakoa da. Hala, 2016-2017 ikasturtean 12 eta 18 urte arteko ikasleen % 16k (bigarren hezkuntza eta batxilergoa) frantsesa ikasi du atzeriko hizkuntza gisa (% 3k nahitaezko ikasgai gisa eta % 13k hautazko ikasgai gisa). Gipuzkoan ehuneko horiek pixka bat altuagoak dira; matrikulatutako ikasleen % 19 arte (% 1ek frantsesa aukeratzen du nahitaezko ikasgai gisa eta % 18k hautazko ikasgai gisa).

Bestalde, 2016-2017 ikasturtean frantsesa ikasi duten Nafarroako 12 eta 18 urte arteko ikasleak matrikulazioen % 34 dira, baina % 1ek soilik egiten du nahitaezko ikasgai gisa.

2.9 koadroa Frantsesa ikasten duten Euskadiko eta Nafarroako matrikulatutako ikasleak

(%)

	Bigarren hezkuntza		Batxilergoa		Guztira		
	Atzeriko hizkuntza gisa	Hautazko ikasgai gisa	Atzeriko hizkuntza gisa	Hautazko ikasgai gisa	Atzeriko hizkuntza gisa	Hautazko ikasgai gisa	Guztira
Euskadi	3,3	16,3	0,9	6,1	2,7	13,5	16,2
Gipuzkoa	0,9	22,3	0,8	7,4	0,9	18,2	19,1
Nafarroa	1,5	38,3	0,8	16,3	1,3	32,8%	34,1

Iturria: Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Foru Gobernuako Hezkuntza Sailak 2016-2017 ikasturtea.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

Azkenik, Euroeskualdeko ikastetxeetan komunikazio-hizkuntza gisa euskara erabiltzeari dagokionez, Euskadin, 2016-2017 ikasturtean, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleen % 96 eredu elebidunean (B eredu) edo euskarazko eredu (D eredu) matrikulatuta zegoen, eta % 98koa da ehuneko hori Gipuzkoaren kasuan. Nafarroan, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleen matrikulazioen % 27 dira euskarazko ereduak.

Ipar Euskal Herrian (Iparralde), Office Public de la Langue Basque¹⁵ erakundearen datuen arabera, 2017-2018 ikasturtean, haur hezkuntzako mailetan (*maternelle*) eta lehen hezkuntzakoetan (*élémentaire*) matrikulatutako ikasleen % 39 zegoen eredu elebidunean eta euskarazko murgiltze eredu matrikulatuta.

2.10 koadroa Euskara duten eredu matrikulatutako ikasleak

(%, matrikulazio guztiekiko)

	B eredu edo elebiduna	D eredu edo euskara hutsekoa	B eta D ereduak, guztira
Ipar Euskal Herria*	-	-	39,4
Euskadi	20,3	75,2	95,5
Gipuzkoa	6,9	90,7	97,6
Nafarroa**	0,3	27,1	27,4

* 2017-2018 ikasturtea

** 2015-2016 ikasturtea

Iturria: Office Public de la Langue Basque, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Nafarroako Foru Gobernu Hezkuntza Saila.

¹⁵ Sare publikoan, ikastetxe katolikoetan eta Seaska sarean (Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa) matrikulatutako ikasleak.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2.4. Enplegua eta langabezia

Orain gutxiko krisi ekonomikoak zuzeneko eragina izan du Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeetako lan-merkatuaren egoeran, langabezian dagoen populazioa nabarmen ugartuta. Hala ere, egoera hori hobetu egin da azken aldian, eta neurri batean, krisiaren aurreko emaitzak berreskuratu dira.

Euroeskualdean langabezian dauden pertsonen kolektiboa 2016 amaieran 685.188 lagunekoa zen. Zehazki, eta 2010 eta 2011n maximoa lortu ostean, 2016 amaieran langabezia-tasa % 9,8koa zen Akitania Berrian; % 12,5koa, Nafarroan, eta % 12,6koa, beriz, Euskadin. Mugatik gertueneko eremuan, egoera pixka bat hobea da Gipuzkoarako (% 11) eta Nafarroako mugako eremuetarako (% 7,9 Ipar-mendebaldeko eremuan eta % 9,6 Pirinioetan). Aldiz, Pirinio Atlantikoen kasuan, egoera okerragoa da Akitania Berria multzoarekiko, baina mugaren inguruko antzeko mailak mantentzen dira, zehazki, % 11,2koak.

Sexuaren arabera, emakumeen kolektiboa da eragin gehien izan duena, bai Euskadin, bai Nafarroan gizonezkoena baino langabezia-tasa handiagoa du (ehuneko 2-3 puntuko aldea gizonen eta emakumeen artean), aldiz, Akitania Berrian ez da alde nabarmenik bi sexuen artean.

Krisiaren eraginak kolektibo guztiei eragin badie ere, gazteak, adinekoak, emakumeak eta ikasketarik gabekoak dira kalte gehien jasan dutenak; gainera, Euroeskualdeko iparraldeko eskualdeen eta hegoaldekoen artean alde nabarmenak daude. Zehazki, Euroeskualdean, eta azken bi urteetan ikusitako berreskuratzea alde batera utzita, 16-24 urte arteko gazteen artean langabezia-tasa, 2016 amaieran, tarte hauetan zegoen: Akitania Berrian % 25,1ekoa zen; Euskadin, % 34,7koa, eta Nafarroa Euskadikoaren antzeko egoeran zegoen (% 34,1).

Gainera, krisi ekonomikoak zenbait urtetan zehar irautearen eraginez, iraupen luzeko langabetuen kolektiboa areagotu egin da, Euroeskualdeko langabezia osoaren % 40 inguru izatera iritsi da.

Langabezia-tasarekin batera, Euroeskualdeko lan-merkatuaren jarduera maila eta egoera ezagutzeko aukera ematen duen beste adierazle garrantzitsuetako bat jarduera-tasa da; hori, hain zuzen ere, ekonomikoki aktiboa den populazioaren (okupatua dagoena eta langabetua) eta lan egiteko adinean dagoen populazioaren arteko zatidura gisa kalkulatzen da. Zehazki, 2016an, Euroeskualdean jarduera-tasa Euskadiko % 75,6koaren eta Akitania Berriko % 72,9koaren artean zegoen. Nafarroak Euskadikoaren antzeko emaitzak zituen, % 74,9koak, hain zuzen ere. Sexuaren arabera, aldeak handiagoak dira Euskadin eta Nafarroan (ehuneko 9 puntu gutxi gorabehera bi kasuetan) Akitania Berrian baino (ehuneko 5 puntu).

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2.11 koadroa Euroeskualdeko enplegua eta langabezia

	Akitania Berria*		Euskadi		Nafarroa		
	Guztira	Pirinio Atlantikoak	Guztira	Gipuzkoa*	Guztira	Nafarroa Atlantikoa	Nafarroako Pirinioak
Jarduera-tasa (16-64 urte)	72,3	73,5	75,6	--	74,9	--	--
▪ Gizonezkoak	75,9	76,7	80,2	--	79,0	--	--
▪ Emakumezkoak	70,8	71,0	71,2	--	70,7	--	--
Enplegu-tasa (16-64 urte)	63,7	65,1	66,1	--	65,6	--	--
▪ Gizonezkoak	66,5	68,4	70,4	--	70,4	--	--
▪ Emakumezkoak	60,9	61,8	61,8	--	60,5	--	--
Langabezia-tasa (16 urte eta gehiago)	9,8	11,2	12,6	11,0	12,5	7,9	9,6
▪ Gizonezkoak	9,8	10,1	12,1	10,1	10,9	6,6	7,5
▪ Emakumezkoak	9,8	12,4	13,1	11,9	14,3	9,9	12,4
Gazteen langabezia-tasa (16-24 urte)	23,3	25,1	34,7	--	34,1	--	--
▪ Gizonezkoak	24,7	24,5	34,8	--	33,3	--	--
▪ Emakumezkoak	22,8	27,6	34,3	--	35,3	--	--
Iraupen luze langabezia (guztizko langabeziarekiko)	40,5	--	44,3	--	39,3	--	--
▪ Gizonezkoak	--	--	45,6	--	39,5	--	--
▪ Emakumezkoak	--	--	43,1	--	40,4	--	--

* Eskuragarri dauden datuak Akitaniari dagozkie

** Gipuzkoa, BAI eta BJA inkestek emandako informazioaren arabera datuak (Eustat)

Iturria: INSEE (2014), Direccte Nueva Aquitania(2015) , INE (BAI, 2016), Eustat (BJA, 2016)

2.12 koadroa Erregistratutako langabezia.

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa		
	Guztira	Pirinio Atlantikoak	Guztira	Gipuzkoa	Guztira	Nafarroa Atlantikoa	Nafarroako Pirinioak
Erregistratutako langabetuen populazioa (2016ko abendua)	508.970	52.840	136.173	36.965	40.045	2.416	617
▪ Gizonezkoak	46,6	46,3	45,8	44,4	45,0	44,3	51,2
▪ Emakumezkoak	53,4	53,7	54,2	55,6	55,0	55,7	48,8
▪ 25 urte baino gutxiago	13,8	12,7	7,6	6,3	9,3	--	--
▪ 25 urte eta gehiago	86,2	87,3	92,4	93,7	90,7	--	--

Iturriak:

- Pirinio Atlantikoak: Pôle Emploi, 2017ko otsaila (A, B, C kategoriak)
- Akitania Berria: Pôle Emploi, 2017ko uztaila (A,B,C kategoriak)
- Euskadi: Lanbide eta SEPE (2016ko abendua)
- Nafarroa: SEPE (2016ko abendua)

Enpleguaren sektore mailako banaketari dagokionez, zerbitzuen sektorea nabarmen da Euroeskualde osoan sortutako enpleguaren jatorri nagusi gisa. Zehazki, Akitania Berrian sortutako enpleguaren % 77 da zerbitzuen sektoreetakoa, eta jarraian, Euskadin % 73 eta

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

Nafarroan % 66. Bestalde, enplegu industrialaren garrantzia askoz handiagoa da Nafarroan (% 23) eta Euskadin (% 20) Akitania Berrian baino (% 14).

Gertuko eremuari begiratuz gero, zerbitzuen sektorea da nagusi oraindik ere, nahiz eta sektore industrialaren garrantzi erlatiboa pixka bat handitu sektore horrek Gipuzkoako enpleguan duen garrantzia (% 23) dela eta, eta batez ere Nafarroako ipar-mendebaldeko eskualdean (% 41).

2.13 koadroa Enpleguaren sektore mailako banaketa

(guztizko enpleguarekiko %)

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa			
	Guztira	Pirinio Atlantikoak	Guztira	Gipuzkoa	Guztira	Nafarroako Pirinioak	Baztan-Bidasoa	Ipar-mendebalde
ENPLEGUA, guztira	1.857.845	215.080	883.588	294.847	281.420	3.186	9.559	9.782
▪ Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	2,7	0,9	0,7	0,6	5,4	16,4	8,3	6,0
▪ Industria eta energia	14,2	15,8	20,0	22,8	23,2	18,1	22,7	41,4
▪ Eraikuntza	6,4	6,9	5,9	5,8	5,5	7,0	8,2	6,7
▪ Zerbitzuak	76,8	76,3	73,4	70,8	65,8	58,6	60,7	45,9

* Beste epigrafe batzuetan sartuta

Iturria: INSEE (2015eko abendua), Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra (afiliatutako pertsonak, 2016ko abendua).

Euroeskualdean sortutako enpleguaren % 35 eta % 50 artean 20 lanpostu baino gutxiagoko enpresetan kontzentratzen da. Hala ere, Akitania Berriarekin muga egiten duten Nafarroako eskualdeak nabarmen dira gainerakoekiko; izan ere, sortutako enpleguaren % 70 inguru 20 lanpostu baino gutxiagoko enpresetakoa da. 100 lanpostu eta gehiagoko enpresek ere Euroeskualdean sortutako enpleguaren ehuneko garrantzitsua biltzen dute; zehazki, Euskadin, 100 lanpostu edo gehiagoko enpresetan lan egiten dutenen ehunekoa guztizkoaren % 40koa da; Nafarroan, % 37koa, eta Akitania Berrian, beriz, % 33koa.

2.14 koadroa Enpleguaren banaketa enpresen neurriaren arabera

(guztizko enpleguarekiko %)

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa			
	Guztira	Pirinio Atlantikoak	Guztira	Gipuzkoa	Guztira	Nafarroako Pirinioak	Baztan-Bidasoa	Ipar-mendebalde
▪ 9 lanpostu gehienez	22,8	24,6	31,9	39,4	36,7	61,7	48,6	44,2
▪ 10 eta 19 lanpostu artean	12,3	12,7	8,1	10,2	7,9	8,5	8,2	11,6
▪ 20 eta 49 lanpostu artean	17,5	18,5	11,3	13,1	11,2	7,6	10,1	14,3
▪ 50 eta 99 lanpostu artean	14,0	14,2	8,3	8,8	7,3	4,2	7,0	6,7
▪ 100 lanpostu eta gehiago	33,4	29,9	40,5	28,5	37,0	18,0	26,0	23,2

Iturria: INSEE (2015eko abendua), Eustat (DIRAE, 2016), Nastat (DENA, 2016)

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

Euroeskualdean eskuragarri dagoen enplegu gehiena, % 80-85, soldatapekoa da; aldiz, gainerako % 15-20a, norbere konturako langileei dagokie. Horrekin lotuta, aipagarria da Euskadiren desberdintasuna, eta batez ere Gipuzkoan, kooperatibetako enpleguen presentzia handia baita; Euskadin enpleguaren % 1,5 eta Gipuzkoan % 4,1 izatera iristen da.

2.15 koadroa Enpleguaren banaketa kontratuen modalitatearen arabera

(guztizko enpleguarekiko %)

	Euskadi		Nafarroa
	Guztira	Gipuzkoa	
Norbere konturako langilea	13,5	16,4	15,8
• Enplegu-emailea	4,0	4,6	3,8
• Soldatapekorik edo langile independenterik ez duen enpresaburua	9,4	10,9	11,6
• Laguntza familiako negozioan edo enpresan	0,2	0,9	0,5
Kooperatiba-kidea	1,5	4,1	0,6
Soldatapekoak	85,0	79,5	83,6
• Sektore publikoko soldatapekoa	14,9	13,5	16,7
• Sektore pribatuko soldatapekoa	70,1	66,0	67,0
	Akitania Berria		
	Guztira	Guztira	
Soldatapekoak ez direnak	15,6	17,0	
• Enplegu-emailea	6,3	6,7	
• Independentea	9,0	10,1	
• Familiako laguntza	0,3	0,2	
Soldatapekoak	84,4	83,0	
• Funtzionarioak eta kontratu mugagabeak	71,0	70,4	
• Iraupen jakineko kontratuak	8,6	8,2	
• Aldi baterakoak (bitarteko langileak)	1,6	1,5	
• Babestutako enplegua	1,0	0,9	
• Praktikak (ikaskuntza-ikastaroak)	2,3	1,9	

Iturria: INSEE (2014), Eustat (BAI, 2014), INE (BAI 2016).

Lanaldi motari dagokionez, gaur egun Euroeskualdean dauden enplegu gehienak lanaldi osoko kontratuei dagozkie (% 82-94), nahiz eta gero eta ugariagoak diren lanaldi partzialekoak ere (% 16-18). Bestalde, indarrean dauden lan-kontratuen % 75 inguru mugagabeak dira, eta aldiz, % 25ek aldi baterako iraupena dute.

2.16 koadroa Enpleguaren banaketa lanaldiaren eta kontratu motaren arabera

(guztizko enpleguarekiko %)

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa
	Guztira	Pirinio Atlantikoak	Guztira	Gipuzkoa	
Lanaldi mota					
• Lanaldi osoa	82,5	81,9	82,2	--	83,3
• Lanaldi partziala	17,5	18,1	17,9	--	16,7
Lan-harremana (iraupena)					
• Mugagabea	71,0	70,4	76,0	74,9*	74,8
• Aldi baterakoa	29,0	29,6	24,1	25,1*	25,2

* Lan Merkatuko Erroldatik jasotako datua (2015)

Iturria: INSEE (2014), INE (BAI 2016)

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

Jarraian, gertutasuneko perimetroko Euroeskualdeko udalerrietako datu estatistiko xehatuak ikus daitezke, disponibilitatearen arabera:

2.17 koadroa Enplegua gertuko perimetro geografikoan

	Bidasoa		Oarsoaldea				Donostia	Pirinio Atlantikoak		
	Irun	Hondarribia	Errenteria	Pasaia	Oiarzun	Lezo		Hendaia	Urruña	Donibane Lohitzune
Populazioa, guztira (2016)	61.608	16.950	39.381	16.207	10.175	5.960	186.064	17.201	9.316	12.967
Batez besteko aldakuntza metatua (10-16)	% +0,2	% +0,5	% +0,2	% +0,2	% +0,4	% -0,1	% +0,1	% +3 (10-14)	% +2,7 (08-13)	% -1,3 (08-13)
▪ 0-14	14,7	15,3	14,7	13,9	15,9	14,4	12,7	17,0	17,8	13,1
▪ 15-24	8,8	9,1	7,9	8,4	9,4	9,4	8,9	7,7	9,8	8,8
▪ 25-54	43,0	41,4	43,0	43,9	42,5	44,3	41,3	44,6	41,5	33,3
▪ 55-64	12,9	13,5	11,6	11,4	13,8	15,7	14,3	13,4	15,0	13,3
▪ 65 eta gehiago	20,6	20,7	22,8	22,4	18,3	16,1	22,9	17,4	15,9	31,5
Langabezia-tasa (%) (2016ko abendua)	14,0	8,9	13,2	13,5	8,3	10,9	10,6	15	7,4	13,7
▪ Gizonezkoak	11,3	6,8	11,2	12,5	7,6	8,7	9,2	11,9	8,1	11,8
▪ Emakumezkoak	17,0	11,2	15,5	14,8	9,0	13,3	12,2	18,4	9,9	15,6
Erregistratutako populazio langabetua (2016ko abendua)	3.999	702	2.420	1.030	410	337	8.733	1.233	455	
▪ Gizonezkoak	42,7	40,2	44,7	49,0	48,0	42,1	46,0	41,0	43,4	42,3
▪ Emakumezkoak	57,3	59,8	55,3	51,0	52,0	57,9	54,0	59,0	56,6	57,7
▪ 25 urte baino gutxiago	6,8	6,0	5,6	5,3	5,9	5,6	5,7	<25	30,9	22
▪ 25 eta 34 urte artean	18,4	18,5	19,4	18,4	22,2	18,7	18,1	25-54	14,1	9
▪ 35 eta 44 urte artean	25,7	24,9	27,6	24,3	28,0	27,0	23,9	55-64	12,5	8
▪ 44 urte baino gehiago	49,1	50,6	47,4	51,9	43,9	48,7	52,4			13,4
▪ Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	31,8	21,5	17,4	18,3	16,1	14,8	18,9	Aucun	28,9	28,1
▪ Eskola-graduatuak	13,5	10,5	28,0	26,7	16,8	18,7	13,2	CAP	22,5	29,2
▪ DBH eta Batxilergoa	27,0	30,9	25,9	29,3	31,5	34,1	32,0	Bac	20,7	17,7
▪ LH	19,2	21,5	21,2	19,5	19,5	24,6	18,0			
▪ Erdi maila	2,9	4,0	2,4	1,9	4,9	3,6	4,5	Superieur	27,8	25,1
▪ Goi maila	5,6	11,5	5,1	4,2	11,2	4,2	13,4			28,0

Iturria: INSEE (2013), Udal-errola eta Lanbide (2016ko abenduko datuak).

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2.5. Soldata mailak

Euroeskualdeko urteko batez besteko soldata gordina tarte hauetan dabil: 30.107 eurokoa Akitania Berrian (2012) eta 24.863 eurokoa Nafarroan (2015). Euskadi tartean dago, urtean batez besteko soldata gordina 27.571 eurokoa izanik (2015). Oro har, batez beste ez dira asko aldatzen soldata mailak, nahiz eta Akitania Berrian altuxeagoak izan.

2.18 koadroa Batez besteko soldata gordina

(€)

	Akitania Berria	Euskadi	Nafarroa
Soldata gordinaren batez bestekoa	30.107*	27.571	24.863

*2012ko datuak

Iturria: INSEE (2013), INE (2015)

Urteko batez besteko soldata gordinaren ikerketarekin batera, herrialdeen eta eskualdeen arteko aldean ikuspegi interesgarria eskaintzen duten beste adierazleetako bat Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) da; langile batek laneko legezko lanaldi baten truke jaso behar duen gutxieneko ordainsariaren zenbatekoa ezartzen du, sexuaren edo adinaren arabera bereizketarik egin gabe, finkoak edo aldi baterakoak izanik ere.

Euskadin eta Nafarroan aplikagarri den LGS Enplegu Ministerioak eta Gizarte Segurantzak ezarritakoari dagokio; hori urtero Errege Dekretu bidez ezartzen da eta zenbait faktore hartzen dira kontuan, hala nola KPI, nazio mailan lortutako batez besteko produktibitatea edo errenta nazionalen lanaren partaidetzaren iguera, besteak beste.

2017an indarrean den LGS 707,6 euro garbikoa da. Hala ere, eta urtean 14 ordainsari izateko ohiko ereduak kontuan hartuta, LGSren hainbanatutako hileko zenbatekoa, Frantziako LGSrekin alderatzeko, 825,5 eurokoa da, astean 40 orduko lanaldiaren kasurako.

Akitania Berriaren kasuan, aplikagarri den LGS Frantzia osorako dagokiona da, eta urtero Dekretu bidez ezartzen du Enplegu Ministerioak. 2017 urterako Frantzia indarrean den LGS 1.480,3 euro gordinakoa da, astean 35 orduko lanaldirako. Zenbateko garbiei dagokienez, eta egindako kalkuluaren arabera¹⁶, Frantziako LGSren balioa hilean 1.149,07 eurokoa da.

¹⁶ CGS (contribution sociale généralisée) eta CRDS (contribution au remboursement de la dette sociale) kenkariak aplikatuta egindako kalkulua. Hala ere, kalkulaturako balio garbia aldatu egin liteke enpresaren kargurako karga sozialak kontuan hartuta; horiek aldatu egin daitezke kokapen geografikoaren, neurriaren eta jardura-sektorearen arabera.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

Datu horiek ikusita, logikoa izan daiteke pentsatzea LGS arloan dauden aldeek eragina izan dezaketela langileen mugimenduan soldata mailak ezartzeko erreferentzia gisa LGS erabiltzen den sektoreetan hegoaldeko iparraldera izaten ari den langileen mugimenduan.

2.19 koadroa Lanbide arteko Gutxieneko Soldata, 2017

(€)

	2017. urtea
Espainia	
• Hileko zenbateko garbia	707,6
• Urteko zenbateko garbia (14 ordainsari)	9.906,4
• Hileko zenbateko garbia (12 hilabete)	825,5
• Hileko zenbateko gordina* (12 hilabete)	900,7
Frantzia	
• Hileko zenbateko gordina (12 hilabete)	1.480,3
• Hileko zenbateko garbia** (12 hilabete)	1.149,1

* atxikipen hauek aplikatuta kalkulaturako balioa: PFEZ % 2 eta % 6,35 langilearen konturako Gizarte Segurantzak.

** CGS eta CRDS kenkariak aplikatuta kalkulaturako balioa.

Iturria: Frantziako Errepublikako Enplegu Ministerioa eta Espainiako Gobernuako Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

2.6. Enpresa-egitura eta haien neurria

Guztira 811.932 enpresak osatzen dute Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko enpresa-egitura. Enpresen % 76 Akitania Berrian daude; % 19, Euskadin, eta % 5, Nafarroan. Hala ere, mugatik gertuko eremuari erreparatuz gero, enpresen kopurua 135.886era murrizten da; horietatik % 57 Pirinio Atlantikoetan daude; % 39, Gipuzkoan, eta gainerako % 4a, Nafarroako mugako eremuan.

2.20 koadroa Enpresa-egitura, sektoreka

(Enpresen %)

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa		
	Guztira	Pirinio Atlantikoak	Guztira	Gipuzkoa	Guztira	Pirinioa	Nafarroa Atlantikoa
ENPRESAK, guztira (kop.)	616.513	78.291	158.436	53.225	37.983	732	3.638
▪ Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	10,2	9,3	3,7	3,8	1,5	3,3	2,6
▪ Industria, energia eta saneamendua	6,0	5,7	7,2	8,3	9,1	10,2	11,1
▪ Eraikuntza	10,6	10,0	12,7	13,4	12,1	15,2	15,0
▪ Zerbitzuak	73,2	75,0	76,4	74,5	77,2	71,3	71,3

* Beste epigrafe batzuetan sartuta

Iturria: INSEE (2015eko abendua), Eustat (DIRAE, 2016), Nastat (DENA, 2016)

Zerbitzuen sektoreak biltzen du Euroeskualdeko enpresa kopuru handiena, zehazki, % 77-73 artean, eskualdearen arabera (enpresen % 73 Akitania Berrian; % 76, Euskadin, eta % 77, Nafarroan). Horien atzetik eraikuntzaren sektoreko enpresak daude, Euroeskualdeko

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

enpresa-egituraren % 10 eta % 15 artan bilduta. Industria-sektorekoak dira Akitania Berrian enpresen % 6; Euskadin, % 7, eta Nafarroan, % 10.

Euroeskualdeko enpresa gehienak neurri txikikoak dira. Euroeskualdeko enpresen % 94 inguruk ez dute 10 lanpostu baino gehiago. Enpresa horiek, aurrez aipatu dugun moduan, lanpostuen % 23 eta 36 artean biltzen dute, zer eskualdetakoa den kontuan hartuta.

2.21 koadroa Enpresa-egitura, neurriaren arabera

(Enpresen %)

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa		
	Guztira	Pirinio Atlantikoa	Guztira	Gipuzkoa	Guztira	Pirinioa	Nafarroa Atlantikoa
ENPRESAK, guztira (kop.)	616.513	78.291	158.436	53.225	37.983	977	3.987
▪ 9 lanpostu gehienez	94,5	94,8	93,6	93,8	93,9	97,1	94,6
▪ 10 eta 19 lanpostu artean	2,7	2,6	3,2	3,3	3,0	1,8	17,2
▪ 20 eta 49 lanpostu artean	1,7	1,7	2,0	1,9	2,0	0,3	11,5
▪ 50 lanpostu eta gehiago	1,0	0,9	0,6	0,6	1,1	0,4	6,6

Iturria: INSEE (2015eko abendua), Eustat (DIRAE, 2016), Nastat (2016)

2.7. Jarduera ekonomikoa eta fluxu komertzialak

Akitania berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko ekonomiaren egiturak erakusten du zerbitzuen sektorea eta industria direla Euroeskualdeko jarduera ekonomikoaren bi zutabe nagusiak, nahiz eta hiru eskualdeetako bakoitzak bere ezaugarri bereziak dituen.

Barne Produktu Gordinari (BPG) dagokionez, Euroeskualdeak 2015ean 181.451 milioi euroak lortu zituen, hau da, per capita BPG 29.371 eurokoa da; EB-28an batez beste 28.872 eurokoa da.

Eskualdeka, Akitania-Berriako ekonomiak, duen neurri geografikoagatik eta populazio aldetik handiagoa denez, lortzen du BPG handiena, 96.413 milioi eurokoa, hain zuzen ere (prezio korronteetan); jarraian, Euskadi dago, 66.553 milioi euroekin, eta Nafarroa, 18.485 milioi euroekin. Hala ere, per capita BPGi arreta jarritz gero, Eurostaten arabera, Euskadi nabarmen da per capita (pps) 34.400 euroekin; jarraian, Nafarroa, 32.500 euroekin eta Akitania Berria, 26.600 euroekin.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2.22 koadroa Barne Produktu Gordina eta Balio Erantsi Gordina

(€, oinarriko EB adierazlea=100)

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa
	Guztira	Pirinio Atlantikoak	Guztira	Gipuzkoa	
• Per capita BPG (PPS)	26.600	26.800*	34.400	33.000*	32.500
• per capita BPG (PPS) EB=100	91,9	92,7*	119,0	114,1*	112,6
• Langileko BEG	63.755	--	69.389	--	63.858
• Langileko BEG EB=100	103,9	--	113,1	--	104,1

EB28 oinarria=100

* 2014. urtea

Iturria: Eurostat, 2015.

Sektoreko banaketari dagokionez, gainerakoetatik nabarmen da zerbitzuen sektorea, Euroeskualdeko ekonomiaren garrantzi guztiaren % 59-76 artean bereganatuz. Haren atzetik industria doa, % 14-% 31ko garrantzi erlatiboarekin. Aldiz, eraikuntzaren sektoreak ekonomiaren aberastasunaren % 5-% 7 inguruko ekarpena egiten du, eta lehen mailako sektoreak, berriz, % 1 eta % 4 artekoa.

Hala ere, eskualde bakoitzak bere berezitasunak ditu; hala, Akitania Berriko ekonomian zerbitzuen sektorearen garrantziak ia % 76 lortzen duen arren, Nafarroan ez da iristen % 59ra. Bestalde, industria-sektoreak askoz garrantzi erlatibo handiagoa du Nafarroan (% 31) eta Euskadin (% 22) Akitania Berrian baino (% 14).

2.23 koadroa Sektoreen banaketa Balio Erantsi Gordinari egindako ekarpenaren arabera

(% BEG)

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa		
	Guztira	Pirinio Atlantikoak	Guztira	Gipuzkoa	Guztira	Pirinioak	Nafarroa Atlantikoa
• Lehen sektorea	4,1	--	0,8	0,7	3,1	15,2	4,8
• Industria	13,8	--	21,6	28,0	32,0	32,1	41,2
• Eraikuntza	6,6	--	5,5	6,4	6,5	7,1	7,6
• Zerbitzuak	75,5	--	62,7	64,9	58,4	45,5	46,4
Guztira	100,0	--	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: INSEE (2014), Eustat (2015), Nastat (2015).

Fluxu komertzialei dagokienez, eta 2016an metatutakoari dagozkion datuen arabera, Estatu Batuak dirudi dela Akitania Berriatik egindako esportazioen helmuga nagusia (% 15). Espainia dago helmuga-herrialdeen rankingean bigarren postuan, 2016an guztizko esportazio-bolumena 2.785 milioi eurokoa izanik; hau da, eskualde horretatik egindako esportazio guztien % 12.

Jasotako inportazioen kasuan, Espainia ageri da jatorri-herrialde nagusi gisa; zehazki, Akitania Berriatik 2016an egindako inportazioen % 14 (2.897 milioi euro) Espainiatik datoz.

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2.24 koadroa Akitania Berriko fluxu komertzialak. Helmuga- eta jatorri-herrialdeen arabera rankinga

Esportazioak		Inportazioak	
	% guztizkoarekiko		% guztizkoarekiko
▪ AEB	15,3	▪ Espainia	14,3
▪ Espainia	12,4	▪ Alemania	11,7
▪ Alemania	11,4	▪ AEB	10,4
▪ Erresuma Batua	6,6	▪ Txina	7,9
▪ Italia	6,4	▪ Italia	7,0
▪ Belgika	4,0	▪ Herbehereak	5,5
▪ Txina	3,8	▪ Belgika	4,9
▪ Gainerako herrialdeak	40,0	▪ Gainerako herrialdeak	38,2
▪ Guztira	100,0	▪ Guztira	100,0

Iturria: Direction régionale des Douanes de Bordeaux, 2016.

Bestalde, Frantzia da Euskaditik egindako esportazioen helmuga-herrialdeen rankingeko liderra. Zehazki, Euskadi jatorri zuten eta Frantzia helmuga zuten esportazio-bolumena 3.584 milioi eurokoa izan zen; hau da, 2016an egindako euskal esportazio guztien % 16,5.

Jasotako inportazioei dagokienez, Frantziak postu bat atzera egin du bigarren postura arte, Alemaniaren atzetik. Zehazki, Frantziatik Euskadira inportatutako bolumena 1.618 milioi eurokoa da, hau da, 2016ko inportazio guztien % 10. Alemaniatik datozen inportazioak, bestalde, 2016an inportatutako bolumenaren % 17 dira.

2.25 koadroa Euskadiko fluxu komertzialak. Helmuga- eta jatorri-herrialdeen arabera rankinga

Esportazioak		Inportazioak	
	% guztizkoarekiko		% guztizkoarekiko
▪ Frantzia	16,6	▪ Alemania	16,8
▪ Alemania	15,6	▪ Frantzia	10,4
▪ AEB	7,1	▪ Errusia	7,3
▪ Erresuma Batua	6,0	▪ Txina	6,7
▪ Italia	5,0	▪ Italia	5,6
▪ Portugal	4,1	▪ Erresuma Batua	5,3
▪ Belgika	4,0	▪ Irlanda	4,1
▪ Herbehereak	2,8	▪ Herbehereak	3,8
▪ Txina	2,5	▪ Mexiko	3,2
▪ Gainerako herrialdeak	36,3	▪ Gainerako herrialdeak	36,7
▪ Guztira	100,0	▪ Guztira	100,0

Iturria: Eustat, 2016.

Gipuzkoaren kasuan, Frantzia da esportazioen helmuga nagusia ere, Euskadi osorako duen garrantzi erlatibo antzekoarekin, hau da, lurraldeko bolumen esportatzaile guztiaren % 17; hau da, 2016an 1.141 milioiko balioa duten esportazioak. Gipuzkoatik egindako inportazioei dagokienez, beriz, Alemania da jatorri-herrialde nagusia (% 19), eta jarraian, oso gertutik, Frantzia (% 19).

2. Euroeskualdeko enpleguaren testuinguru orokorra

2.26 koadroa Gipuzkoako fluxu komertzialak. Helmuga- eta jatorri-herrialdeen arabera rankinga

Esportazioak		Inportazioak	
	% guztizkoarekiko		% guztizkoarekiko
▪ Frantzia	16,6	▪ Alemania	19,3
▪ Alemania	10,8	▪ Frantzia	19,0
▪ Erresuma Batua	7,0	▪ Txina	9,8
▪ AEB	6,3	▪ Italia	9,3
▪ Italia	5,5	▪ Suedia	4,6
▪ Portugal	4,5	▪ Erresuma Batua	3,9
▪ Mexiko	3,8	▪ Portugal	3,3
▪ Polonia	3,4	▪ Herbehereak	3,1
▪ Txina	3,3	▪ Belgika	2,8
▪ Gainerako herrialdeak	38,7	▪ Gainerako herrialdeak	24,8
▪ Guztira	100,0	▪ Guztira	100,0

Iturria: Eustat, 2016.

Nafarroak Frantziarekin dituen harreman komertzialak ere garrantzitsuak dira; hain zuzen ere, esportazioen helmuga nagusia da. Zehazki, Nafarroan jatorria duten eta helmuga Frantzia duten esportazio guztien garrantzia 2016an 1.407 milioi eurokoa izan zen; hau da, Nafarroako esportazioen bolumen guztiaren % 17.

Inportazioei begiratuz gero, Euskadin eta Gipuzkoan bezala, Frantziak lidergoaren postua Alemaniari uzten dio, kasu honetan Foru Erkidegotik egindako inportazio guztien % 30 lortuta. Frantziatik datozen inportazioak, bestalde, 2016. urtean zehar Nafarroatik inportatutako guztizkoaren % 12koak dira (542 milioi euro).

2.27 koadroa Nafarroako fluxu komertzialak. Helmuga- eta jatorri-herrialdeen arabera rankinga

Esportazioak		Inportazioak	
	% guztizkoarekiko		% guztizkoarekiko
▪ Frantzia	16,9	▪ Alemania	29,9
▪ Alemania	15,3	▪ Frantzia	12,0
▪ Italia	7,6	▪ Italia	6,1
▪ Erresuma Batua	7,2	▪ Portugal	5,5
▪ Turkia	4,7	▪ Herbehereak	3,9
▪ Portugal	3,9	▪ Erresuma Batua	3,3
▪ AEB	3,7	▪ Danimarka	1,4
▪ Belgika	2,8	▪ Irlanda	0,1
▪ Mexiko	2,5	▪ Grezia	0,1
▪ Gainerako herrialdeak	35,4	▪ Gainerako herrialdeak	37,8
▪ Guztira	100,0	▪ Guztira	100,0

Iturria: Nastat, Zerga Administrazioaren Aduana eta Zerga Berezien Saileko datuetatik abiatuta.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3. MUGAZ GAINDIKO ENPLEGUA EUROESKUALDEAN

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.1. Egoitza arloko interpenetrazioa

3.1.1. Egoitza arloko interpenetrazioaren kuantifikazioa

Egoitza arloko interpenetrazio desorekatua, Akitaniako lurraldean Espainiako nazionalitateko egoiliarren presentzia nagusitzen da, oso kontzentratuta mugatik gertuko lurraldean.

Mugaz gaindiko enpleguaren gaia bera landu aurretik, egoitza arloko interpenetrazio maila ezagutu nahi dugu; hau da, zer mailatan okupatzen duten mugaz gaindiko espazioa alboko herrialdeko nazionalitatea duten egoiliarrek. Egoiliarren presentzia gurutzatua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago laguntzen du interpenetrazio horrek lurraldearen mugaz gaindiko integrazio orokorrean.

Akitania Berria Euskadi eta Nafarroaren artean dagoen mugaz gaindiko eremuaren kasuan, fenomeno nagusia da Akitaniako lurraldean Espainiako nazionalitatea duten egoiliarren presentzia askoz handiagoa dela, eta Frantziako nazionalitatea duten biztanleek Euskadin eta Nafarroan ez dute hainbesteko presentziarik. Egoitza arloko interpenetrazioa, beraz, desorekatua da.

Hain zuzen ere, Eustatek eta Nastatek 2016ko Biztanleen Udal Erroldaren datuen arabera, Euskadin eta Nafarroan egoitza duten Frantziako nazionalitateko pertsonen kopurua, 2016an, 2.104 eta 716 lagunekoa da, hurrenez hurren. Euskadiren kasuan, 2.104 lagunetatik ia erdia Gipuzkoan bizi da (1.076). Kopuru horiekin alderatuta, INSEE erakundearen 2013ko datuen arabera, Pirinio Atlantikoen Departamenduan bizi diren Espainiako naziotasuna duten pertsonen kopurua 10.789 lagunekoa da (Gipuzkoan egiaztatutako bolumena baino hamar aldiz gehiago). Zifra horri Landetako Departamenduan bizi diren Espainiako naziotasuna duten 1.285 lagunak gehituz gero, mugatik gertuen dauden Frantziako bi Departamenduetan guztira Espainiako nazionalitatea duten 12.074 lagun biltzen dira guztira.


Azaldutako zifrek eremu horietako bakoitzean bizi diren biztanle guztiekiko duten ratioa kalkulaturik, lehen aipatutako desorekak agerikoak dira: % 1,5 Gipuzkoan, % 1,1 Nafarroan, % 16 Pirinio Atlantikokoetan eta % 3,2 Landetan. Oro har, mugaren bi aldeetara mugatutako fenomeno da, beraz, baina Pirinio Atlantikoen Departamenduan bizi diren Espainiako naziotasuneko pertsonen presentziari dagokionez garrantzi nabarmena du.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

Testuinguru horretan, oro har, egoitza arloko interpenetrazioa murriztu den arren, aipatu behar da mugatik gertueneko ingurunean oso kontzentratuta dagoela eta udalerri jakin batzuetan haren garrantzia nabarmena dela. Zehazki, Hendaiaren kasuan, mugaz gaindiko egoitza fenomenoak garrantzi handia du, bertako biztanleriaren % 31 izatera irits daiteke. Hala ere, Frantziar Espainiako naziotasuna duten pertsonen presentzia pixkanaka murrizten da mugatik urrundu ahala.

Gipuzkoaren kasuan ere, mugatik gertueneko udalerrietan, Irunen eta Hondarribian, zehazki, kontzentratzen dira Frantziako naziotasuna duten egoiliarren proportzio handiena; baina haien bolumena, bai kopuru absolutuetan (235 eta 132 lagun, hurrenez hurren), bai kopuru erlatiboetan, hau da, tokiko biztanleekiko erlazioan, Hendaiaren kasuan ikusitakoa baino askoz txikiagoa da: Irungo biztanleriaren % 3,8 eta Hondarribiko biztanleriaren % 7,8; horrek eskualdeko kopuru erantsietan % 4,7 ordezkatzeko du. Donostiak, bestalde, Frantziako nazionalitatea duten 380 egoiliar biltzen ditu, hau da, biztanleen % 2.


Erantsitako kartografiak egoitza arloko mugaz gaindiko fenomenoaren kontzentrazio oso altua argi eta garbi islatzen du, baita eragin geografikoan dauden desorekak ere.



* Total Pyrénées-Atlantiques + Landes

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.1 mapa Mugatik gertuko udalerrietan bizi diren fluxuen kontzentrazioa




Iturria: Estatistikako datu ofizialeetatik abiatuta bertan eginda

Bilakaeraren ikuspegitik, eta INSEEn datuak hartuta, ikus daiteke Pirinio Atlantikoen Departamenduan bizi diren Espainiako nazionalitatea duten pertsonen kopuruak azken urteetan ibilbide gorakorra izan zuela; zehazki, 2010-2013 aldiari, zifrak 2.084 laguneko igoera izan du; hain zuzen ere, urte horretan 10.800 lagunetik gertuko balioetan kokatu zen.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.1 grafikoa Espainiako nazionalitatea izan eta Pirinio Atlantikoetan bizi den egoiliar kopuruaren bilakaera



Iturria: INSEE.

Mugaz gaindiko egoitza arloko fluxuetan Espainiako nazionalitatea duten pertsonak dira protagonista, baina horrez gain, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen mugaz gaindiko errealitatearen ezaugarri nabarmenetako bat honako hau da: mugaz gaindiko pertsonen kolektiboan, gehienak, hiru laurden inguru, lanari dagokionez adin aktiboetan daude.

Hala ere, mugatik gertueneko udalerrietan arreta jarrita, eta datuak zehatzago aztertuta, alde nabarmenak ikus daitezke, esaterako, alboko herrialdeko 65 urte baino gehiagoko pertsonen presentzia erlatibo handiagoa Hondarribian (% 27) eta Donibane Lohitzunen (% 38). Aldiz, Hendaian eta Urruñan bizi diren Espainiako nazionalitatea duten biztanlearen profilak gazteagoak dira, baita Irunen eta Oarsoaldeko udalerrietan bizi diren Frantziako nazionalitateko profilak ere, eta bereziki, Nafarroako udalerrietan bizi diren Frantziako nazionalitatea dutenenak.

Ikasketa mailari dagokionez, Euskadin bizi diren Frantziako nazionalitatea duten pertsonen % 25ek lehen mailako edo baxuagoko ikasketak ditu; % 21ek, bigarren mailakoak; % 14k, lanbide arloko ikasketak, eta azkenik, % 40k unibertsitate mailako prestakuntza du. Pirinio Atlantikoetan bizi diren Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean, lehen mailako ikasketak dituztenen proportzioa % 33koa da; % 21ek bigarren mailako ikasketak ditu; % 15ek, lanbide arloko ikasketak, eta % 30ek, unibertsitate mailakoak.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean


3.1 koadroa Espainiako nazionalitatea duten egoiliarrek Akitania Berrian eta Frantziako nazionalitatea duten egoiliarrek Euskadin eta Nafarroan, adinaren, sexuaren eta ikasketa mailaren arabera.

	Bidasoa		Oarsoaldea				Donosti a	Gipuzko a, guztira	Euskad i, guztira	Pirinio Atlantikoak				Nafarroa			
	Irun	Hondarribia	Errenteria	Pasaia	Oartzun	Lezo				PA, guztira	Hendaia	Urruña	Donibane Lohitzune	Nafarroa, guztira	Pirinioa	Ipar- mendeb aldea	Baztan- Bidasoa
GUZTIRA	235	132	44	14	17	7	380	1.076	2.104	10.789	5429	887	255	716	32	21	149
Adina (2016/01/01)																	
▪ 18 urtez azpikoak (FR: 0-15 urte)	19	8	5	1	0	1	23	72	192	1.820	1.290	179	51	63	0	5	11
▪ 18 - 34 urte arte (FR: 15-24 urte)	41	22	14	1	2	1	116	262	548	543	274	31	11	165	8	4	25
▪ 35 - 64 urte arte (FR: 25-64 urte)	131	67	16	11	10	4	176	552	1.095	6.305	3.446	577	113	391	17	11	75
▪ 65 urte eta gehiago (FR: 65 urte eta gehiago)	44	35	9	1	5	1	65	190	269	2.121	417	69	76	97	7	1	38
Sexua (2016/01/01)																	
▪ Gizonezkoak	127	79	23	7	12	2	213	582	1.070	5.243	2.669	469	113	352	16	11	79
▪ Emakumezkoak	108	53	21	7	5	5	167	494	1.034	5.545	2.756	388	139	364	16	10	70
Gehieneko ikasketa maila (2016/01/01)																	
▪ Lehen mailakoak edo gutxiago	72	49	13	8	5	2	62	273	479	3.054	--	--	--	248	30	6	52
▪ Lanbide arlokoak	24	15	7	2	1	1	42	127	229	1.349	--	--	--	193	13	11	9
▪ Bigarren mailakoak	70	27	10	2	5	2	94	275	501	1.880	--	--	--	112	9	0	46
▪ Goi mailakoak	69	41	14	2	6	2	182	401	895	2.712	--	--	--	292	22	4	18

Iturria: INSEE (2013), Eustat (2016) eta Nastat (2016). Nafarroako ikasketa mailari buruzko datuak 2011koak dira.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.2 mapa Frantziako nazionalitatea duten egoiliarak Euskadin eta Nafarroan, eta Espainiako nazionalitatea duten egoiliarak Akitania Berrian, adinaren arabera



Iturria: Estatistikako datu ofizialetatik abiatuta bertan eginda

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.1.2. Etxebizitzaren merkatua, 90eko hamarkada amaierako eta 2000 hasierako egoitza arloko fluxuen azalpen-faktorea

Etxebizitzaren merkatua da Pirinio Atlantikoen Departamenduan Espainiako nazionalitatea duten pertsonen kontzentrazioa azaltzeko garaian faktore giltzarrietako bat. Bidasoa hegoaldeko iparraldera egoitza-mugimenduak azaltzeko, 90eko hamarkadara eta 2000 hasierara jo behar da: mugatik gertuko Frantziako udalerrietan etxebizitzaren eta lurzoruen prezio txikiagoa zen, egoitza-eskaintza dibertsifikatuagoa zegoen eta etxebizitzak erosteko finantza-baldintza askoz hobeak izan zitezkeen (interesa-tasa baxuagoak, amortizazio-epe luzeagoak...). Horren guztiaren eraginez, Bidasoa hegoaldeko pertsona askok Bidasoa iparraldera bizitzera joatea erabaki zuten.

Hain zuzen ere, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, mugaz iparraldera higiezinaren prezioak 2000ko hasieran askoz erakargarriagoak ziren Frantzia aldean, bai salerosketa-merkatuan, bai alokairuarenean.

3.2 koadroa Etxebizitzaren prezioa Euskal Eurohirian. 2000

Etxebizitzak salmentan (€/m ²)	Hegoaldeko euskal eurohiria	Iparraldeko euskal eurohiria
• Etxebizitza libre berria	2.309	1.765
• Erabiltako etxebizitza	3.201	1.300
Etxebizitzak salmentan (€/etxebizitza)		
• Etxebizitza libre berria	209.000	107.000
• Erabiltako etxebizitza	306.000	84.500
Etxebizitza alokairuan (€/hilean)		
• Etxebizitza libre	727	457

Iturria: Etxebizitzaren eta habitataren mugaz gaindiko behatokia, Baiona-Donostia Euskal Eurohiria (2004)

Prozesu haren guztiaren ondorioz, eta Hendaiako Udalaren azterketen arabera, 2006an udalari horretako hiru bizilagunetik bat inguru (% 28) gipuzkoarra zen jatorriz. Aldiz, 1999an Frantziako errolda ofizialak kolektibo hori % 15ekoa zela zenbatu zuen, orduan mugaz gaindiko hiriak zituen 13.000 biztanleen artean.

Hala ere, 2000ko hamarkada erdialdean, iparraldean lurzoruen batez besteko prezioak, eta ondorioz, etxebizitzarenak, hegoaldeko prezioarekin homogeneousazio-prozesua hasi zuen. Horrek pixkanaka muriztu egin zuen Bidasoa hegoaldeko biztanleek iparraldean etxebizitza erosteko eritmoa eta kopurua.

Gaur egun, prezioen aldea baino gehiago egoitza-eredu desberdinak izatea (tipologia, neurriak...) izan daiteke egoitza-mugimenduen elementu motibatzailea. Akitania Berriko habitatak etxebizitza barreiatua du bereizgarri, dentsitate baxukoa, familia bakarreko etxebizitzak dira nagusi. Hiri-eremuetan, gainera, tamaina txikiagoko etxebizitzaren eskaintza handiagoa du. Alokairu-erregimena nagusi den merkatua da, gainera. Euskadi, aldiz, hiri-continuum gisa konfiguraturuta dago, bereziki Kantauri isurialdean (Bizkaia eta Gipuzkoa),

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

hirigintzako garapen handiarekin eta etxebizitzaren dentsitate handiarekin. Euskadiko higiezinaren merkatuan tarteko neurria duten etxebizitzak dira nagusi, eta jabetzan. Nafarroan, bestalde, Akitaniakoaren eredu antzekoagoa dago, bereziki mugatik gertuko eremuan, mendiko eta landa inguruko eremuetan berezkoa den bezala, habitat barreiatuak eta familia bakarreko etxebizitzak dira nagusi.

Biztanleen eta etxebizitzaren dentsitate-adierazleek argi erakusten dituzte alde horiek: Euskadin km²-ko 300 biztanle daude, eta 144 etxebizitza km²-ko, aldiz, Akitania Berrian eta Nafarroan, km²-ko 71 eta 62 biztanle artean eta 40 eta 32 etxebizitza artean km²-ko, hurrenez hurren. Era berean, agerikoa da Akitaniako eremuan familia bakarreko etxebizitzak nagusi direla, Akitania Berriko etxebizitzaren % 71 mota horretakoak baitira. Nafarroaren kasuan, etxebizitzaren % 28 familia bakarrekoak dira, aldiz, Euskadin, % 8 dira.

3.3 koadroa Etxebizitzaren parkea, tipologia eta ezaugarri orokorrak

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa			
	Guztira	Pirinio Atlantikoa	Guztira	Gipuzkoa	Guztira	Pirinioa	Baztan-Bidasoa	Ipar-mendebalde
• Etxebizitzaren parkea, guztira (kop)	3.376.460	389.009	1.039.136	338.418	327.944	8.406	12.746	15.229
• Etxebizitzaren dentsitatea (etxe/km ²)	40,2	50,9	143,6	171,1	31,6	4,4	15,2	22,9
• Etxebizitzaren ratioa 1000 biztanleko	574,3	583,0	478,4	476,2	511,9	561,8	570,0	450,1
• Familia bakarreko etxebizitzak (guztizkoarekiko %)	71,4	51,7	8,1	6,9	27,9	--	--	--
• Batez besteko azalera erabilgarria (m ²)	--	--	86,9	86,7	112,1	138,1	142,5	124,9
• Etxebizitzaren batez besteko antzintasuna (urteak)	40,2	37,1	42,0	42,6	53,0	88,0	88,0	63,0

Iturria: INSEE (2014), Eustat (2015), INE (Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2011),

Etxebizitzaren jabego-erregimena ere, aipatu dugun moduan, aldatu egiten da Bidasoako alde batetik bestera, Akitania Berrian alokairuak presentzia handiagoa du; hain zuzen ere, Akitania Berrian dauden etxebizitzaren % 35 erregimen horretakoak dira, aldiz, Euskadin eta Nafarroan, % 13 eta % 12koa da, hurrenez hurren.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.4 koadroa Etxebizitza nagusien edukitze-erregimena

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa
	Guztira	Pirinio Atlantikoa	Guztira	Gipuzkoa	
• Jabetzan	62,4	61,2	84,2	83,1	82,6
• Alokairuan	35,3	36,4	11,5	12,0	13,0
• Beste bat	2,2	2,5	4,2	4,9	4,3

Iturria: INSEE (2014), INE (2011).

90eko hamarkadan eta 2000ko hasieran ez bezala, gaur egun, prezioaren aldagaiak indarra galdu du Gipuzkoatik Pirinio Atlantikoeiara egoitza-lekualdaketa eragiteko elementu gisa. Izan ere, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, prezioen aldea nabarmen murriztu da, etxebizitza berriaren kasuan erlazioa alderantzikatu ere egin da. Horrekin lotuta, prezioen igoera nabarmena egiazta daiteke zenbait udalerrian, esaterako, Donibane Lohitzunen.

3.5 koadroa Etxebizitzaren prezioen alderaketa 2016an

	Akitania Berria		Euskadi		Nafarroa
	Guztira	Pirinio Atlantikoa	Guztira	Gipuzkoa	
• Etxebizitza libre berria	3.806	3.602	3.181	3.149	1.300
• Erabilgaitako etxebizitza librea	1.980	3.041	2.780	2.879	1.282

Iturria: meilleursagents.com (2016), La Vie Immo (2014 et 2016), Credit foncier (2016), Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila (2016ko IV. hiruhilekoa), Sustapen Ministerioa (2016ko IV. hiruhilekoa).

3.6 koadroa Mugatik gertuko udalerrietan etxebizitza saltzeko eta alokatzeko batez besteko prezioa

	Erosketa		Alokairua
	Pisua apartamentua:	Familia bakarreko etxebizitza	
Pirinio Atlantikoeiako udalerrri nagusiak			
• Hendaia	3.495	2.922	9,7
• Urruña	3.414	2.958	9,5
• Donibane Lohitzune	4.681	4.172	10,6
• Baiona	2.689	2.639	10,1
Gipuzkoako udalerrri nagusiak			
• Irun	2.358	1.996	9,4
• Hondarribia	3.922	2.817	11,7
• Pasaia	2.310	2.365	9,7
• Lezo	2.384	2.283	8,9
• Errenteria	2.399	1.996	10,7
• Oiartzun	2.657	2.925	9,4
• Donostia	4.589	3.046	15,6

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

Iturria: meilleursagents.com (2017ko ekaina), idealista.com (2017ko abendua)

3.2. Mugaz gaindiko enpleguaren kuantifikazioa

Oro har, mugaz gaindiko enpleguaren bolumena ez da handia, eta erabat nagusitzen dira Espainiako nazionalitatea izanik mugatik gertuko Frantziako udalerrietan bizi diren eta Gipuzkoan lan egiten duten biztanleak.

Lan honek aurrean zuen erronka nagusietako bat zen, hain zuzen ere, mugaz gaindiko enplegua kuantifikatzea. Alderatu ahal izateko aldiakako errola ofizialik ez egotea da eragozpen handiena, mugako beste arlo batzuetan ere gertatzen den moduan. Horrek hurbilketak eginarazten dizkigu eta informazio-iturri ugari erabili behar ditugu, eta hain zuzen ere, erreferentzia-aldi eta metodologia desberdinekin egindakoak izan ohi dira.

Hori gertatzen da Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen kasuan ere, mugaz gaindiko fenomenoaren azterketa kuantitatiboa egiteko harmonizatutako iturri estatistiko gutxi dago gai horren inguruan aldera litezkeen eta eguneratuta dauden datuak lortu ahal izateko. Horren guztia ondoz, zenbait iturri erabili behar izan dira eta, kasu guztietan, ustiaketa espezifikoak egin behar izan dira.

Edonola ere, jarraian azalduta datorren mugaz gaindiko enpleguaren kuantifikazioa eta karakterizazioa bi hurbilketa-bide kontuan hartuta egin da:


- Lehenengoa, azterketaren helburu diren eremu geografikoetako estatistikako erakundeek argitaratutako datu estatistikoetatik abiatuta. Zehazki, Estatistika Institutu Nazionalak (IN), Frantziako estatistikako eta ikerketa ekonomikoetako institutu nazionalak (INSEE), Euskal Estatistika Institutuak (Eustat) eta Nafarroako Estatistika Institutuak (Nastat) argitaratutako informazioa (eta azterketa honen testuinguruan egindako ustiaketa espezifikoak) hartu da kontuan.
- Bigarren hurbilketa bi herrialdeetako Gizarte Segurantzako erakundeetatik jasotako informazioa erabilia egin da; zehazki, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (INSS) eta d'Assurance Maladie (CPAM). Bi erakunde horiek arduratzen dira langileen osasun-estalduraren inguruko eskaerak izapidetzeaz.

3.2.1. Datu estadistikoetatik abiatuta mugaz gaindiko enpleguaren hurbilketa

INSEEk emandako zifren kasuan, eta 2013ko datuei dagokien informazioa hartuta, Pirinio Atlantikoko Departamenduan bizi eta Espainian lan egiten duten 3.177 langile daudela ikus daiteke (gehienak Euskadin eta Nafarroan kontzentratuta). Kopuru hori Landetako departamenduan bizi diren beste 35 lagun gehitu behar zaizkio.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.3 mapa Alboko herrialdean helmuga duten mugaz gaindiko langile kopurua




Iturria: INSEE (2013), Eustat eta Biztanleriaren Errolda (2011)

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

Euskadiri dagozkion kopuruen kasuan, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldari (2011) buruz Eustatek egindako datuen ustiaketa arabera, Frantzia lan egiten duten eta Euskadin bizi diren pertsona okupatuen kopurua 390ekoa da. Guztizko horretatik gutxiengo batek soilik (% 2) du Frantziako nazionalitatea.

Honako hau da Euskadin kolektibo horren banaketa geografikoa: 221 Bizkaian bizi dira; 115 Gipuzkoan, eta 54, Araban.


Edonola ere, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko mugaz gaindiko enpleguaren guztizko bolumena 3.863 lagunekoa da.



Mugatik gertueneko udalerrietan arreta jarri gero, mugaz gaindiko langile gehienek egoitza Hendaian dutela ikus daiteke (2.220, ia % 70); jarraian, distantzia handira, Urruña eta Donibane Lohitzune (guztira % 15 biltzen dute, 422 eta 57kopuru absolutuetan, hurrenez hurren). Azken batean, aipatutako hiru udalerriek metatzen dituzte Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean dauden hegoalde-iparralde mugaz gaindiko zazpi enplegutik sei.

Bestalde, bilakaeraren ikuspegitik, INSEEn datuen arabera, Pirinio Atlantikoen Departamendutik Espainiarako mugaz gaindiko enplegua ugartu egin da azken urteetan, grafiko honetan ikus daitekeen moduan.

3.2 grafikoa Pirinio Atlantikoetan bizi diren eta Espainian lan egiten duten langileak, nazionalitatearen arabera




Iturria: INSEE.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

Azkenik, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko langileen mugimenduaren bereizgarri nagusietako bat aipatu behar da: hain zuzen ere, Espainiako nazionalitatea duten eta mugatik gertuko Frantziako udalerrietan bizi diren (Hendaia eta Urruña, funtsean) eta lanpostuak Euskadin eta/edo Nafarroan dituzten pertsonen nagusitasun erabatekoa. Mugaz gaindiko fluxuen gehiengoak iparraldetik hegoalderako norabidea du, baina hegoaldekoak diren eta lanpostua hegoaldean duten pertsonak dira protagonista. Beraz, jatorrizko lekuan duten lanpostura joateko egunero muga gurutzatzen duten pertsonak dira; beraz, kasu horietan, lekualdaketa horiek egoitza-lekua aldatu izanak eragiten ditu, eta ez enpleguaren kokapenak.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.4 mapa Mugaz gaindiko langile kopurua, nazionalitatearen arabera



Iturria: Bertan egina.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.2.2. Gizarte Segurantzako datuetatik abiatuta mugaz gaindiko enpleguaren hurbilketa

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean mugaz gaindiko langileen kopuruaren hurbilketa egiteko kontsultatutako beste informazio-iturri bat izan dira Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala (INSS) eta Caisse Primaire d'Assurance Maladie (CPAM). Bi erakundeak arduratzen dira mugako langileen (herrialde batean bizi eta bestean kotizatzen dutenak) osasun-estalduraren eskaerak tramitatzeaz. Informazio-iturri honek, hala ere, urtean zehar kopuruetan aldaketa handiak ditu; mugako langile batzuek iraupen laburreko kontratuak dituztelako izan liteke (esaterako, lau hilabetekoak), eta beraz, urte hasierako estatistiketan ager daitezke eta gero baja izan eta urtean gainerako aldi osoan desagertu.

INSSren Prestazioen Zuzendaritzaorde Orokorrak emandako datuak mugako langileek Europako "S1"¹⁷ dokumentuan erregistratutako eskaerei dagozkie (INSSek igorritako "E-106-ES" formularioa). Horrekin lotuta, kontuan izan behar da formularioak familia-unitate osoari ematen diola estaldura eta mugako eskakizuna bete behar dutela.

Informazio-iturri horren bidez lortutako emaitzekin, egiazta dezakegu Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean dagoen mugaz gaindiko enplegu gehiena Pirinio Atlantikoetako Departamenduan bizi diren egoiliarrei eta Gipuzkoako Gizarte Segurantzaren kotizatzaile (langile) gisa erregistratuta dauden langileei dagokiela.

3.7 koadroa Euskadiko eta Nafarroako autonomia-erkidegoek igorritako eta 2017/04/18an indarrean diren E-106-ES formularioak

Mugako langileak	S1 eskaerak edo E-106-ES formularioak
Euskadi (Frantzia bizi diren eta Euskadin kotizatzen dutenak)	2.399
- Araba (Frantzia bizi diren eta Araban kotizatzen dutenak)	0
- Bizkaia (Frantzia bizi diren eta Bizkaian kotizatzen dutenak)	39
- Gipuzkoa (Frantzia bizi diren eta Gipuzkoan kotizatzen dutenak)	2.360
Nafarroa (Frantzia bizi diren eta Nafarroan kotizatzen dutenak)	251
Frantzia bizi diren eta Euskadin/Nafarroan kotizatzen duten langileak, guztira	2.650
Frantzia (Gipuzkoan bizi diren eta Frantzia kotizatzen dutenak)	252
Gipuzkoan bizi diren eta Frantzia kotizatzen duten langileak, guztira	252
Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko mugako langileak, guztira	2.902

Iturria: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala.

Dena den, Baionako Caisse Primaire d'Assurance Maladie (CPAM) erakundera atxikitako mugako langileei lotuta eskatutako informazioari dagokionez, honako datu hauek jaso dira:

- Espainian bizi eta Baionako CPAMeko barrutian soldatapeko jarduera egiten duten eta "S1" formularioa 2016an balidatu zaien langile kopurua 215ekoa da.

¹⁷ https://europa.eu/youreurope/citizens/work/social-security-forms/s1_form_es.pdf

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

- Baionako CPAMeko barrutian bizi eta Espainian jarduera profesionala garatzen duten eta Donostiako, Iruñeko eta Bilboko INSSek igorritako E106 formularioa 2016ko abenduaren 31n balidatu zaien langile kopurua 4.169koa da.


Beraz, dagokion erakunde sozialetan osasun-estalduren eskaeren bidez erregistratutako mugako langileen kopurua (soldatapekoak) 4.384koa da (2016ko CPAMen kopuruak hartuz gero) edo 2.902koa (2017ko apirilko Gizarte Segurantzako kopuruak hartuz gero). Lehen aipatu dugun moduan, gorabehera horiek iraupen laburreko kontratuak dituzten mugako langileen kolektiboko alta eta baje fluxuaren eraginez sortutakoak dira.

Hala eta guztiz ere, eta lortutako emaitza guztiak oro har aztertuta, ondorio interesgarri hauek atera daitezke:

- Mugaz gaindiko enpleguak ez du egoera finkorik, lan-kontratuen altei eta bajei lotutako gorabehera handiak dituen fenomeno da; hala, esaterako, eraikuntza-lan batek hilabete jakin batzuetan mugimendua ekar dezake eta langileak mugaz gaindikoak bihur litezke aldi horretan, eta, ondorioz, urte horretan bertan erregistro administratiboetan altak eta bajak eragin ditzakete. Horregatik, INSS eta CPAM erregistroen bidez lortutako kopuruek nolabaiteko gorabeherak dituzte urtean zehar.
- Osasun-estaldurei lotutako formularioen bidez erregistratutako mugaz gaindiko enplegu bolumena eta 2011ko eta 2013ko Biztanleriaren Errolda ofizialetatik ateratako datu estatistikoak murrizak dira. Lortutako kopuru horietako handiena kontuan hartuta ere, Akitania Euskadi Nafarroa mugan mugaz gaindiko enpleguaren kuantifikazioak ez ditu maila garrantzitsuak hartzen, batez ere, Europako mugaz gaindiko beste eremu batzuekin alderatuta.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.3 grafikoa Datu estatistiko eta administratiboen desberdintasunak iturrien arabera




Iturria: Bertan eginda.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.3. Europako muga ugaritako mugaz gaindiko enpleguaren azterketa konparatiboa

2017an, Europako herrialderen baten bizi ziren bi milioi lagunek baino gehiagok egiten zuten lan gutxienez astean behin beste herrialde batean, Eurostateko lan-indarrari buruzko inkestaren arabera. Mugako langile kopuru handiena bidaltzen duten herrialdeak honako hauek dira: Frantzia (438 000), Alemania (286 000), Polonia (155 000) eta Italia (120 000). Europa ekialdeko eskualde batzuek ere mugaz gaindiko fluxuaren bolumen handia dute, esaterako, Eslovakia ekialdeak eta Errumania ipar-ekialdeak.

3.5 mapa Lan-arrazoiengatik mugako herrialdeetan mugitzen den biztanleria, 2015-2017




Iturria: Eurostat, EU labour force survey.

Baina zalantzarik gabe, Frantzia da mugako lanaren herrialde esportatzaile nagusia. Herrialde kopuru handiarekin muga egiten duelako gertatzen da hori (Italia, Andorra, Espainia, Monako, Belgika, Luxenburgo, Alemania, Suitza, baita Erresuma Batua ere, Mantxako kanalaren bidez), eta Europa guztiko mugako langile guztien % 22 inguru xurgatzen du.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.6 mapa Mugaz gaindiko langile kopuruaren bilakaera, 2012-2016




Iturria: Eurostat, EU labour force survey.

Mugako langileen kontzentrazio handia ikus daiteke Frantzia iparraldeko eta ekialdeko mugetan, Belgikako, Luxenburgoko, Alemaniako eta Suitzako mugako eskualdeetan. Hain zuzen ere, Suitzak erakartzen ditu Europako mugako langile gehien, zehazki, Alemaniatik, Frantziatik eta Italiatik.

Frantziako hegoaldeko mugetan, mugako langileak ez dira hain ugariak. Kopuruak, hala ere, Espainiako muga goranzko joera arina erakusten du, baina aldiz, murizten ari dela dirudi Proventza-Alpeak-Kosta Urdina eskualdean, Italia eta Monakorekin muga. Espainiarekin muga egiten duten Frantziako eskualdeen artean, Akitanian gertatzen da mugako fluxu handiena, eta gorantz egin zuen 2012 eta 2015 artean. Espainiako aldean, mugako langile kopurua handiagoa zen Katalunian Euskadin baino 2015ean.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.7 mapa Mugaz gaindiko langileak Frantziako mugetan



Iturria: herrialde bakoitzeko estatistika-institutuak.

Ikus daiteke Frantziatik enplegu arloan erakarpena eragiten duten herrialdeetara bideratzen dela mugako langileen fluxua, hau da, Luxenburgora (70.300 mugako langile), Alemaniara (46.000) edo Suitzara (170.300). Frantzia hegoaldeko mugetan, fluxua ez da hainbestekoa: Monakoko printzeriak 26.000 langile baino gehiago erakartzen baditu ere, helmuga gisa Italia eta Espainia dutenak askoz gutxiago dira.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.4. Mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak

Mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak hiru informazio-iturri osagarriren arabera zehazten dira:

- Biztanleriaren errolda ofizialeko ustiaketatik datozen datu estatistikoak (2013 urtekoak Akitania Berrian eta 2011koak Euskadi eta Nafarroaren kasuan).
- Datu fiskalen ustiaketa: Mugako Langileen Erregistroa¹⁸ (Frantzia bizi diren langileei bideratutakoa) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuak beste zerga-eredu batzuei lotuta emandako informazioaren ustiaketa.
- Azterketa honetarako Euroeskualdeko mugaz gaindiko langileei egindako inkesta espezifikoak.¹⁹

3.4.1. Mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak, biztanleriaren errolda ofizialeetatik jasotako datu estatistikoak oinarri hartuta

Euskadin bizi diren mugaz gaindiko langileen ezaugarriak begiratu, hau da, Euskadin bizi izanik iparraldeko lanpostura joateko Bidasoako muga gurutzatzen duten langileen kasuan, ondorio aipagarriak atera daitezke:

- Ikasketa maila baxua duten pertsonen ehuneko handia: % 38k lehen mailako edo baxuagoko ikasketak ditu, emaitza deigarria da kontuan hartzen badugu Euskadin okupatutako biztanleria osoaren artean % 21ek soilik duela prestakuntza maila hori.
- Mugikortasunaren aldeko jarrera duen biztanleria. Mugaz gaindiko langile horien % 30 soilik bizi izan da beti Euskadin, eta bertan 5 urte baino gutxiago daramatenak % 38 dira. Mugaz gaindiko enplegua, beraz, mugikortasunaren aldeko jarrera duten (egoitza/lana) profilekin lotuta dagoela dirudi.
- Eraikuntzaren sektoreko ordezkaritza handia. Mugaz gaindiko langileen kolektiboaren jardura-sektore nagusia ez den arren, ehunekoei dagokienez ordezkaritza handia du eraikuntzaren sektoreak (% 16), Euskadiko biztanleria okupatu guztien artean sektore horren garrantziaren batez bestekoa (% 6 baino

¹⁸ 1996ko abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretua; horren bidez Mugaz gaindiko Langileen Erregistro bat sortu da Ogasun eta Finantza Departamentuan. 2003ko abenduaren 23ko 1.403/2003 Foru Agindua; horren bidez, Langileen Erregistroan alta, aldaketa eta baja egiteko eskaeraren 002 ereduak onartu da.

¹⁹ Inkesta honen helburua izan da mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarri eta arazoietan sakontzea. Horretarako, Bidasoaren alde batean bizi diren baina beste aldean lan egiten duten langileen lagin bati inkesta egin zaio. Aipagarria da aurkeztutako emaitzak hurbilketa gisa hartu behar direla, ezin baita zehatz-mehatz lagin ordezkagarria denik esan; izan ere, mugaz gaindiko enplegua duten langile guztiak identifikatzen dituen datu-baserik ez dago. Inkesta on lineko galdetegiaren aplikazio bidez egin zen eta 142 lagunek erantzun zuten guztira. Inkesta egiteko aldia 2017ko maiatzetik ekainera artekoa izan zen.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

txikiagoa) baino altuagoa. Industria-sektoreak, bestalde, ordezkaritza txikiagoa du mugaz gaindiko langileen kolektiboan.

3.8 koadroa Euskadin bizi diren eta lanpostua Frantzia duten pertsona okupatuak

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba	Euskadi
Jarduera nagusia	100,0	100,0	100,0	100,0
▪ Nekazaritza	1,7	1,4	0,0	1,3
▪ Industria	16,5	11,3	11,1	12,8
▪ Eraikuntza	18,3	12,2	29,6	16,4
▪ Zerbitzuak	63,5	75,1	59,3	69,5
Euskadin bizi izandako urteak	100,0	100,0	100,0	100,0
▪ 3 urte baino gutxiago	20,9	27,1	35,2	26,4
▪ 3 - 5 urte artean	9,6	12,2	14,8	11,8
▪ 5 urte baino gehiago	32,2	33,0	22,2	31,3
▪ Betidanik	37,4	27,6	27,8	30,5
Lan-egoera	100,0	100,0	100,0	100,0
▪ Enpresaburua/ norbere konturako profesionala edo langilea	18,3	24,0	18,5	21,5
▪ Besteren konturako langilea	70,4	64,7	66,7	66,7
▪ Beste egoera batzuk	11,3	11,3	14,8	11,8
Gehieneko ikasketa maila	100,0	100,0	100,0	100,0
▪ Lehen mailakoak edo gutxiago	34,8	38,5	46,3	38,5
▪ Lanbide-ikasketak	18,3	11,8	7,4	13,1
▪ Bigarren mailakoak	21,7	24,4	25,9	23,8
▪ Goi mailakoak	25,2	25,3	20,4	24,6

Iturria: Eustat (2011)


Iparra-Hegoa mugaz gaindiko enpleguari dagokionez (Pirinio Atlantikoen Departamenduan bizi eta lanera Euroeskualdearen Hegoaldera joaten den biztanleria), honako hau ondoriozta daiteke:

- Mugaz gaindiko langileen enpleguan zerbitzuen sektorea da nagusi.
- 35 eta 54 urte arteko adin-tarteak ordezkaritza handia du.
- Bidasoaren hegoaldean bizi eta iparraldera lanera doazen mugaz gaindiko langileen artean baino langile autonomo gutxiago.


3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.8 mapa

Alboko herrialdera lanera joaten den mugaz gaindiko langile kopurua, jardueraren arabera




Nombre de travailleurs frontaliers



Données / Fuente :
France : Insee, Recensement de la population 2013, exploitation complémentaire
Euskadi : Eustat, Censo de Población 2011

Secteur d'activité


- Agriculture
- Industrie
- Construction
- Services



Iturria: INSEE (2013); EUSTAT eta Biztanleriaren Errolda (2011).

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.4 grafikoa Espainiara lanera doan mugako langile kopurua, adinaren arabera



Iturria: INSEE.

3. Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.9 koadroa Mugaren alde batean bizi den eta beste aldean lan egiten duen biztanleria okupatua

	Bidasoa eskualdea	Oarsoalde	Donostia	Gipuzkoa	Euskadi	Pirinio Atlantikoak			Nafarroa			
						Hendaia	Urruña	Donibane Lohitzune	Nafarroa, guztira	Eskualdea: Pirinioa	Eskualdea: Ipar-mendeb aldea	Eskualdea: Baztan-Bidasoa
Nazionalitatea												
▪ Frantsesa	4	0	0	5	7	260	97	28	28	1	0	7
▪ Beste bat	34	10	23	110	383	1960	325	29	233	1	2	38
Jarduera nagusia												
▪ Nekazaritza	2	0	0	2	5	10	0	0	28	0	0	3
▪ Industria	9	2	4	19	50	365	65	9	45	0	0	7
▪ Eraikuntza	10	3	3	21	64	164	0	0	62	0	0	4
▪ Zerbitzuak	17	5	16	73	271	1681	357	43	125	2	2	31
Euskadin bizi izandako urteak												
▪ 3 urte baino gutxiago	4	2	7	24	103	--	--	--	13	0	0	10
▪ 3-5 urte	3	1	0	11	46	--	--	--	37	0	0	0
▪ 5 urte baino gehiago	16	2	9	37	122	--	--	--	116	1	0	14
▪ Betidanik	15	5	7	43	119	--	--	--	95	1	2	21
Lan-egoera:												
▪ Norbere konturako profesionala edo langilea	8	1	3	21	84	-	49	15	50	0	0	0
▪ Besteren konturako langilea	29	8	17	81	260	1.978	373	43	207	2	2	45
▪ Beste egoera batzuk	1	1	3	13	46	-	-	-	3	0	0	0
Gehieneko ikasketa maila												
▪ Lehen mailakoak edo gutxiago	13	6	6	40	150	--	--	--	113	0	2	27
▪ Lanbide-ikasketak	8	3	2	21	51	--	--	--	38	0	0	5
▪ Bigarren mailakoak	10	1	5	25	93	--	--	--	33	2	0	7
▪ Goi mailakoak	7	0	10	29	96	--	--	--	76	0	0	7

Iturria: Insee (2013), Eustat (2011) eta Nastat (2011)

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.4.2. Mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak, datu fiskalen ustiaketa oinarri hartuta

Biztanleriaren errola ofizialeetatik jasotako datu estatistikoetatik ez ezik, dagozkien ogasunek dituzten datu fiskaleetatik ateratako informazioaren bidez ere zehatz litezke mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Ogasunak ustiaketa espezifiko egin du azterketa honen testuinguruan honako hauetatik ateratako informazioari dagokionez:

- 002 eredua. Mugako Langileen Erregistroa²⁰
- 296 eredua. Bizitoki iraunkorrik ez duten eta egoiliarak ez direnei egindako atxikpenak
- 210 eredua. Bizitoki iraunkorrik ez duten eta egoiliarak ez direnen errenta
- Egoiliarak ez direnen zerga-erregimen berezia (Europako Ekonomia Erkidegoan bizi direnak)
- 200 eredua. Sozietateen gaineko Zerga

Aitortzaileen datuen ustiaketa espezifiko; honako irizpide hauek aplikatu zaizkie:

- Mugaz gaindiko Langileen Erregistroan izena emandako biztanleria (soldatapeko pertsonetarako)
- 296 eredua bete duten biztanleak (bizitoki iraunkorrik ez duten eta egoiliar ez direnen errentaren gaineko zerga) edo, dagokionean, 190 eredua bete dutenak (Laneko errendimenduak, jarduera ekonomikoak eta sariak).
- Atxikpen nulua (% 0) edo oso baxua duten biztanleak.
- 10.000 € baino gehiagoko sarrerak aitortu dituen biztanleria (horrek, kasu askotan, jarduera txikiak egiten dituzten langile autonomoak edo mugaren beste aldean enplegua modu iraunkorrean egiten ez dutenak salbuestea dakar).
- Sarreren % 75 baino gehiago Espainian sortu duen biztanleria (bizitoki iraunkorrik gabeko langileen kasuan)

Hori guztia kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioa informazio-iturri ona da mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak zehazteko. Hain zuzen ere, gorago agerian geratu den moduan, neurri handi batean Gipuzkoan lan egiten duten eta Frantziako mugako udalerrietan bizi diren pertsonak dira.


Behin informazioa araztutakoan, eta irizpide sendoak aplikatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kalkuluaren arabera, 2015ean 10.000 euro baino gehiagoko sarrerak izan zituzten mugaz gaindiko soldatapeko langileen kopurua, guztira, 1.477koa zen. Kopuru horri zerga-aitorpena egiteko aukerako erregimena egitea hautatu duten bizitoki finkoa

²⁰ http://www2.gipuzkoa.net/wps/wcm/connect/398dae8f-f6e8-4d18-bff2-756f46e0c7c2/002_1_1.pdf?MOD=AJPERES

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

du ten langile autonomoen eta langile funtzionarioen kategoriak gehituz gero, guztizko bolumena, azkenean, 1.738koa izan zen 2015ean.

3.5 grafikoa Mugaz gaindiko langileen banaketa, lan-sistemaren arabera



Iturria: Ogasun eta Finantza Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

a) Mugako Langileen Erregistroko al ten eta baje n bilakaera (200 eredu a)


Mugako Langileen Erregistroan mugako langileen (soldatapekoak) alta kopuruak (ikus xehetasunak fiskalitateari buruzko kapitulu an) ibilbide beherakorra izan du 2008tik, baina bolumenak nabarmen gaitiditu du krisi-urte gogorrenetako baje n kopuru a (2008-2012); hain zuzen ere, aldi horretan, al ten batez bestekoak 375 egin zuen gora, eta baje n batez bestekoa 253koa besterik ez zen.

Dena den, kontuan hartu behar da baje i dagozkien datuak kontu handiagok hartu behar direla al tenak baino, al ten kasu an pertsonak pizgarri argia baitute alta emateko ekintza administatiboa egiteko (zerga bikoitza saihestea), eta hori ez da gertatzen baje n kasu an.

2013tik aurrera, al ten eta baje n arteko erlazioa al derantzikatu egin zen eta baje k gaitiditu egiten dituzte altak (298 vs 237, batez beste, hurrenez hurren, 2013-2015 hirurtekoan). Aztertutako al dian, alta kopuru baxuena 2015ean izan zen: 185, urte horretan kontabilizatutako mugako soldatapeko langile guztien % 13 ia.

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.6 grafikoa Mugaz gaindiko langileen alden eta baje bilakaera 2007-2015



* urtean 10.000 € baino gehiagoko sarrerak

Iturria: Ogasun eta Finantza Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

b) Bizitokia eta lantokia, mugaz gaindiko langileen datu fiskalen arabera

Bildutako informazioak berretsi egiten du fluxu nagusiak Hendaian sortzen direla dioen abiapuntuko hipotesia (Bidasoako muga hegoaldera gurutzatzen duten lau mugaz gaindiko langileetatik ia hiru biltzen ditu, zehazki, % 73). Jarraian, Urruña dator, mugaren hegoaldera lanera joaten diren mugaz gaindiko enpleguaren % 14 bilduta.

Pertsona horien lantokiari dagokionez, mugaz gaindiko enpleguaren % 60 baino gehiago mugatik gertuko udalerrietara joaten da: Bidasoa eskualdeak biltzen du % 30 eta, gutxienez²¹, beste hainbestek Donostian du lanpostua (% 31) edo Oarsoaldeko eskualdeko udalerrien batean (% 9).

²¹ Foru Ogasunaren arabera, badago pertsonen beste ehuneko bat benetako lanpostua hiriburuan edo inguruetan izanik ere, enpresa "Gipuzkoatik kanpo" sailkatuta ageri dena, enpresaren egoitza nagusia Gipuzkoako lurraldetik kanpo duelako (hori da, esaterako, finantza-erakundeek, zerbitzu publikoen eta abarren kasua), eta horregatik esan daiteke gutxieneko balioa dela.


3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.7 grafikoa

Mugaz gaindiko langileen banaketa, bizi diren udalerriaren arabera

3.8 grafikoa

Mugaz gaindiko langileen banaketa, lan egiten duten udalerriaren arabera




Iturria: Ogasun eta Finantza Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Azken batean, ziurtasun osoz esan daiteke lan-arrazoiengatik mugaz gaindiko mugimendu gehienak irismen laburrekoak direla (distantzia laburrak dira nagusi).

Puntu honetan, "Transfemuga"²² proiektuko datuei erreferentzia egin diezaikegu; BAB, Bidart, Getari, Donibane Lohitzune, Ziburu, Hendaia, Urruña, Biriato udalerrietatik muga hegoaldera gurutzatzen duten ibilgailu kopurua egiaztatu ahal izan da eta 2.882koa zela jakin ahal izan da. Aldiz, hegoaldeko iparralderako fluxuak 1.358 ibilgailukoak ziren. Lan-arrazoiak mugan erregistratutako mugimenduen zati txikia ziren (% 18).

3.9 grafikoa

Mugako lekualdaketen arrazoiak



Iturria: Transfemuga. Diagnostic du territoire et de la mobilité.

²² AECT Akitania Berria Euskadi Nafarroa sustatutako proiektu honi esker, 2013an Lurraldearen eta Mugikortasunaren Diagnostikoa egin ahal izan zen. Diagnostiko hori ere lan-arrazoiengatik mugikortasunari buruzko informazio-iturri interesgarria da; izan ere, egunero Frantzia eta Espainia arteko mugako pasabide ugariak gurutzatzen zituzten ibilgailuei egindako inkesta kopuru handia oinarri hartuta egindako landa-lan handinahia izan baitzen. Webgunea: <http://www.transfemuga.eu>.

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

c) Laneko profila, mugaz gaindiko langileen datu fiskalen arabera

Soldatapekoen profila da nagusi iparraldetik hegoaldera muga gurutzatzen duten mugaz gaindiko langileen artean. Aztertutako datuen arabera, ikus daiteke laginaren % 85 (1.477) soldatapeko pertsonen kategoriakoa dela. Funtzionarioak % 13 dira, aldiz, langile autonomoak % 2,5 besterik ez.


d) Generoa, mugaz gaindiko langileen datu fiskalen arabera

Zehazki, Bidasoako muga iparraldetik hegoaldera gurutzatzen duten pertsonen sexuari dagokionez, % 60 gizonak dira eta gainerako % 40a, berriz, emakumeak.

Adinari dagokionez, lau lagunetik hiru 36 eta 55 urte arteko adinekoak dira. % 13k soilik dute adin hori baino gutxiago, aldiz, 55 urte baino gehiagokoak % 12 dira. Emaizta horiek 2016ko Gipuzkoako biztanleria okupatuaren egiturarekin alderatuz gero²³, mugaz gaindiko langileen kolektiboan 25 urtez azpikoak gutxiago direla ikus daiteke: % 0,7, aldiz, Gipuzkoan okupatutako pertsonen artean ikusitako batez bestekoa % 4koa da.

Ondorioz, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean dagoen mugaz gaindiko enplegua batez ere gizonekoena da, eta 36 eta 55 urte arteko adin-tarteak dira nagusi, hau da, batez bestekoa baino helduagoa den biztanleria okupatua da.

3.10 grafikoa Mugaz gaindiko langileen banaketa, sexuen arabera 3.11 grafikoa Mugaz gaindiko langileen banaketa, adinaren arabera



Iturria: Ogasun eta Finantza Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia.

²³ BJA-Eustat datuak.

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

e) *Sektore mailako banaketa, mugaz gaindiko langileen datu fiskalen arabera*

Mugaz gaindiko enpleguaren sektore mailako banaketak agerian uzten du industria sektoreak lan-arrazoiengatik muga gurutzatzen duten pertsonen % 17 biltzen duela, zerbitzuen sektoreak % 80 baino gehiago biltzen du, merkataritza, konponketa eta garraioa izanik jardura-adar ohikoenak (% 40). Gizarte-zerbitzuek eta pertsonari emandako zerbitzuek edo aisialdikoek % 21 xurgatzen dute eta enpresei emandako zerbitzuek, beriz, % 13. Eraikuntzak eta higiezin jarduerak, bestalde, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean dagoen mugaz gaindiko enplegu guztiaren % 6ko garrantzi erlatiboa biltzen dute.

3.12 grafikoa Mugaz gaindiko langileen banaketa, sektorearen arabera



Iturria: Ogasun eta Finantza Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

f) *Sarrerak, mugaz gaindiko langileen datu fiskalen arabera*

Mugaz gaindiko bi enplegutik ia batek 30.000 euro baino gehiagoko urteko sarrerak ditu.²⁴

Aitortzaileen artean, hala ere, ehuneko handi batek urtean 20.000 euro baino gutxiagoko sarrerak ditu.


Sarrera maila baxu horiek ohikoagoak dira zerbitzuen sektoreetan. Industria-sektoreak du sarrera altuekin lotura handiagoa (30.000 euro baino gehiago).

Sarrerak altuak, gainera, funtzionarioen kolektiboari lotuagoak daude.

²⁴ Hilean 10.000 euro baino gehiagoko sarrerak dituzten aitortzaileen artean.

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean


3.13 grafikoa Mugaz gaindiko langileen banaketa, sarreraren arabera



Iturria: Ogasun eta Finantza Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

3.14 grafikoa Mugaz gaindiko langileen banaketa, sarreraren eta sektorearen arabera

3.15 grafikoa Mugaz gaindiko langileen banaketa, profilaren arabera



Iturria: Ogasun eta Finantza Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.


3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.4.3. Mugaz gaindiko enpleguaren ezaugarriak, mugaz gaindiko langileen inkesta oinarri hartuta

a) *Lantokia*

Lortutako informazioaren arabera, inkesta egindako mugaz gaindiko 10 langiletik ia 7k Bidasoa hegoaldean lan egiten dute, aldiz, gainerako 3rek Akitania Berrian. Proportzio hori bat dator iturri estatistiko ofizialetatik lortutako datuekin; mugaz gaindiko fluxu gehienek iparraldetik hegoalderako norabidea dutela ikus baitaiteke.

3.16 grafikoa Mugaz gaindiko lantokia



Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

Inkestak jasotako fluxuen azterketa zehatzagoa eginez gero, ikus dezakegu Donostia dela hegoalderako erakarpen-polo nagusia, Bidasoako herrien gainetik (Irun eta Hondarribia); horrez gain, Oarsoaldeko beste udalerri batzuk ere (Pasaia, Errenteria, Oiartzun, Lezo) fluxu horien helmuga garrantzitsua dira. Nafarroarantz identifikatutako mugimenduak konparazioz askoz urriagoak dira (ez dira % 5era iristen).

Hegoaldetik Iparralderako fluxuei dagokienez, Hendaia nabarmentzen da erakarpen-foku nagusi gisa (fluxuen % 20 ia), eta jarraian, Baiona (% 10). Mugaz gaindiko gainerako fluxua batez ere Communauté d'agglomération Pays Basque-ko beste udalerri batzuen artean banatzen da batez ere, baita Landetako hegoaldeko eremuko beste udalerri batzuetan ere (Tarnos, Seignosse...).

b) *Antzintasuna mugaz gaindiko enpleguan*


Mugaz gaindiko espazioan lan egiten duten pertsonen enpleguan duten antzintasunarekiko eskuragari dauden datuek islatzen dute mugaz gaindiko enpleguaren zati handi bat nahiko antzinakoak direla, bereziki Bidasoaren iparraldetik hegoaldera lekualdatutakoen artean. Zehazki, pertsona horien % 65 inguruk egungo lanpostuan 10 urte

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

baino gehiagoko antzintasuna du (20 urte baino gehiagoko kasuen % 19 bane). Ehuneko hori % 30era jaisten da Akitania Berrira joaten direnentzat (hegoalde-iparraldeko langileen % 6,5ek soilik du 20 urte baino gehiagoko antzintasuna). Beraz, mugaz gaindiko enpleguan antzintasun handiko kolektiboa da.

Hala ere, enpleguaren zati handi bat berriagoak dira. Hain zuzen ere, % 23k (Euskadi-Nafarroa) eta % 30ek (Akitania Berria) 5 urte baino gutxiagoko antzintasuna dute, bi kasuetan sartuta daude duela urtebete baino gutxiagotik mugaz gaindiko enpleguan lan egiten duten % 14 eta % 9 inguru, hurrenez hurren.

3.17 grafikoa Mugaz gaindiko enpleguaren antzintasuna, lantokiaren arabera




Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

c) Jarduera-sektorea eta okupazioa

Mugaz gaindiko langileen kolektiboaren jarduera-sektoreari dagokionez, lantokiaren arabera alde garrantzitsu batzuk ikus daitezke (Iparraldea edo Hegoaldea). Bi kasuetan (bai Iparraldean, bai Hegoaldean) zerbitzuen sektoreak gehiengoa biltzen badu ere, hori nabarmenagoa da Euskadira-Nafarroara joaten direnen artean (% 74) Akitania Berrira joaten direnen artean baino (% 61); haientzat industriak garrantzi handiagoa du (% 23, Bidasoa hegoaldean lan egiten dutenen ia bikoitza, % 14). Zerbitzuen sektorean sakonduta, enpresei emandako zerbitzuak, garraioa, hezkuntza eta osasuna/gizarte-zerbitzuak nabarmenak dira.

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.18 grafikoa Jarduera-sektorea, mugaz gaindiko lantokiaren arabera



Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

Bestalde, lanerako muga gurutzatzen duten pertsonen % 10 inguruk (fluxuaren norabidea edozein izanik ere) eraikuntza-enpresetan lan egiten du, eta oso gutxi dira lehen mailako sektorean okupatutakoak (bereziki Euskadin eta Nafarroan).

Okupazioei dagokienez, mugaz gaindiko enpleguen profila nahiko altua da bi fluxuetan. Bi kasuetan, profesional zientzialari eta intelektualak dira talde ugariena (guztizkoaren % 25 inguru), arkitektoak, abokatuak, sendagileak, ekonomistak, irakasleak, ingeniariak eta abar barne. Garrantziari dagokionez, bigarren taldea (% 25 ingurukoa hori ere) zerbitzuetako langileena da, agente komertzial, saltzaile eta hirugarren sektoreko beste lanbide batzuetako jende ugariarekin. Bigarren maila batean, administrazio-laguntzako langileak eta maila ertaineko teknikariak eta profesionalak daude (% 10 eta % 15 artean). Gutxiago dira industria arloko okupazioetan lan egitera joaten direnak (ofizialak, langileak, artisauak eta abar), bereziki hegoaldera.

3.10 koadroa Okupazioa, mugaz gaindiko lantokiaren arabera

Okupazioa	Euskadi-Nafarroa	Akitania Berria
▪ Zuzendariak eta gerenteak	3,7	0,0
▪ Profesional zientifiko eta intelektualak	26,1	25,7
▪ Maila ertaineko teknikari eta profesionalak	14,9	14,3
▪ Administrazio-laguntzako langileak	16,4	11,4
▪ Zerbitzuetako langileak eta saltoki eta merkatuetako saltzaileak	22,4	25,7
▪ Nekazariak eta nekazaritza eta abeltzaintzako, basoetako eta arrantzako langile kalifikatu	0,0	0,0
▪ Arte mekanikoetako eta beste lanbide batzuetako ofizialak, langileak eta artisauak	9,7	11,4
▪ Instalazio eta makinetako langileak eta mihiztatzaileak	2,2	11,4
▪ Oinarrizko okupazioak	4,5	0,0
▪ Guztira	100,0	100,0

Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

d) Egoera profesionala eta enpresaren neurria

Mugaz gaindiko enpleguaren egoera profesionalari dagokion informazioak antzeko profila erakusten du mugaz gaindiko langileen artean, edozein izanik ere haien lantokia. Hala, soldatapeko langileak dira gehiengoa bi fluxu motetan (gutzizkoaren bi heren inguru), eta horiei langile funtzionarioen % 10 inguru gehitu behar zaie.

Hala ere, nabarmendu beharrekoa da autonomoek presentzia nabarmena dutela (gutxi gorabehera gutzizkoaren laurden bat), mugaren bi aldeetan okupatutako biztanleriaren batez bestekoa baino askoz altuagoa. Bestalde, kooperatibista-izaera nabarmena antzeman daiteke Bidasoa hegoaldean lan egiten dutenen artean (% 5).

3.11 koadroa Egoera profesionala eta enpresaren neurria, mugaz gaindiko lantokiaren arabera

Kategoria profesionala	Euskadi-Nafarroa	Akitania Berria
▪ Soldatapekoa	61,6	66,7
▪ Autonomoa	23,8	20,8
▪ Kooperatiba-kidea	5,3	0,0
▪ Funtzionarioa	9,3	12,6
▪ Gutzira	100,0	100,0
Enpresaren neurria		
▪ 2 lanpostu gehienez	15,8	19,1
▪ 3 eta 9 lanpostu artean	18,7	17,0
▪ 10 eta 49 lanpostu artean	25,2	29,8
▪ 50 eta 249 lanpostu artean	15,1	17,0
▪ 250 lanpostu baino gehiago	25,2	17,0
▪ Gutzira	100,0	100,0

Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

Mugaz gaindiko langileek lana garatzen duten enpresen neurriari dagokionez, gehienek 250 lanpostu baino gutxiagoko ETE-etan egiten dute, hegoaldera muga gurutzatzen dutenen artean ia hiru laurdenek eta are gehiagok (% 90 ia) iparraldera gurutzatzen dutenen artean. 10 lanpostu baino gutxiagoko mikroenpresak bereziki ugariak dira azken kasu horretan (% 36 Akitania Berriko lanpostuetarako eta % 34 Euskadi-Nafarroaren kasuan).

e) Lan-baldintzak

Jarraian, mugaz gaindiko langileen lan-baldintzekin lotutako alderdi ugari aztertuko dira, zehazki, kontratu mota (mugagabea edo alde baterako), lanaldi mota (osoa edo partziala) eta soldata-ordainketa.

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.19 grafikoa Kontratu mota, mugaz gaindiko lantokiaren arabera




Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

Egindako inkestaren informazioaren arabera, ikus daiteke kontratu motaren profila nahiko antzekoa dela mugaz gaindiko enplegu guztietan, edozein izanik ere lantokia; izan ere, kontratu mugagabeen nagusitasun zabala dago (%85 inguru, Akitania Berrira lanera joaten direnentzat gehixeago), eta zati txiki bat dira aldi baterakoak (% 15 inguru, zertxobait gehiago Euskadi-Nafarroaren kasuan).

Lanaldi motari dagokionez, lantokiaren arabera alde handiak ikus daitezke. Bidasoaren bi aldeetan lanaldi osoko lanpostuak argi eta garbi nagusi izan arren, iparraldera lanera joaten diren pertsonen artean lanaldi partzialak garrantzi erlatibo handiagoa (% 23) du hegoaldera joaten direnen artean baino (% 6,5).

3.20 grafikoa Lanaldi mota, mugaz gaindiko lantokiaren arabera




Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

Soldata mailako ordainsariei dagokienez, ateratako datuek benetan profil desberdina dute mugaz gaindiko lan-fluxuaren noranzkoaren arabera: Akitania Berrira lanera joaten direnek itxuraz ordainsari baxuagoak jasotzen dituzte Bidasoa hegoaldera lanera joaten direnek baino. Hain zuzen ere, lehen multzokoaren artean % 74k urtean 30.000 euroren azpitik jasotzen du, aldiz, bigarren multzokoaren artean, % 61 soilik dago soldata tarte horren azpitik. Beste

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

muturrean, iparraldera joaten diren langileen % 15ek 40.000 euro baino gehiago irabazten du; aldiz, kontrako noranzkoan, hau da, iparraldetik hegoaldera, joaten direnen % 18k.

3.21 grafikoa Soldata ordainsariaren maila, mugaz gaindiko lantokiaren arabera




Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

f) Hizkuntzen erabilera lanean

Lanpostuko hizkuntza-erabilerrari dagokionez, inkestaren emaitzek erakusten dute hegoaldean lan egiten duten gehienek gaztelania erabiltzen dutela (ia % 89), jarraian euskara (% 25) eta frantsesa (% 17). Bestalde, Bidasoaren iparraldera joaten direnek batez ere frantsesa erabiltzen dute (ia % 65), baina talde zabal batek gaztelania ere erabiltzen du (% 35) eta neurri txikiagoan, euskara (% 21).

3.22 grafikoa Egungo lanpostuan erabilitako hizkuntzak, mugaz gaindiko lantokiaren arabera



Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.


3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

g) Mugaz gaindi lan egiteko arrazoiak

Mugaz gaindiko enplegua aztertzean funtsezko elementua da Bidasoaren alde batean bizi direnek mugaren "beste aldean" lan egiteko dituzten arrazoiak aztertzea. Horrekin lotuta, ateratako datuen arabera, profil nahiko desberdina dute lan-fluxuaren noranzkoaren arabera.

Akitania Berrira lanera joaten direnen kasuan, lan-aukera egokia topatu izana da kasu gehienek arrazoi nagusia (% 58); aldiz, Euskadin edo Nafarroan lan egiten dutenentzat arrazoi hori % 23ra jaisten da eta beste batzuek hartzen dute garrantzia. Arrazoi horien artean nabarmentzen dira egoera pertsonalak edo familiakoak, enpleguari lotuta ez daudenak (etxea osatzea, ikastetxeak, bizimodua... kasuen % 27 baino gehiago bilduta) eta/edo bizitokiarekin lotutako egoerak (etxebizitzaren eskaintza eta prezio egokia, kasuen beste % 30); horietan Bidasoaren iparraldean bizitokia eta Hegoaldean enplegua dituzten konbinazioak gertatzen dira. Inkesta egindako hitzetan, familiako laguntzak edo zerga-abantailak eta antzeko beste arrazoi batzuk ez dira hain garrantzitsuak.

3.23 grafikoa Mugaz gaindiko lanaren arrazoiak, lantokiaren arabera



Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

Eraitza horiek, beraz, noranzkoaren arabera mugaz gaindiko fluxuen atzean dauden arrazoiarekin alderatuta beste izaera bat dute: Euskadira-Nafarroara lanera joaten diren gehienek Espainiako nazionalitatea dute eta bizitokia Bidasoaren iparraldean dute (egoera pertsonalengatik eta etxebizitza-arrazoiengatik), baina enplegua Hegoaldean mantentzen dute. Bestalde, Akitania Berrian lan egiteko muga gurutzatzen duten pertsonak batez ere iparraldean erakargarria egin zitzaizen lan-aukera topatu zutelako egiten dute, eta haientzat ez da oztopo izan lanerako muga gurutzatu behar izatea.


3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

h) Mugaz gaindiko enpleguaren zailtasunak eta desabantailak

Langileek mugaz gaindiko izaeran topatzen dituzten langileen zailtasunei eta desabantailari dagokienez, fluxuaren noranzkoa edozein izanik ere, bi alderdi nabarmentzen dira. Lehenik eta behin lanarekin eta mugaz gaindiko mugimenduarekin lotutako zerga alderdiak dira; horiek Akitania Berrian lan egiten dutenen % 58k baino gehiagok aipatzen dituzte eta Euskadi-Nafarroan lan egiten dutenen ia % 30ek. Oro har, eta modu erantsian, inkesta egindako mugaz gaindiko langileen % 36k zailtasun hori adierazi du.

Bigarren lekuan, mugaz gaindiko langileek laneko lekualdaketatik garraioarekin lotutako zailtasunak adierazi dituzte; hain zuzen ere, Bidasoaren iparraldera lanera joaten direnen artean % 44rentzat desabantaila handia da eta hegoaldera joaten direnen artean ia % 30entzat. Kopuru erantsietan mugaz gaindiko langileen kolektiboaren % 32 biltzen du.

3.24 grafikoa Mugaz gaindiko enpleguaren zailtasunak eta desabantailak, lantokiaren arabera



Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.


Euskadira-Nafarroara lanera joaten direnentzat bereziki garrantzitsua da hizkuntzaren zailtasuna (kasuen % 19), baina ez hainbeste Akitania Berrira doazentzat (% 12,5). Etxebizitzarekin lotutako desabantailak ere nahiko esanguratsuak dira mugaren iparraldera lanera joaten direnentzat (% 21), baina ez hegoaldera lanera joaten direnentzat (% 5).

i) Mugaz gaindiko enpleguarekiko asebetetzea

Inkesta egindako langileen gehiengo zabala enpleguaren mugaz gaindiko izaerarekin asebeteta ageri da, bi fluxu motetarako antzeko proportzioan: % 89 Euskadira-Nafarroara lanera doazentzat eta % 78 Akitania Berrira doazentzat. Hala ere, lehenengoen artean % 11k ez dagoela asebeteta dien arren, bigarren multzoan proportzio hori % 22ra igotzen da.

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

3.25 grafikoa Mugaz gaindiko enpleguarekiko asebetetzea, lantokiaren arabera




Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

Asebetetze maila altu horren atzean dauden alderdiek profil nahiko antzekoa dute mugaz gaindiko bi fluxu motetarako.

Bi kasuetan, lehenik eta behin nahiko argi nabarmentzen da "laneko ordutegiak eta egutegia" faktorea, kasuen % 40 inguru asebetetzen duena. Bigarren lekuan, langileen proportzio bat (% 25-30 inguru) asebetetzen duten zenbait faktore daude; soldata maila, duten kualifikazioaren eta enpleguaren arteko egokitzapen maila, eta azkenik, sustapeneko eta karrera profesionalerako itxaropenak. Azken lekuan, estaldura sozialen inguruko gaia geratzen da, ez dirudi hain asebetegarria denik Akitania Berria lanera doazenentzat (% 6), eta Euskadira-Nafarroara joaten direnen artean ere gutxien aipatzen dena da (% 21).

3.26 grafikoa Mugaz gaindiko enpleguaren alderdi asebetegarrienak, lantokiaren arabera




Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

Azkenik, eta inkesta egindako pertsonen egiteko aukera izanez gero mugaz gaindiko langile izaera aldatuko ote luketen galdetuta, lortutako profila fluxuaren noranzkoaren arabera guztiz kontrakoa da: Bidasoaren hegoaldera lanera joaten diren gehienek (% 40) mugaz gaindiko lan-egoera ez luketela aldatuko diote; aldiz, iparraldera joaten direnen

3 Mugaz gaindiko enplegua Euroeskualdean

artean, aurkakoa gertatzen da, hau da, gehienek aldatuko lukete aukera izanez gero (% 42). Hala ere, bi kasuetan pertsonen kuota garrantzitsu batek (herena, gutxi gorabehera) alderdi horretan ez du ezer esan.

3.27 grafikoa Mugaz gaindiko langile-izaera aldatu nahi izatea, lantokiaren arabera



Iturria: IKEI. Mugaz gaindiko langileei egindako inkesta, 2017.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

4. EUROESKUALDEKO MUGAZ GAINDIKO LANGILEEN ESKUBIDE SOZIALAK ETA TESTUINGURU FISKALA

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

4.1. Mugaz gaindiko testuinguru fiskala

Kapitulu²⁵ honen helburua da mugaz gaindiko langileek eta enpresek duten testuinguru fiskala eta lege-testuingurua aztertzea, eta enpresa- eta lan-jardueren garapenean ematen diren arazo ohikoenak identifikatzea.

Lan-ikuspegitik, herrialde desberdin, baina elkarren artean hurbil dauden bi lekutan lan egiteak eta bizitzeak ondorio eta tratamendu desberdina du dagokion jarduera profesionalaren arabera. Ez da egoera bera egoiliar ez den soldatapeko pertsona batena, mugako soldatapeko batena, langile autonomo batena (pertsona fisikoa edo sozietate bateko kidea), funtzio publikoko batena edo langabetu batena.

Enpresaren ikuspegitik, nabarmentzekoa da krisiaren hasieratik nabarmen ugartu direla egoera ekonomiko zailari itenbidea eman nahian, alboko herrialdeko merkatuetara zabaltzeko planteamendua egiten hasi ziren Gipuzkoa aldeko enpresak (eta oro har, Euskadikoak eta Estatukoak). Horregatik handitu dira Frantziako arauak betetzeko, egokitze eta kontrolatzeko sartutako neurriak.

Egoera pertsonal, profesional eta enpresarialen aukera zabal hori araudiaren aplikazioarekin konbinatu behar da, araudia ez baita bakarra, askotarikoa eta heterogeneoa baizik. Kontuan izan behar da Euroeskualdean Bidasoaren hegoaldean soilik bost administrazio fiskal daudela (Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako, Nafarroako Foru Ogasunak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia), bakoitza bere araudiarekin. Horri gehitu behar zaio enplegu-zerbitzu publiko ugari egotea, eta Enplegu Ministerioaren eta SEPEren esku-hartzeak, Gizarte Segurantzaren estatuko sistema eta osasun publikoko zerbitzu ugari egotea Euskadin eta Nafarroan. Errealitate konplexu hori gehitu behar zaio Euroeskualdearen iparraldean Ogasunaren, Gizarte Segurantzaren, Enpleguaren edo Erretiroaren eta abarren arloan Frantziako erakundeen aniztasuna.

Oinarizko egoera bat nabarmendu behar da; hau da, erakunde publiko bakoitzaren eskumenek ez dutela beti bi herrialdeen artean baliokidetasun bera izaten.

Beraz, foru-araudien, Estatuko eta Europako arauen aplikazioa/interpretazioa ez da beti erraza izaten, batzuk besteen gainetik aplikatu behar izaten baitira edo, batzuetan, elkarren osagarri izaten baitira. Konplexutasun horrek, batez ere, ageriko bi ondorio ditu: nahiko erraza da zuzentzen garen erakundeen inguruko informazioa jasotzeko hizketakide gaitua topatzea, baina ez da erraza aldi berean herrialde bati eta besteari dagokienaren arteko lotura egin ahal izango duena topatzea. Araua betetzea, kasu gehienetan, ez da bi herrialdeetan erantzun independentea ematea, baizik eta elkarri

²⁵ Kapitulu hau garatzeko, iturri ofizialak, testu juridikoak eta Europako, nazio mailako eta eskualde mailako dokumentazioa aztertu da. Era berean, MYL Mugan Asesoras aholkulariek lekuan bertan duten esperientziak baliatu gara Gipuzkoan eta Frantzian enpresei eta partikularrei aplikatutako fiskalitatea zehatz aztertzeo. Mugako langileen babes sozialari buruzko azterketa juridikoari dagokionez, gai hori buruz Isabelle Daugareillek (CNRS-Centre National de Recherche Scientifique, Ikerketako zuzendaria) egindako hausnarketak eta lanak hartu ditugu kontuan.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

lotutako erantzunak ematea. Herrialde batean egindakoaren arabera, kudeaketa horien jarraipena egin behar da bestean. Hori da eskumena duten erakundeetara joaten diren pertsonen topatzen duten arazo nagusietako bat. Bi herrialdeen elkararreragina eskatzen duten gaitan informazio-/aholkularitza-behar argia dago.

Egoera pertsonalen zailtasunak eta espezifikotasunak nabarmen gainditzen du dagoen lege-egitura, eta gero eta maizago, errealitate sozioekonomikoan, laneko merkatuan eta negozio-ereduetan dauden etengabeko aldaketak ikusita. Estatuetako bakoitzean edota Europa mailan ere arau ugari izateak ez du estaltzen beti mugako elkarrekintzan sortzen diren lan- eta enpresa-egoeren aniztasun handia, eta maiz, herritarrek hutsune legalak izaten dituzte aurrean.

4.1.1. Mugako lanaren eta fiskalitatearen araudi-testuinguru orokorra²⁶

a) Zerga ezarpen bikoitza saihesten duen Espainiaren eta Frantziaren arteko hitzarmena

Arlo fiskalean ez dago mugaz gaindiko langileei aplikatu beharreko zerga zehazten duen komunitateko xedapenik. Europako Batzordeak 1979an Komunitate baruan langileen zirkulazio askearekin lotuta errentaren gaineko zergari buruzko xedapenak bateratzeari buruzko proposamena egin zuen. Bertan, mugako langile guztiek zergak bizi ziren herrialdean ordaintzeko printzipioa ezarri zuten, baina proposamen horrek porrot egin zuen eta 1992an kendu zuten.

Hori dela eta, mugaz gaindiko enpleguaren araubide fiskalari dagokionez, Europako Estatuak sinatutako alde biko zerga-hitzarmenetara jo behar da, sarrera transnaziionalen zerga ezarpen bikoitzak saihesteko.

Frantziaren eta Espainiaren artean sinatutako Hitzarmenak ezartzen du laneko errenten zergak bizitoki duten Estatuan ordaindu behar direla. Estatu kontratatzaileen artean adostasun partikularrekin sortutako mugako dokumentu bidez mugako langile-izaera egiaztatzen duena hartzen du Hitzarmen horrek mugako langiletzat.

Zerga ezarpen bikoitza saihesteko Espainiaren eta Frantziaren arteko azken Hitzarmena 1995ean sinatu zen²⁷. Hitzarmen horren protokoloan, haren osagai gisa hartuta, honako xedapen hau dago:

"12. Hala ere, 15. artikuluko 1 eta 2 ataletan xedatutakoaz gain, Estatu kontratatzaileen artean xedapen berriak hitzartzen ez diren artean, ondarearen eta errentaren gaineko zergetan zerga

²⁶ Europako mugaz gaindiko enpleguaren fiskalitateari buruzko informazio orokor ugari ikus daiteke hemen: http://europa.eu/youreurope/citizens/work/taxes/income-taxes-abroad/index_es.htm.

²⁷ Errentaren eta ondarearen gaineko zergen arloan zerga-ihesa eta -iruzurra prebenitzeko eta zerga bikoitza saihesteko Espainiako Erreinuaren eta Frantziako Errepublikaren artean 1995eko urriaren 10ean Madrilan sinatutako hitzarmena. 1997ko ekainean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua. <http://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1997-12729>

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

ezarpen bikoitza saihesteko Espainiaren eta Frantziaren arteko 1973ko ekainaren 27ko Hitzarmeneko 4. atalean xedatutakoa, jarraian datorren testua duena, indarrean mantenduko da:

«4. Estatu kontratatzaileen artean akordio partikularrekin sortutako mugako dokumentu bidez mugako langile izaera egiaztatzen duten langileek, soldata, lansari eta kontzeptu horrekin jasotako bestelako ordainketengatik, bizi diren Estatu kontratatzailean soilik ordaindu beharko dituzte zergak.»

Estatu kontratatzaileetan eskumena duten agintariek zehaztuko dute, beharrezkoa denean, aurreko xedapenak nola aplikatuko diren eta bereziki adostuko dute, beharrezkoa izanez gero, mugako gutunaren izaera duen dokumentu egiaztagiria, xedapen hauetako helburuetarako.

Frantziak eta Espainiak ez dute hitzartu mugako langileen araubideei buruzko xedapen berririk Hitzarmeneko protokoloak ahalbidetzen duen moduan, beraz, indarrean jarraitzen du 1973ko Hitzarmeneko 15.4 artikulua. Horrez gain, ez dute 1973ko²⁸ ekaineko Hitzarmeneko 15.4 artikulua nola aplikatu behar den ere zehaztu, ezta mugako langile izaera egiaztatzen duen dokumentua adostu ere.

b) Mugako langileen araubidea: aplikatutako eskakizunen desadostasunak eta aniztasuna

Euskadiko hiru lurralde historiko, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, eta Nafarroako lurralde historikoaren zerga-bilketako eskumenaren ondorioz, indarrean diren kontzertu eta hitzarmenen zerga arloko foru-araubideen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1996an eta oraintsuago 2011n Nafarroako Foru Erkidegoak haien lurralde-eremuan mugako lana arautu dute, eta mugako langileen araubidea aplikatzeko eskakizun desberdinak ezarri dituzte.

Gipuzkoaren kasuan, Mugako Langileen Erregistroa sortzen duen 1996ko abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuak (DF 90/1996)²⁹ Erregistro hau sortzea xedatzen du, zerga bikoitza saihesteko Espainiaren eta Frantziaren arteko 1973ko ekainaren 27ko Hitzarmeneko 15. artikuluko 4. atalean (mendeko lana) xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako modu eskusiboan. 1996ko Dekretua 1998ko otsailaren 3ko 7/1998 Foru Dekretuak aldatu zuen, eta eskakizun hauek ezarri ziren mugako langile-izaera eskuratu nahi duten pertsona fisikoentzat:

- 1) Ohiko bizitokia Frantzian izatea.

²⁸ Errentaren eta ondarearen gaineko zergen arloan zerga ezarpen bikoitza saihesteko Espainiaren eta Frantziaren arteko Hitzarmenaren Berreste Tresna (1973ko ekainaren 27an) <http://www.boe.es/boe/dias/1975/05/07/pdfs/A09592-09598.pdf>

²⁹ Abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuak (DF 90/1996) mugako langileen erregistroa sortzen du Ogasun eta Finantza Departamentuan http://www2.gipuzkoa.net/wps/wcm/connect/007494a8-1445-4f64-ac21-37ab489b2d63/DF_90_1996.pdf?MOD=AJPERES

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

- 2) Gipuzkoako Lurralde Historikoan soldatak, lansariak edo besteren konturako lan bat egitearen ondoriozko ordainketak jasotzea, honako sarrera hauek izan ezik:
 - a. Aldi berean sozietate egoiliarak diren Administrazio Kontseiluetako edo Batzordeetako kideen asistentzia-dietak eta antzeko beste ordainsariak.
 - b. Lurraldeko Administrazio Publikoetako funtzionarioek eta enplegatuek edo zuzenbide publikoko pertsona juridikoek jasotako ordainsariak.
 - c. Lurraldeko Administrazio Publikoei edo zuzenbide publikoko pertsona juridikoei emandako zerbitzuengatik ordaindutako pentsioak, Espainiako naziotasunik ez duen pertsona fisiko batek jasotakoak direnean izan ezik.
- 3) Normalean egunero itzultzea ohiko bizitokira.

Araba eta Bizkaiaren kasuan, Gipuzkoan ez bezala, ez dago Mugako Langileen Erregistrorik. Mugakotzat hartzeko eskatutako eskakizunei buruz dagozkien Ogasunetan jasotako kontsultak ikusita, Arabak 1961eko Akordioa jo zuen, aldiz, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboak (FAEA) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dotrina hartu zuen (2004); haren arabera, mugako langileen adierazpena hauei aplikatu behar zaie: *“egunero ohiko bizitokira itzultzeko eskakizuna betetzen duten langileak, eskakizun gehigarriak gabe, esaterako 1961eko Akordioan definitutako mugako eremuaren barruan egotea laneko eta bizitokiko udalerriak”*.

Azken batean, mugako langiletzat hartzeko aplikatutako eskakizunak desberdinak dira eta nolabaiteko nahasmendua dago. Hain zuzen ere, teoriarik Gipuzkoako Ogasunak ez du aplikatzen mugako langileak 1962an ezarritako tarte geografikoaren barruan enplegua izatearen eskakizuna (laneko lekua Gipuzkoako edozein udalerritara zabaltzen du). Hala ere, praktikan, Frantziako agintariek dagokion pertsonaren mugako izaera berretsi behar dutenez, izaera hori "de facto" baliozkotzat ematen ari dira, eta mugako estatusa tarte geografiko horretara mugatzen dute, gaur egun, itxura guztien arabera, oso zaharkitua eta murriztua dirudien tartera, hain zuzen ere.

Nafarroaren kasuan eta 59/201 Foru Aginduaren arabera³⁰, mugako langile-izaeraren eskaera egin dezake Frantziako mugako eremuaren barruan egoitza fiskala eta ohikoa duen eta Espainiako mugako eremuaren barruan Nafarroako udalerriaren batean besteren konturako lana egiten duen pertsona orok. Pertsona horiek mugako langiletzat hartuko dira eta lan horretatik ateratako errentak bizi diren Estatuan soilik ordainduko dituzte. Horrekin, zerga ezarpen bikoitza saihestu eta PFEZ arloan zerga-ihesa eta -iruzurra prebenitu nahi da.

Horrela, 59/201 Foru Aginduaren finkatutako Nafarroaren eta Frantziaren arteko mugako eremua Frantzia eta Espainiaren arteko mugako eremuan sartutako udalerriek osatzen dute, Espainiaren eta Frantziaren artean 1961eko urtarrilaren 25ean egindako akordio

³⁰ Apirilaren 13ko 59 /201 Foru Agindua, <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=12474>

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

osagariaren arabera³¹; eremu hori osatzen duten udalerriek Akordio horren eranskinean sartuta daude. Dena den, Akordio horren sinadura ondoren, zerrenda hori aldatu egin da behin baino gehiagoetan adostutako agiri-trukearen³² bidez, eremu hori zabalduz. Udalerri horiek 2011ko apirilaren 13ko 59/2011 Foru Aginduan jasota daude eta II Eranskinean azaltzen dira mugako eremuan sartutako udalerrien zerrenda³³.

Frantziak ere, bestalde, 1961eko urtarrilaren 25eko (1962ko martxoaren 21eko BOE) Frantziaren eta Espainiaren arteko akordio osagariaren arabera Frantzia eta Espainiaren arteko mugako eremuan sartutako udalerrien zerrenda erabiltzen du.

Hain zuzen ere, azaldutako guztia (eta Araban eta Bizkaian aplikatutako irizpide ezberdinak egindako kontsulten harira) agerian jartzen du "mugako langile" terminoak kontzeptu mailan duen mugaketa argitu eta eguneratu behar dela. Mugaketa hori ez da mugatu behar mugatik gertuko udalerrien zerrenda jakin batera; egunero egin daitezkeen distantzien perimetroa zabaltzeko behar da. Izan ere, azken hamarkadetan erotik aldatu da egoera (garraiobideetan hobekuntzak, aldaketa sozialak, aurrerapen teknologikoak eta abar).


³¹ Espainiaren eta Frantziaren arteko 1961eko Akordio Osagarriak bere 2. artikuluan ezartzen du mugako eremutzat hartuko direla "printzipioz, mugaren alde batera eta bestera hamar kilometroko sakontasuna duten eremuak" <https://boe.es/boe/dias/1962/03/21/pdfs/A03862-03872.pdf>

³² 1964ko uztailaren 3ko Agiri Trukeak (<https://boe.es/boe/dias/1964/09/15/pdfs/A12096-12100.pdf>) eta maiatzaren 21eko eta 1965ko ekainaren 1ekoak (<https://boe.es/boe/dias/1965/06/29/pdfs/A09222-09222.pdf>). Agiri Truke hauek mugako eremua mugaren alde batera eta bestera 20 kilometroko sakontasunara zabalitzen du.

³³ <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=12474>

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

4.1 mapa Frantziaren eta Espainiaren arteko Hitzarmenaren arabera, Frantzia eta Espainiaren arteko eremu fiskalaren perimetraia



Iturria: Bertan eginda.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

c) Frantzian eta Gipuzkoan aplikatutako fiskalitatearen xehetasuna

Partikularren fiskalitatea - Frantzia

Aurreko urtean diru-sarrerak jaso dituen eta Frantzian bizilekua duen adinez nagusia den pertsona orok aitortpena aurkeztu behar du. Atzerrian bizituta Frantziako iturrietatik sarrerak jaso dituzten pertsonak ere aurkeztu behar dute. Are gehiago, sarrerarik ez bada izan, errenta-aitortpena aurkeztu behar da bizitoki nagusia edo bigarren bizitokia baldin badu, edota etxeko langile bat izan badu.

Errentaren gaineko zerga Frantzian zerga zuzena da, urtero aurkezten da, pertsona fisikoen sarreraren zergan oinarrituta egoten da eta progresiboa da (sarreraren tartearen arabera ordaintzen da). Familiako zatidura-sistema baten gainean kalkulatzen da, hau da, familia fiskalaren kide diren pertsonen arabera pertsonalizatutako zerga da.

Fiskalki Frantzian bizitokia duten pertsona fisikoen sarrerak zergapegarriak dira honako diru-sarrera hauek jaso badituzte: soldatak, pentsioak eta erretiroak, kapital higagarrien etekinak, higiezinak, partikularren gainbalioak, komertzialak ez diren irabaziak, irabazi industrialak eta komertzialak eta nekazaritzako irabaziak.

Zergapegarria den sarrera osoaren zatikako zergaren bidez kalkulatzen da ordaindu beharreko zerga. Zergapegarria den zerga osoa honela kalkulatzen da: lehen aipatutako sarreraren baturari kengarriak diren kargak (mantenu-pentsioak...) eta legez aplikagarri diren deskontuak kenduta (adinekoak, ezinduek...). Hortik aurrera, zergapegarria den sarrera garbia kalkulatzen da eta familia fiskaleko kide kopuruaren artean zatitzen da (familia-zatidura). Baremoa aplikatzen zaio eta ateratakoari araututako zergen kredituak kentzen zaizkio (etxeko langileen kontratazioa, etxeko obrak, seme-alaben zaintzengatikoko gastuak...). Hortik aurrera, ordaindu beharreko zergak ateratzen dira.

4.1 koadroa Fiskalitatea Frantzian: aplikatutako tasak sarrera garbiaren baremoaren arabera

Zergapegarria den sarrera garbiaren baremoa (€)	Aplikatutako tasa (%)
0 eta 9.807€ artean	% 0
9.807 € eta 27.086 € artean	% 14
27.086 € eta 72.617 € artean	% 30
72.617 € eta 153.783 € artean	% 41

Iturria: Frantziako administrazio fiskala.

Frantzian, gaur egun, Gipuzkoan bezala, PFEZren errentaren aitortpenaren konturako aurrerakina ez da existitzen, baina aurrez ikusita dago 2019/01/01etik aurrera, Zerga-erreformaren lege berria abian jartzea, hileko aurrerakinean edo Retenue à la Source delakoan oinarritutakoa (bai enpresen bidez, soldatapekoen gainean dagokien

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

deskontua eginez, bai zergadun bakoitzaren kasuan hilero aurreratutako ordainketak eginez). Bigarren kasu horretan Frantziako ogasunak berak eskatuko luke, aurreko urteko errenta-aitorpenean ateratako zerga-ehunekoaren arabera, zerga-tasa berean hilero ordaintzea, eta urteroko aitortpenean ateratako ehunekoaren arabera eguneratzen joango da.

Gainera, nabarmendu behar da Gipuzkoan bizita Frantziara lanera doazen eta herrialde hartan zerbitzuak emateagatik soldata-etekinak ateratzen dituzten biztanleek (mugako izaera egiaztatzen ez badute) Frantziako Ogasunean Egoiliar Ez direnen zerbitzu berezian dagoen errenta-aitorpena aurkeztu eta zergak ordaindu behar dituztela. Gerora, eta bizi diren herrialdean errenta-aitorpena aurkezteko betebeharra dutenez, Frantzian aitortutako sarrera horiek sartu behar dituzte, eta dagozkien zergen kredituak aplikatuko zaizkie. Hala izan ezean, hau da, Frantzian bizita Espainian mugakoa ez den eremuan lan egiten duen biztanle batek, nominan %19ko atxikipena besterik ez du jaso beharko (egoiliarra ez denaren zerga), eta ez du aurkeztu beharko Ez Egoiliar gisa errenta-aitorpenik inon eta sarrera horiek bizitoki duen herrialdean aitortu beharko ditu Espainian dagoeneko sartutako % 19rekiko dagozkion deskontuak (zerga-kreditua) aplikatuta.

Partikularren fiskalitatea - Gipuzkoa

Oro har, Gipuzkoan bizi den eta Zergaren mende dauden errentak (laneko etekinak, jarduera ekonomikoenak, kapital higigarrienak eta higiezinak, ondare-irabaziak...) jasotzen dituen pertsona orok aurkeztu beharko du errenta-aitorpena. Hala ere, ez dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga autolikidatzeko betebeharririk izango modu eskusiboan iturri hauetatik datozen errentak jasotzen dituzten zergadunek:

- Guztira urtean 1.600 euroak gainditzen ez dituzten kapitalaren etekin gordinak, salbuesitakoak barne, eta ondare-irabaziak.
- Oro har, (salbuespenak salbuespen), lanaren etekin gordinak, banakako zerga-ordainketan urtean 12.000euroko mugarekin.

Funtsean, lortutako sarrera guztietan PFEZ errentaren konturako aurrerakina ordaintzen da; ordainketa horiek gero errentaren zerga aurkezteko unean lortutako azken emaitzatik kenduko dira. Urtero aurkeztuko da, aldi bakarrean.

Lehenik eta behin, zergapegarria den gertakaria hartu behar da kontuan, hau da, zergadunak lortutako sarrerak. Funtsean, honako hauek hartzen dira kontuan:

- Laneko etekinak.
- Jarduera ekonomikoen etekinak.
- Kapitalaren etekinak.
- Ondarearen irabaziak eta galerak.
- Foru Arau bidez ezarritako errentaren inputazioak.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

Hortik aurrera, PFEZren Oinarri Likidagarria kalkulatzen da. Hori bi oinarritan banatzen da:

- Oinarri likidagarri orokorra, hori aplikatzen zaizkio pentsio konpentsatzaileengatik eta elikagaiengatik dagozkien murrizketak, gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenak, eta baterako aitortpenagatiko murrizketak. Hemen, eta Frantzian zerga beragatik dagoen zerga-ordainketan ez bezala, aukera dago (ezkonduetako bikoteen edo izateko bikoteen kasuan) baterako aitortpena edo kide bakoitzak bere aitortpena modu indibidualean egiteko. Frantzian ez dago, oro har, aukera hori, aitortpen bakarra aurkez daiteke.
- Aurrezkiaren oinarri likidagarria. Kapital higigarriaren errendimenduek eta ondarearen galera eta irabaziek osatutakoa.

Jarraian, Kuota osoa kalkulatzen da: Zerga-oinarri orokorrerako taula espezifikokoaren arabera zerga-ordainketan ateratako kuotari aurrezkiaren oinarri likidagarriko zerga-ordainketa espezifikotik ateratako kuota gehituta.

Oinarri likidagarri orokorra eskala honetan adierazitako tasen arabera zergapetuko da:

4.2 koadroa Fiskaltatea Gipuzkoan: aplikatutako tasak oinarri likidagarri orokorraren arabera

Oinarri likidagarri orokorra, kopuru hauek arte (Euro)	Kuota osoa (Euro)	Gainerako oinarri likidagarria kopuru hauek arte (Euro)	Aplikagarri den tasa (%)
0	0	15.550	23,00
15.550	3.576,50	15.550	28,00
31.100	7.930,50	15.550	35,00
46.650	13.373,00	19.990	40,00
66.640	21.369,00	25.670	45,00
92.310	32.920,50	30.760	46,00
123.070	47.070,10	56.390	47,00
179.460	73.573,40	Hortik aurrera	49,00

Iturria: Gipuzkoako Foru Ogasuna

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

Aurrezkiaren oinarri likidagarri orokorra eskala honetan adierazitako tasen arabera zergapetuko da:

4.3 koadroa Fiskalitatea Gipuzkoan: aurrezkiaren oinarri likidagarriari aplikatutako tasak

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (Euro)	Aplikagarri den tasa %
2.500,00 arte	20,00
2.500,01 €-tik 10.000,00 € arte	21,00
10.000,01 €-tik 15.000,00 € arte	22,00
15.000,01 €-tik 30.000,00 € arte	23,00
30.000,01 €-tik aurrera	25,00

Iturria: Gipuzkoako Foru Ogasuna

Ateratako kuota osoari legez ezarritako kenkariak kenduko zaizkio. Honako hauek dira:

- Familiako kenkariak eta kenkari pertsonalak (ondorengotzengatik, seme-alaben mantenuagatik, aurrekoengatik, desgaitasunagatik eta adinagatik).
- Ohiko etxebizitzagatik kenkaria (erosketagatik edo alokairuagatik). Frantzia alokairurako eta erosteko kenkari horiek ez dira existitzen, baina aldiz, etxeetan energia-aurrezkiaren inguruko xedapen berrietara egokitzearekin lotuta ohiko etxebizitzan obra espezifikoak egiteko bai.
- Gipuzkoan jarduerak sustatzeko, dohaintzetarako eta bestetarako kenkariak.

Hortik aurrera, ateratako emaitzari PFEZn egindako konturako ordainketak kentzen zaizkio eta ordaindu beharreko zerga lortzen da.

Enpresen fiskalitatea (autonomoak eta enpresak) - Frantzia

Frantziako azken erreformaren ondoren, autonomo gisa erregistratzeko bi aukerak ia berberak izatera pasatu dira. Hala ere, bi autonomo mota bereizi behar dira:

- Langile independentea (autoentrepreneur)
- Mikroenpresa (Microentreprise)

Sortzeko eta negozio-zifrak aitortzeko formalitateak berberak dira, eta karga sozialak kalkulatzeko eta ordaintzeko modalitateak ere berberak dira.

Alde bakarra dago bi figura horien artean: mikroenpresek aukera izan dezakete *prélèvement fiscal libératoire* delakoa jasotzeko; kotizazio sozialez gain, mikroenpresak errenta-aitorpenerako bere onurarako zerga-ordainketaren kontura ehuneko bat ere ordaintzen du.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

Langile independentea (autoentrepreneur) automatikoki ez-soldatapekoen araubidera afiliatzen da eta irabazi profesionala modu klasikoan kalkulatzeko du, indarrean diren araudien arabera kontabilitatea eginez. Hiruhileko bakoitzean ordaindu beharreko karga sozialak irabazi profesionalaren gainean kalkulatzeko dira (errentaren gaineko zergaren mende dago hori).

Jardueraren hasieran, langile independentea (autoentrepreneur), betiere sarreraren gehienekoa gainditu ezean, mikroenpresaren araubide bereziaren mende egon daiteke:

- Urteko fakturazioa ezarritako gehieneko batzuen azpitik baldin badago, ez du TVAren (BEZa) aitorpenik egin behar, hau da, salmentak edo zerbitzu-emateak BEZ-ik GABE faktura ditzake, baina aldez, ezin du erostetik BEZa berreskuratu (ezarritako gehienekoak: 82.800 euroko sarrerak, zergak kanpo, etxebizitzako hornidura- eta merkataritza-jardueretarako edo 33.200 euroko sarrerak, zergak kanpo, BNC jardura eta zerbitzuetarako).
- Langile independentearen araubide klasikoak ere hauta dezake.
- Ez luke nahitaez kontabilitate klasikoak eraman behar, baina edonola ere, bai sarreraren eta gastuen liburu bat (horren berri ez dio Ogasunari eman beharrik).
- Nahikoa da urtero errenta-aitorpenean sarreraren guztizko zenbatekoa zehaztea. Irabazia forfait moduan ebaluatuko da, negozio-zifren gainean aplikatuta (fakturazioa, deskontu bat gastuen kontzeptuan).

Ondorio agerikoa eta berehalakoa da autonomoak eskatutako baldintzak bete arren (atalase jakin batzuk ez gainditzea), ez duela interes handiegirik mikroenpresaren araubidean mantentzeak, benetako gastuak forfitean aplikagarri diren deskontuak baino baxuagoak izan ezean.

Karga sozialak negozio-zifren gaineko ehuneko batean kalkulatzeko dira (fakturazioa), hau da, jarduerarik izan ezean, ez dira karga sozialak ordaintzen. Dena den, neurri bateko sarreraren azpitik, mikroenpresek aukera dute, lehen esan dugun moduan, kitatzeko ordainketa fiskala aukeratzeko, tasa oso interesgarriekin.

Banako enpresaburu batek (autonomia) jardura profesionala egiten du pertsona juridikoa sortu gabe. Dena den, langile autonomoaren ondare pertsonala arriskuan geratzen da. Ez du kapitalik behar eta ez dago idatzeko estatuturik, ez baita korporazioarik sortzen.

Titularrak hartzekodun profesionalakiko duen erantzukizuna erabatekoa da eta denbora aldetik mugagabea. Funtzionamenduari dagokionez, titularrak erabateko eskumenak ditu erabaki guztiak hartzeko muga ofizialik gabe.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

Kotizazio sozialak - banako enpresak (autonomoak) Frantzian

2019/01/01etik aurrera, autonomo gisa izena emandako lehen urtean, autonomia kotizazio sozialak ordaintzetik salbuetsita geratzea aurrez ikusi dute.

Autonomoek Frantzian, funtsean, RSI izena emanda egon behar dute, nahiz eta 2018/01/01etik URSSAF (Union de recouvrement des cotisations de la Sécurité sociale et d'allocations familiales) kotizazio-araubide orokorraren mende izatera pasatuko den. Horiek gaur egun partida hauengatik kotizatzen dute:

- Gaixotasuna eta amatasuna (% 6,5eko tasa)
- Erretirorako oinarizko pentsioa (% 17,4ko tasa)
- Pentsio osagarria (% 7ko tasa)
- Baliaezintasuna eta heriotza (% 1,3ko tasa)
- CSG, CRDS/CASA (% 8ko tasa, 2017/11/28tik onartuta, % 1,7ko igoera)
- Familia-laguntzak (% 5,25eko tasa)
- Lanbide heziketa (% 0,25eko tasa)

Kotizazio sozialak - Langile independenteak

Langilearen jardueraren izaeraren arabera (merkataria, artisaua, lanbide liberala, nekazaria...), erakunde ugari kobratzen dituzte kotizazio sozialak. Zerrenda osoa aipatu gabe, oso luzea izango bailitzateke, hauek dira nagusiak:

- RSI, le Régime social des indépendants (RSI), Gizarte Segurantzarako. (oharra: 2018/01/01etik aurrera URSSAFera pasatuko dira).
- La Caisse interprofessionnelle de prévoyance et d'assurance vieillesse (CIPAV) erretiratuentzat. Garatutako jarduera profesional motaren arabera atxiki beharreko kotizazioko Kutxa profesionalen zerrenda zehatza dago.
- URSSAF, kasu berezietan, profesional liberalentzat, funtsean.

RSI-ko kotizazio-tasak sarrera profesionalen mailaren arabera ezartzen dira.

- Gaixotasuna eta amatasuna (% 3tik % 6,5era arteko tasa)
- Erretirorako oinarizko pentsioa (% 17,4ko tasa)
- Pentsio osagarria (% 7ko edo % 8ko tasa)
- Baliaezintasuna eta heriotza (% 1,3ko tasa)
- CSG, CRDS/CASA (% 8ko tasa)
- Familia-laguntzak (% 2,15etik % 5,25era arteko tasa)
- Lanbide heziketa (% 0,25eko edo % 0,34ko tasa, merkatarien kasuan, ezkontide laguntzailearentzat)

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

Autonomoen kotizazio sozialak Gipuzkoan

Langile Autonomoen Araubide Berezian oinarriak ezartzen dira, eta horien arabera, zerga-tasa batzuk aplikatzen dira. Kotizazio-oinarria hauta daiteke, eta horren arabera, dagozkion ehunekoak aplikatzen dira.

4.4 koadroa Fiskalitatea Gipuzkoan: langile autonomoen kotizazio sozialak

Gutxieneko oinarria euro/hilean	893,10 €/hilean
Gehieneko oinarria euro/hilean	3.751,20 €/hilean
ABE duen tasa:	Ehuneko 29,80 Ehuneko 29,30 jarduera-etetearekin edo lan-istripu eta gaixotasun profesionalarekin
ABErik gabeko tasa:	Ehuneko 26,50

Iturria : Gipuzkoako Foru Ogasuna.

2017 urtetik aurrera, egoera jakin batzuekin, kuota finkoa ordaintzeko tarifa laua dago:

- Kotizazioko 50 euroko Tarifa Laua hamabi hilabetera luzatzea autonomo guztientzat. Erabili ahal izateko gabealdia bost urtetik bi urtera murriztu da. Hau da, autonomo batek tarifa laua erabili ahal izango du azken bi urteetan autonomo izan ez bada.
- Ama diren emakumezko autonomoek 50 euroko tarifa laua izango dute hamabi hilabetez amatasun-bajatik lanera itzulitakoan.
- Amatasunak eta aitasunak % 100eko kuota hobaritua izango dute baja-aldian.
- Etxean bertan lan egiten duten autonomoek elektrizitate-, gas- eta telefono-gastuen % 20 eta ibilgailuaren % 50 kendu ahal izango dute.
- Kuoten atzerapenengatik edo itzulketengatik penalizazioa % 10ekoa izango da lehen aldian, eta % 20koa bigarrenetik aurrera.
- Autonomoek oinarria urtean lau aldiz aldatu ahal izango dute orain arteko bi aldien orde.
- Langile Autonomoen Araubide Berezian altak eta bajak urtean 3 alditara arte egin ahal izango dira, eta egindako egunean izango dira eraginkorrak, hau da, autonomia alta emandako egunei dagokion kuota soilik ordainduko da eta ez hilabete osoa.

Jardueren hasieran, oro har, Ogasunaren aurrean bi izapide egin behar dira: alde batetik JEZen alta ematea, eta bestetik, Enpresaburuen, Profesionalen eta Atxikitzaileen Erroldan alta ematea.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

4.5 koadroa Sozietateen gainerako fiskalitatearen alderaketa Frantzia-Espainian/Euskadin/Nafarroan

	Frantzia	Espainia, Euskadi-Nafarroa
Sozietateen gainerako Zerga	Irabazi zergapegarrien % 33,33*	<u>Espainia:</u> % 15 irabazien lehen 2 urteetan / % 25 hurrengoetan. <u>Araba-Gipuzkoa-Bizkaia</u> (2016): % 28 tasa orokorra / % 24 enpresa txikiak 2018tik aurrera: % 24 <u>Nafarroa:</u> % 25 tasa orokorra % 19 - % 23 enpresa txikia

*: Aplikagarri diren kenkarien osteko irabaziak.

Iturria: Tas Consultoría Frantziarako eta Espainiarako eta Foru-ogasunak.

4.2. Laneko eskubidearen eta babes sozialaren araudi-testuinguru orokorra³⁴

Azterlan honek jorratzen dituen bi langile-kategoria garrantzitsuenen alderdi sozialak eta lanaren zuzenbidea jorratuko ditugu kapitulu honetan; hain zuzen ere, mugako langileekin eta langile desplazatuekin lotutakoak.

Hasteko eta behin, ezinbestekoa da mugako langilea eta mugaz gaindiko langilea bereiztea. Lehendabizikoa Europako legediak definitutako kategoria juridikoa da, eta haren ezaugarri nagusia zera da, pertsona batek egunero-egunero muga zeharkatzea (edota astean behin gutxienez) lanera joateko; bigarrena, beriz, nozio soziologikoa da gehiago, eta estatu kide batean bizi eta beste batean lan egiten duen langileari egiten dio erreferentzia, mugikortasunak maiztasun jakin bat eduki beharrik gabe. Kontrako aldean, langile migratzailea bere herrialdetik betiko irteten da, neurri handiagoan edo txikiagoan, eta beste herrialde batean instalatzen da eta lan egiten du. Ikuspegi juridikotik, aldi baterako langile migratzaileak eta migratzaile iraunkorrak ditugu: azken hori atzeriratu kategoriaren barruan ipiniko genuke. Kategoria horiek araubide juridiko desberdinak dituzte, dela lanaren aldetik, dela gizarte-segurantzaren aldetik.

Mugaz gaindiko langileek izaten dituzten kontratuen motak eta modalitateak Europar Batasunaren estatu kideen eskumen eskusibotik sortutako lan-legeriaren arabera arautzen dira. Alde horretatik, ez dago ez koordinaziorik, ez harmonizaziorik, salbuespenak salbuespen (mugikortasuna zerbitzuak modu askean emateko esparruan). Finean, Europako instantziek edota tokian tokikoek (Frantziako eskualdeek edota Espainiako autonomia-erkidegoek) ez daukate legegintzako eskumenik lan-zuzenbidean edota gizarte-segurantzaren esparruan. Horrenbestez, ez daukate auzion gaineen ezer egiteko modu handirik. Ondorioz, egoera horrek hainbat garapen eta babes-maila erakusten

³⁴ Europako herritarrentzako atzeriko gizarte segurantzako estalduraren gida ikus daiteke hemen: http://europa.eu/youreurope/citizens/work/work-abroad/cross-border-commuters/index_es.htm.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

dizkigu sistema nazionalen artean, hain zuzen ere, tokian tokiko esparruak sistema nazional horien mende baitaude.

Europar Batasunean mugikortasun profesionalak eraginda zirkulatzen duten pertsonen kategoria juridikoak etengabe ugaritzen ari dira, eta tankera askotako egoerak eta aukerak ari dira sortzen; horrek ezjakintasuna sortzen du, baita lege-testuek diotena ez betetzea ere.

4.2.1. Mugako langilea

- **Mugako langilearen eskubide eta betebeharrak sozialak**

Mugako langilearen figura Erkidegoko 883/2004³⁵ Erregelamenduan dago definituta (garai bateko 1408/71³⁶); hala, mugako langilea Europar Batasuneko estatu kide batean bizi dena eta beste estatu kide batean lan egiten duena da, eta egunero –edo astean behin– bueltatzen da bizi den estatu kidera. Frantziari eta Espainiari dagokienez, zona mugakidearen definizioa zehaztuta dago zerga-ondoreetarako. Hala, nozio horrek geografikoki zedarritzen ditu mugako estatutuaren onurak, eta, adierazi dugun moduan, zaharkituta dago.

Mugako langilearen izaerak jarraitu egingo du, baldin eta enplegatzaileak soldatapeko pertsona hori aldi baterako bidaltzen baldin badu Europar Batasuneko beste toki batera. Desplazamendu horren iraupena, hasiera batean, urtebete izango da, beste urte betez berritzeko aukerarekin. Lau hilabetez baino gehiagoz irauten duen desplazamendu baten ondorioz, mugako langilearen estatutua galdu egingo da. Alde horretatik, nabarmentzekoa da estatutu juridiko horrek ondorio ekonomiko erabakigarriak izan ditzakeela egiten den hautuaren arabera.

- **Mugako langilearen lan-zuzenbidea**

Mugako langilea, migratzailea bezalaxe, lan egiten duen herrialdeko legeriaren mende egongo da. Hala, langile nazionalak dituzten abantaila sozial guztiak izango ditu. Zehazkiago, 1612/68 Erregelamenduak³⁷, Europar Batasunaren barruan langileen zirkulazio askeari buruzkoak, 7. artikuluan tratu-berdintasuna aurreikusten du lan-harreman guztietarako eta, bereziki, ordainsariei, kaleratzeei edota laneratzeari loturik, baldin eta langilea langabezian badago.

Alde horretatik, mugan bizi diren EBko pertsonentzat –Espainiako zein Frantziako herritartasuna dutenak– muga-estatutuak ez du zailtasun edo berezitasun apartekorik eragiten, mugaren alde banatuko lan-merkatu sartzeari begira. Lan-zuzenbideari dagokionez, lanbide-jarduera gauzatzen duen estatuaren zuzenbidea aplikatuko da.

³⁵ http://www.empleo.gob.es/es/publica/pub_electronicas/destacadas/revista/numeros/64/Docu.pdf

³⁶ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:31971R1408&from=ES>

³⁷ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:31968R1612&from=ES>

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

Lanaren eskubide nazionalak ez dira koordinatzen edo harmonizatzen herrialde batetik bestera, eta lege-babesaren maila edota lan-hitzamenarena oztopo edo pizgarri izan litezke langileen mugaz gaindiko mugikortasuna sustatzeko garaian.

Bestalde, EBkoak ez diren mugako langileek zuzenbide erkidea izango dute Frantzia edo Espainian jarduera profesional bat gauzatzeko garaian. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan bizi diren hirugarren herrialdeetako pertsonak lan-baimena eskuratu beharko dute Frantzia lan egiteko. Baimen hori ez da beharrezkoa izango baldin eta euren jarduerak aldi baterako desplazamendu-tipologia baldin badauka, zerbitzuak ematearekin lotuta egon ala ez. Horrenbestez, konplexuagoa da mugako langilea izatea langile desplazatua izatea baino, Frantziako edo Espainiako herriartasuna ez duten langileen kasuan.

• **Gizarte-babeseko zuzenbidea mugako langilearentzat**

Gizarte-babesaren alorrean, mugako langileei aplikagarri zaizkien printzipioak eta araubidea, kasu espezifikoetan izan ezik, Europar Batasunaren barruko langile migratzaileei dagozkien berberak izango dira (hau da, estatu bakarreko afiliazioa, lan egiten duen herrialdekoa, baita langilea beste estatu kide bateko lurraldean bizi denean ere). Hori beste bi printzipio gaineratu behar zaizkio: kotizatutako denbora-tarteak batzeko printzipioa eta tratu-berdintasunekoak.

Hala, 1408/71 Erregelamenduak (orain 883/2004) mekanismo bakarra ezartzen du Europako gizarte-segurantza guztiak koordinatzeko, eta ez harmonizatzeko; hori dela eta, hutsarteak eta aldeak daude estatu kideen artean.

Alde horretatik, 1408/71 Erregelamenduak, estatu kideetako gizarte-segurantzako sistemak koordinatzekoak, eta hura aplikatzeko 574/72 Erregelamenduak³⁸, besteak beste, xedapen espezifikoak biltzen dituzte mugako langileei bideratuta. Hala, printzipioz, beste migratzaile batzuei errekonozitzen ez zaizkien abantailak aitortzen zaizkie, hala nola osasun-arretarako mugaz gaindiko sarbidea. Nolanahi ere, euren gizarte- eta familia-egoeraren ondorioz izaten dituzten arazoak ez daude nahitaez lotuta mugako langile izatearekin. Beste migratzaile-kategoria batzuekin partekatzen dituzten arazoak dira gehiago; horien arrazoiak, batez ere, legeria nazionalen arteko aldeak eta nahitaezko ez diren araubide osagarrien sistema nazionalen arteko erabateko koordinazio falta dira, batik bat pentsioen esparruan.

Mugako langilea, printzipioz behintzat, lan egiten duen estatuko gizarte-segurantzaren araubideari lotuta egongo da, estatu horretan modu eskusiboan lan egiten duenean.

Desplazamenduen kasuan (zerbitzuak ematera bideratuta ala ez), posible da langile bat bere ohiko gizarte-segurantzaren araubidera atxikita edukitzea, enplegatzaileak beste

³⁸ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:31972R0574&from=ES>

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

estatu kide batera bidaltzen baldin badu aldi baterako egiteko jakin batera (gehienez ere lau hilabetez).

Zehazkiago:

- Mediku-arretari dagokionez³⁹, mugako langileak bizi den herrialdean edo lan egiten duenean jaso ahal izango du zaintza medikoa, betiere zaintza horiek ematen dituen sistemaren baldintzen pean (baremoak, tarifak...). Horretarako, lan egiten duen herrialdean eman beharko du alta, eta dagozkion formularioak bete (S-1). Diruzko prestazioei dagokionez, kotizatzen duen gizarte-segurantzaren arabideen arabera ordainduko dira; hau da, eskuarki, lan egiten duen Estatuak (desplazamenduen kasuan izan ezik).
- Langabezia⁴⁰ kasuekin loturik, berriz, mugako langileak -soldatapekoa edo autonomia izan- bizi den herrialdeko laguntzak edo subsidioak bakarrik eskatu ahal izango ditu, bizi den herrialdera asteen behin baino gutxiagotan itzultzen ez bada. Kasu horretan, langileak ordainketa-herrialdea aukeratu ahal izango du (2010etik). Langabezian dagoen langileak bizi den estatuan indarrean diren esleipen-baldintzen eta zenbatekoen arabera jasoko ditu kalte-ordainak. Baliteke neurri hori ez izatea erakargarria, prestazioaren iraupena eta zenbatekoa txikiagoa denean, edota gizarte-laguntza ere ez denean berdina.
- Erretiroarekin⁴¹ loturik, ez dago xedapen berezirik, mugako langileari eragiten dionik. Langilea aseguratuta egon den estatu bakoitzak ordainduko dio pentsioa (lehendabizi pentsio nazionala kalkulatu da eta, ondoren, pentsio komunitarioa; estatu bakoitzeko erakundeak zenbatekorik handiena ordainduko du, hau da, pentsio nazionalaren eta pentsio komunitarioaren arteko alderaketatik eratoritako zenbatekorik handiena). Horren eragozpenak izan litezke, esaterako, gutxieneko lan-tarte bat aplikatzea, eta horrek egiaz ordaindutako pentsioaren murrizketa eragitea, erretiratzeko adin desberdina izatea, edota alarguntasun-pentsioa ordaintzea ala ez.
- Familiako laguntzei⁴² dagokionez, mugako langileak bizi den estatuko edo lan egiten duen estatuko familia-prestazioak jaso ahal izango ditu. Europako zuzenbideak hainbat irizpide ipini ditu martxan, familia-laguntzak lehendabiziko instantzian zer herrialdek ordaindu behar dituen zehazteko, eta definitzeko, halaber, zer baldintzatan egon litekeen behartuta beste estatua osagarri diferentzial bat ordaintzera. Familia-prestazioak zer estatuk ordaindu behar dituen

³⁹ Informazio gehiago jasotzeko: http://europa.eu/youreurope/citizens/health/when-living-abroad/health-insurance-cover/index_es.htm

⁴⁰ Informazio gehiago jasotzeko: http://europa.eu/youreurope/citizens/work/unemployment-and-benefits/index_es.htm

⁴¹ Informazio gehiago jasotzeko: http://europa.eu/youreurope/citizens/work/retire-abroad/state-pensions-abroad/index_es.htm

⁴² Informazio gehiago jasotzeko: http://europa.eu/youreurope/citizens/family/children/benefits/index_es.htm

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

zehazteko, soldatapeko pertsonaren egoera hartuko da kontuan, eta, zehazkiago, ezkontideak duen lanbide-jarduna. Familia-prestazioen zenbatekoa izugarri alda liteke herrialde batetik bestera.

Ohiko bizilekua zehazteak baliteke zailtasunak sortzea mugaz gaindiko langileen kasuan, baita aldi baterako edo desplazatutako langileen kasuan ere. Zailtasun horiek langilearen familia-egoeretara ere zabaltzen dira, eta horrek nahastea sortzen du.

Europako Batzordeak gida bat sortu eta argitaratu berri du ohiko bizilekua definitzeko⁴³; haren helburua zera da, Estatuari laguntzea Europar Batasunaren koordinazio-arauak betetzen. Hala, ohiko bizilekua eta aldi baterako bizilekua edo bigarren mailakoa argitzen ditu Europako zuzenbidearen arabera, ohiko bizilekua bakarra izan liteke eta estatu bakarrek izan lezake eskumena gizarte-segurantzaren prestazioetarako. Enplegatuek eta langile autonomoek lan egiten duten herrialdean bakarrik izan ditzakete estaldurak.

Laburbilduz, honako hauek dira mugako langileentzako gizarte-babeseko eskubideak.

- **Osasun-prestazioa. Bizi den herrialdean edo lan egiten den herrialdean aukera dezake.**
- **Langabeziako prestazioa. Bizi den herrialdean.**
- **Erretiroko prestazioa. Ez dago xedapen berezirik mugako langileentzat. Pentsio-eskubideak kotizatutako herrialdeetan metatu egiten dira. Langileak zenbateko onuragarriena jasoko du.**
- **Familia-laguntzak. Langilearen egoera pertsonalaren arabera.**

4.2.2. Langile desplazatua (zerbitzuak ematea)⁴⁴

Soldatapekoen desplazamendua, enpresa edo erakunde publiko batek bidalita, aspaldiko praktika da, juridikoki solidoa eta oso egokitua mugako bestelako mugikortasun profesionalek, langilearen estatutu juridikoan ageri direnetaz kanpo. Haren bidez, enplegatzaile publikoek eta pribatuek langileak aldi baterako bidal ditzakete kanpoko lanetara jatorrizko establezimenduetan, eta, hala, truke edo kontratu komertzialak, teknikoak, zientifikoak, kulturalak edo intelektualak lagundu edo egin ditzakete nazioartean. Europar Batasunaren barruko mugaz gaindiko lan-mugikortasunerako modu bat da (baita EBtik kanpora ere), jarduera-sektore espezifiko batzuetara oso bideratua (eraikuntza, turismoa, nekazaritza eta abar). Hala, figura horren jatorria ez litzateke pertsonen zirkulazio askea, baizik eta zerbitzuak aske ematea.

Nolanahi ere, mugikortasun-eredu horrek maiz jaso ditu kritikak, beste herrialde batzuetatik ekarritako low cost lan-eskua baliatzeko aukera ematen baitu, eta, hala, *dumping* soziala

⁴³ <http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=es&catId=868>


⁴⁴ <http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=471&langId=fr>

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

praktikatzekoa, legedian diren hutsarteak baliatuta. Zenbatespenen arabera, Europan 2015ean guztira 2 milioi langile desplazatu zeuden, eta 2010 eta 2015 bitartean % 41eko hazkundea izan du zenbateko horrek. Populazio aktiboarekin alderatuta proportzio apala ageri badu ere (EBko guztizko enpleguaren % 0,9 baino ez dira langile desplazatuak), sektore batzuetan langile desplazatuen kontzentrazioa handia da. Hala, kasuen % 36 eraikuntzaren sektorean metatzen dira, eta erdiak baino gehiago herrialde bizilagunen artean egiten dira.

Europako Batzordearen arabera, langile horiek % 50 gutxiago ere irabazten dute herrialde eta sektore batzuetan. Hori dela eta, Erkidegoko eta estatuetako legeriak esku hartzen ari dira, nazioz gaindiko mugikortasun-eredu hori eraginkortasun handiagoz kontrolatzeko eta hobeto arautzeko, eta, hala, abusuak saihesteko. Alor horretan araudia ezartzea, batzuen ustez, mugikortasuna oztopatzea izango litzateke, baina beharrezkoa da lan-zuzenbidearen esparruan, bai eta konpetentzia ekonomiko leiala eskuratzeko oinarriak ipintzeari dagokionez ere, kontuan hartuta, gainera, eskakizun hori are sentikorragoa dela mugaz gaindiko espazioetan.

4.1 grafikoa Espainiak eta Frantziak bidalitako eta jasotako langile desplazatuak



Iturria: Espainiako Parlamentua⁴⁵.

Langile desplazatuen jarduera Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1996ko abenduaren 16ko 96/71/EE⁴⁶ Zuzentarauak arautzen du, zerbitzuak emateko esparruan izandako langileen desplazamenduari buruzkoak. Ondoren, 2014/67/EB Zuzentarauak kontrolerako xedapenen, neurrien eta kontrolen esparru komuna ezartzen du, 96/71/EE Zuzentaruak legeria nazionalera hobeto eta koordinatuago egokitzeko eta aplikatzeko. 2016ko martxoan, Europako Batzordeak Zuzentaruaren berrikuspen bat proposatu zuen, baina berrikuspen hori ez dute oraindik adostu estatu kideek.

Ez dago informazio estatistikorik Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa euroeskualdean desplazatutako langileei buruz; nolahi ere, ondorioztatzen da oro har kopuruak murrizak direla, kasu eta sektore jakinetan salbu (esate baterako, eraikuntzan). Horietan unean-unean Euskadiko edo Nafarroako enpresek edo autonomoek jarduten dute lanean

⁴⁵ http://www.europarl.europa.eu/external/html/postedworkers/index_es.html#overview.

⁴⁶ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/FR/ALL/?uri=CELEX:31996L0071>

⁴⁷ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/fr/ALL/?uri=CELEX%3A32014L0067>

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

Akitania Berrian. Hala eta guztiz ere, lan-kategoria interesgarria da pertsonen Europar Batasunaren barruan duten mugikortasunaren bilakaeraren ikuspegitik. Frantzia zein Espainian azken hamar urteotan izan diren erreformen ondorioz, lan-zuzenbidetik kanpo edo muga-mugan geratu diren langileak agertu dira, bai para-subordinazioaren esparruan⁴⁸ (Espainia edo Italia), bai langile independenteak eta autonomoak ugaritu izanagatik Frantzian, auto-ekintzailearen estatutuarekin.

• Desplazatutako langilearen lan-zuzenbidea

Mugako langilea lan-kontratua egikaritzen duen herrialdeak finkatutako lan-zuzenbideari lotuta badago ere, ez da gauza bera gertatzen langile desplazatuaren kasuan. Hala, 96/71/EE Zuzentarauaren xedea zera zen, estatu kide batean aldi baterako desplazatutako langilearen estatutua argitzea. Testu hark hainbat auzi biltzen zituen, langilea hartzen duen estatuko legeak nahitaez arautu beharrekoak.

Alde horretatik, zuzentzari horrek hiru desplazamendu mota bereizten ditu:

- lehenik eta behin, jatorri-herrialdeko enpresa bateko langileen desplazamendua, aldi baterako egiteko batera; haien ardura esandako enpresak izango du harrera-herrialdean;
- bigarrenik, talde bateko barruko langileen desplazamendua, talde horren atzerriko filial batera, EBko beste herrialde batean;
- hirugarrenik, aldi baterako lan-enpresetako langileen desplazamendua jatorri-herrialde batetik harrera-herrialde batera.

Hiru kasuetan ere, langile desplazatuak enplegatzen dituen enpresak aitorpen bat egin beharko du nahitaez harrera-herrialdean. Testuak egitekoa betetzen den herrialdean lan-eta enplegu-baldintzen nukleo gogor bat errespetatzeko printzipioa planteatzen du, bereziki gutxieneko soldatari dagokionez, halakorik badago, baita legezko lanaldia, gutxieneko atseden- eta oporraldi-denborak, aparteko orduen ordainketa-tasa eta abar errespetatzekoa ere.

Nabarmentzekoa da, halaber, erabat legezkoa dela atzerriko aldi baterako lan-agentziak edozer estatu kidean instalatzea eta bertan nazioarteko lan-eskua eskaintzea, baina instalatzen den herrialde horretako soldata- eta gizarte-baldintzetan. Hori bera egingarria da Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa euroeskualdean ere.

Lanaren ikuspegitik, desplazatutako langileak juridikoki lotuta jarraituko du enplegatzailarekin jatorri-herrialdean, harrera-herrialdean aplikatzen dizkioten lan-kontratuarekin lan-baldintzen nukleo gogor ospetsu hori osatzen duten alderdietan; gainerako auzietarako, berriz, jatorri-herrialdeko legeak aplikatuko zaizkio.

⁴⁸ Lehen lan-legediak babestutako eta enpresariaren mendeko langileek egiten zituzten jarduerak orain langile independenteek egiten dituzte, eta, ondorioz, lan-zuzenbidearen bazterrean geratzen dira langile horiek.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

Nolanahi ere, abusuak eta iruzurrak gertatu dira, eta low cost mugikortasun-praktikak zabalduta dira hainbat jardura-adarretan, hala nola eraikuntzan, nekazaritzan, nekazaritzako elikagaien industrian, errestaurazioan, ostalaritzan edota aire- zein errepide-garraioan.

Zehazki, eraikuntzaren sektorean –iruzurra gehien zabalduta dagoen sektoreetako bat den aldetik– identifikazio profesionalerako txartel profesionala txertatu da (langile autonomoetarako eta soldatapeko hainbat kategoriatarako izan ezik).

Errealitate horren aurrean, Frantziak egiteko garrantzitsua izan du 2014/67 Zuzentaraua onartzearekin loturik, eta Europako lege-testua xedapen murriztaileagoekin egokitu du herrialdeko ordenamendu juridikora (Savary Legea); era berean, legez kanpoko lanaren kontrako borroka lehentasun nazional bilakatu du (Rebsamen, Macron eta El Komri Legea). Espainiaren ordenamendu juridikoak, berriz, azaroaren 29ko 45/1999 Legearen bidez jorratzen du auzi hori, eta, berrikiago, maiatzaren 26ko 9/2017 Errege Lege Dekretuaren bitartez (langileen desplazamenduari buruzko Europako Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen duena).

Ondorioz,

mugako langilea lan-kontratua egikaritzen duen herrialdeak finkatutako lan-zuzenbideari lotuta egongo da, langile desplazatua ez bezala.

• Desplazatutako langilearen gizarte-segurantzza

Egoera horrek bi lege-testuren konbinazioa ekarri du: alde batetik, 1408/71 Erregelamenduak ezarritako araua (zeina 883/2004 Erregelamenduak aldatu baitzuen, 2010ean indarrean jarri ostean), eta, bestetik, 96/71 zenbakidun Zuzentaraua, desplazamenduari buruzkoa.

14.1.a artikulua: «Estatu kide bateko lurraldean bere kontura jardura bat gauzatzen duen pertsonak eta beste estatuko kide batean lan bat egiten duenak lehendabiziko estatuaren legeria bete beharko du, baldin eta lan horren iraupenak ez baditu hamabi hilabete gainditzen eta ez baldin badute bidaltzen beste langile bat ordezkatzera desplazamendu-denboraldiaren amaieran».

Erregelamendu-esparru horren inguruan sekulako interpretazio-lana egin du administrazio-batzordeak. Hala, 2004ko Erregelamenduak aldaketa esanguratsuak ekarri zituen. 1) Sinplifikatze aldera eta desplazamenduaren luzapena murrizteko, desplazamenduaren gehieneko iraupena 12 hilabetetik 24 hilabetera luzatu da. 2) Langile desplazatuak bidaltzen dituen enpresak egiazko jarduerak egin beharko ditu ezarri den estatuko horretan.

Hala ere, badira Zuzentaruaren eta gizarte-segurantzak koordinatzeko erregelamenduen arteko dibergentzia-puntuak eta ziurgabetasunak, nolabait ere mugaz gaindiko

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

mugikortasunari oztipoak ipintzen dizkietenak. Begien bistakoa denez, desplazamenduaren izaera murriztaile eta egonkorak, gizarte-segurantzaren erregelamenduarekin loturik, egoera bakarrek eta estatikoak arautzen soilik uzten du. Errealitateak, ordea, guztiz kontrakoak erakusten du: hainbat enpresak desplazamendura jotzen dute behin baino gehiagotan. Hala, desplazatutako langile bat askotan izango da desplazatu bere ogibidearen, enpresa kontratatzailearen edota merkatuen arabera. Garbi dago ikuspegi dinamikoa falta dela, edota bazterrekoa ez den errealitate gisa ikustea; hain zuzen ere, langile batek bere jarduna sarean gauzatzen duela bere bezero diren enpresa-komunitate batean, modu jarraituan eta eskusibotasunez.

Horrenbestez, aplikatzeko hainbat zailtasun nabarmentzen dira, bai arauen hartzaile diren erabiltzaileentzat (langileak eta enpresak), bai kontrolaz arduratzen diren administrazioentzat. Eragiketa horiek hainbat alde sorrazten dituzte erakundearen eta enpresaren artean, baita harrera- eta jatorri-estatuetako erakundearen artean ere, eta, horren ondorioz, gaizki kontrolatutako eta gaizki informatutako fenomenoak da oraindik ere.

Errealitate horren aurrean, informazio- eta komunikazio-beharra izan da legelarien kezketako bat 2009an; hala erakusten dute lankidetzari eta datuen trukeari buruzko xedapen orokorrek. Nolanahi ere, komunikazio, informazio eta kooperazio horiek egikaritzeko, beharrezkoa da truke elektronikoetara bideratutako Europako sare bat abiaraztea (EESSI), gizarte-segurantzako erakunde guztietara irekia. Sare horrek beranduenez ere 2012ko maiatzaren 1ean behar zuen martxan, eta gaur egun aplikatzeke dago oraindik ere. Alde horretatik, 2019an ezarri dute aplikatzen hasteko epe berria.

4.2.3. Europar planteamenduak etorkizunera begira

a) Gizarte-segurantzako sistemak koordinatzea, mugaz gaindiko herritarrengan eragina.

Europako Batzordeak gizarte-segurantzako koordinazioaren alorreko legeria berrikusteko proposamen bat aurreratu zuen 2016ko abenduan. Honako hauek dira, hain justu, legegintzako proposamenaren printzipio nagusiak:

- legeria bakarra aplikatzea, gizarte-segurantzako araubide bakarra langileko; herrialde bakarrean kotizatu beharko da, eta, prestazio bat jasotzeko eskubidea duen garaian, kotizazioak egiten dituen estatu kidean jasoko ditu;
- tratu-berdintasuna bermatuko da, nazionalitatearen araberrako diskriminaziorik egin gabe;
- kotizazio-aldi guztiak hartuko dira kontuan erretirorako (totalizazioa);
- pertsona batek estatu kide baten aldetik prestazio bat eskudirutan jasotzeko eskubidea duenean, eskuratu ahal izango du nahiz eta beste estatu kide batean bizi (esportazioa).

Esandako proposamenak EBko arauak eguneratzen ditu honako lau esparru hauetan: langabeziako subsidioak, iraupen luzeko zainketa-lanetarako prestazioak, ekonomikoki inaktibo dauden herritarrek gizarte-prestazioak eskuratzea, eta gizarte-segurantza

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

koordinatzea langile desplazatuen kasuan. Azken kasu horretan, hainbat aipamen berezi egiten dira mugaz gaindiko lanari buruz.

- Langabeziako subsidioen kasuan, zera proposatzen da, enplegu-eskatzailleek euren langabeziako etekinak esportatu ahal izatea, egungo 3 hilabeteko epetik gutxienez 6 hilabeteko epera. Horrek lana topatzeko aukera handiagoak emango dizkie eta langabezia zein gaitasunen oreka ezak EB osoan jorratzeko aukera emango du.

Era berean, mugako langileen kasuan (herrialde batean bizi direnak, beste herrialde batean lan egiten dutenak eta, gutxienez, astean behin etxera bueltatzen direnak), azken 12 hilabetez lan egin duen estatu kideak hartuko du bere gain haren langabezia-prestazioa. Horren bidez honako printzipio hau islatzen da: ekarpenak jaso dituen estatu kideak ordaindu behar dituela benefizioak ere.

- Gizarte-segurantzaren koordinazioa desplazatutako langileentzat. Europako Batzordeak desplazatutako langileentzako gizarte-segurantza koordinatzeari buruzko administrazio-arauak indartzeko proposamena egin du. Ziurtatu nahi du agintari nazionalak erreminta egokiak dauzkatela langile horien gizarte-segurantzako egoera egiaztatzeko, baita prozedura argiagoak ezartzeko ere estatu kideetako agintarien arteko lankidetzarako, potentzialki desleialak liratekeen praktikei edota abusuei aurre egiteko.

b) Desplazatutako langileei buruzko Zuzentarauaren erreforma-proposamena

Batzordeak langileen desplazamenduari buruzko araudiaren berrikuspen espezifikoaren proposamena aurkeztu zuen 2016ko martxoaren 8an. Berrikuspen hori egungo Batzordearen politiken orientabidean ezarritako konpromiso baten emaitza da, toki berean egiten den lan berbera modu berberean ordaindu dadin. Proposamen horren helburua zera da: langileen desplazamendua erraztea konpetentzia leialeko giroan, estatu kide batean enplegua izanik, enplegatzaileak beste estatu kide batera aldi baterako lanera bidali dituzten langileen eskubideak errespetatuta. Zehazkiago, ekimenaren helburua soldata-baldintza bidezkoak eta ekitatiboak bermatzea da jatorrizko enpresaren eta harrera-herrialdeko toki-enpresen artean.

Berrikuspen espezifiko horrek aldaketak ekarriko ditu hiru esparru nagusitan: desplazatutako langileen ordainsariak, azpikontratazio-egoerak barnean hartuta; aldi baterako lan-enpresek lagatutako langileei buruzko arauak; eta iraupen luzeko desplazamendua.

Proposamenak ezartzen duenez, desplazatutako langileek, oro har, tokiko langileek dituzten soldata- eta lan-arau berberak izango dituzte, eta hori guztia subsidiarotasun-printzipioa erabat errespetatuta egingo da, baita delako estatu kidean baldintza horiek ezartzen dituzten gizarte-solaskideek eta erakunde publikoek ezarritako baldintzak errespetatuta ere. Gaur egun, desplazatutako langileak harrerako estatu kideko

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

enplegatuen arau berberetara loturik daude esparru jakin batzuetan, hala nola osasungintzan eta segurtasunean. Hala eta guztiz ere, enpresaburua ez dago behartuta harrera-herrialdeak ezarritako gutxieneko soldata baino gehiago ordaintzera desplazatutako langileari. Egoera horrek soldata-desberdintasunak eragin ditzake tokian tokiko langileen eta desplazatuen artean, eta, ondorioz, enpresen arteko lehia desleiala sortu ere bai. Horrek esan nahi du, maiz, desplazatutako langileei lan berbera egiten duten beste langile batzuei baino gutxiago ordaintzen zaiela.

Proposatutako erreformatik aurrera, tokian tokiko langileei oro har aplikatzen zaizkien ordainsarien arau guztiak aplikatuko zaizkie desplazatutako langileei ere. Hartara, ordainsariak ez du oinarizko soldata bakarrik bilduko, baizik eta elementu gehiago ere bai, hala nola osagariak edota esleipenak, hala dagokionean. Halaber, estatu kideei eskatuko zaie banakatu dezatela modu gardenean euren lurraldeko ordainsariak zer elementuz osatuta dauden. Legez edota unibertsalki aplikagarriak diren hitzamenek aplikatutako arauak nahitaezko izango dira aurrerantzean langile desplazatuentzat, sektore ekonomiko guztietan. Proposamenak, halaber, estatu kideei aukeran ipintzen die honako nahitaezkotasun hau ezartzea: azpikontratistek langileei kontratista nagusiaren soldata berbera ordaintzea. Nolanahi ere, modu ez-diskriminatzailean bakarrik egin liteke hori: arau berbera aplikatu behar zaie azpikontratista nazionalai eta mugaz gaindikoei. Azkenik, desplazamenduak 24 hilabete baino gehiago irauten duenean, harrerako estatu kidearen lan-zuzenbideko baldintzak aplikatu beharko dira, baldin eta desplazatutako langilearentzat mesedegarriagoak badira.

Aldaketa horiek guztiek babes handiagoa emango diete langileei, gardentasun eta segurtasun juridiko handiagoa eskainiko diete eta baldintzen berdintasuna sustatuko dute enpresa nazionalen eta langileak desplazatzen dituztenen artean; aldi berean, estatu kideetako soldaten negoziatio-sistemak erabat errespetatuko dituzte.

2017ko azaroan, Europar Kontseiluak orientabide orokor bat onartu zuen, langileen desplazamenduari buruzko zuzentarauaren erreformarekin lotuta. Hala, jakinik desplazatutako langileek toki-langileen arau berberak baliatuko dituztela ordainsarien eta lan-baldintzen arloan, langileen desplazamenduari buruzko akordio politikoak Batzordeak defendatzen duen oinarizko printzipio bat baieztatzen du; hain zuzen ere, toki berean egindako lan berberak soldata bera izatea.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

4.2.4. Ondorioak eta hausnartzeko alderdiak

Ondorio gisa, esan genezake, lehenik eta behin, auzia ez dela desplazamendua kentzea edo mugatzea; izan ere, zerbitzuen nazioz gaindiko mugikortasunerako neurri garrantzitsua da, langileetatik sortua. Nabarmendu behar da, era berean, kontua ez dela langileen desplazamendua gaitzestea, baizik eta enpresen eta kolokazio-bulegoen iruzur-jarduna salatzea, baldin eta haien helburu bakarra *dumping* soziala eta fiskala bada. Alde horretatik, hainbat auzi nabarmendu beharko genituzke.

- Lehenik eta behin, komenigarria litzateke hainbat estatu kidetan gauzatutako jardueren arau orokorren eta arau propioen artean erdibideko esparru bat sortzea indargabetze arauekin, hor barruan soldatapeko pertsonen desplazamendua, soldatapekoak ez direnen auto-desplazamendua eta sarean mugikortasun handiz egindako jarduera mota guztiak bilduta. Lotura-puntu finkoa bilatu beharko litzateke.
- Bigarrenik, desplazamenduko irizpideak sinplifikatu eta zehaztu egin beharko liriteke, gestioak eta kontrolak ere sinplifikatzeko, hala nola enpresei, langileei eta kontroleko, laneko eta gizarte-segurantzako erakundeei egindakoak.
- Hirugarrenik, erakundeen arteko informazioa eta lankidetzat indartu beharko liriteke, informazioak zirkula dezan eta kontrolak sendotu daitezten. Horrek esan nahi du erakundeen arteko datu-truke elektronikoak ezarri behar direla. Hala, EESSI sistema informatikoak (gizarte-segurantzari buruzko informazio-truke elektronikoak) izan beharko luke horretarako erreminta.

Azkenik, langileen mugikortasunean eragiten duten faktoreen analisiaren testuinguruan, hiru eskualdeetan diren hitzamen sektorialeak eta enpresen hitzarmenek izan dezaketen egitekoa ere nabarmendu behar da; hain zuzen ere, hitzamen horiek ezartzen dituzte soldata-baldintzak, lanaldia, oporraldiak, baimenak, pentsio osagarriak, laneko segurtasuna eta osasuna, eta abar. Horrenbestez, baliteke haien edukiek abantaila erantsiak izatea, eta erabakigarriak izan litezke sektore beraren barruan lan-fluxuak motibatze edo interesa galarazteko.

Ondorioz,


arrazoi historikoak, ekonomikoak eta soziologikoak ez ezik, badira arrazoi juridikoak ere, lanaren zuzenbidean eta/edo gizarte-babesaren zuzenbidearen barruan sarzen direnak; trabak edo desabantailak ekar ditzakete desplazatutako langileentzat, eta nolabaiteko freno izan litezke mugaz gaindiko lan-mugikortasunerako.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

4.3. Frantzia - Espainia/Euskadi/Nafarroa arteko kostu sozialen eta fiskalitatearen alderaketa eta laneko errenten gaineko presio fiskal orokorra

Laneko errenten gaineko presio fiskala (batez besteko soldata kontuan hartuta), enpleguaren eta enplegatzailearen gaineko kostu sozialei dagokionez, handiagoa da Frantzian Espainian baino, 2017ko ELGAren txosteneko "Taxing Wages"-etik ateratako hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan. Hain zuzen ere, lortutako emaitza honako hau da, herrialde bakoitzeko batez besteko soldatak kontuan hartuta: Frantziaren kasuan enplegatzailearentzat kostu soziala % 26,8koa da, eta aldiz, Espainiaren kasuan, % 23koa. Enpleguarentzako kostu sozialekin arreta jarrita, aldea nabarmenagoa da. Hala, Frantzian, batez beste, soldataren % 10,5ekoak dira, eta Espainian, beriz, batez besteko soldataren % 4,9koak.

4.2 grafikoa Laneko errenten gaineko presio fiskala. Espainia eta Frantziaren arteko alderaketa, 2016




Iturria: ELGA. Taxing Wages 2017. Elaboración propia.

Hala ere, Gipuzkoan eta Frantzian errentaren gaineko zergari lotutako presio fiskala alderatuz gero, ikus daiteke familia-egoerak erabakigarriak direla. Hurrengo grafikoan ikus daiteke familia-kargarik gabeko sarrearen hartzaile bakar baten kasuan edo sarrearen hartzaile bakarra duen eta bi seme-alaba kargura dituen etxean presio fiskala askoz handiagoa dela Gipuzkoan; bi hartzaile eta bi seme-alaba kargura dituzten etxeen kasuan, erlazioa alderantzikatu egiten da, baina emaitzak oso antzekoak dira elkarren artean.

Presio fiskal orokorrari dagokionez, interesgarriagoa da Espainiako nazionalitatea duen norbaitentzat Frantzian bizitzea eta Espainian lan egitea, eta ez hainbeste Espainian bizitzea eta Frantzian lan egitea.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

4.3 grafikoa Laneko errenten fiskalitatea. Alderaketa: Gipuzkoa vs. Frantzia. 2017



Iturria: Bertan eginda OCDE Taxing Wages 2017 oinarritzat hartuta eta Gipuzkoako Foru Ogasuna

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

4.4. Bizitoki arloan, arlo fiskalean eta lan arloan esku hartzen duten eragileek eta eskumena duten eragileek mapa

4.6 koadroa Ikuspegi fiskaletik eta lan-ikuspegitik gakoak diren eragileek mapa

Bizileku-eskaera lehen aldiz	Frantzia	Espainako Kontsuletxea Frantzian - <i>Izen ematea</i> Résidence du Parc. 4, Boulevard du B.A.B., 64100 Bayonne
	Gipuzkoa	Polizia Nazionalaren Komisaletgia - <i>NAN eskaera</i> Ensanche Plaza 2, 20302 Irun, Gipuzkoa Tel: 943 63 95 30 https://www.citapreviadnie.es
Enplegatuentzako ekarpen sozialak	Frantzia	CPAM (Caisse Primaire d'Assurance Maladie). 68 Allées Marines, 64100 Bayonne, Francia Téléfono: +33 811 70 36 46 URSSAF (Union Recouvrement Cotisations Sécu Soc. Alloc. Familiales) Aquitaine 6 Avenue Belle Marion, 64600 Anglet, Francia
	Gipuzkoa	GSIN- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala Bartolome de Urdinso Kalea 2, 20301 Irun, Gipuzkoa Téléfono: 943 61 97 81 Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala c/ Hermanos Otamendi 13 bajo, 20014 Donostia, Gipuzkoa Tel: 943 483600 - 901 106570 - 943 483138
Enpresa-zerbak: aitorpena, jakinarazpena	Frantzia	Hôtel des Finances Publiques, Service pour les particuliers 17 Avenue Charles Floquet, 64200 Biarritz, Francia Tel: +33 5 59 413700
	Gipuzkoa	Gipuzkoako Foru Ogasuna Errotaburu Pasealekua 2, 20018 Donostia, Gipuzkoa Tel: 902 10 00 40 Zerga Administrazioako Estatu Agentzia. Donostiako Delegazioa Okendo Kalea 22, 20004 Donostia, Gipuzkoa
Langileen kontratazioa eta enplegu-bilaketa	Frantzia	Pôle Emploi 11 Rue de la Ferme Dai Baita, 64500 Saint-Jean-de-Luz, Francia Tel: 943 980598
	Gipuzkoa	GSINri notifikazioa Lanbide
Ekonomia- eta enpresa-jarduera	Frantzia	DIRECCTE (Direction régionale des entreprises de la concurrence, de la consommation, du travail et de l'emploi) de Nouvelle Aquitaine 8 Esplanade de l'Europe, 64600 Anglet
	Gipuzkoa	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Giza Politika Saila
Laneko ikuskaritza	Frantzia	DIRECCTE (Direction régionale des entreprises de la concurrence, de la consommation, du travail et de l'emploi) de Nouvelle Aquitaine 8 Esplanade de l'Europe, 64600 Anglet
	Gipuzkoa	Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Urdaneta Kalea 7, 20006 Donostia
Lan-zuzenbidearen ondoriozko gatazkak kudeatzea	Francia	Conseil de PRUD'Homes de Bayonne Rue de la Ville en Bois, 64100 Bayonne Tel: +33 55 9593221
	Euskadi	Eusko Jaurlaritzako Lan -Agintaritza Lan Harremanen Kontseilua (LHK)

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

Enpresa berriaren erregistroa eta jardueraren hasiera	Frantzia	Chambre de Commerce et D'Industrie (CCI) 50-51 Allées Marines, 64102 Bayonne Chambre des Métiers et de l'Artisanat des Pyrénées Atlantiques 25 Boulevard d'Aritxague, 64100 Bayonne
	Gipuzkoa	GSIN- ri notifikazioa eta kudeaketaz arduratzen den erakundeari (Lan istripuen Mutua elkartea) Foru Ogasunari notifikazioa (Alta JEZ-Jarduera ekonomikoen gaineko Zerga) eta Enpresaburuen, Profesionalen eta Atxikitzailen Zentsua
Laguntza sozialak eta familia-laguntzak	Frantzia	CAF-Caisse d'Allocations Familiales 10 Avenue de Maréchal Foch, 64100-Bayonne
	Euskadi	Eusko Jaurilaritza, Enplegu eta eta Gizarte Politiketako Saila Calle Andia nº 13, Donostia, Gipuzkoa.
Etengabeko prestakuntza	Frantzia	Greta (Centro de Formación Continua) 18 Avenue Maréchal Soult, 64100 Bayonne
	Euskadi	Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa
Pertsona autonomoen izen-ematea	Francia	Chambre de Commerce et d'Industrie (CCI) 50-51 Allées Marines, 64102 Bayona. Chambre des Métiers et de l'Artisanat des Pyrénées Atlantiques 25 Boulevard d'Aritxague, 64100 Bayonne,
Minusbaliotasunagatik ezintasuna	Frantzia	Maison Départementale des Personnes Handicapées
	Gipuzkoa	Gizarte Segurantzaren
Erretiroa	Frantzia	CARSAT-Caisse d'Assurance de la Retraite de la Santé au Travail Cité du Palais, 24 Avenues Marhum, 64100 Bayonne
	Gipuzkoa	Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala

Iturria: bertan egina.

4. Mugaz gaindiko langileen eskubide sozialak eta testuinguru fiskala

4.5. Etorkizunean hausnarketa eragin dezaketen mugako langileen babes sozialari eta fiskalitateari dagozkion gai batzuk

Gorago deskribatutako babes sozialari eta fiskalitateari buruzko elementu batzuk oinarri hartuta, etorkizunera begira lanerako eta hausnarketarako hiru eremu identifika daitezke mugaz gaindiko enpleguaren araudi-testuinguru fiskala/soziala argitzeko eta hobetzeko:

- Administrazio fiskalek mugako langiletzat hartzeko aplikatutako eskakizunak desberdinak dira eta nolabaiteko nahasmendua dago.
- Zerga-ondorioetarako mugako eremuaren kontzeptuak mugako langilearen estatusaren onurak mugatzen ditu, ez da egokia eta eguneratu beharra du.
- Gizarte Segurantzako nazio mailako sistemek mugaz gaindiko mugikortasunari oztopo asko eragin diezazkiokete elementu ugari dagokionez, esaterako:
 - Prestazioak emateko irizpideei dagokienez, gizarte segurantzaren nazio mailako legedietan dagoen aldea;
 - prestazio jakin batzuk esportatu ezin izateari dagokionez, komunitateko araudia aplikatzeko hutsuneak (aurre-erretiroak, pentsio osagarriak);
 - familiako kideek edo mugaz gaindiko langileak edo erretiratutako mugaz gaindiko langileentzat mugaz gaindiko osasun-zaintzetarako sarbidea.
 - langileen kategoria jakin batzuetarako arau espezifikoak izatea, esaterako, itsasoko langileak, garraio-sektorekoak eta abar.
- Kide diren Estatuetak sistema fiskalen eta sozialen arteko nolabaiteko elkarrekintzek mugaz gaindiko mugikortasunerako oztopo/pizgarri izan daitezkeela uste da, eta bereziki, bizitoki den herrialdearen eta lan egiten den herrialdearen arteko zuzeneko zerga-tasetan eta kontribuzioetan dauden aldeak, edo gizarte-segurantzako eta nahitaezko kotizazioen gero eta fiskalitate handiagoaren ondorioz.
- Oztopoen hirugarren eremua, zalantzarik gabe, informazio egokia falta izatea da (irigarria eta ulergarria) mugaz gaindiko langileentzat eta eskumena duten nazio mailako administrazio sozialen artean.
- Azkenik, aipatu beharrekoa da arazo espezifikoak daudela (establezimendu iraunkorrik gabeko langile autonomoei aplikatutako fiskalitatea, langabeziagatiko prestazioaren kapitalizazioa, garraiolariak garraio-txartelak beritzea...); horiek hausnarketa- eta lan-eremu izan daitezke etorkizunean.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5. LANEKO MERKATUEN OSAGARRITASUNA EUROESKUALDEAN

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

Kapitulu honek etorkizunean ezartzen du arreta eta mugaz bestaldeko lanak jokatu dezakeen papera antzematen saiatzen da, eskualde baten defizitak beste baten baliabideekin estaltzeko garaian, azken finean lurralde doikuntza-eza posibleak leuntzeko palankan bilakatuz.

Horrek ondorengo tarteko-helburuei aurre egitea eskatzen du:

- Enpleguaren bilakaeraren tarteko eta epe luzeko ikuspuntuak ezagutzea eta jardura sektoreen eta hazkunde potentzialik handiena duten okupazioen identifikazioa.
- Hiru enplegu-zerbitzu publikoetatik kudeatutako eskaintzak aztertu eta arreta ezarri demanda altuagoa duten lanpostuetan, eta aipaturiko zerbitzuetan izena emanda dauden enplegu-eskatzailen poltsak karakterizatu.
- Euroeskualdearen agente ekonomikoen hautemate eta itxaropenak aztertu, mugaz bestaldeko enpleguaren eta sektore eta okupazioka dauden doiketa eza posibleen inguruan.
- Hiru eskualdeen apustu estrategikoak identifikatu (RIS 3).
- Hiru eskualdeetako enpleguaren orientabide politikoak aztertu (Enplegu Planak).
- Hezkuntza sistemei arreta eskaini eta, zehazki, homologazio eta baliokidetasunaren sistemari, bai unibertsitatearen arloan eta baita arlo profesionalean ere (lanbide heziketa).

Atal honetan burututako azterketen emaitza modura, ondorengo galderei erantzuna eman nahi da besterik gabe:

- Eskualdeetako lan merkatuen arteko osagarritasun maila zein da? Zein potentzialitate existitzen dira? Zein jardura esparruetan? Zein profil edo kompetentziei lotuta?
- Zeintzuk dira lan-esparru nagusiak mugaren bi aldeetan benetako enplegu-arro baterantz aurrerapausoa emate aldera?

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.1. Enpleguaren bilakaera-aukerak euroeskualdean

Atal honen xedea enplegu-aukerari buruzko magnitude-ordenari argi ematea da, epe ertain eta luzera begira. Horretarako, azterlanaren ardatz diren eskualdeetan lehendik ere eginda dauden prospekzio-lanak eta informazioa baliatu dira; horrek esan nahi du ikuspegi eta metodologia desberdinak ageri direla nahasian. Prospekzio-ariketa hauekin lotutako kopuruak tentu handiz interpretatu behar dira; izan ere, iraganeko esperientzia proiektatzeko garaian eskuarki ez dira joera-haustura posibleak kontuan hartzen. Hala, alderdi hori ahulgune garrantzitsua da, gero eta ziurgabetasun handiagoak (politikoak, teknologikoak eta abar) dituen egungo agertoki ekonomikoan.

Mugak muga, interesgarria da zer-nolako baikortasun-mailarekin ikusten diren enplegu-aukerak Akitania Berrian eta Euskal Autonomia Erkidegoan egindako aurreikuspenetan (Nafarroaren kasuan, ez dago ezaugarri horiekin egindako lanik). Eskuratutako emaitzen bidez, lanpostuetan aurreikusitako zabaltze-maila zenbaterainokoa den jakin dezakegu, baita zer jarduera eta okupazio motatan kontzentratuko diren ere. Hori guztia informazio baliagarria da mugaz gaindiko enpleguari buruzko analisia egiteko garaian.

Enpleguaren epe ertain eta luzeko bilakaeraren prospekzio-jardunarekin batera, langile-premiei buruzko informazioa ere bildu da, enpresei egindako inkestan bidez. Informazio horren denbora-horizontea epe laburrerako aurreikuspena da.

Ondoren, hiru eskualdeetako enplegu-aukerari buruzko gerturatze bikoitz hori buruzko datuak jaso ditugu.

5.1.1. Akitania Berria

a) *Epe ertaineko prospekzioa Akitania Berrian*

Akitania Berriko epe ertaineko enplegu-aukerak jorratzeko garaian, PROJ'EM erremintara jo da, hain zuzen ere, Aquitaine Cap Métiers atariaren enpleguaren eta okupazioen eskualde-proiektzio erremintak 2017-2022 bosturtekorako egindako aurreikuspena. Erreminta horren bidez, enpleguaren aldakuntza aurreikus daiteke bost urtera begira, jarduera- eta okupazio-sektore handiak aintzat hartuta (lanbide-espezialitateak, alegia).

Gerturatze honek, oraindik ere esperimental baldin bada ere, hiru etapako prozesu bat du oinarrian: 1) enplegu-proiektzioak jarduera-sektorearen arabera kontuan hartzea; 2) enplegu-proiektzioa okupazioaren arabera eraldatzea; 3) okupazioaren arabera programatutako irteerak (erretiroak) kontuan hartzea, baita estali beharreko lanpostuen zenbatespena egitea ere (sarrera potentzialak).

Jarduera ekonomikoko sektoreei dagokienez, enplegu-sorrera handiena (300 lanpostu garbi baino gehiago urtean, hau da, 1.500 lanpostu datozen bost urteetan), kopuru absolutuetan, hirugarren sektorean gertatu da, prospekzioaren arabera. Hala, guztira 2.386.000 lanpostu izatetik 2017an 2.469.000 lanpostu izatera igaroko litzateke 2022an; hau

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

da, urtean batez beste 16.600 lanpostu sortzea (urteko batez besteko hazkunde-tasa: % 0,7).

5.1 koadroa Akitania Berria: Enplegu-sorreraren zenbatespena 2017 eta 2022 bitartean, sektorearen arabera

Kodea	B43 SEKTOREA	Enplegua 2017an	Enplegua 2022an	Urteko sorkuntza 2017-2022 bitartean	TCAN 17-22
QB1	Ostatudun jarduera sozialak	110.141	124.717	+ 2.915	+ 2,5 %
QB2	Ostatu gabeko jarduera sozialak	106.917	116.060	+ 1.829	+ 1,7 %
NZ0	Beste zerbitzu batzuk, enpresei nagusiki	136.712	145.301	+ 1.718	+ 1,2 %
GZ3	Txikizkako komertzioa	196.398	203.583	+ 1.437	+ 0,7 %
FZ3	Espezializatutako eraikuntza-lanak	135.017	142.056	+ 1.408	+ 1,0 %
OZ0	Administrazio publikoa	270.561	276.030	+ 1.094	+ 0,4 %
TZ0	Enplegu zuzena etheen aldetik	49.211	54.360	+ 1.030	+ 2,0 %
IZ0	Ostalaritza eta errestaurazioa	86.120	88.864	+ 549	+ 0,6 %
GZ2	Handizkako komertzioa	84.023	86.358	+ 467	+ 0,5 %
GZ1	Ibilgailuen merkataritza/konponketa	44.455	46.625	+ 434	+ 1,0 %
HZ1	Garraioa	63.014	65.067	+ 411	+ 0,6 %
SZ0	Beste zerbitzu batzuk, bereziki etxeetarako	57.456	59.300	+ 369	+ 0,6 %
EZ0	Ura eta saneamendua	18.618	20.435	+ 363	+ 1,9 %
KZ0	Finantzak eta aseguruak	73.744	75.462	+ 344	+ 0,5 %
CC0	Basoa, papera eta inprimaketa	31.794	33.387	+ 319	+ 1,0 %
RZ0	Artea, ikuskizunak eta jolas-jarduerak	29.307	30.859	+ 310	+ 1,0 %
CG0	Material ez-metalikoak	18.313	19.829	+ 303	+ 1,6 %

Aquitaine Cap Métiers atariaren PROJ'EM erremintaren bidez egindako 2017 eta 2022 bitarteko enplegu-sorreraren zenbatespena, sektorearen arabera (urtean 300 lanpostu beritik gora).

Oharra. Nabarmendutako lerroek xehetasun-egokitzapenak adierazten dituzte, baliatutako B 43 nomenklaturari dagokionez.

Iturria: Cap Métiers. PROJ'EM

Okupazioei dagokienez, kopuru orokorrak aurrez azaldu ditugunen berdinak dira: 16.600 lanpostu gehiago urtean, baina, kontuan hartuta erretiroek eragindako irteerak (beti erabakigarria da datu hori, Akitania Berriko adin-piramidea kontuan hartzen badugu; hau da, 67.000 urtean, INSEEK –Estatistikaren eta Azterlan Ekonomikoen Frantziako Institutuak– hurrengo bost urteetarako egindako zenbatespen demografikoen arabera), estali beharreko lanpostuen kopurua oro har bost aldiz handiagoa izango da: urtean 83.600 sarrera garbi lan-merkatuan, hau da, urtean batez beste % 3,5eko hazkunde tasa.

Erretiroek eragindako irteerak erabakigarriak izaten dira beti; hala, INSEEK karrera profesionalaren amaieran izango diren irteerak zenbatetsi ditu Akitania Berriko enplegu-gune guztietan. Hala, 2010 eta 2020 bitartean irteera-tasa % 32,5 izango da Akitania Berri osorako (% 31,7 Baionako enplegu-gunerako; % 32,2 Daxeko enplegu-gunerako; % 32,7 Mont-de-Marsaneko gunerako; % 32,9% para Pauerako; % 36,2 Oloroerako). Nahiz eta irteeren eritmoa moteltzen hasiko den Akitania Berrian (414.000 izan ziren 2010-2015 aldian,

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

333.000 pertsona 2016 eta 2020 artean), oraindik ere oso handia izango da datozen bost urteetan: 20.500 Pauen, 17.900 Baionan, 9.300 Daxen, 7.800 Mont-de-Marsanen eta 2.800 Oloroen.

Halaber, okupazioarekin jarraituz, askoz ere analisi finagoa eta sakonagoa egin liteke, okupazio-taldeen arteko lanbide-mugikortasuna kontuan hartuta. Enpleguaren bolumen osoari eragiten ez dion arren, kontratazio-beharizanen arteko desberdintasunak (zenbatetsitako «sarrerak») okupazio motaren arabera areagotu egiten dira. Emaitzek enpleguaren tertziarizazioa baieztatzen dute; hala, ezin dugu ahaztu beharizan handienak prestakuntza-maila apalei dagozkiela.

5.2 koadroa Estali beharreko lanpostuen zenbatespena (sarrerak) 2017 eta 2022 bitartean, okupazioaren arabera (urteko sorkuntza ≥ 2.000)

	Balio gordinak			Urteko bilakaera			
	Enplegua 2017an	Enplegua 2022an	Enplegua 2017an	Enplegua 2022an	Enplegua 2017an	Enplegua 2022an	Enplegua 2017an
Mantentze-lanetako langileak	121.009	126.915	43.124	+ 1.181	+ 1,0 %	7.187	5,9 %
Saltzaileak	79.186	81.924	30.739	+ 548	+ 0,7 %	5.123	6,5 %
Etxeko laguntza-zerbitzuak	60.609	65.705	25.540	+ 1.019	+ 1,6 %	4.257	7,0 %
Funtzio publikoko administrariak (C kategoria eta parekoak)	91.396	93.632	25.188	+ 447	+ 0,5 %	4.198	4,6 %
Delegatu komertzialak eta ordezkariak	57.453	59.406	23.719	+ 391	+ 0,7 %	3.953	6,9 %
Prozesu-industrietako langile ez-kualifikatuak	27.172	28.199	21.605	+ 205	+ 0,7 %	3.601	13,3 %
Ibilgailuen gidariak	74.850	77.263	21.368	+ 483	+ 0,6 %	3.561	4,8 %
Enpresetako administrari-enplegatuak	35.726	37.262	20.511	+ 307	+ 0,8 %	3.419	9,6 %
Dendetako arduradunak eta merkataritzako bitartekariak	56.095	58.079	19.460	+ 397	+ 0,7 %	3.243	5,8 %
Obra txikiko langile kualifikatuak	50.360	52.845	18.653	+ 497	+ 1,0 %	3.109	6,2 %
Klinikako laguntzaileak	73.305	77.767	18.107	+ 892	+ 1,2 %	3.018	4,1 %
Nekazariak, abeltzainak, basozainak, egurgileak	69.342	68.838	17.930	- 101	- 0,1 %	2.988	4,3 %
Administrazio-, kontabilitate- eta finantza-zerbitzuetako teknikariak	35.020	36.207	15.864	+ 237	+ 0,7 %	2.644	7,5 %
Funtzio publikoko erdi-mailako administrazio-lanbideak (B kategoria eta parekoak)	50.116	51.320	14.918	+ 241	+ 0,5 %	2.486	5,0 %
Administrazio-, kontabilitate- eta finantza-zerbitzuetako agintariak	40.126	41.336	14.868	+ 242	+ 0,6 %	2.478	6,2 %
Ostalaritzako eta errestaurazioko enplegatuak eta kudeatzaileak	31.810	32.884	14.538	+ 215	+ 0,7 %	2.423	7,6 %
Kutxazainak, supermerkatuetako enplegatuak	36.033	37.337	14.085	+ 261	+ 0,7 %	2.347	6,5 %
Irakasleak	74.359	74.953	13.434	+ 119	+ 0,2 %	2.239	3,0 %
Mantentze-lanetako langile ez-kualifikatuak	29.096	30.152	13.432	+ 211	+ 0,7 %	2.239	7,7 %
Emaginak	35.020	37.883	13.307	+ 573	+ 1,6 %	2.218	6,3 %
Idazkariak	38.480	39.628	13.195	+ 230	+ 0,6 %	2.199	5,7 %
Mantentze-lanetako teknikariak eta kudeatzaileak	35.965	37.178	13.195	+ 242	+ 0,7 %	2.199	6,1 %
Sukaldariak	32.129	33.455	13.158	+ 265	+ 0,8 %	2.193	6,8 %
Eraikinetako, obra publikoko, porlaneko eta erauzketako obra nagusiko langile ez-kualifikatuak	29.478	30.797	13.113	+ 264	+ 0,9 %	2.185	7,4 %
Etxeko langileak	28.744	31.415	13.091	+ 534	+ 1,8 %	2.182	7,6 %
Eraikuntzako obra nagusiko langile kualifikatuak	35.820	37.591	13.013	+ 354	+ 1,0 %	2.169	6,1 %

Iturria: Cap Métiers. PROJ'EM

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

b) Epe laburreko beharrianak Akitania Berrian

Enplegu-aukerei buruzko bigarren gerturatzea oso epe laburrerako da (2017), eta erabilitako informazioa Pôle Emploiren⁴⁹ lan-eskuaren beharrianen buruzko urteko inkestatik hartua da. Eskualdeko 44.000 enpresa inguruk adierazitako kontratazio-asmoak dira (erreferentzia-unibertsoaren bostena); hala, bereziki urte-sasoiko enplegua nabarmentzen da (% 50 baino gehiago).

Lortutako emaitza zera da, eskualdeko enpresen % 23k kontratatzeke aurreikuspena daukatela. Proportzio hori 1,5 puntu handitu da aurreko urtearekin alderatuta. Ehuneko hori, era berean, Frantzia osorako erregistratutakoa baino handiagoa da (% 22,4).

Akitania Berrian 192.000 kontratazio-proiektu identifikatu ziren 2017rako. Zenbateko hori 2016an erregistratutakoa baino handiagoa da: +% 5,4, hau da, 9.829 kontratazio-proiektu osagarri.

Kontratazio-asmo horiek honako departamendu hauetan biltzen dira nagusiki: Gironda (55.000), Charente-Maritime (25.000), Pirinio Atlantikoak (20.000), Landak (17.000), Lot-et-Garon (14.000), Dordoina eta Deux-Sèvres (12.000), Vienne (10.000).

Jarduera-sektoreen arabera, urte-sasoiko lan ugari eskaintzen dutenak dira nagusi. Hala, urte-sasoia araberako enplegu gehien hartzen duen sektorea nekazaritza da, eta, ondoren, turismoarekin lotutako zerbitzuak. Lehendabiziko 20 postuetan hiru okupazio dira enplegu iraunkorrarekin, gizarte-zerbitzuen sektorearekin lotuta: errehabilitazioko langileak, etxeko laguntzaileak eta klinikako laguntzaileak.

Guztizko nazionalarekin alderatuta eta lehen sektoreak Akitania Berrian duen gain-ordezkaritzarekin lotuta, ikus dezakegu kontratazio-asmoen % 23 nekazaritzako elikagaien eta nekazaritzaren sektoretik datozela; hain zuzen ere, Frantzia osoan baino 9 puntu gehiago. Alde horretatik bertatik, aurreikusitako aldi baterako kontratazioen proportzioa ere handiagoa da Akitania Berrian (% 50,4) Frantzia osoan baino (% 39,2).

Kontratazio-proiektuen % 37,4 estaltzen zailak dira, eskualdeko enplegatzaileen esanetan. Proportzio hori 4,8 puntu handitu da 2016ko datuekin alderatuta, eta ia guztizko nazionalaren maila bereberran dago.

Eskualdearen hegoalderako, datu xehatuagoak ditugu Euskal Herriko, Biarnoko (Paue-Oloroe), Dax eta Mont-de-Marsaneko enplegu-arroetarako. Zerrendako lehendabiziko postuetan nekazaritzako eta elikagaien nekazaritzako jarduerak dira nagusi Landetako eta Biarnoko arroen kasuan ere. Sektore turistikoarekin lotutako okupazioak dira gehien eskatzen direnak Euskal Herrian, baina baita Daxen ere (hain zuzen ere, termalismoarekin lotutako lanpostuak).

⁴⁹ 2017ko apirilean argitaratutako BMO inkesta.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.3 koadroa Akitania Berria: 2017ko kontratazio-asmoak (2.500 lanpostu baino gehiago urtean).

Okupazioa	Kontratazio -proiektuak	Kontratatzeko zailtasunak	Urtaroko enplegua
Soldatapeko mahastizainak eta arbolazainak	19.550	26,1 %	95,2 %
Soldatapeko nekazariak	11.831	33,3 %	90,5 %
Ostalaritzako langileak	9.739	41,4 %	78,9 %
Sukaldeko laguntzaileak eta aprendizak, errestaurazioko askotariko enplegatutak	7.678	35,5 %	56,4 %
Lokalen mantentze-lanetako agenteak	6.597	36,6 %	37,5 %
Animazio soziokulturaleko profesionalak	6.289	39,0 %	70,4 %
Etxeko laguntza pertsonala	5.826	76,8 %	27,4 %
Biltegiratze- eta mantentze-lanetako langile ez-kualifikatuak	5.015	27,3 %	63,8 %
Sukaldariak	4.940	57,1 %	70,0 %
Informazioko eta harrera-guneetako langileak	4.340	29,0 %	53,4 %
Klinikako laguntzaileak	4.170	41,0 %	17,5 %
Betetzaileak	3.949	16,0 %	65,0 %
Ostalaritzako enplegatutak	3.798	48,8 %	81,4 %
Soldatapeko baratzezainak	3.504	28,7 %	94,9 %
Jantzien eta osagarrien saltzaileak (luxua, kirola, aisia eta kultura)	3.048	24,9 %	49,7 %
Teleoperadoreak	2.970	15,7 %	22,7 %
Elikagaien nekazaritzako industrietako langile ez-kualifikatuak	2.908	36,1 %	75,7 %
Kutxazainak	2.568	13,1 %	55,7 %
Elikagaien saltzaileak	2.547	36,2 %	68,4 %

Oharra. Taula osoa kontsultatzeko, Akitania Berriko Pôle Emploi agentziaren webgunera jo daiteke.

Iturria: Pôle Emploi. BMO inkesta.

5.1.2. Euskadi

a) Epe ertainerako prospekzioa Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskadiko lan-merkatuaren etorkizuneko egoerari heltzean, honako auzi garrantzitsu hau sortzen zaigu lehendabizi: piramide demografikoaren desoreka estrukturala, lan egiteko adinean dauden populazioko kideei eragiten diena. Izan ere, adin larriagoko belaunaldi gero eta jendetsuagoen tokian gazte talde ez horren jendetsuak etorriko dira. Hain zuzen, Eustatek 2025erako planteatutako agertoki demografiko guztiek –bai optimistenek, bai pesimistenek– lan egiteko adinean dauden populazioa urritu egingo dela diote: % 12 inguru murriztuko da 2014-2025 aldian. Horrek esan nahi du 65 urteko edo hortik gorako pertsona bakoitzeko 15 eta 64 urte bitartekoen multzoa 3,2 pertsona izatetik 2,3 izatera igaroko dela.

Langileak erretiroagatik ordezkatzeko beharizana faktore erabakigarri izango da Euskadin lanpostuak sortzeari begira (Lan Merkatuko Erroldaren datuen arabera, 2014an okupatutako populazioaren % 17k 55 urte baino gehiago ditu; % 32k, berriz, 50 urte baino gehiago). Nolanahi ere, kontuan izan behar da lanpostua erretiratu ostean utziko duten

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

pertsona guztiak ez direla ordeztuko, eta, logikoa den moduan, lanpostu berrien edukia ez dela, kasu asko eta askotan, ordeztzen denaren berdina izango.

Euskadiko enplegu-aukerak zenbatesteko, Lanbidek garatutako erreminta baliatu da: Future Lan. Aurreikuspen horietatik eskuratutako emaitzek erakusten dutenez, urteko lan-aukerak orotara 38.000 inguru izango dira hemendik 2022 bitartean. Kopuru hori bi osagai batuta lortu da: 26.600 beharizan urtean, tarte horretan erretiratuko diren pertsonen sortuak, eta 11.400 beharizan urtean, ekonomia handitzearen ondorioz.

Sektore handiei erreparatzen badiegu, enplegu-aukerarik gehienak (bai ekonomia handitzeagatik sortuak, bai lanpostuak ordezteagatik sortuak) zerbitzuen sektorean izango dira. Industriak, bestalde, datozen urteetan erretiratuko diren langileak ordezteagatik sortuko ditu aukerak, baina, aldiz, aurreikusitako garapen ekonomikoak sektore horretako lanpostuak muriztea ekariko du. Eraikuntzak aukerak sortuko ditu, gutxiago bada ere, dela ekonomia handitu izanagatik, dela langileak ordeztu beharagatik.

Honako hauek dira enplegu-aukera garbi gehien sortuko duten jardura-adarrak: komertzioa; osasun- eta gizarte-jarduerak; garraioa eta biltegiratzea; administrazio publikoa; jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; hezkuntza eta administrazio-jarduerak; eta zerbitzu osagarriak. Haietan guztietan, beharizanak aipatutako bi faktoreengatik sortu dira: ekonomia handitzeagatik zein erretiratutako langileak ordeztu beharagatik.

5.4 koadroa Euskadiko enplegu-prospekzioak sektorearen arabera. 2022

	Ekonomia handitzeak ekarritako beharrak	Erretiratuak ordezteak ekarritako beharrak
	Urteko kopuruak 2015-2022 aldian (kop)	Urteko kopuruak 2015-2022 aldian (kop)
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	-110	150
Industria, energia eta ura	-940	4.820
Eraikuntza	950	1.470
Zerbitzuen sektorea	11.500	20.160
GUZTIRA	11.400	26.600

Iturria: Geuk egina, Lanbideko datuak oinarri hartuta. Future Lan, Enplegu Prospekzioaren Behatokia.

Okupazioari erreparatuta, epe luzera enplegu-aukerak sortuko dira (lanpostu gehiago lan horietarako hautagaiak baino), honako alor hauetan: langile teknikoak eta zientifikoak, teknikari laguntzaileak, kontabilitate-enplegua, administrazioak eta lehen sektorean kualifikatutako langileak.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.5 koadroa Langileen eskaintzaren bilakaera epe luzean, okupazio-profilaren arabera.

	Populazio okupatuaren joera	Eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka-agertokia
Teknikari eta profesional zientifikoak eta osasunaren eta irakaskuntzaren alorreko intelektualak	Hazkundera	Defizita
Teknikariak; laguntzarako profesionalak	Hazkundera	Defizita
Kontabilitateko enpleguak, administrariak eta bulegoko bestelako enpleguak	Hazkundera	Defizita
Nekazaritzaren, abeltzaintzaren, basozaintzaren eta arrantzaren alorreko langile kualifikatuak	Murritzeta	Defizita
Errestaurazio-zerbitzuko langileak, pertsonalak, babesa eta saltzaileak	Murritzeta	Superabita
Zuzendariak eta gerenteak	Murritzeta	Superabita
Instalazio eta makinetako operadoreak eta muntatzaileak	Murritzeta	Superabita
Manufaktura-industrietako eta eraikuntzako artisauak eta langile kualifikatuak (instalazioetako eta makinetako operadoreak izan ezik)	Murritzeta	Superabita
Oinarrizko okupazioak	Murritzeta	Superabita

Iturria: Lanbide, Future Lan.

5.6 koadroa Lan-aukerak ekonomia hazteagatik eta langileak ordezteagatik, jarduera-adarren arabera

	Aukerak ekonomia hazteagatik	Aukerak langileak ordezteagatik
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	BAI	BAI
Osasungintzako eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak	BAI	BAI
Garraioa eta biltegiatzea	BAI	BAI
Administrazio publikoa eta defentsa; nahitaezko gizarte-segurantzak	BAI	BAI
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	BAI	BAI
Hezkuntza	BAI	BAI
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	BAI	BAI
Manufaktura-industria	EZ	BAI
Ostalaritza	BAI	BAI
Eraikuntza	BAI	BAI
Etxeetako jarduerak etxeko langileak enplegatzeko; etxeetako jarduerak norbere erabilerarako ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko	BAI	BAI
Finantza-jarduerak eta aseguruekin lotutakoak	BAI	BAI
Bestelako zerbitzuak	BAI	BAI
Informazioa eta komunikazioak	BAI	BAI
Higiezinekin lotutako jarduerak	BAI	BAI
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinak kudeatzea eta kutsadura garbitzea	EZ	BAI
Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire egokitua hornitzea	EZ	BAI
Erauzketa-industriak	EZ	BAI
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	EZ	BAI

Iturria: Lanbide, Future Lan

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

b) Epe laburreko prospekzioa Euskal Autonomia Erkidegoan

Confedebaskek, Euskal Enpresarien Konfederakuntzak, *Euskal enpresen enplegu- eta prestakuntza-beharak 2016an*⁵⁰ izeneko txostenean jasotako informazioarekin bat, hainbat ondorio nabarmentzen dira.

- Hiru enpresatik bik kontratazioaren bat aurreikusten zuen. Soldatapeko 13.000 lanpostu sortzea aurreikusten zen.
- Gehien eskatutako profilak produkzioko langile teknikoak, operari kualifikatuak eta komertzialak ziren. Kontratatuen ia % 40 produkzioaren, muntaketaren eta mantentze-lanen arloan izango dira. Katetoria horiek ia 10.000 pertsona kontratatuko dituzte. Merkaturatzea, marketina eta salmentak dira, halaber, aurreikusitako kontratuen laurdenak (5.700 pertsona inguru).
- Eskatutako trebakuntza-profilaren arabera, inkestak 6.500 unibertsitate-graduaturen eskaria aurreikusten zuen, beste horrenbeste goi-mailako heziketa-zikloetakoak eta 5.300 lagun erdi-mailako heziketa-zikloetakoak. Lanbide-heziketako zikloetako pertsonak (erdi- edo goi-mailakoak) eskarien % 47 bilduko lukete (11.750 pertsona).
- Lanbide-heziketako gehien eskatutako zikloek beharizanen % 66 aseko lituzkete. Fabrikazio mekanikoa da heziketa-ziklo guztietatik gehien eskatzen dena. Industriaren alorreko beste adar batzuek ere –administrazioak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak– eskaera nabarmena ageri dute.

5.1.3. Nafarroa

a) Epe ertainerako prospekzioa Nafarroan

Nafarroarako ez dago epe ertain eta luzerako aurreikuspenei buruzko lanik, Akitania Berirako edo Euskal Autonomia Erkidegorako egindakoen tankerakorik; hala ere, interesgarria iruditu zaigu Nafarroako enpresen beharren prospekzioa belaunaldi-erreleboaren aurrean txostena, Nafarroako Gobernuak 2017an kaleratua. Dokumentu horretan, enplegua sortzeko aurreikuspena aztertzen saiatu dira datozen urteetara begira, langileen erretiroaren eta ekonomiaren hazkunderaren emaitza gisa. Dokumentuak landutako edukiaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: langile-populazioa zahartzea, potentzialki aktiboa den populazioa etengabe muriztea eta 65 urtetik gorako populazio inaktiboa ugaritzen joatea. Hala, 60 urtetik gorako lan-populazioa % 5,7 ugarituko da 2018 eta 2021 bitartean.

Esandako lanaren esparruan inkesta bat egin zaie Nafarroako enpresei, eta honako emaitza hauek eskuratu dira: hiru enpresetatik ia bik baieztatu du enplegua sortuko duela datozen urteetan. Sortuko duten enplegu motari buruz galdetuta, hauek izan dira emaitzak: % 30 enplegu kualifikatua, % 30 enplegu teknikoa, % 16 zuzendaritza-postuak, % 14 lan ez-

⁵⁰ Lan horren emaitzak lortzeko, enpresei inkesta bat egin zitzaion (ia 1.000 enpresak eman zuten erantzuna).

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

kualifikatua eta % 10 administrazio-enplegua. Taldeko lanaren gaitasunak gehiago balioesten dituzte inkestatutako enpresek, etorkizuneko lanpostuak estaltzeko garaian.

b) Epe laburrerako beharrianak Nafarroan

Nafarroako Enpresarien Konfederazioak 2014an egindako *Nafarroako enpresen kontratazioen itxaropenak eta profil profesional eskatuenak epe labur eta ertainean* lanari esker, gehien eskatutako lanpostuak identifikatu ahal izan dira, sektoreka banatuta. Industriak eta merkataritzak hainbat profiletan ageri dituzte beharrak (teknikariak, langileak, prestakuntza gabeko enplegatuak), baina gainerako esparruetan (hezkuntza, soziosanitarioa...) profil kualifikatuak dira nagusi.

5.7 koadroa Nafarroan gehien eskatutako profil profesionalak (epe labur/ertainean, sektoreen arabera)

1. Industria-sektorea

- | | |
|--|-------------------------------|
| 1.1. Mekatronikako teknikaria | 1.6. Eskorga-eramailea |
| 1.2. Muntatzaile/egokitzaile mekanikoa | 1.7. Tomularia / fresatzailea |
| 1.3. Makinen gidaria | 1.8. Proiektu-kudeatzailea |
| 1.4. Tailerreko langilea | 1.9. Esportazioko arduraduna |
| 1.5. Trokelgilea | |

2. Elikagaien nekazaritzako sektorea

- | | |
|------------------------------|----------------------------|
| 2.1. Laborategiko teknikaria | 2.2. Kalitateko teknikaria |
|------------------------------|----------------------------|

3. Hezkuntzaren sektorea

- | | |
|----------------|---|
| 3.1. Irakaslea | 3.2. Didaktika Saileko burua edo proiektu estrategiko jakinen burua |
|----------------|---|

4. Merkataritzaren sektorea

- | | |
|-------------------------------|--------------------------------|
| 4.1. Saltzailea | 4.6. Ofizioko langilea |
| 4.2. Biltegizaina | 4.7. Betetzailea |
| 4.3. Administrazioa | 4.8. Banatzailea |
| 4.4. Kutzazaina | 4.9. Merkataritzako arduraduna |
| 4.5. Jartzailea, muntatzailea | |

5. IKTen sektorea

- | | |
|---|----------------------------|
| 5.1. Programatzailea, Net/Java | 5.3. Senior kontsultaria |
| 5.2. Aplikazioen programatzaile mugikorretarako | 5.4. Euskarrien teknikaria |

6. Eraikuntzaren sektorea

- | | |
|------------------------------|------------------------------|
| 6.1. Sustapenen kudeatzailea | 6.3. Produkzioko komertziala |
| 6.2. Sustapenen komertziala | |

7. Energia berriztagarrien sektorea

- | |
|--|
| 7.1. Lan-arriskuen prebentziorako teknikaria |
|--|

8. Sektore soziosanitarioa

- | |
|-----------------------------------|
| 8.1. Teknikari bazkide sanitarioa |
|-----------------------------------|


Iturria: Nafarroako Enpresarien Konfederazioak 2014an egindako Nafarroako enpresen kontratazioen itxaropenak eta profil profesional eskatuenak epe labur eta ertainean.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.2. Enplegu-eskaera eta -eskaintza euroeskualdean

Atal honetan, Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa⁵¹ euroeskualdean jarduten duten hiru enplegu-zerbitzu publikoek enplegu-eskatzaleei buruz emandako datuen emaitzak aztertuko ditugu (langabeak edo lanez aldatu nahi duten pertsonak), baita eskaintitako lanpostuei buruzkoak ere.

5.1 mapa Mugako eremuan kokatutako enplegu-zerbitzu publikoak.



Iturria: Geuk egina.

Helburua hiru eskualdeen antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea da, enplegu-zerbitzu publikoek kudeatzen dituzten enplegu-eskaintzei eta -eskariei lotuta.

Emaitzen analisia egin aurretik ateratako lehendabiziko ondorioa zera izan da, erabilitako galdesortak eta prozedurak ez direla homogeenak eta, batzuetan, izen berberarekin eduki desberdinak aipatzen direla. Hori gertatzen da, esate baterako, eskaintitako lanpostuari lotutako prestakuntza-mailaren aldagaiarekin. Lanbidek eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lanpostuak eskatutako prestakuntza-mailaren arabera sailkatzen dituzte lanpostuak, Pôle Emploik, berriz, izen horrekin berarekin sailkatzen ditu, baina lanpostu horri dagokion soldata-mailaren arabera. Alde horiek mugatu egin dute hasiera batean aurreikusitako konparazio-analisiaren norainokoa. Lanbideren eta Nafarroako Enplegu

⁵¹ Erabilitako informazioa Enplegu-Zerbitzu Publikoek bereziki egindako esplotazioetan du oinarria: Pôle Emploi (Akitania Berria), Lanbide (Euskadi) eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua (Navarra).

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

Zerbitzuaren artean ere gertatzen dira batzuetan bat ez etortzeak, euren galdetegietan jasotako aldagaien eta kategorien artean (eskatutako okupazioa, hizkuntza-eskakizunak). Segmentazio-irizpideetan ageri den desoreka horien beste adibide bat lanbidearen aldagaia da, Bidasoaren alde banatan sailkapenak ez baitatoz bat.

5.8 koadroa Enplegu-zerbitzu publikoek eskainitako lanpostuak eta haietan izena emandako enplegu-eskatzaileak

	Enplegu-eskatzaileak (kop)	Enplegu-zerbitzu publikoek kudeatutako lanpostuen eskaintza (kop)
Pirinio Atlantikoak	52.368	29.310
Gipuzkoa	77.183	8.593
Euskadi	270.773	23.813
Nafarroa	50.201	8.059
Akitania Berria	494.444	279.655
Euroeskualdea orotara	815.418	311.527

Enplegu-zerbitzu publikoek eskainitako enplegu-eskaintzen eta -eskatzaileen bolumenaren artean diren desoreka handiak ulertzeko, kontuan izan behar dugu enplegu-zerbitzuetan izena ematea ia erabatekoa dela (ia enplegu-eskatzaile guztiek jotzen dute haietara); aldiz, ez da gauza bera gertatzen enprekin, beste bide batzuetara jotzen baitute hutsik diren lanpostuak betetzeko hautagai bila (kontaktuak, heziketa-zentroak, komunikabideetako iragarkiak, kontratazio-enpresa pribatuak eta abar).

Iturria: Pôle Emploi, Lanbide, Nafarroako Enplegu Zerbitzua.


Euroeskualdeko hiru enplegu-zerbitzu publikoek (Pôle Emploi, Lanbide eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua) emandako datuen analisitik eratorritako emaitza nagusiak honako hauek dira.

- Hiru enplegu-zerbitzu publikoek 311.526 lanpostu eskaintzen dituzte guztira eta hiruren artean 815.418 pertsona daude izena emanda enplegu-eskatzaile gisa (langabeak edo beste lan baten bila dabilzanak). Horrek esan nahi du batez beste 2,6 pertsona daudela kudeatutako lanpostu bakoitzerako, eskualdeen arabera aldakortasun handiarekin.
- Sektoreen arabera lanpostuen eskaintzari erreparatuta, Euskadin enplegu industrialen presentzia erlatibo handiagoa nabari da (Lanbidek kudeatutako guztien % 18, eta Nafarroan % 13, nahiz eta azken datu hori oso kontuz hartu behar den, enpleguen erdiak baino gehiago ez baitira sailkatu jarduera-sektorearen arabera). Pôle Emploik eskainitako lanpostuetatik % 6 bakarrik daude industriarekin lotuta.
- Aldez aurretik esperientzia izatea ohikoagoa da Akitania Berrian eta Euskal Autonomia Erkidegoan: Pôle Emploik kudeatutako lanpostuen % 43k aldez aurreko esperientzia eskatzen du; ehuneko bertsua ageri da Lanbidek kudeatutako lanpostuetan. Ehuneko hori, ordea, % 16ra jaisten da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kasuan.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

- Eskaintako lanpostuaren profilari erreparatzean (teknikaria, administraria...), kontuan izan behar dugu, goian aipatu dugun moduan, Pôle Empleoiko lanpostu-tipologiak soldata-mailarekin banatzen direla eta Lanbideren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kasuan, berriz, eskatutako kualifikazioaren arabera. Horren ondorioz, enplegu ez-kualifikatuaren pisua bakarrik alderatzea erabaki dugu hiru enplegu-zerbitzuen kasuan. Horren emaitza honako hau da: Lanbidek orotara kudeatzen dituen lanpostuen % 20 direla prestakuntza gabeko lanpostuak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatuen % 25, eta Pôle Emploik kudeatuen % 30 pasatxo.
- Lanbidek kudeatutako lanpostuetan, frantsesa jakiteko eskakizuna eskaintzen % 1,7an bakarrik agertzen da (Gipuzkoako lanpostuen % 3,1ean). Pôle Emploiren eskaintzetan gaztelania jakiteko eskakizuna are apalagoa da: % 0,6. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ez du halako informaziorik jasotzen. Frantsesez jakiteko eskakizuna, hortaz, ohikoagoa da Euskadiko zerbitzu publikoek kudeatutako lanpostuetan, Akitania Berrian eskaintako lanpostuetan gaztelaniaz jakiteko eskakizuna baino.


5.1 grafikoa Enplegu-zerbitzu publikoek kudeatutako lanpostuen eskaintza, sektorearen arabera.




Iturria: Pôle Emploi, Lanbide eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.2 grafikoa Mugaz gaindiko hizkuntza ezagutzeko eskakizuna enplegu-zerbitzu publikoek kudeatutako lanpostuetan (eskaintako lanpostu guztien ehunekoa).



5.3 grafikoa Aurreko esperientzia izateko eskakizuna enplegu-zerbitzu publikoek kudeatutako lanpostuetan (esperientzia eskatzen duten lanpostu guztien ehunekoa).



Iturria: Pôle Emploi, Lanbide eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

Enplegu-eskatzailen kolektiboaren analisiari dagokionez (langabeak edo beste lan baten bila dabilzanak), alde nabarmenak ageri dira eskualdeetako profiletan; Akitaniako eskatzailak posizionamendu hobea dute adinari, kualifikazioari eta hizkuntzei erreparatuta. Alderaketa-analisitik honako emaitza hauek aterako genituzke.

- Sexuaren arabera banaketak ez du ageri alde esanguratsurik. Hiru eskualdeetan emakumeak gehiago dira. Nafarroan da, hain justu, alde hori handiena (% 59, Euskadin eta Akitania Berrian, beriz, % 55 eta % 53, hurrenez hurren).
- Adinari erreparatzen baldin badiogu, alde esanguratsua honako hau da: 55 urtetik gorako populazioaren presentzia handiagoa da Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, Akitania Berrian baino (% 23, % 18 eta % 13, hurrenez hurren).
- Oso deigarria da alde aurretik erregistratutako lan-esperientziaren artean ageri den aldea. Nafarroako eta Euskadiko emaitzak nahiko antzekoak dira: enplegu bila dabiren % 8 inguruk ez zuen lanik izan aurretik. Akitania Berrian, ostera, kategoria horretan sailkatutako eskaria % 62 da.
- Aurretik enplegua dutela edo eduki dutela dioten pertsonen artean, gehien-gehienak zerbitzuen sektorekoak dira aztertutako hiru eremu geografikoetan (Akitaniako eskatzailen % 68, alde aurretik lan-esperientzia dutenak, hirugarren sektorekoak dira; Euskal Autonomia Erkidegoan % 76 eta Nafarroan, beriz, % 74). Industria da bigarren tokian.
- Eskatutako okupazioari dagokionez, beriz, Bidasoaren alde banatan erabilitako sailkapenean diren desorekek murriztu egiten duten analisiaren irismena.


5. Laneko merkatuen osagarritasuna

Nabarmentzekoa da, hala ere, Pôle Emploi izena emandako eskatzaileen % 29 inguru makineriako langile ez-kualifikatuetara lotuta legokeela; ehuneko hori % 11ra murriztuko litzateke Lanbiden izena emandako populazioaren kasuan eta, aldiz, % 40ra igotzen da Nafarroaren kasuan.

- Enplegu-eskatzaileen maila akademikoari dagokionez, berriz, aldeak nabariak dira oso. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan hezkuntza-maila apalak dira nagusi (nahitaezko ikasketetaraino), batez ere bigarren kasuan (% 54 eta % 67; Akitania Berrian, aldiz, % 15). Ehuneko horiek igo egiten dira, populazio erabat langabea kontuan hartzen badugu, lanez aldatu nahi dutenak albo batera utzita. Diferentzia hori berretsi egiten da unibertsitate-hezkuntzaren pisua aztertzen baldin bada, presentzia askoz handiagoa baitu Akitania Berrian (% 23), Euskal Autonomia Erkidegoarekin (% 16) eta batez ere Nafarroarekin (% 13) alderatuta.
- Hizkuntzaren ezagutzari dagokionez, ikusten da gaztelania jakitea askoz ere ohikoagoa dela Akitania Berrian enplegu bila ari direnen artean (% 22), eta, bereziki, Pirinio Atlantikoetako departamenduan (% 41). Aldiz, Lanbiden (% 9 EAE osoan eta % 13 Gipuzkoan) edota Nafarroako Enplegu Zerbitzuan (% 12) izena emandakoen artean frantsesa jakitea ez da horren ohikoa.
- Euskararen ezagutzari dagokionez, berriz, Lanbidek eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bakarrik jasotzen dute aldagai hori. Hala, lortutako emaitzek hauxe erakusten dute: Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-eskatzaileen % 20 inguruk dio badakiela euskaraz, eta, Nafarroako eskatzaileen kasuan, % 10ek.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna







5.4 grafikoa Enplegu-zerbitzu publikoetan izena emandako enplegu-eskatzaillearen profila



Iturria: Pôle Emploi, Lanbide eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.5 grafikoa Enplegu-zerbitzu publikoetan izena emandako enplegu-eskatzailleak, sexuaren, adinaren, maila akademikoaren, aurreko lan-esperientziaren, jatorriaren eta hizkuntza-ezagutzaren arabera (eskatzaille guztien ehunekoa)



Iturria: Pôle Emploi, Lanbide eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.3. Euroeskualdeko mugaz gaindiko enpleguari buruz enpresek, klusterrek eta enpresa-elkarteek egiten duten balorazioa

Mugaz gaindiko enpleguarekiko Euroeskualdearen eragile ekonomikoen esperientzia eta balorazioa ezagutzeko asmoz, azterketa honen testuinguruan, inkesta bat egin dugu.

Inkestaren helburua izan da mugaz gaindiko enplegua kontratatzearen arloan Euroeskualdeko eragile ekonomiko eta enpresariak duten esperientzia eta jarrera ezagutzea (profilak, eremu profesionalak...), topatutako zailtasunetan sakonduz, baita fenomeno horrekiko dituzten itxaropenetan ere.

Inkesta on-lineko galdetegi baten bidez egin genuen. Guztira 51 eragile ekonomikok erantzun zuten, horien artean enpresak, klusterak, enpresa-elkarteak, erakundeak eta prestakuntza-erakundeak. Inkestaren prozesua 2017ko irailaren eta azaroaren artean egin zen.


Aipagarria da jarraian aurkeztutako emaitzak kontuz hartu behar direla, hurbilketa bat dira, ezin baita zehatz-mehatz lagin ordezkagarria denik esan; izan ere, mugaz gaindiko enplegua duten enpresa guztiak identifikatzen dituen datu-baserik ez dago. Edonola ere, eta lortutako emaitzak ikusita, batez bestekoak baino mugaz gaindiko jarrera handiagoa duten erakundeak dira, eta horrek, agian, emaitzei balio handiegia ematen die mugaz gaindiko gertakariarekiko.

5.3.1. Mugaz gaindiko enpleguarekiko pertzepzioa eta itxaropenak

Egindako inkestaren emaitzetako lehenengoak agerian uzten du mugaz gaindiko gertakaria ez dela gakotzat hartzen den alderdi espezifiko Euroeskualdeko enpresen aldetik langileak kontratatzeke garaian. Zehazki, kontsulta egindako 4 eragiletik 3k ez du kontuan hartzen hautagaiak behin kontratatutakoan mugaz gaindiko izaera izango duen (edo dagoeneko baduen) edo ez.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna


5.6 grafikoa Mugaz gaindiko izaera kontuan hartzea kontratazio-prozesuetan



Iturria: IKEI. Euroeskualdeko eragile ekonomikoei egindako inkesta, 2017.

Edonola ere, eta kontsulta egindako erakundeak dauden lurraldeko mugaz gaindiko izaera kontuan hartuta, mugaz gaindiko izaera duten jardueren etorkizuneko bilakaerari buruzko itxaropenak baikorrak dira; horien artean sartuta daude salmentak, erosketak edota mugaz gaindiko izaera izan dezakeen bestelako harreman komertzialak, prestakuntzakoak, asoziazioetako harremanak. Zehazki, kontsultatutako 4 eragiletik 3k (% 76) adierazi du datozen 5-10 urteetan mugaz gaindiko jarduerak areagotu egingo direla.

5.7 grafikoa Datozen 3-5 urteetan mugaz gaindiko jardueretan aurrez ikusitako bilakaera




Iturria: IKEI. Euroeskualdeko eragile ekonomikoei egindako inkesta, 2017.

Illo horretan, eta azterketa mugaz gaindiko enpleguaren gaineko itxaropenetan oinarrituta, horiek ere positiboak dira. Zehazki, kontsulta egindako eragileek % 67k, hain zuzen ere, aurrez ikusten dute datozen 5-10 urteetan Euroeskualdean mugaz gaindiko enplegurako aukera dezente edo asko izango direla.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.8 grafikoa Datozen 5-10 urteetan mugaz gaindiko enpleguaren bilakaeraren aurreikuspena



Iturria: IKEI. Euroeskualdeko eragile ekonomikoei egindako inkesta, 2017.

5.3.2. Eragile ekonomikoen mugaz gaindiko esperientzia

Kontsulta egindako eragileen mugaz gaindiko esperientzia askotarikoa da, alde batetik, mugaz gaindiko joerarekin oso ohituta dauden erakundeak daude (langileak kontratatzean, bezeroekin eta hornitzaileekin harremanak izatean, edota establezimenduak/produkzio-zentroak kokatzeko garaian...) eta beste batzuentzat, aldiz, mugaz gaindiko gaia ez da existitzen.


Edonola ere, kontsultatutako erakundeen artean ohikoena den mugaz gaindiko esperientzia⁵² "beste aldeko" enpresa-errealitatearen ezagutzarekin lotutakoa da, batez ere, merkatuarekin zuzenean lotuen dauden alderdien gainean, hau da, "beste aldeko" bezeroak eta/edo hornitzaileak ezagutzea edo harremanak izatea. Inkesta egindako erakundeen % 56k dio "beste aldeko" bezeroak dituztela, eta % 49k hornitzaileak.

Bestalde, inkesta egindako erakundeen % 47k dio "beste aldeko" enpresa-elkarteetako edo klusterretako kide direla edo parte hartzen dutela, eta % 43k "beste aldeko" ikerketa-zentroekin harremanetan daudela. Erakundeen % 33k "beste aldean" kontratatzen dituz aholkularitza, lege-babesa, marketina eta antzeko beste zerbitzu batzuk.

⁵² Egindako inkestaren inguruko sarreran azaldu dugun moduan, eta lortutako emaitzak ikusita, bertan parte hartutako erakundeek mugaz gaindiko jarrera handiagoa dute, eta horrek, agian, emaitzei balio handiegia ematen die mugaz gaindiko gertakariarekiko.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.9 grafikoa Eragile ekonomikoek mugaz gaindiko jarduera duten eremuak




Iturria: IKEI. Euroeskualdeko eragile ekonomikoei egindako inkesta, 2017.

5.3.3. Enpresek eskatutako profila eta arlo profesionalak

Kontsulta egindako erakundeek kontratatzeko dituzten aurreikuspenak ezagutzeko ere balio izan du inkestak. Horrekin lotuta, parte hartutako erakundeen erdiek (% 52) adierazi dute datozen hiru urteetan langile berriak kontratatzeko asmoa dutela.

Horrekin lotuta, langile kualifikatuak dira erakunde horiek kontratatzeko garaian gehien eskatzen duten profila (% 45), eta jarraian, produkziozko langile teknikoak (% 33). Langile komertzialen eskaera ere nabarmena da (% 29). Beste profil batzuek, hala nola langile zientifikoek, administratzaileek edo kualifikatu gabekoek, eskaera txikiagoa dute inkestan parte hartutako eragileen aldetik.

5.10 grafikoa Enpresek eskatutako profil profesionalak




Iturria: IKEI. Euroeskualdeko eragile ekonomikoei egindako inkesta, 2017.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

Testuinguru horretan, eta azterketa mugaz gaindiko enplegurako aukeretan oinarrituta, datozen urteetan aurreikuspenen arabera eskaera handien izango duten esparruak/funtzioak, kontsulta egindako erakundeen arabera, honako hauek izango lirateke: lehenik eta behin, ingeniari-tza eta produkzioa (% 59), jarraian, arlo komertziala eta marketinekoa (% 41). Horien atzetik, tarte handiagoarekin, IKTen arloa dago (% 26).

5.11 grafikoa Enpresen aldetik langile-eskaria dagoen arlo profesionalak



Iturria: IKEI. Euroeskualdeko eragile ekonomikoetara egindako inkesta, 2017.


5.3.4. Mugaz gaindiko enplegua kontratatzeko zailtasunak

Kontsultatutako erakunde ekonomikoek (batez ere enpresak eta enpresa-elkarte/klusterrak) adierazten dute mugaz gaindiko langileak kontratatze-prozesuan topatutako oztopo nagusiak alderdi juridikoak direla, alderdi kultural eta fiskalekin batera.

Kontratatze-garaian badirudi hizkuntza ere zailtasunetako bat dela, nahiz eta ez den kontratatze-prozeduran alderdi gakoa. Horrekin lotuta, gogoratu behar da kontsultatutako eragileetara egindako galdera kontratazio-prozesuan topatutako arazoengatik ingurukoa zela, eta ez langileak kontratatze-erabakiarekin lotutako arazoengatik ingurukoa, horien artean, hain zuzen ere hizkuntza baita zailtasun nagusietako bat.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.12 grafikoa Mugaz gaindiko langileak kontratatzeko zailtasunak



Iturria: IKEI. Euroeskualdeko eragile ekonomikoei egindako inkesta, 2017.

5.3.5. Euroeskualdean mugaz gaindiko enplegua sustatzeko ekintza-eremuak


Azkenik, mugaz gaindiko enplegu-fluxuak sustatzeko landu beharreko eremuez galdetuta, erakundeek gainerakoen artetik nabarmentzen dute herritarrek Euroeskualdeko hizkuntzak ezagutzea (% 73), eta jarraian, mugaz gaindiko errealitateari lotutako betebeharrak, eskubide eta izapide administratiboak buruzko informazio handiagoa (% 53).

Araudi fiskalak eta juridikoak nahiz lanekoak homogeneizatzea ere arlo garrantzitsua da mugako bi aldeetako fluxu handiagoa sustatzeko.

Kontsultatutako erakundeek adierazitako beharreko beste alderdi batzuk honako hauek dira: garraio/mugikortasuneko bitartekoak eta aukerak hobetzea (% 33), eta bi aldeetan Enplegu Zerbitzuen artean beharrezko koordinazioa.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.13 grafikoa Euroeskualdean mugaz gaindiko enplegua sustatzeko ekintza-eremuak



Iturria: IKEI. Euroeskualdeko eragile ekonomikoei egindako inkesta, 2017.

Bestalde, inkesta egindako erakunde gehienen ustez (% 86) interesgarria/oso interesgarria da talentua erakartzeko/gaitzeko ekintzak garatzea. Ildo horretan, honelako ekintzak garatzea interesgarria dela uste dute: mugaz gaindiko lan-poltsa sortzea (% 59), sektoreetako klusterrek kontratazio-plataformak sortzea (% 41). Bestalde, interesgarria iruditzen zaie talentua biltzeko eta erakartzeko prestakuntza-zentroekin ekimenak garatzea ere (% 28).

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.4. Espezializazio Adimentsuaren estrategiak (RIS3) eta enpresa-klusterrak Euroeskualdean

5.4.1. Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak (RIS3)

Europako Batzordeak, kohesio-politikaren 2014-2020 aldiaren hasieran, Europako eskualde guztiei Egiturazko Funtsak emateko ex ante baldintza gisa jarri zien Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak definitzen hasteko erronka.

Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak (*Research and Innovation Smart Specialisation Strategies*, RIS3⁵³) lurraldeko eraldaketa ekonomikoan txertatutako agendak dira; haien esfortzuak indargune erlatiboetan oinarritzen dituzte inbertsioak eta garapen ekonomikoko esfortzuak, hau da, gainerakoetatik bereizten dituzten horretan, aukera ekonomikoak eta sortzen ari diren joerak aprobetxatzeko eta haien hazkunde ekonomikoa sustatzeko neurriak hartzeko.

RIS3 estrategiek sustatutako hazkunde ekonomikoa eta produkzio-erlaketaren garapen gisa, enplegu berriak eta hobeak ere sortuko dira. Horregatik da gakoa RIS3 estrategietako bakoitza aztertzea hiru eskualdeen egungo osagarritasuna kontuan hartzean eta, batez ere, hurrengo urteetan.

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen kide diren hiru eskualdeetako bakoitzak bere RIS3 estrategia propioa definitu eta garatu du, sektoreen egituraren eta eskualdeko indarguneen arabera lehentasun estrategikoak identifikatuta. Hala ere, ez dago oraindik⁵⁴ Euroeskualdeko RIS3 estrategiarik gakoak diren sektore estrategikoak definitzeko, beraz, osagarritasunen azterketa egiteko, RIS3 estrategia bakoitzeko eremu/sektore estrategikoen analisia egin behar da, eremu komunak eta/edo osagarriak identifikatzeko.

Jarraian, laburtuta, Euroeskualdeko eskualde bakoitzak aukeratutako eremu/sektore estrategikoak datoz azalduta, komunak eta/edo osagarriak diren sektore estrategikoak identifikatzeko ariketa baten bidez, interesgarria den mugaz gaindiko enplegu-nitxoak ikusarazteko.

⁵³ http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/informat/2014/smart_specialisation_en.pdf

⁵⁴ POCTEFAk konfinantzatutako COMPETITIV'eko proiektuaren testuinguruan, mugaz gaindiko espazioaren RIS3 azterketa ari dira egiten, partekatutako lan-eremuen aukeraketa bat egin ahal izateko.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.9 koadroa Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak

	AKITANIA BERRIA			EUSKADI	NAFARROA
	AKITANIA	POITOU-CHARENTES	LIMOUSIN		
Industria	- Industria kimikoa eta materialen industrializazioa - Lantegi lehiakorra giza faktoreari esker			- Fabrikazio aurreratua, garraioarekin, ekipo-ondasunekin, makina-erremintarekin eta metalarekin lotutako sektore industrialetan.	- Automozioa eta mekatronika (4.0 teknologien integrazioa)
Energia	- Biomazaren mugikortasuna eta industriarako biofindegiak			- Energia iraunkorra. I+G teknologiko eta industriala balio-kate energetikoan.	- Energia beriztagarriak eta baliabideak. Energiaren kudeaketa eta ekipoen fabrikazioa
Azterlana	- Ongizaterako eta osasunerako baliabide naturalen kudeaketa adimentsua - Arreta soziosanitarioaren eta pazientearen asistentziarako teknikak	- Osasuna eta ingurumena	- Zahartzearen ekonomia. - Giza eta animalia osasunaren zerbitzurako bioteknologia.	- Biozientziak/ Osasuna. Giza osasuna eta beste nitxo batzuk, hala nola elikadura, agrokimika eta ekosistema naturalak.	- Industria farmazeutikoa eta bioteknologikoa. Horniketa medikoa.
Elikadura	- Zehaztasuneko nekazaritza eta ekoeraginkortasuna nekazaritzako eta elikadurako industrian	- Elikadura-kalitatea (produktzioa eta trazabilitatea)	- Animalien genetika eta mikrobiologia, abeltzaintza eta prozesatutako produktuak	- Nekazaritzako eta elikadurako industria (elikadura-segurtasuna, teknologia, akuikultura, gastronomiaren eta jatetxeetako industria)	- Elikadura-katea. Lehen mailako sektorea eta nekazaritza eta elikadurako industria
Kultura		- e-learning eta kulturaren industria	- Sorkuntzaren ekonomia (baliabide kulturalak eta sorkuntza-arteak)	- Aisialdia, entretenimendua eta kultura (Industria kulturalak eta hizkuntzaren industriak, sorkuntza-industriak, bideojokoak)	- Sorkuntza-industriak eta industria digitalak
Ingurumena, baliabide naturalen kudeaketa	- Geoizentziak, metrologia/monitorizatzeko baliabide naturalak modu iraunkorrean kudeatzeko	- Kimika iraunkorra (kimika "berdea") - Eraikuntza iraunkorra (iraunkortasuna, ergonomia, eraginkortasun energetikoa)*		- Ingurumeneko ekosistemak (uren deskontaminazioa, lur kutsatuak, arrisku ekologikoa monitorizatzeko)	- Energia beriztagarriak eta baliabideak*. Energiaren kudeaketa eta ekipoen fabrikazioa
Eraikuntza	- Eko-eraikuntza egurrarekin eta eraginkortasun energetikoa	- Eraikuntza iraunkorra (iraunkortasuna, ergonomia, eraginkortasun energetikoa)	- Eraikuntza adimentsua eta egokitzeko modukoa	- Lurraldeko plangintza eta hiria biziberritzea (smart cities eta eraikuntza)	
Turismoa					- Turismo integrala, iraunkorra eta arduratsua. Ondare naturala eta kulturala.
Mugigarritasuna eta garraioa	- Mugikortasun garbia eta adimentsua	- Garraio-sistema iraunkorrak - Eko-mugikortasuna			- Automozioa eta mekatronika (4.0 teknologien integrazioa)*
Beste teknologia eta sektore batzuk	- Txertatutako softwarea eta gauzen Internet - Laserra, fotonika eta errealitate birtuala		- Teknologia elektronikoak eta fotonikoak eta haien aplikazioak (interfaze digitalak, metrologia...) - Material zeramikoak eta haien aplikazioak	- Sorkuntza-industriak, bideojokoak*	- Sorkuntza-industriak eta industria digitalak*

* Eremu batean baino gehiagotan sartutako espezializazio sektoreak/adarrak

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

Azaldu dugun moduan, Euroeskualdea osatzen duten eskualdeetako bakoitzak bere RIS3 estrategia propioa dute, eta ez dago garapen ekonomiko eta berritzailerako sektore estrategikoak batera kontuan hartzen dituen partekatutako Euroeskualdeko RIS3 estrategiarik.

RIS3 euroeskualdeko estrategia egiteak eskualdeko estrategien azterketa zehatza egitea eskatzen du, eskualde bakoitzean ezarritako lehentasunezko ildoetan elementu komunak identifikatu ahal izateko, eta horien gainean lankidetzako ekimenak garatzeko.

Testuinguru horretan, eta aztertutako bost RIS3 Estrategietako bakoitzean aukeratutako eremu estrategikoak kontuan hartuta, ariketa bat egin dugu, eta bertan, Euroeskualdeko eskualdeek partekatzen dituzten RIS3 lehentasun estrategikoak eta ildo nagusiak identifikatu ditugu. Ariketa horretatik, hiru eskualdeen artean eremu estrategikoen multzo garrantzitsua atera da; honako hauek nabarmen daitezke: Ongizatea eta Osasuna, Energia beriztagariak, Nekazaritza-Elikadura, Sorkuntza-industriak eta Iraunkortasuna eta Baliabide naturalak.

Bestalde, aipatu behar da Akitania-Euskadi 2014-2020 Euroeskualdeko Plan Estrategikoak Euroeskualdearen garapenerako interes komuneko 6 sektore estrategiko identifikatu zituela. Zehazki, honako sektore hauek identifikatu zituzten: aeronautika eta espaziala, nekazaritza eta elikadura, basoa eta eraikuntza iraunkorra, itsasoko eta itsasertzekoa, energia beriztagariak eta osasuna.

COMPETITIV'eko ekimenaren eta interklustering azterketaren bidez ere Euroeskualdean partekatutako apustu bihur daitezkeen 4 jarduera-eremu identifikatu dira. Kasu honetan honako hauek dira identifikatutako eremuak: fabrikazio aurreratua, energia beriztagariak, nekazaritza eta elikaduraren eta osasunaren sektorea.

Euroeskualdean sektore estrategikoen identifikazio eta partekatutako plangintza lurraldearen garapen ekonomikorako funtsezkoa dela egia den arren, edonola ere, mugaz gaindiko enplegu-arro baten kontzepzioa ez litzateke partekatutako eremu/sektoreetan soilik lotu beharko, baita, edo batez ere, hauetan ere: eskualdeen artean desberdinak diren eremu edo sektore ekonomikoetan, eskualde baten egitura ekonomikoak (eta hark sortzen duen enplegu-eskaintza) besteetan dagoen enplegu-eskaera xurgatu ahal izateko moduan.

Horrekin lotuta, partekatutako sektoreak baino gehiago, enplegu-beharrak dituzten sektore ekonomikoak identifikatu eta sektore horiek eskatutako prestakuntza/gaitasunak/eskumenak dituzten pertsonen kolektiboekin harremanetan jarri behar dira.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.4.2. Euroeskualdeko klusterrak

Edozein lurraldetako enpresa-egiturarako, lankidetzak da alternatiba estrategiko nagusietako bat. Enpresa-lankidetzak ahalbidetzen die enpresei lotzen diren taldeko abantaila lehiakorrak aprobetxatzea, akordio horiek horizontalak (sektore bera) nahiz bertikalak (balio-kate bera) izan. Ildo horretan, klusterrak enpresa-lankidetzako (baita erakunde mailakoa ere kasu batzuetan) tresna oso interesgarriak eta ohikoak dira.

Elkarte horiek eskualdeetako garapen ekonomikoan izan dezaketen rola garrantzitsua da. Hala, elkartutako enpresa-egitura bat egoteak lurralde horretako lehentasun ekonomikoak erakuts ditzake, sektoreko arazo jakinak, edo baita sektore jakin batzuetako enpresa arteko lankidetzako maila ere. Lurraldeko sektore ekonomiko garrantzitsuenak eta/edo aktiboenak ere identifika ditzake, baita dauden balio-kateak ere.

Jarraian, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko hiru eskualdeetan dauden sektoreko kluster nagusien zerrenda dator:

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.10 koadroa Hiru eskualdeetan dauden sektoreko klusterren zerrenda

Akitania Berria	Euskadi	Nafarroa
Eskualdeko ekimeneko klusterrak • Aerocampus Cluster • Aetos • Aquinetic • Aquitaine Chimie Durable • Aquitaine Croissance Verte • Aquitaine Robotics • Cluster Eolien Aquitain • Creahd • Digital Aquitaine • Inno'Vin • Sysolia • Tic Santé • Topos	• ACEDE - Etxetresna elektrikoen klusterra • ACICAE - Automozio klusterra • ACLIMA - Ingurumen Industrien klusterra • AFM - Makina-erreminten klusterra • Euskadiko eta Nafarroako Galdatzaileen Elkartea • Produktuen Esportatzaileen eta Instalazio Siderurgikoen Espainiako Elkartea • Produktuen Esportatzaileen eta Instalazio Siderurgikoen Espainiako Elkartea • Eskuko Tresnen Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea • AVIC. Ingeniaritzako eta Aholkularitzako enpresen Euskal Elkartea • Basque Biocluster • Euskadiko Elikadura klusterra • Mugikortasuneko eta Logistika klusterra • Habic - Ekipamenduen, Egurraren eta Diseinuaren sektoreko kluster elkartea • EKEN - Ikus-entzunezko klusterra • Euskal Herriko Itsas Foroa • GAIA - Telekomunikazioen klusterra • HEGAN - Aeronautikako eta Espazioko klusterra • SIFE - Estantazio bidezko forjaketa • UNIPORT Bilbo • Eraikune – Euskadiko Eraikuntza klusterra • Euskadiko Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologia arloko Unibertsitate Prestakuntzako klusterra	• Nafarroako IKT klusterra (ATANA) • Functional Print klusterra / AEGRAN • Nafarroako Egurraren Enpresaburuen Elkartea • Nafarroako Nekazaritza eta Elikadurako klusterra / CONSEBRO • Nafarroako Upategien Elkartea (ABN) • Aholkularitza-enpresen Nafarroako Elkartea (ANEC) • Turismo klusterra / Nafarroako Ostalaritza Elkartea • Ingeniaritza, ikasketa tekniko eta zerbitzu teknologikoko enpresen elkartea. • Automozio klusterra • 4.0 Industriaren klusterra • Nafarroako Eraldaketa Industrialaren Klusterra (ITC)
Lurraldeko klusterrak • Aquis o Thermes • Bordeaux Games • Bordeaux Superyachts Refit • Cluster Bois et Énergie du Fumélois • Cluster Créatif Silographic • Cluster Eskal Euroeka • Cluster Fruits et Légumes Nutrition Santé • Cluster Machinisme • Cluster Santé Osasuna • Demain • Eau et Adaptation au Changement Climatique • Eurosima Cluster • Goazen • Les Plantes au Service des Plantes • PPS • Réseau C.L.E. • So-Horse-Alliances • Uztartu		

Iturria: Bertan eginda informazio webguneak kontsultatu ondoren.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.5. Enpleguaren lurralde mailako plangintza Euroeskualdean

5.5.1. Enplegu-politika Akitania Berrian

Akitania Berria eskualdeak ekintza-plan bat onartu zuen 2017ko ekainaren 26an, orientazio-politiketarako, trebakuntzarako eta enplegurako lau ardatz ezarrita⁵⁵:

1. Orientazioari lehentasuna ematea lanbide-bizitzaren etapa bakoitzean

Akitania Berriak hautaketa-baldintzak argitu nahi ditu, eta, horrez gain, trebakuntzaren eta enpleguaren ibilbideetan harremanak bizkortzeko eta trantsizio profesionalak errazteko asmoa du. Carif-Oref berriak (trebakuntzari buruzko informazio-baliabideen animazio-zentroa / Enpleguaren eta Trebakuntzaren Eskualdeko Behatokia) egiteko garrantzitsua dauka orientazio-prozesuan, eta lanbideen eta jarduteko baldintzen inguruko informazioa prestatzen eta zabaltzen du.

Erakunde hura eta Ikasketen eta Lanbideen Informazio Bulego Nazionala (ONISEP, frantseseko akronimoaren arabera) zerbitzu-eskaintza bat zabaltzeaz arduratuko dira, lanbideak aurkitzen eta sustatzen laguntzeko. Lankidetzako harrera-tokien sare berri baten eskaintza osatzeko, plataforma digital bat prestatuko dute. Enpresek trebakuntza-eskaintza ulertzeko laguntza jasoko dute, baita euren gaitasun-beharrak adierazteko ere.

Eskualdeak konexioak garatu nahi ditu enpresekin eta orientazioko eragileekin, baita Bilakaera Profesionaleko Kontseiluarekin ere (CEP, frantseseko siglen arabera), okupazioak, sektore profesionalak, trebakuntza eta erronka ekonomikoak hobeto ezagutzeko. Enplegu-eskatzailen eta -eskaintzaileen egokitzapenari dagokionez, berriz, Akitania Berriak eta Pôle Emploi hainbat ekimen berritzaile ipiniko dituzte abian: Lab, Job dating formation, enplegu-zerbitzu digitala... Nazioarteko mugikortasun-esperientziak proposatuko dira (lehendabiziko enplegurako tranpolinaPP...).

2. Heziketa-eredua aldatzea, guztien prestakuntza-maila hobetzeko

Lanbide-heziketako eskaintza beharizanetara egokitutako eskaintza kolektibo baten bidez birformatuko dute, eta, horretarako, ekintza egituratzaileak eta beharizan koitunturalei eskaintako erantzunak uztartuko dituzte. Hala, oinarrizko gaitasunen zutabea bermatuko da guztientzat, biziarteko egokitzapenaren bidean. Prestakuntzako Kontu Pertsonalean (CPF, frantseseko siglen arabera) laguntza indibidualen gailu bat gaituko da enplegu-eskatzaille guztientzat, baldin eta eskaintza kolektiboan proposatzen ez diren kualifikazioak edota bizilekutik aldendutako tokietan ematen direnak egin nahi badituzte.

⁵⁵ <https://www.arftiv.org/pages/360/region-Nouvelle-Aquitaine.aspx>

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

Akitania Berriak laguntza eskainiko die enpresen prestakuntza-planei eta enpleguak eta gaitasunak aurreikusteko kudeaketa-prozesuari, eta, horrez gain, berrikuntza pedagogikoa babestuko du. Alde horretatik, funts berri bat sortuko du urruneko prestakuntzarako, gaitasunak eskuratzeko modu guztiak errazteko eta metodo pedagogiko berriak lortzeko. Haren helburua prestakuntzaren alorrean bikaintasun-poloak garatzea da. Institutu profesionalen plataforma teknikoak mutualizatzen lagunduko du, baita helduen prestakuntza-zentroak (CFA, frantseko siglen arabera) eta prestakuntza-erakundeak ere. Era berean, ibilbideak uztartzen eta ekintzailatza sustatzen ere lagunduko du.

3. Politika lurraldeen errealitateara egokitzea

Eskualdeak bere eskumenak lurraldeen garapenera bideratuko ditu, eta, horretarako, neurri espezifikoak sustatuko ditu lurralde hauskorrenetan: laguntza indartua eskainiko die toki-ekimenei eta laguntza diferentziala emango die enplegu-eskatzailen inguruan diharduten toki-egiturei. Proiektu esperimentalak egingo dituzte, hala nola trebakuntza kualifikatzaile deslokalizatuak, Chantier Formation Qualification Nouvelle Chance ekimena zabaltzea, edota kultura teknikoa eta zientifikoa sustatzea institutuetan eta Eskualdeak babestutako gainerako espazioetan.

Eskualdearen lurralde-taldearen babesa eta esperientzia izango dituzte lurraldeek. Lurralde-batzordeak gune pribilegiatu bihurtuko dira, enplegua eta giza kapitala sortzeko toki-proiektuak diseinatzeko eta prestatzeko. Ekimen hori babesteko, Okupazioen Eskualde Konferentzia bat prestatuko dute, esperientzia eta jardunbide profesional egokiak zabaltzera bideratuta.

4. Prospekzio-erremintak izatea etorkizuna prestatzeko

Okupazioari eta kualifikazioari buruzko prospekzio-erremintek harmonizatuta egon behar dute, eta Eskualdeak eta bere kideek partekatu egin behar dituzte, trebakuntza-programazioa prestatzeko, aldaketa ekonomikoak eta teknologikoak hobeto aurreratzeko, lan-merkatuaren martxa hobetzeko eta, aldi berean, egindako ekintzen inpletuaren segimendua egiteko.

Ekintza-plan horren helburua kide eta e guztiak anbizio partekatu baten inguruan biltzea da. Lehendabiziko elkartze-etapa Enplegu, Prestakuntza eta Lanbide Orientaziorako Eskualde Batzordera eramango dute (CREFOP, frantseseko akronimoaren arabera); hala, Estatuaren eta Eskualdearen arteko estrategia koordinatua bideratuko du enpleguaren, orientazioaren eta lanbide-heziketaren alorrean (SCEOFPE estrategia). Hitzarmen horren jarraipen gisa, Orientazioaren eta Lanbide Heziketaren Garapenerako Eskualde Planaren Kontratua (CPRDFOP, frantsesez) sortu da; haren helburua zera da, enpleguen, gaitasunen eta kualifikazioen alorreko beharizanak aztertzea eta gazteen zein helduen lanbide-heziketako ekintzen programazioa antolatzea, lurraldeen ikuspegia aintzat hartuta.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.5.2. Euskadiko enplegu-politika

"Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa 2017-2020"⁵⁶ programak enpleguaren arloko euskal politikaren eskema orokorra eta helburu estrategiko nagusiak biltzen ditu, horretarako, "Enpleguaren Euskal Estrategia 2020"⁵⁷ estrategian zehaztutako jarraibideak beteta.

Enpleguaren Euskal Estrategia 2020ren funtsezko helburua da datozen urteetan Euskadin enplegu-politikak bideratu behar dituzten jarraibideak ezartzea, Europa 2020 Estrategiarekin eta "RSI3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategia" hausnarketa estrategikoarekin koherentziaz. Estrategia hori Euskadin enplegurako 6 jarduketa-ardatz handiren gainean egituratzen da ("Aktibazioa", "Prestakuntza eta Konpetentziak", "Aukerak sortzea", "Kalitateko enplegua" eta "Enpleguaren euskal sistema eraginkorra eta eragingaria"), eta garatu beharreko 41 jarraibide ere baditu.

Honako hauek dira 2017-2020 Esparru Programaren jarduketa-gakoak:

1. Enplegua eta Suspertze Ekonomikoa babesteko Estrategia integratua, 8.800 milioi euroekin, langabezia % 10etik behera murrizteko.
2. Prestakuntza ahalbidetzeko, ekintzailatzarako eta lan-munduratzeko ahalbidetzeko Enplegu Plan Espezifikoa.
3. Gazteen enplegua babesteko lerro espezifikoa martxan jartzea, 20.000 gazteri lan-aukera eskaini ahal izateko.
4. I+G+b arloa bideratutako aurrekontuaren % 5eko igoera urtean.
5. Euskal enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzerako laguntza integrala.
6. "RSI3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak" garatzea, Euskadi Europan berrikuntza maila handiko eskualde gisa finkatzeko.
7. Euskadiko garapen ekonomikoaren motor gisa 4. industria-iraultzaren alde apustua egitea.
8. Euskal ETE-en digitalizazioa sustatzea, 1.500 enpresaren modernizazio eta digitalizaziorako Euskadiko Agenda Digitalaren estrategia garatuz.
9. Prestakuntza dualaren eta laneko zentroetan prestakuntza profesionalaren aldeko apustua
10. Enplegu publikoaren berrikuntza eta finkapena, aurrez ikusitako erretiroen egoerari erantzuna emanez

Estrategia eta Esparru Programa 2017-2020ko Enpleguaren Plan Estrategikoan zehazten dira. Plan hori, Eusko Jaurlaritzaren barruan enplegua sustatzeari lotutako zerbitzu eta

⁵⁶http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9329/PROGRAMA_MARCO_por_el_Empleo_y_la_Reactivacion_Economica_2017_2020_.pdf?1490694692

⁵⁷http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/eve2020/es_def/adjuntos/EVE2020.pdf

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

programak exekutatzen dituzten sail ugarien laneko tresna gisa egituratzen da, enpleguaren kontzeptu zabala izanik, betiere, laneko, hezkuntzako eta sustapen ekonomikoaren arloekin lotutako eremu guztiak bilduta. Hori guztia enpleguarekin lotutako funtsezko 2 helbururekin: Euskadin langabezia 2020an % 10en azpitik murriztea eta 2017-2020 aldian 20.000 gazteri enplegu-aukera eskaintzea.

Programak euskal ekonomian pizgarri-dun 45.000 enplegutik zenbatutako eragina izango duela aurrez ikusten du, 6.000 enpresa berri babestuta, 100 ikerketa-proiektu berri babestuta, 1.200 ETE babestuta kanpoko merkatuetara sartzeko eta berrikuntzako 4.100 proiektu babestuta, 20.000 euskal gazteri lan-aukera bat eskaintzeaz gain.

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren aurrekontu-horniduraren estimazioa 1.180 milioi eurokoa da aldi osorako, eremu operatiboaren arabera banaketa honekin:

5.14 grafikoa 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren eremu operatiboak

E.1	ETeak, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	63 milioi euro
E.2	EKINTZAILETZAREN SUSTAPENA	86 milioi euro
E.3	GAZTE-ENPLEGUAREN SUSTAPENA	101 milioi euro
E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	282 milioi euro
E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK	301 milioi euro
E.6	BIRGAITZEKO RENOVE PROGRAMAK	347 milioi euro
E.7	ENPLEGU PUBLIKOA	Esleipen jakinik gabe
E.8	ENPLEGU KALITATEAREN HOBETUNTZA	Esleipen jakinik gabe
E.9	EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN HOBETUNTZA	Esleipen jakinik gabe

Iturria: Eusko Jaurlaritzak, Enpleguaren eta Sustapen Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa 2017-2020

5.5.3. Nafarroako enplegu-politika

2016-2019 Nafarroako Enplegu Planaren zirriborroaren arabera, Foru Erkidegoko Gobernuak guztira 20.000 enplegu sortzea espero du, langabezia-tasa % 10era murrizteko (gutxi gorabehera 10.000 lanpostu sortuta) eta orain inaktibo dauden beste 10.000 pertsona lan-merkatara sartzeko.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.11 koadroa 2016-2019 Nafarroako Enplegu Planaren oinarrizko printzipioak eta helburu estrategikoak

Oinarrizko printzipioak	• Langileei, okupatutakoei eta langabetuei erantzuna ematea. • Enpresen behar eta eskariei erantzutea. • Nafarroako Enplegu Zerbitzua - Nafar Lansare eraldatzea.
Helburu estrategikoak	1. Nafarroan enplegua handitzea 2. Enpleguaren kalitatea hobetzea. 3. Pertsonen enplegarritasuna, prestakuntza eta gaitasunak hobetzea. 4. Lan-merkatuan sartzea ahalbidetzea eta aukera-berdintasuna bermatzea 5. SNE-NL eraldatzea eta modernizatzea

Iturria: 2016-2019 Nafarroako Enplegu Planaren zirriborroa, 2016ko iraila.

Enplegu gehiago, kalitate handiagokoa, enplegarritasuna hobetzea eta aukera-berdintasuna - gizarteratzea eta lan-munduratzea dira zirriborroak jasotako lau ardatz estrategikoak. Horri bosgarren helburua gehitu behar zaio, Nafarroako Enplegu Zerbitzua - Nafar Lansare eraldatzea, arreta pertsonalizatuagoa eman dezan, batez ere, eta hala, 2019rako urtean 15.000 laguni jarraipena egiteko gaitasuna izan dezan. Planaren garapena amaitzean, 2019an, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako (RIS3 Nafarroa) erreferentzia diren Europako 15 eskualdeekin enplegu-tasan dagoen arraila % 75ean murriztea espero da. 20.000 lanpostu sortuta, Nafarroan 20-64 urte arteko biztanleen enplegu tasa % 75ekoa izatera hurbil liteke (2020rako Europako Helburua). Era berean, Plan horrek, RIS3rekin eta beste foru-plan estrategiko batzuekin batera, garapen-eredu berria finkatu nahi du, giza garapen iraunkorrera bideratuta, enpresa-lehiakortasunaren, gizarte-, lurralde- eta ingurumen-koehesioaren printzipioak oinarri hartuta. Enpleguaren kalitateari dagokionez, Planaren bigarren helburua izanik, kontratazio mugagabea sustatzearen alde egiten da (gaur egun urtean dauden 17.000 kontratu mugagabetatik planaren amaierarako urtean 25.000 izatera pasatzea), soldatetan, egonkortasunean, laneko osasunean, aitortu gabeko enplegua murrizten eta abarretan aurrera egiteaz gain.

Enplegarritasuna hobetzeari dagokionez, Planak prestakuntzan arreta jartzen du, arreta berezia emanez Lanbide Heziketari (maila horretan prestakuntza jaso duten pertsonak beste % 10 gehiago izatea planteatzen da); kualifikazio profesionalean 10.000 akreditazio berri lortzea, SNE-NFn urtean 15.000 laguni laguntza pertsonalizatu eta jarraitua eskaintzeaz gain, bereziki gizarteratze-arazo handienak dituzten pertsonak. Laugarren helburuari, aukera-berdintasuna eta gizarteratzea ahalbidetzeari, dagokionez, honako erronka hauek ezartzen dira: hiru urtetan enplegu-tasetan desberdintasuna % 20 murriztea emakumeen artean (4,3 puntu langabetu gehiago), gazteen artean (langabezia-tasa % 40 ingurukoa da), 45 urtetik aurrerakoan artean (langabeziaren % 40 inguru) edo desgaituen edo gutxiengoen artean; edo % 30 murriztea iraupen luzeko langabetuen kopurua. Beste helburu bat da % 100 handitzea, bikoiztea, gizarteratze-errenta (RIS) edo Bermatutako Errenta jasotzen dutenen lan-munduratzea.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

Premisa horiekin, Nafarroako Gobernuak partaidetza-prozesua abiatu zuen eragile sozialen, politikoen eta ekonomikoen artean akordioa lortu nahian. Prozesu horren ondorioz, 2017-2020 Enplegu Planean jasoko diren enplegu-politika aktiboen inguruko akordio-printzipioa lortu zuten⁵⁸. Honako hauek dira akordioaren alderdi nagusiak:

- Pertsonen eta sektoreen kolektiboetan malgutasunean eta segmentazioan oinarritutako ikuspegi berria ezartzea
- 55 urte baino gehiagokoen iraupen luzeko langabeziaren eta gazteen langabeziaren aurka borroka egiteko neurriak indartzea
- kalitateko eta bizitzan zeharreko enplegurako prestakuntza, prestakuntzako eta enpleguko programa mistoak edo sektore eta kolektiboetara egokitutako enplegarritasun-ibilbideak.
- langabetuei eskaintako edo enplegua hobetzeko orientazio integrala indartzea (SNE-NLko eta erakunde kolaboratzaileen sareko teknikarientzako prestakuntza-plana).
- laneko baldintzak hobetzea; enpresa-ekimena eta sortzen ari diren sektoreak estimulatzea; enpresaburuak edo norbere konturako lana aitortzea, eta enpresa-lehiakortasuna indartzea
- tratu-berdintasunaren bermea eta enpleguan bereizkeriaren aurka
- enpleguaren igoeran Ekonomia Sozialak duen eragina aitortzera bideratutako neurriak
- SNE-NLko zerbitzu publikoaren lana modernizatzea eta indartzea, lankidetzako publiko-pribatuaren bidez.

5.5.4. Hiru eskualdetako enplegu politiken ikuspegi orokorra

Ez da erraza Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeetan dauden enplegu-politikak laburtzea eta alderatzea. Hiru eremuek askotariko arazo ekonomiko eta enpleguarekin lotutako arazoak dituzte eta egitura juridiko eta jarduketako erakunde oso desberdinak daude bakoitzean, bereziki enplegu-politiken exekuzioa antolatzeari dagokionez; horretarako, Euskadik eta Nafarroak autonomia maila zabala dute, eta hori ez dago Akitania Berrian.

Hala ere, bakoitzaren enplegu-planak ikusita, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- Planetako batean ere ez dago mugaz gaindiko langileen arazo espezifikoari egiten dion erreferentziarik, ezta Euroeskualdearen gertuko eremuari ere, nortasun propioa duen enplegu-arro bihurtzeko potentziala duen eremu gisa.
- Hala ere, hiru eskualdeetako enplegu-politika-eragileen artean lankidetzak-ekimenak badaude. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuak Enplegu sailek 2017ko irailean lankidetzako protokoloa sinatu zuten. Horren helburua

⁵⁸https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2017/08/02/acuerdo+politi+cas+empleo.htm

5. Laneko merkatuen osagarritasuna


da mugakide diren eskualdeetan enplegurako lanbide heziketaren arloan lankidetzatresnak ezartzea, prestakuntza-ekintzak emateko, instalazioak, ekipamenduak eta bestelako bitarteko interesgariak partekatze eta Enplegu Zerbitzu Publikoen artean jardunbide egokiak sustatzeko prestakuntzaren, orientazioaren eta enpleguaren arloan. Akitania Berriarekin mugaz gaindiko lankidetzak zabaltzen dituen aukerak ere nabarmentzen dira, Lanbideren, Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansareren eta Iparraldeko Pôle Emploi-ren artean.

- Hain zuzen ere, dagokien enplegu-zerbitzuen arteko lankidetzatresnak ezartzen ari dira dagoeneko. Hala, Lanbidek eta haren EURES zerbitzuak Pôle Emploik antolatzen duen enplegu-azoketan parte hartu du Iparraldean. Bidasoa Bizirik erakundeak ere antolatu ditu mugaz gaindiko izaera duten enplegu-azokak eta horietan parte hartu du Pôle Emploik.
- Era berean, enplegu-planek hiru eskualdeetan komunak diren enplegu-politiketan gakoak diren giltzarrien inguruko ekintzak aurrez ikusten dituzte. Honako hauek nabarmendu daitezke:
 - Europako 2020 helburuekin lerrotatuta, enplegu-tasa handitzeko eta enplegua sortzeko helburua
 - Pertsona, enpresa eta lurralde-eremu ugarien beharretara egokitutako erantzunak eskaintzea
 - Kolektibo gazteari lehentasunezko arreta, enplegu- eta prestakuntza-aukerak eskainiz
 - RIS3 berrikuntzako estratergiei lotzea, sektore estratergiakoei erantzunez
 - Enplegu-eskatzailen neurriko orientazio pertsonalizatuko ekintzak (ibilbideak)
 - Prestakuntza pertsonen enplegarritasuna hobetzeko giltzarri gisa
 - Enpleguan kalitatea hobetzeko eta zaintzeko ekimenak, prekarietateari aurka eginez
 - Enplegu-zerbitzu publikoak eta, oro har, enplegua babesteko sistema publikoa hobetzeko eta indartzeko ekimenak.
- Lan-esparru horietan, beraz, Euroeskualdeko enplegu-zerbitzuen eta eragileen artean lankidetzarako aukerak ugariak dira, bai mugaz gaindiko langileen kolektiboari dagokionez (eta haien laneko arazo espezifikoak), bai biztanleria aktibo soari dagokionez (egiteko moduak eta metodologiak partekatzea, enplegu-eskaintza eta -eskariei buruzko informazioa trukatzeko, prestakuntza-ikastaroak eta abar).


5.6. Euroeskualdeko Hezkuntza Sistemak eta titulazioen homologazioak

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.6.1. Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako hezkuntza-sistemen alderaketa



5. Laneko merkatuen osagarritasuna



5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.6.2. Hezkuntzako prestakuntzako ziurtagiri eta diplomak aitortzeko Europako esparrua

Europar pertsonen zirkulazio askea da EBren helburu garrantzitsuenetako bat. Hala ere, Kide diren 28 estatuetako hezkuntzako eta prestakuntzako sistema nazionaletan emandako ziurtagiri eta diplomen ulermena eta aitortpena erronka da, hezkuntza- eta gaikuntza-sistemak oraindik herrialde bakoitzean nazio mailan arautzen baitira. Hala ere, Europako estatuek elkarren artean lankidetzan dihardute helburu komunak ezartzeko eta jardunbide egokiagoak trukatzeko.

Hezkuntzan eta gaikuntzan hobetutako lankidetzako eta koordinazioko adibide asko daude, eta kualifikazioak aitortzeko eta baliokidetzea errazteko tresna batzuk garatu dira. Hona hemen nagusiak, labur azalduta:

Kualifikazioen Europako markoa (EQF)⁵⁹

Kualifikazioen Europako Markoa (European Qualifications Framework, EQF) Europako kualifikazio-sistemen artean alderatzeko eta komunikatzen laguntzeko tresna da. Ikasleek, graduatuek, prestakuntza-hornitzaileek eta enplegatzailaiek erabil ditzakete maila hauek herrialde desberdinetan eta hezkuntza- eta gaikuntza-sistema desberdinek emandako kalifikazioak ulertzeko eta alderatzeko. Ikuspegi horrek kalifikazio mota eta maila guztiak alderatzeko aukera ematen du, goi mailako hezkuntzakoak, lanbide heziketakoak eta hezkuntza orokorrekoak barne, baita sektore pribatuan emandako eta nazioarteko erakundeek emandako kalifikazioak ere, testuinguru ez-formaletan edo informaletan emandako ikaskuntzak ere barne hartuta. EQF ekimenak oso lotura estua du Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Espazioko kualifikazioen markoarekin.

Goi Mailako Hezkuntzako Europako Espazioko Kualifikazioetarako Markoa⁶⁰

Goi Mailako Hezkuntzako Europako Espazioko Kualifikazioetarako Markoa Boloniako Prozesuaren barruan egindako gobernu arteko akordioan oinarritzen da. Markoaren helburua da goi mailako hezkuntzako kualifikazio nazionalak antolatzea Europako eremuko kualifikazioen testuinguru orokorrean. Markoaren barruan, kalifikazioak zailtasun eta konplexutasun mailen arabera definitzen dira. Boloniako Prozesuaren barruan adituen lantaldeek maila bakoitzean beharrezkoak diren ikaskuntza-emaitzen deskribapen orokorrak definitu dituzte. Deskribapen horiek nazio mailako testuinguru guztietan aplikatu daitezke.

⁵⁹ <https://ec.europa.eu/ploteus/content/how-does-efq-work>

⁶⁰ http://ecahe.eu/w/index.php/Framework_for_Qualifications_of_the_European_Higher_Education_Area

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Kredituen Europako Sistema (ECVET)⁶¹

ECVETen (European Credit system for Vocational Education and Training) helburua da sistema eta herrialde ugarietan eskuratutako gaitasun eta ezagutza profesionalen aitorpean eta baliokidetzat ahalbidetzea, interesdunek kualifikazio profesionaletan behar bezala sar ditzaten. Herrialde eta hezkuntza-ingurune ugarien artean mugikortasunaren erakargarritasuna sustatzea da helburua, eta lanbide heziketako eta hezkuntzako Europako sistema ugarien artean eta ematen dituzten kualifikazioen artean bateragarritasuna handitzea, hala, lanbide heziketan titulaturako enpleguen aukerak handitzeko eta enpresaburuek konfiantza izan dezaten LHko kualifikazio bakoitzean gaitasun eta ezagutza espezifiko batzuk behar direla. ECVET Lanbide Heziketako kalitatearen Europako erreferentzia-markoari (EQAVET) lotuta dago; lan-mugikortasuna sustatzeko diseinatutako tresna da, herrialdeei EFPko sistemetan hobekuntzak sustatzen eta monitorizatzen laguntzen baitie.

ENIC-NARIC sarea (Informazio Zentroen Europako Sarea - Aitorpen Akademikoari buruzko Informazio Zentro Nazionalak)⁶²

ENIC-NARIC sareak (European Network of Information Centres - National Academic Recognition Information Centres) unibertsitate-diplomak errekonozitzeari eta aratutako lanbide batean jarduteko prozedurei buruzko informazioa ematen du Europako estatu bakoitzean, eta, era berean, ikasketa-kredituak aitortzeko ziurtagiriak ezartzen ditu. EBko edo EEKo estatu kide bakoitzak informazio-zentro bat du:

- NARIC Espainia⁶³
- ENIC-NARIC Frantzia⁶⁴

Unibertsitate diplomen homologazioa

Unibertsitate-diplomak ez dira automatikoki errekonozitzen Europar Batasunaren barruan. Hainbat kasutan, hortaz, prozedura nazional bat dago jarraitu beharra, diploma beste herrialde batean aitortzeko. Kasurik gehienetan, baliokidetzat ziurtagiri bat eskura daiteke jatorri-herrialdean eskuratutako unibertsitate-diploma batentzat, baldin eta diploma horrek antzekotasunak baldin baditu Europar Batasuneko xede-estatu kide bateko unibertsitate-diploma batekin. Kasu honetan, xede-herrialdeko ENIC-NARIC erakundea izango da auzi horietarako guztietarako solaskidea. Hala ere, EBko herriar guztiek dute EBko herrialde guztietako edozer unibertsitatean ikasteko eskubidea, herrialde horretako herriarren baldintza berberetan. Hori bai, onarpen-baldintzak aldatu egiten dira herrialdeen eta unibertsitateen arabera.

⁶¹ https://ec.europa.eu/education/policy/vocational-policy/ecvet_es

⁶² <http://www.enic-naric.net/>

⁶³ <http://www.mecd.gob.es/r/naricU22I>

⁶⁴ <http://www.ciep.fr/enic-naric-France>

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da Frantziako eta Espainiako diplomatura bikoitzen ekimena, Frantziako eta Espainiako Unibertsitatea (UFE) sortuta; haren helburua esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzea da, diploma bikoitzak, diploma integratuak, tesien kotutoretzak edota baterako diplomak abiaraztearekin eta kudeatzearekin loturik. Gaur egun, 220 diploma bikoitz edo baterako diploma daude martxan Frantziako eta Espainiako unibertsitateetan. Euroeskualdeari dagokionez, UPPAk (Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatea) eta EHUK (Euskal Herriko Unibertsitatea) 6 diploma bikoitz daukate.

Azkenik, esan behar da txosten honetako beste atal batean seinatu den moduan, Euroeskualdeko lanbide heziketako eta unibertsitateko eragileen artean ekimen ugari daudela, eta duela urte batzuetatik aurreko gaien inguruan aurrera egin nahian ari dira, elkarrekiko ezagutzara bideratutako proiektu eta akordioen bidez, titulazioen aitortpen eta homologazioaren bidez eta titulazio komunak garatuz.

5.6.3. Profesionalen zirkulazio askea⁶⁵

2005/36/CE direktiba (2013/55/CE direktibak aldatutakoa)⁶⁶

EBko profesionalak mugitu eta mugak zeharka ditzakete, eta lanbidea garatu edo zerbitzuak eskaini atzerrian. EBko kualifikazio profesionalen aitortpen-sistema 2005/36/CE direktibak orain gutxi 2013/55/CE direktibaren bidez aldatutakoak, arautzen du. Direktibak esperientzia profesionalaren aitortpen-sistema modernoa eskaintzen du eta EB osorako, Europako Esparru Ekonomikorako (EEE) eta Suitzarako esperientzia profesionalaren aitortpen automatikoa sustatzen du; gainera, lanbide horietara nazionalen baldintza beretan sarbidea izatea bematzen du.

2005/36/EE Zuzentarauak aurreikusitako lanbide-kualifikazioen errekonozimenduari esker, medikuek, arkitektoek eta tankerako profesionalak aske zirkula dezakete Europar Batasunean.

- Aldi baterako mugikortasuna. Sistema horren bidez, profesionalak EBko beste herrialde batean lan egin dezakete aldez aurretik adierazpen bat eginda.
- EBko beste herrialde batean ezartzea. Zuzentarauak hainbat arau ezartzen ditu:
 - soldatapeko langile edota autonomo gisa jardun nahi duten langileentzat;
 - oinarri iraunkor baten gainean;
 - lanbide-prestakuntza eskuratu ez duten herrialde batean.
- Prestakuntzak errekonozitzeko sistemak. Hiru errekonozimendu-sistema dira.
 - Errekonozimendu automatikoa: gutxienezko heziketa harmonizatuak dituzten 7 ogibidetarako (erizainak, mediku jeneralistak eta espezialistak, emaginak, dentistak, farmazeutikoak, arkitektoak eta albaitariak).

⁶⁵ https://ec.europa.eu/growth/single-market/services/free-movement-professionals_en

⁶⁶ https://ec.europa.eu/growth/single-market/services/free-movement-professionals/qualifications-recognition_en

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

- Sistema orokorra: irakasle, itzultzaile, higiezin agentia eta tankera horretako ogibide arautuetarako.
- Lanbide-esperientzia oinarritutako errekonozimendua jardura batzuentzat: arotzak, tapizariak, estetizistak eta tankerako lanbide-jarduerak.

Araututako lanbideak

2005/36/EE Zuzentaraua eskuarki araututako lanbideei aplikatzen zaie, kontraktorik adierazten ez bada behintzat. 2005/36/EE Zuzentarauak estalitako lanbideen zerrenda ez-xehatu bat araututako lanbideen datu-base batean eskura daiteke⁶⁷U22T. Araututako lanbideen jarduna legez edota administrazio-xedapenen bidez erregulatuta egoten da, eta eskatutako kualifikazioen eskakizunak betetzen dituzten pertsonetara mugatuta.

2005/36/EE Zuzentaraua ez da aplikatuko, baldin eta lanbide jakin batzuetan lanbide-kualifikazioen errekonozimendua lege-xedapen espezifiko bidez arautzen bada. Lanbide horien artean, honako hauek dira nabarmenenak: nabigatzaileak, kontu-komisarioak, aseguru-bitartekariak, aire-kontrolatzaileak... Baita garraioarekin lotutakoak edota produktu toxikoak inplikatzeko dituzten jarduerekin lotutakoak ere. Era berean, abokatuek eta agente komertzialek ere zuzentarau espezifikoak dituzte.

Errekonozimendu-sistema orokorra

Errekonozimendu-sistema orokorrari esker, langileek prestakuntza profesional aitortua izan ahalko dute EBko beste herrialde batean. Harrera-herrialdeak:

- kualifikazioak aitortuko ditu langilearen prestakuntza profesionala gutxienez harrera-herrialdean eskatutako mailaren azpiko mailaren baliokidea denean;
- jatorri-herrialdean lanbidea aitortuta ez egonik, lanaldi osoz bi urtez jardun badu lanbide horretan;
- halaber, baliteke egokitze-aldi bat edota tankerako neurriak ezartzea (hiru urte ere iraun ditzake), edota gaitasun-test bat egitea hainbat baldintzatan.

Lanbide-esperientzia oinarritutako errekonozimendua

Lanbide-esperientzia oinarritutako errekonozimendua aplikatuko zaie artisautzaren, komertzioaren edota industriaren sektoreetan lan egiten duten profesionali, EBko beste herrialde bateko lanbide-prestakuntza automatikoki errekonozitzeko onar daitezkeenean. Prestakuntza errekonozitzeko bi bide daude.

⁶⁷ <http://ec.europa.eu/growth/tools-databases/regprof/index.cfm?newlang=en>

5. Laneko merkatuen osagarritasuna


- Errekonozimendu automatikoa: kualifikazioak eskatzea, lanbide-esperientzia baten oinarriaren gainean. Eskatutako gutxieneko iraupena eta lanbide-esperientziaren ezaugarriak 2005/36/EE Zuzentarauan daude jasota, lanbide-kualifikazioak errekonozitzeari buruzkoan, hain justu, 17 eta 19 artikuluetan.
- Elkar errekonozitzea edo kualifikazioak sistema orokorraren oinarriaren gainean eskatzea: harrera-herrialdeko agintariek alde nabarmenak ikusten badituzte jatorri-herrialdean jasotako trebakuntzaren (lanbide-esperientzia barne) eta lan bererako harrera-herrialdean eskatutakoaren artean, baliteke praktikak egiteko eskatzea edota gaitasun-test bat eginaraztea.

Gai hori argitzeko, beheko grafikoetan profesionalen kasuen kopurua agertzen da; hain zuzen ere, herrialde batean jasotako lanbide-kualifikazioak beste herrialde batean errekonozitzeko eskatzen dutenak, bigarren herrialde horretan modu iraunkorrean jardun ahal izateko. Informazio hori 2010-2015 aldikoa da, Frantzia eta Espainiaren artekoa. Araututako lanbide guztiak bilduta daude.

Nabarmentzekoa da Espainia-Frantzia kasuen kopurua (4.790 eskabide) askoz ere handiagoa dela kontrako bidean baino (445 eskabide Frantzia-Espainia) aipatutako denbora-tartean. Lehendabiziko kasuan, mugikortasun handieneko lanbideak osasunaren jardunarekin lotuta daude: fisioterapeutak (2.609 kasu), erizainak (434) eta medikuak (389); Frantzia-Espainia norabidean, berriz, osagai teknikoa handiagoa da, lanbide nagusiak industria-ingeniariak (111 kasu), medikuak (95) eta telekomunikazioetako ingeniariak (30) baitira.

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

5.15 grafikoa Lanbide-profesionalen nazioarteko errekonozimenduen eskabideak (Frantzia eta Espainia)



Iturria : Europako Batzordea. Araututako lanbide datu-basea. Estatistikak- atzerri joaten diren profesionalak (Eztablezimendua)

Europako Lanbide Txartela (EPC)⁶⁸

Bestalde, Europako Lanbide Txartela (European Professional Card, EPC) martxan dago 2016ko urtarilaren 18tik bost lanbidetarako (zainketa orokorretako erizainak, fisioterapeutak, farmazeutikoak, higiezineta agentek eta mendiko gidak). Baliteke etorkizunean ogibide gehiagotara ere zabaltzea. Europako Lanbide Txartela ez da plastikozko txartel bat, baizik eta ziurtagiri elektroniko bat: EB osoan kualifikazioak errekonozitzeko erabat online egiten den lehendabiziko prozedura. Prozedura digital horrek Barne Merkatuko Informazio Sistema (IMI) du oinarrian, eta profesionalak agintari eskudunekin komunikatzeko aukera dute ingurune seguruan. IMIk, era berean, EBko herrialdeetako profesionalak erregulatzeko agintaritzen arteko komunikazio-kanal ofizial bat ere aurreikusten du, hizkuntza batean baino gehiagotan, elkarren arteko lankidetzaz

⁶⁸ http://europa.eu/youreurope/citizens/work/professional-qualifications/european-professional-card/index_fr.htm

5. Laneko merkatuen osagarritasuna

errazteko eta konfiantza indartzeko. Europako Lanbide Txartelak ez ditu errekonozimendu-sistema tradizionalak ordeztzen, lanbide-kualifikazioei buruzko Zuzentarauaren baldintzetan, baina aukera abantailatsua eskaintzen die EBko beste herrialde batean aldi baterako edo modu iraunkorrean lan egin nahi duten profesionali.

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

6. PRESTAKUNTZAREN, ENPLEGUAREN ETA ENPRESA LEHIAKORTASUNAREN ARLOKO MUGAZ GAINDIKO EKIMENAK

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

Euroeskualdearen eremuan duela denbora batetik ari dira garatzen enpleguarekin eta horrekin lotutako alderdiekin lotura duten arloetan mugaz gaindiko lankidetzak arakatzea eta sustatzea bideratutako ekimenak eta proiektuak. Zehazki, atal honetan jasotzen dira Bidasoako bi aldeetako erakundeen artean, zentzu zabalean, egiten diren prestakuntzaren arloko eta lankidetzaren nahiz enpresa-garapenaren arloko ekimenak.

Prestakuntzari dagokionez, identifikatutako proiektuen asmoa da dagozkion sistemak hurbiltzea, bai lanbide heziketaren mailan, bai unibertsitateko hezkuntza mailan, honako hauek sustatzea bideratutako jardueren bidez: elkarrekiko ezagutza, mugikortasuna eta irakasle, ikerlari eta ikasleen trukea, elkarrekin titulazioak garatzea, proiektuak komunean eta abar.

Enpresaren alderdiari dagokionez, proiektuen asmoa da Bidasoaren bi aldeetako konpainien artean lankidetzarako eta negoziarako aukera-espazioak identifikatzea eta sustatzea, sinergiak bilatuz, batez ere sektoreko edo balio-katearen ikuspegitik, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta berrikuntzako jardueretarako masa kritiko handiagoa eman nahian.

6.1. Prestakuntzaren eremuko ekimenak

6.1.1. Unibertsitateko hezkuntza

AEN Sarea, Goi mailako irakaskuntzako eta ikerketako mugaz haraindiko gunea

AEN Sarea Pirinioen bi aldeetako zortzi unibertsitate biltzen dituen unibertsitate-sarea da, zehazki unibertsitate hauek biltzen ditu: Bordeleko Unibertsitatea, Bordeleko Moutaigne Unibertsitatea, Pauko eta Aturialdeko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatea. Sarea 90eko hamarkadan sortu zen, eskualdeko gobernuen bultzadapean eta haren asmoa da goi mailako irakaskuntzaren eta ikerketaren mugaz gaindiko espazioa sortzea unibertsitate arteko lankidetzak dinamikoa eta lehiakorra izateko Europa mailan eta nazioartean. Hauek dira helburuak:

- Unibertsitateko irakasle-ikerlarien, ikasleen eta administrazioako langileen mugikortasuna
- karrerak batera abian jartzea (ikasketa integratuen karrerak, tesien tutoretza partekatutak)
- ikerketa-proiektu bateratutak eta enpresekin lankidetzako proiektuak garatzea
- jardunbide egokiak trukitzea eta ezagutza harmonizatzea
- elkar ezagutzea eta eskualdearen nortasuna (ekintza kulturalak egitea, eskualdeetako hizkuntzen ezagutza sustatzea)
- lankidetzak horiek berak sustatzea Europako eta nazioarteko eremuetan beste bazkide batzuekin.

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

- o bikaintasuneko Europako masterrak garatzea (Erasmus Mundus motakoak)
- o Prestakuntzan, ikerketan eta/edo transferentzian nazioarteko proiektu ezartzea

EUSKAMPUS, Bikaintasuneko Euroeskualdeko Campusa

2010eko irailean, Euskampus eta Bordeleko Unibertsitateko bikaintasun-poloak prestakuntzan, ikerketan, berrikuntzan eta nazioarteko proiektu lankidetzako espazio komuna garatzeko eta finkatzeko akordioa sinatu zuten, eta hala, Euskadi-Akitania-Nafarroa Euroeskualdean mugaz gaindiko campusa osatu zuten⁶⁹. Mugaz gaindiko campusak ikasle eta ikerlari gazteentzat mugikortasuna sustatzen du, baterako titulazioak eta tutoretza partekatutako sustatuz, irakasle eta ikerlariarteko mugikortasuna ere sustatzen du arlo jakin batzuetan ikerketako programa bateratuak ezarrita, eta horrez gain, nazioarteko testuinguruan lan-munduratzeko eta praktikak errazteko mugikortasuna ahalbidetzen du. Helburua goi mailako hezkuntza eremuan, bikaintasuneko ikerketasareetan eta berrikuntzan nazioarteko erreferentzia izango den Campusa konfiguratzeko da, komunak diren espezializazio arloetan oinarrituta:

- o ekosistema iraunkorrak eta ingurumen-teknologiak
- o prozesu berritzaileak eta material berriak
- o zahartze osasungarria eta bizi-kalitatea
- o berrikuntza soziala.

Horretarako, helburu espezifiko hauek zituen jardueren-plan bateratua diseinatu zen:

- o Nazioartean erakargarria izango den eskaintza akademiko bateratua sortzea (titulazio bikoitzak, tutoretza partekatutako tesiak eta abar).
- o Campuseko ikasleen, irakasleen eta ikerlarien artean mugikortasuna sustatzeko
- o I+G+b jardueretan sinergiak sustatzea eta, nazioartean, lurraldean zuzenean eraginarekin, ezagutzari balioa emateko eta transferitzeko ekintza bateratuak sustatzea.
- o Campusaren nazioarteko sustapen bateratua

⁶⁹ 1994. urtetik, Euskampus proiektuko bazkideek, UPV/EHU, Tecnalia eta DIPCh hainbat elkarlan-proiektu garatu dituzte irakaskuntzan eta ikerketan, Bordeleko Unibertsitateko Poloko erakundeekin batera.

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearen (UPPA) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) arteko lankidetza-hitzarmena

2017ko uztailaren 7an, Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitateak (UPPA) eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) lankidetzarako hitzarmen marko bat sinatu zuten berriro ere, prestakuntzako eta ikerketako esparruetan lankidetza-modalitateak zehazteko. Azken sei urteetako lankidetzaren balantzean:

- Bi unibertsitateen arteko harreman pribilegiatuak nabarmendu dituzte ikerketaren eta doktoreen prestakuntzaren alorretan. Hala, 2012tik bi unibertsitateek deialdiak egin dituzte ikerketa-taldeen arteko harremanak dinamizatzeko helburuarekin.
- Dinamismo hori gero eta handiagoa da trebakuntzaren alorrean: gaur egun UPPAk eta EHUK sei diploma bikoitz eskaintzen dituzte. Era berean, ikasleen mugikortasunerako hitzarmenak ere egin dituzte unibertsitate lankideen artean. Edonola ere, oraindik ere asko dago hobetzeko esparru horretan. Eta, horretarako, mugaz gaindiko mugikortasuna sustatzeko jardunaldiak antolatuko dira.
- Beste hainbat lankidetza-proiektuen artean, 2017-2018 ikasturterako mugikortasun birtuala eta irakurleen trukea ageri ziren.
- Horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitateak mugaz gaindiko gaitasunei buruzko ERASMUS+ proiektuan parte hartuko du, UPPAk sustatuta. Organismo lankideen helburua zera da, erreferentziako marko komun bat ezartzea mugaz gaindiko gaitasunei buruz, eta hura gauzatzeko ziurtagiri bat ematea.

Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearen (UPPA) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) arteko lankidetzarako hitzarmen-markoa

Azken sei urteetan, bi unibertsitateek elkarrekin dihardute lanean trukeak sendotzen, bi esku-hartze ildo nagusiren inguruan.

- Alde batetik, heziketa: hainbat ekimen ipini dituzte martxan, ikasleen eta irakasleen mugikortasuna dinamizatzeko. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira Materialen Zientzia eta Ingeniaritzako diploma bikoitza, Espainiako ikasleak praktiketan jasotzea (MEEF masterrean irakasleak trebatzea), Paueko ikastetxeekin lankidetzan; bi unibertsitateetako ikasleak elkartu dituen antzerki-proiektua; edota irakasleen mugikortasun-programa (irakaskuntza-orduen errekonozimendura bideratutako proiektuen deialdiari edota PYREN-irakasle gonbidatuak* deialdiari esker).
- Bestetik, ikerketa: batez ere ondarearen esparru tematiko handira bideratua, Erdi Aroko artxiboei balioa emateko; edota ingeniaritzaren eta Materialen Zientziak eta Ingeniaritza. Ekimen horiek gauzatzen dituzte hainbat urtez bi unibertsitateek elkarrekin.

Akitania Berria / Euskadi / Nafarroa Euroeskualdeko bekak

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

Akitania Berriko Unibertsitate eta Zentroen Komunitatearekin egindako lankidetzaren estrategikoaren testuinguruan, AECT Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko unibertsitateko ikasleen mugikortasun akademikoa babesten du beken programa baten bidez. Hartzaileak Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroako unibertsitateetako Gradu mailako (bigarren mailatik aurrera) eta masterreko ikasleak dira, baita Euroeskualdeko lurraldeko unibertsitate guztietako doktoretza mailako ikasleak ere.

Irakaslegaiak AEN

POCTEFA 2014-2020ren testuinguruan garatutako Europako proiektua da, eta hizkuntza-politikak bateratuz, euskararen eta okzitanieraren erronkak estaltzen ditu, Euskararen eta Okzitanieraren Bulego publikoekin zuzeneko elkarlanean, eta lurraldeko unibertsitateekin lankidetzan. Euroeskualdeko unibertsitate publikoetako Magisteritzako ikasleei bekak emango zaizkie irakaskuntza euskaraz eta okzitanieraz garatzeko aukera izan dezaten Frantziako hezkuntza-sistemako ikastetxe publikoetan.

6.1.2. Lanbide Heziketa

C.M.A 64 eta IKASLANen arteko Lanbide Heziketako lankidetzaren (Euskadi Akitania proiektua – POCTEFA)

Lanbide Heziketako kalitatea hobetzeko helburu espezifikoarekin, C.M.A 64 eta Ikaslan Gipuzkoa elkartu egin ziren Oinarizko Lanbide Heziketako eta etengabeko ikaskuntzako lankidetzaren testuingurua sortzeko. Proiektuaren oinarria da mugaz gaindiko lanbide heziketa funtsezko tresna dela enplegurako lurralde mailako ekarpenen eta gazteak lan munduan sartzea mugaz gaindiko mugikortasuna garatzearen ondoriozkoa dela. Horretarako, ezinbestekoa da prestakuntzako baldintza egokiak ezartzea: prestakuntza-zentroen baitan aztertutako antolaketa bat abian jartzea, irakasleek partekatzen duten pedagogia berritzailea erabiltzea eta kalitatezko erreferentzia multzoa ezartzea, bikaintasuneko prestakuntza-sarea txertatzeko, hori guztia biharko lanbide-heziketako ikuspegi partekatuarekin.

ECOVIBLAN

Gasteizko Eraikuntza BHIren eta Bordeleko Lycée des Metiers Blanquefort-en arteko lankidetzaren proiektua, Euroeskualdeko LHko bi ikastetxe homologoen artean, gaitasun profesionalak hobetzeko. 2013 eta 2015 artean garatu zen. Zentroek eraikuntzaren sektorerara eta lotutako eremuetara (egurra, instalazioak eta energia-eragingarritasuna) bideratutako prestakuntza eskaintzen dute iraunkortasuna eta eko-eraikuntza txertatzeko helburu berarekin. Horren bidez, ikasleen prestakuntza eraikuntza eragingarriaren merkatu-nitxora bideratu nahi da enplegua lortzeko bide gisa, horretarako, honako ekintzak eginda: i) Truke pedagogikoak; ii) Konformazioa; iii) Proiektuak eta prototipoak.

NAZARET ZENTROAREN ETA ETCHARRY-REN ARTEKO LANKIDETZA PROIEKTUA

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

Nazaret Zentroaren eta Etcharry-ren arteko lankidetzaren proiektuaren helburuak honako hauek dira:

- o Eremu sozialeko profesionalen arteko harremana eta trukea sustatzea
- o Esku hartzeko modu berriak, tresna berriak ezagutzea eta know-how partekatzea
- o Gai horien inguruko lankidetzaren bateratua perspektibaren jartzea eta dinamika bateratuak sustatzea.
- o Mugaren bi aldeetan ekintza sozialaren irakurketa komunaren – koordinatutako praktikaren – hitzartutako politikaren egituraketan parte hartzea.

MECS Maison d'Enfants á Caractère Social – Izaera sozialeko Haur Etxeetako profesionalekin haurrak babesteko eremuan ekintzak garatu dira.

Proiektuak desgaitasunaren eremuan lanean jarraitu du (desgaitasun intelektuala, garun-paralisia, autismoaren espektroa), baita prekarietate-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden heldu eta adinekoen eremuetan ere.

Jean Errecart institutuaren Innotransfer proiektua

Innotransfer proiektuaren helburua Akitania Euskadi euroeskualdeko bi ikastetxeren arteko lankidetzaren sustatzea zen; hain zuzen ere, Donapaleuko Jean Errecart institutuaren eta Markinako Lea Artibai ikastetxearen artean. 2014ko uztailaren hasi zen, Markinako nekazaritza- eta elikadura-plataforma teknologikora egindako bisitaldiarekin. Lankidetzari ekiteko, bi aste trukea egin zuten nekazaritza- eta elikadura-heziketako bi ikasle-taldeak. Bi aste horietako lanaren lorpen nagusiak honako hauek izan ziren: aurkikuntza kulturala; arrainen, txokolatearen eta urdaiazpikoaren esparruko nekazaritza- eta elikadura-enpresak bisitatzea; eta mikrobiologiako eta eraldaketako lan praktikoak egitea laborategian.

TRANSFORMUGI eta errendimendu altuko prestakuntza-zikloak

Tknikak eta CMA64k 2015ean LHko irakasle eta ikasleen prestakuntza eta jardunbide egokien truke-proiektuak garatu zituzten (Hizkuntza-ikastaroak, trukeak)

Mugikortasunerako eskubidea (Bidasoa Bizirik + SCOP Atelier Lan Berri)

Angelun dagoen gizarteratze eta lan-munduratzeko SCOP Atelier Lan Berri erakundearekin batera, eta Akitania Euskadi Euroeskualdearen konfinantzazioarekin, Bidasoa Bizirik 2015ean zehar ikerketa egin zuen Erasmus, Leonardo da Vinci, Global Training eta antzeko beste programa batzuetan pertsonen kanpoan mugaz gaindiko prestakuntza-egonaldiak izan ditzaten ahalbidetzeko, Espainian bizi direnek Frantziako produkzio-ingurune batean eta alderantziz. Horrez gain, gaur egun dauden zailtasunak gainditzeko abian jarri beharko diren mekanismoak identifikatzeko ere egin zuten ikerketa. Ikerketak honako muga arteko eremua hartu zuen: Bidasoa Txingudi (Hendaia, Irun eta

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

Hondarribia) Tarnose arte (Landen hegoaldea, Bokale eta Baionarekin mugan, Baionako Hirigunean)

POCTEFA PyireneFP

PyireneFP Lanbide Heziketarako mugaz gaindiko proiektua da; horren lehentasunezko ardatza da Pirinioetako ardatzeko lurraldeak txertatzea eta kompetentziak indartzea. INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programaren (POCTEFA 2014-2020) barruan sartuta dago, hiru herrialdeetako mugako lurraldean garapen iraunkorra sustatzeko. Euroeskualdeko 3 gobernuen parte-hartzea du (Kataluniako, Aragoiko eta Okzitaniakoez gain). Proiektuak hiru urteko iraupena izango du eta horietan, Lanbide Heziketaren esparruan, mugaz gaindiko mugikortasunean, enplegu eta prestakuntzako ekimen bateratuetan eta informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak sustatzen jarriko da arreta.

De la rivière à la mer (St-Christophe de St-Pée-sur-Nivelle eta Mutrikuko Akuikultura eskola

Senperekko St-Christophe eta Mutrikuko Akuikultura Eskola ikastetxeen arteko lankidetzak akuikulturaren inguruan.

6.2. Sektoreko lankidetzaren eta lehiakortasunaren eremuko ekimenak

6.2.1. Enpresa lehiakortasuna

COMPETITIV'EKO

Proiektua ETE-en lehiakortasuna indartzera bideratuta dago, mugaz gaindiko lankidetzan oinarrituta eta Pays Basque-Aquitaine/Euskadi/Nafarroako klusterrak, zentro teknologikoak eta garapen ekonomikoko agentziak inplikaturik. CCI Bayonne Pays Basque, proiektuaren lider gisa; Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioaren Bazkunea; Sodena, Nafarroako Garapen Elkartea; Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua, eta Bihartean Mugaz gaindiko Merkataritza Ganbera. Competitiv'eko POCTEFA 2014-2020 funtsak finantzatzen dute.

Competitiv'eko-ren oinarriko helburuak honako hauek dira:

- Tartean sartutako hiru lurraldeetako Espezializazioko Estrategiak aztertzea, konbergentzia-puntuak identifikatzea eta ibilbide-oria idaztea.
- Akitania-Euskadi-Nafarroa espazioan, klusterren, zentro teknologikoen eta garapen ekonomikoen agentzien artean proiektuak sustatzea baliabide gutxi eta/edo antolaketa-gaitasun gutxi duten ETE-en lehiakortasuna ahalbidetzeko.
- Ondo ondoz ondo lurraldeetako eta mugaz gaindiko enpresen osagarritasunak oinarri hartzea nazioartekotzeko misioak eta proiektu berritzaileak antolatzeko, lurraldeetako bakoitzaren espezializazio-estrategietatik abiatuta.

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

- o Lurraldeko garapen ekonomikoko agentziei eta klusterrei beharrezko tresnak eskaintzea mugaz gaindiko lankidetzak iraunkorrak izan daitezen.

Proiektuak lehentasunezko lau eremu hauetan konbergentzia ekonomikoak identifikatu ditu: Fabrikazio aurreratua (Autoa / Ibilgailu elektrikoa / Material arinak / Mugikortasuna - Garapen iraunkorra), Energia (Onshore eolikoa / Biltzeiratzeta / Offshore Eolikoa / Smart Grids), Osasuna (Gailu medikoak / Fabrikazio aurreratua / E-Osasuna / Big Data (zeharkako gaia)) eta Nekazaritza-elikaduraren sektorea (nekazaritza eta elikadura arloko industria fabrikazio aurreratua / Big Data / Mantentzeko teknikak (izoztea) / Energia-Osasuna konbinazioa / 4. gama (erabilerarako prestatutako gordina) eta 5. gama).

Zehatzago, 2017ko uztailan, garatu beharreko hiru proiektu aukeratu dira: Additive Valley industria-sektorerako, InnoMed Consortium osasunaren sektorerako, Agro-Food Digital nekazaritzaren eta elikaduraren sektorerako.

CONNECT innovation bail

Proiektuaren helburua da lurraldeko enpresak 4. industria-iraultzaren trenara igotzea eta ekintzailetzako kultura berritzailea eta sortzailea egotea, biztanleak prozesu horretan partaide izanik. Proiektuaren bidez, Bidasoa Sud Pays Basque lurraldea berrikuntzaren eta somenaren alde egiten duen apustuaren bidez identifikatu dadin lortu nahi da. Helburu horri arrakastaz aurre egiteko, honako hauek bildu dira: lurralde mailako erakundeak (Irungo Udala, Bidasoa Bizirik eta Agglomération Sud Pays Basque), Goi Mailako ikastetxeak (Mondragon Unibertsitatea eta ESTIA École Supérieure des Technologies Avancées) eta GAIA Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea.

3 urteko epean, esfortzuak honako puntu hauetara bideratuko dira:

- o Berrikuntza-estrategia komuna.
- o Ikerketa-zentroen eta ETE-en arteko lotura, ikerketa-prozesuen aplikazio komertzialak lortzeko.
- o Garapen teknologikoak eta prototipoak entseatzeko aire zabaleko esperimentazio-laborategia ezartzea, Txingudi Lab, Txingudiko badian, Ocean Living Lab Europako mugaz gaindiko lehen living lab-aren bihotza izango da.
- o Talentua kudeatzeko eta ekintzailetzarako estrategia bat sortzea, lurraldean sortuko diren enpresa-proiektuak lurraldean gara daitezen.
- o Berrikuntza-dinamika irekien edo bestelako elkarrekintza-dinamika batzuen bidez egiten ari garen eraldaketa-prozesuan heritarrak, oro har, partaide egitea.

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

Proiektuak POCTEFA 2014-2020ren konfinantzaketa jaso du.

INNOV MUGABE: mugaz gaindiko enpresen lankidetzak

POCTEFAk babestutako eta Bidasoa Bizirik eta Agglomération Sud Pays Basquek sustatutako proiektua. Enpresen garapena lortu nahi du Bidasoako eta Sud Pays Basqueko enpresen arteko eta enpresa eta unibertsitate edo zentro teknologikoen arteko lankidetzaren bidez. Proiektuak helburu bikoitza du: alde batetik, lurraldearen ezagutza eta informazioa kudeatzeko dauden tresnak partekatzea, eta bestetik, enpresen arteko proiektu pilotuen bidez mugaz gaindiko lankidetzarako oinarriak sortzea eta finkatzea. Ekintza ugari egin dira, esaterako: lurraldeari eta bertako enpresei buruzko informazioa duen Interneteko plataforma bat sortzea (direktoria, katalogoa, enpresen kokapena); enpresa-parkeetan enpresen prospekzio-ekintzak eta lankidetzak-proiektu potentzialak identifikatzea; transferentzia teknologikoaren lankidetzak-proiektu berritzaileak abiaraztea; enpresen arteko mugaz gaindiko lankidetzak-proiektuen bidez loturak sortzea eta abar.

INNOV-MUGABE 2 x 2

Proiektuaren helburua da INNOV MUGABE proiektuaren testuinguruan 2010-2013 aldian garatutako lankidetzak-metodologia transferitzea, Bidasoako – Sud Pays Basqueko enpresen lehiakortasuna hobetzea dagokionez. Bidasoa Bizirik eta ASPB Agglomération Sud Pays Basque dira parte hartu duten bazkideak. Proiektu honetan garatutako jarduerak, besteak beste, ekintza hauek bildu dituzte: mugaz gaindiko beste lurralde batzuekin esperientziak trukatzeko eta enplegua sortzeko gertakari nautiko garrantzitsuak hartzeko lurraldearen gaitasuna aztertzea, nautika turistikoaren sektorea egungo errealitatera egokitzeko; sektore nautikoaren eta nekazaritza eta elikaduraren sektorearen mugaz gaindiko foroak sortzea, sektoreko enpresen artean topagune eta trukatze eremu gisa; enpresen artean mugaz gaindiko bisitak antolatzea (Mugabian Nautika); eko-erantzukizunaren arloko sentsibilizazio-kanpainak, eta horrez gain, enpresa txikietan berrikuntzaren diagnostikoari laguntzeko programa bat garatzea.

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

6.2.2. Euroeskualdeko lankidetza estrategikoak

Euroeskualdeko ekonomian identifikatutako 6 sektore gakoetan balio-kateak garatzeko proiektuak sustatze aldera Euroeskualdeko proiektuen deialdiek duten eragina gero eta handiagoa dela ere nabarmendu behar da. Honako hauek dira sektore -horiek:

- Aeronautika eta garraioa
- Osasuna/Bio-osasuna
- Nekazaritza eta nekazaritzaren eta elikaduraren industria
- Eraikuntza iraunkorra, egurra
- Energia beriztagarriak
- Itsasoko eta itsasertzeko baliabideak.

Euroeskualdeak, hala, Euroeskualdeko lankidetza estrategikoak finantzatzea erabaki zuen, sektore horietako eragileei elkarrekin topatzeko, biltzeko, osagarritasunak bilatzeko eta Euroeskualde mailan nolabaiteko "masa kritikoa" lortzeko aukera emateko, eta hala, sinergiak sortu eta elkarrekin erronka berriei aurre egin ahal izateko: ikerketa-proiektuak, berrikuntzakoak, nazioartekotzarekin lotutakoak, Europako deialdien prestaketa... Deialdi horiek 12 eta 18 hilabete arteko animazio-programetan oinarritzen dira; sektore horien eragile gakoak sarean jartzea ahalbidetzen dute mintegien, topaketa-saioen, bisiten, B2B eta abarren bidez, Euroeskualdeko dinamika berriak eta sinergiak sortu nahian. Horien helburua metodo, produktu edo zerbitzu berritzailen garapen-proiektuak bizkortzea eta areagotzea da eragile nagusiak "Euroeskualdeko lankidetza estrategikoen" inguruan elkartuta: unibertsitateetatik hasi eta enpresara arte.

Osasunaren eta bio-osasunaren sektorea: CHRONICITY VALLEY

Bordeleko Unibertsitateak eta BIOEFek (Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa) egindako proiektua. Berrikuntzako mugaz gaindiko programa da, eta haren helburua da arlo akademikoan elkarrekin lan egitea enpresek eta osasun arloko erakundeek, gaixotasun kronikoen eta zahartze osasungarriaren (bizi osoko osasuna dela ulertuta) arloan berrikuntza sustatzeko Chronicity Valleyren helburua da elkarrekin estrategia operatibo bat sortzea jardunbide egokiak partekatzeko eta proiektu bateratuak garatzeko, ikerketa, antolaketa mailako aldaketa eta berrikuntza industrial konbinatuta. Hori dela eta, Chronicity Valleyk aukera eskaintzen du zahartzearen eta gaixotasun kronikoen gaiaren inguruan maila altuko proiektu lehiakorrak garatzera edo sortzera bideratutako mugaz gaindiko truke zientifikoak babesteko. Lurralde mailako berrikuntzak ere berekin dakar eragile akademikoen eta bazkide sozio-ekonomikoen artean loturak indartzea, beraz, azken horiek ere helburua dira deialdi honetarako, ikerlariak eta tokiko bazkideak konbinatuko dituzten ekimenak babesteko.

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

Nekazaritzaren eta nekazaritza- eta elikadura-industriaren sektorea: EUSKADI VIN AQUITAINE (EVA)

2016ko urtarilean abiatu zen proiektua, bi eskualde horien artean mahastizaintzako eta ardogintzako sektorearen lankidetzak loturak indartzeko. INNO'VINek, EHUK, HAZIK, Neikerrek, Euskampus, ISVVe, Intercok eta Dordoinako eta Girondako nekazaritzagangaberek egindako proiektua. Haren asmoa da lankidetzak zientifiko, tekniko eta ekonomikoaren sare iraunkorra sortzea mahastizaintzako eta ardogintzako sektorean bi eskualdeen artean, berikuntzaren garapena ahalbidetzeko. EVA sareak balio-kateko profesional ugari biltzen ditu: produktuen eta/edo zerbitzuen hornitzaile diren ekoizleak nahiz zentro teknologikoak eta ikerketa-zentroak. Mahastizaintzako eta ardogintzako sektorearen barruan lankidetzak lotura berriak garatu nahi dituzten Euroeskualdeko eragile guztiei zabalik dago sarea (Euskadi, Nafarroa eta Akitania Berria).

Energia berriztagarrien sektorea: FROM SEANERGIES TO SEANERGY

BlueSign Eventsek eta Energia Klusterrak koordinatuta, proiektu honen asmoa da Akitania eta Euskadi bi eskualdeen estrategiak indartzea mugaz gaindiko testuinguruan, horretarako, 2016an egindako nazioarteko ekitaldi baten osagarri diren 4 tailer teknikoren programa bat eginda. Programa horren helburua da lurraldearen lehiakortasuna hobetzea itsas energien gainean Euroeskualdeko eragileen artean lankidetzak potentzialak identifikatuta. Lotura duten beste jarduera-sektore batzuei espazioa ere eskainiko zaie, hala nola ontzigitzaren eta auxiliarren sektoreari, itsas inguruneetarako materialen sektoreari edo ozeanografiaren sektoreari.

Itsasoko eta itsasertzeko baliabideen sektorea: OLIA ! Com: Ocean Living Lab

2016ko maiatzean martxan jarritako mugaz gaindiko elkarteak, honako hauen ekimenari esker: Agglomération Sud Pays Basque, Bidasoa Bizirik agentzia, Gaia- TEIC, Eurosima klusterrak eta Donostiako Sustapena- Surf City Donostia, BOrdeleko Unibertsitatea, Euskampus Fundazioa, Estia Ingeniarien eskola eta Quicksilver eta Tribord enpresa-taldeak. helburua da itsasoarekin, irristatzearekin, sektore nautikoarekin eta uretako kirolekin lotutako sektoreetarako tresnak eta zerbitzuak garatzea eta sortzea. Era berean, mundu mailan produktu berrien ziklo-amaiera eta kontzeptualizaziorako mundu mailako erreferentziazko zentro bihurtzeko asmoan mugaz gaindiko ekosistemari lagundu nahi dio. Industrieri eta start-up-ei ingurune teknologiko, ekonomiko eta sozial egokia eskaintzea da helburua, produktuak eta zerbitzuak gara ditzaten, ingurune digital eraginkorrean, teknologia aurreratuak ezartzearen bidez, hala nola sentsoarek, objektuekiko konektagarritasuna, web-plataformak, komunikabideak eta abar. Azken batean, sektore nautikoan, irristatzearen sektorean eta uretako kirolenean ikerketa eta garapenerako proiektuen inguruko lankidetzak sustatzea da helburua.

6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta enpresa lehiakortasunaren arloko mugaz gaindiko ekimenak

Nekazaritzaren eta nekazaritza- eta elikadura-industriaren sektorea: EUSKABIOM

GEIE FOrespirrekin lankidetzan, Hazi Fundazioak eta Baso Jabetzaren Eskualdeko Zentroak (CRPF Aquitaine) sustatuta, proiektuaren helburua da baso-jatorria duen biomasaren erabilera garatzea Euroeskualde mailan: Euroeskualde mailan erabilera ugarien arabera eskuragarri dauden egur bolumenen ikuspegi argia eta zehatza izatea, biomasaren balio-katea eta lurraldearen hornidura-filialak aztertzea. Proiektuaren berezitasuna da baso-produkzioaren eta -kudeaketaren, landa-garapenaren eta energia berriztagarrien eremuetan lortu nahi dituela helburuak eta landutako basoari esker, baso-sektorea dibertsifikatzeko Europako ahalmen handieneko modua izango da.

Energia berriztagarrien sektorea: BLUESARE

Helburua itsasoko energia berriztaileei eskainitako Euroeskualdeko eskaintza bat garatzea da, lurraldeko enpresei eta antolatzaileei sektorean nazioartekotzearen erreferentzia gisa kokatzea ahalbidetzeko, azpiegituren eta plataformen ikusgarritasuna maximizatzeko... BlueSAREk Euroeskualde mailan lotuko ditu sektoreko eragile nagusiak, itsas energien Euroeskualdeko balio-katea eta merkatuen aukerak elkarrekin aztertzeko asmoz. Euroeskualdeko dinamika berriak eta sinergiak sortzeari eskainitako animazio-programa du. Presentzia bateratua nazioarteko ekitaldietan (Bilboko Marine Energy Week...). Proiektua Energiaren Euskal Klusterrak kudeatzen du, Agglomération Côte Basque – Adour hirigunearekin lankidetzan.

Energia berriztagarrien sektorea: AAOE (Acoustic Around Ocean Energies)

Proiektuko bazkideak Energie de la Lune eta Azti Tecnalia dira. Ozeano guztiei eragiten dien arazo berri bat lantzeko mugaz gaindiko dinamika batean oinarritzen da: itsas energiei lotutako teknologien soinu-igorpenen ulemena. Helburua sistemen optimizazioak sustatzea da, arintzeko bitartekoak izatea eta Europa mailan eta nazioartean egokitutako legedi bati etekina ateratzea. Eraginak neurtzeko dauden bi produkzio-plataforma esperimental erabiltzea proposatzen da: BIMEP (Mutriku) energia hulumetorrerako eta Port de la Lune Bordelen energia hidraulikorako.

Itsasoko eta itsasertzeko baliabideen sektorean: TURQUOISE 00

EHU, Bordeleko Unibertsitatea eta La Rochelleko Unibertsitatea dira bazkideak. Proiektuaren helburua da Gaskoinako Golkoko hazkunde urdinaren eta berrikuntza berdearen inguruan biltzea unibertsitateak, itsas estazio eta behatokiak sarean jarrita. Ikerketa-ekintza bateratuak ahalbidetzea da helburua, berrikuntza teknologikoa estimulatzea, ozeanografiaren eta itsas bioteknologien arloan ikerketa eta prestakuntzako mugaz gaindiko sarea egiten laguntzea, hazkunde urdinaren eta berrikuntza berdearen garapenean parte hartuko duten Europako proiektuen deialdietara bideratzeko. Berrikuntza gisa, Poitou-Charentes lehengo eskualdearen eragile bat sartuta dago.

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

7. EUROPAKO MUGAZ GAINDIKO BESTE ESKUALDE BATZUETAN APLIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

7.1. Sarrera

Akitania Berria Euskadi Nafarroa mugaz gaindiko lurraldearen kasua berezia da, mugaz gaindiko langileen fluxuak funtsean Frantzia bizi diren eta Espainiako aldean lan egiten duten pertsonen osatzen baitituzte.

Egoera mota horrek nahiko ezohikoa dirudi Europan, A herrialde batean bizi diren mugako pertsona gehienek A herrialde horretako nazionalitatea baitute eta B herrialdera joaten baitira lanera. Frantziako biztanleen kasuan, Grand Est eskualdean bizi diren eta Luxenburgon lan egiten dutenen kasua da, edo Italiako biztanleen kasuan, Ligurian bizi eta Monakon lan egiten dutenak.


Edonola ere, Euskadiren eta Pirinio Atlantikoen arteko mugan ikus daitekeen moduan, badira kasuak A herrialdeko mugan bizi eta B herrialdeko nazionalitatea dutenak eta B herrialdean lan egiten dutenak. Hori da Sarre eta Renania-Palatinado eskualdean bizitzea aukeratu duten Luxenburgoko biztanleen kasua, enplegua Luxenburgon mantenduta (gehien erakartzen duten hiriak Perl, Trier eta Nittel dira); edo Frantziako Genevako udalerrietan bizi diren eta Genevan lan egiten duten suitzarren kasua. Akitania Berria Euskadi Nafarroaren kasuan ezohikoa dena da Pirinio Atlantikoetan bizi diren mugako langileen % 75ek Espainiako nazionalitatea dutela.

Europako eskualde ugarietan, mugako langileak babesteko edo mugako enpleguaren jarraipena bermatzeko (maila estatistikoa barne) zerbitzuak jarri dira martxan.

Mugako enplegua ahalbidetzeko, laguntza-zerbitzu horiek muga bakoitzaren testuingurura egokitutako zenbait irtenbide proposatzen dituzte. Akitania Berria Euskadi Nafarroa mugaren kasuan, mugako pertsonen kopurua oso murrizta den arren, mugaz gaindiko mugikortasunari jarritako oztopo batzuk Europako jardunbide egokietan inspiratuta gaindi litezke.

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

7.2. Erreferentzien aukeraketa



Honako hauek dira jardunbide egokien proiektuak:

- Europako Mugaz gaindiko Elkartea (Frantzia-Suitza)
- La Maison Ouverte des Services pour l'Allemagne (MOSA) (Frantzia-Alemania)
- EURES-T Rhin Supérieur (Frantzia-Alemania-Suitza)
- « Réussir sans frontières » proiektua (Rin Garaia) (Frantzia-Alemania)
- Maison du Luxembourg (Frantzia-Luxenburgo)
- Öresund Direkt eta Örestat (Danimarka-Suedia)
- Lorrena mugakoak (Frantzia-Luxenburgo-Belgika-Alemania)
- Enpleguaren eskualde arteko Behatokia (Frantzia-Luxenburgo-Belgika-Alemania)

Adibide horiek aukeratu dira eremu ugaritako zerbitzuak biltzen dituztelako (enplegua, hizkuntzak ikastea, mugako langileen fluxuen behatoki estatistikokoak). Batez ere mugako langile kopuru handia duten mugako lurraldeei eragiten diete: Grande Region (mugako 200.000 langile baino gehiago), Rhin Supérieur (90.000 baino gehiago) eta Frantzia eta Suitza arteko muga (170.000).

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

Adibideak taula honetan sailkatuta daude adierazle batzuen arabera:

- Egitura juridikoa
- Interneteko lekua
- Mugaz gaindiko enpleguan espezializatutako aholkulari edo orientatzaileak sarean jartzea
- Mugaren beste aldean aukera profesionaleri buruz enplegu-eskatzaileriei informazioa ematea
- Mugaren beste aldean estali gabeko enplegu-eskaintzak eta hautagai potentzialen artean bitartekaritza- eta lotura-lanak.
- Mugako langileen kontratazioa ahalbidetzeko mugaren beste aldean enplegatzaileak mobilizatzea
- Mugako langileari laguntzea mugaren beste aldean enplegua bilatzen
- Mugako langileei laguntza juridikoa
- Mugako langileei laguntza administratibo edo fiskala
- Mugako langileak prestakuntzako erakundeekin harremanetan jartzea (etengabeko prestakuntza, profesionala...)
- Enpresari dagokion sektorearekin eta kontsularen zerbitzuekin harremanetan jartzea
- Egituraren integrazioa (garapenerako lankidetzak-hitzamena. Lanpostu-egiturarekin lotura eta abar).
- Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa
- Auzokoaren hizkuntza ikastea

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

7.1 koadroa Jardunbide egokien kasuak

Adierazlea	Europako Mugaz gaindiko Elkartea Groupement Transfrontalier européen (FRANTZIA-SUITZA)	Maison Ouverte des Services pour l'Allemagne (MOSA) (FRANTZIA-ALEMANIA)
Egitura juridikoa	1901 Lege Asoziazioa (Frantziako zuzenbidea)	Forbach-en dagoen zerbitzua, eta honek finantzatuta: Communauté d'Agglomération de Forbach Porte (Frantzia)
Webgunea	www.frontalier.org	http://www.agglo-forbach.fr/fr/mosa.html
Mugaz gaindiko enpleguan aholkulari espezialistak sarean jartzea	Ez	Ez
Mugaren beste aldean aukera profesionalei buruz enplegu-eskatzailerei informazioa ematea	Bai - Suitzako lan-merkatuari buruzko informazioa (enplegua bilatzeko webguneak eta enplegu-agentziak, hitzarmen kolektiboak, aholku praktikoak eta abar)	Bai - Alemaniako lan-merkatua (enplegu-eskaintzak, lan-zuzenbidea eta abar)
Hautagaien eta mugaren beste aldean estali gabe dauden enplegu-eskaintza potentzialen arteko doiketa	Ez	Ez
Mugako langileen kontratazioa ahalbidetzeko mugaren beste aldean enplegatzaileak mobilizatzea	Bai - (Suitzako enpresak GTEra atxikitzeko aukera)	Ez
Mugako langileari laguntzea mugaren beste aldean enplegua bilatzen	Bai - (Hitzaldiak, sareak sortzeko topaketak, CVak hobetzeko tailerrak)	Ez
Mugako langileei laguntza juridikoa	Bai - (Bizitza profesionaleko etapa guztietan laguntzea, kontratua sinatzen denetik eteten den arte. Eredu hauetako galderen erantzunak; gaixotasunen estaldura, amatasuna, istripua, balioezintasuna, erretiroa, aurreikuspen-planak, familia-laguntzak, langabeziagatiko diru-laguntza)	Ez

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

Adierazlea	Europako Mugaz gaindiko Elkartea Groupement Transfrontalier européen (FRANTZIA-SUITZA)	Maison Ouverte des Services pour l'Allemagne (MOSA) (FRANTZIA-ALEMANIA)
Mugako langileei laguntza administratibo edo fiskala	Bai - Zerga arloko adituek mugako langileari laguntzen diote errenta-aitorpena betetzen, Suitzan (ia egoiliar) edo Frantzian; zergen simulazioak egiten dituzte, zergak egiaztatzen dituzte eta erreklamazio-prozedurarik izanez gero laguntza ematen dute - Gizarte Zerbitzuak - Gaixotasunagatik aseguru-zerbitzua	Bai - Mugako izaera (erretiroak, pentsioak, familiako laguntzak, langabeziagatiko diru-laguntzak, fiskalitatea eta abar).
Mugako langileak prestakuntzako erakundeekin harremanetan jartzea (efengabeko prestakuntza, ikaskuntza)	Ez	Bai - Ikasketa, prestakuntza eta ikastaroen aukerak (diplomak aitortzeko prozedurak, auzokoaren hizkuntza ikastea, gradu bikoitzak)
Enpresen sektorearekin eta kontsulen zerbitzuekin harremanetan jartzea	Bai - GTEko kide diren Suitzako enpresekin	Ez
Egituraren integrazioa (asoziazio-akordioa, lotura inbertsio-egiturarekin)	Ez - Kideek guztiz finantzatutako elkartea (mugako langileak)	Bai - Bazkideak: Gaixotasunagatik aseguru-kutxak -IKK, AOK eta KBS eta mugako langileen Babes Batzordea) - Udalerriak: - Intercommunalités del Val de Rossele, Communauté d'Agglomération Forbach Porte de France ; Communauté des Communes de Freyming-Merlebach, de Warndt eta de Pays Naborien, - La Moselleko Departamentu Kontseilua
Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa	Ez	Ez
Auzoko hizkuntza ikastea	Ez	Bai - (Auzoko herrialdeko hizkuntza ikasteari buruzko informazioa)

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

Adierazlea	EURES-T Rhin Supérieur (FRANTZIA-ALEMANIA-SUITZA)	« Mugarik gabe arrakasta izan » proiektua (Rhin Superior) (FRANTZIA-ALLEMANIA)	Maison du Luxembourg (Thionville) (FRANTZIA-LUXEMBURGO)
Egitura juridikoa	- EaSI (2014-2020) enplegurako eta berrikuntza sozialerako testuinguru-programaren baitan Europako Batzordeak finantzatutako ekimena. EURES -T Rhin Supérieur testuinguru-akordioak lankidetzaren laneko metodoak eta antolaketa arautzen ditu. Egungo testuinguru-hitzarmena 2017ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean	- Interreg V A Rhin Supérieur proiektua	- Moselle iparraldeko 6 Etablissements Publics de Coopération Intercommunal direlakoak biltzen dituen « G6 »-k finantzatutako zerbitzua (Communautés de Communes de l'Arc Mosellan, des Trois Frontières, de Cattenom et Environs et du Pays Haut Val d'Alzette et des Communautés d'Agglomérations du Val de Fensch et de Portes de France Thionville)
Webgunea	- www.eures-t-rhinsuperieur.eu	- www.interreg-rhin-sup.eu	- www.maisonduluxembourg.fr
Mugaz gaindiko enpleguan aholkulari espezialistak sarean jartzea	Bai - Kontseilarien taldea EURES+3 bazkideen baitan, One-Stop-Shop-en barruan.	Bai	Bai
Mugaren beste aldean aukera profesionalei buruz enplegu-eskatzailerei informazioa ematea	Bai	Bai	Ez
Hautagaien eta mugaren beste aldean estali gabe dauden enplegu-eskaintza potentzialen arteko doiketa	Bai - Enplegu- eta lanpostu-bilaketa	Ez	Ez
Mugako langileen kontratazioa ahalbidetzeko mugaren beste aldean enplegatzaileak mobilizatzea	Bai - Langileen aukeraketa	Bai	Ez
Mugako langileari laguntzea mugaren beste aldean enplegua bilatzen	Bai	Bai - Profesionalek laguntzea	Ez
Mugako langileei laguntza juridikoa	Bai	Ez	Bai - Lan-kontratuak (iraupen jakineko kontratuak, iraupen zehaztugabeko kontratuak, aldi baterako lana, lekualdatutakoak, urtaroen arabera kontratuak).

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

Adierazlea	EURES-T Rhin Supérieur (FRANTZIA-ALEMANIA-SUITZA)	« Mugarik gabe arrakasta izan » proiektua (Rhin Superior) (FRANTZIA-ALLEMANIA)	Maison du Luxembourg (Thionville) (FRANTZIA-LUXEMBURGO)
Mugako langileei laguntza administratibo edo fiskala	Bai - Gizarte-estaldura - Lanerako eskubidea, eskubide soziala eta fiskalitatea - Bizi- eta lan-baldintzak	Bai - Mugaz gaindiko prozedurak ahalbidetzeko informazioak - mugikortasunerako laguntzak, irtenbide praktikoa	Bai - Osasun-estaldura - Laneko baimena - Fiskalitatea
Mugako langileak prestakuntzako erakundeekin harremanetan jartzea (etengabeko prestakuntza, ikaskuntza)	Bai - Mugaz gaindiko ikaskuntza txandaka eta mugaz gaindiko ikasketak txandaka FR/DE - Prestakuntzako eta etengabeko prestakuntzako aukerak	Bai	Bai - Diplomak aitortzea - Prestakuntza Luxenburgon - Luxenburgoko hezkuntza-sistema
Enpresen sektorearekin eta kontsulen zerbitzuekin harremanetan jartzea	Bai - Auzoko mugako herrialde batean langileak erakartzea (Alemania, Frantzia, Suitza) - Langile eta langile kualifikatu eta motibatuekin harremanetan jartzea (Oharra: EURES-T Rhin Supérieur-ek aholkularitza du helburu, funtsean, eta ez du eskumenik zuzeneko lanpostu arloan) - Mugakidea den atzerriko herrialdeko langileen (mugakoak) enpleguari lotutako modalitateak (esaterako, lan-eskubidea, eskubide soziala eta fiskalitatea) - Mugakide den atzerriko herrialde batera langileak lekualdatzea - Jarduera independentea edo lan autonomia eta enpresak sortzea - Mugaz gaindiko lanpostu-zerbitzuekin harremanetan jartzea	Bai - Enpresen eta hautagaien sarea	Ez

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

	EURES-T Rhin Supérieur (FRANTZIA-ALEMANIA-SUITZA)	« Mugarik gabe lortu » proiektua (Rhin Superior) (FRANTZIA-ALLEMANIA)	Maison du Luxembourg (Thionville) (FRANTZIA-LUXEMBURGO)
Egituraren integrazioa (asoziazio-akordioa, lotura inbertsio-egiturarekin)	Bai Enplegu-administrazio publikoak: - Pôle emploi - SECO (Suisse) - Agence fédérale pour l'emploi (Bundesagentur für Arbeit) (DE) - Canton de Bâle-Ville (Amt für Wirtschaft und Arbeit) (CH) - Basel Landschaft (CH) - Canton d'Argovie (CH) - Canton de Soleure (CH) - Canton du Jura (CH) Gizarte-eragileak : - Arbeitgeber - LVU Die Unternehmer in Rheinland-Pfalz - MEDEF Alsace - Arbeitgeberverband Basel - LGR CSIR - IGR/CSIR EUREGIO Baden – Bas Rhin – südliche Pfalz Kolektibitateak: - Land de Rhénanie-Palatinat (DE) - Land de Bade-Wurtemberg (DE) - Préfet de la Région Grand Est - Région Grand Est - Conseil départemental du Bas-Rhin - Conseil départemental du Haut-Rhin - Canton de Bâle-Ville (Amt für Wirtschaft und Arbeit) (CH) - Basel Landschaft (CH) - Canton d'Argovie (CH) - Canton de Soleure (CH) - Canton du Jura (CH)	Bai Bazkideak: - Región Grand Este - Ministerium für Wirtschaft und Finanzen Baden-Württemberg - Ministerium für Wirtschaft, Klimaschutz, Energie und Landesplanung Rheinland-Pfalz - Fondation Entente Franco-Allemande - Office Franco-allemand pour la Jeunesse - Rectorat - Académie de Strasbourg - Direction Régionale de l'Alimentation, de l'Agriculture et de la Forêt d'ALSACE - Pôle Emploi - Chambre de métiers d'Alsace - Chambre d'Agriculture de Région Alsace - Industrie und Handelskammer Karlsruhe - Eurodistrict PAMINA - Direction Rgionale des Entreprises, de la Concurrence, de la Consommation, du Travail et de l'Emploi - Eurodistrict Strasbourg-Ortenau - Industrie und Handelskammer Hochrhein Bodensee - Industrie und Handelskammer der Pfalz - Industrie und Handelskammer Südlicher Oberrhein - Regionaldirektion Rheinland-Pfalz-Saarland der Bundesagentur für Arbeit - Regierungspräsidium Karlsruhe - TechnologieRegion Karlsruhe - Regierungspräsidium Freiburg - Maison de l'Emploi et de la Formation du bassin de Strasbourg - Regionaldirektion Baden-Württemberg der Bundesagentur für Arbeit - Handwerkskammer Freiburg - Landwirtschaftskammer Rheinland-Pfalz - Handwerkskammer Pfalz - Handwerkskammer Karlsruhe - Agentur für Arbeit Offenburg - Agentur für Arbeit Freiburg - Handwerkskammer Konstanz - Chambre de commerce et d'industrie Alsace - Landesakademie für Fortbildung und Personalentwicklung an Schulen	Bai Kolektibitateak: - CA Thionville Portes de France - CA Val de Fensch - CC Arc Mosellan - CC Pays Haut Val d'Alzette - CC Cattenom et environs - CC Bouzonvillois Trois Frontières Beste bazkide batzuk : - Taskforce Frontaliers - Interreg Grande Région - Grand Duché de Luxembourg - EuRegio SaarLorLux+ - Cedies - CNS - CNAP - Caisse pour l'avenir des enfants (LU) - Association des Frontaliers au Luxembourg - Comité du tourisme du Luxembourg

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

	EURES-T Rhin Supérieur (FRANTZIA-ALEMANIA-SUITZA)	« Mugarik gabe lortu » proiektua (Rhin Superior) (FRANTZIA-ALLEMANIA)	Maison du Luxembourg (Thionville) (FRANTZIA-LUXEMBURGO)
Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa	Bai - Lan-merkatuaren monitorizazioa (demografiari, ekonomiari, enpleguari, mugako langile-fluxuei, langabeziari buruzko datuak)	Ez	Ez
Auzoko hizkuntza ikastea	Ez	Bai - Ikastaro eta praktikak	Ez

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

Adierazlea	Öresund Direkt (et Örestat) (DANIMARKA-SUEDIA)	Frontaliers Lorraine (FRANTZIA-LUXEMBURGO-BELGIKA- ALEMANIA)	Eskualde arteko enplegu-behatokia (FRANTZIA-LUXEMBURGO-BELGIKA- ALEMANIA)
Egitura juridikoa	- Danimarkak eta Suediak , eta tokiko kolektibitateek (Zelande eta Scanie eskualdea, Kopenhage eta Malmö) finantzatutako Interneteko plataforma	- Baliabide eta Dokumentazio Zentroaren Interneteko plataforma, Europako Batzordeak eta Grand Est eskualdeak finantzatutako elkarteak	- Irabazi-asmorik gabeko zuzenbidearen Alemianiako elkarteak: eingetragener Verein (e.V)
Webgunea	- http://www.oresunddirekt.se/in-english	- www.frontalierslorraine.eu	- http://www.iba-oie.eu
Mugaz gaindiko enpleguan aholkulari espezialistak sarean jartzea	Bai	Bai	Bai - (enpleguaren eremuan espezializatutako erakundeak Sarean jartzea) -
Mugaren beste aldean aukera profesionaleri buruz enplegu-eskatzaileri informazioa ematea	Bai	Bai	Ez
Hautagaien eta mugaren beste aldean estali gabe dauden enplegu-eskaintza potentzialen arteko doiketa	Ez	Bai - Enpleguaren aurreikuspenen kudeaketan parte hartzea, laneko merkatuaren egoera ebaluatzea eta ekintza komunitararako proposamenak egitea	Ez
Mugako langileen kontratazioa ahalbidetzeko mugaren beste aldean enplegatzaileak mobilizatzea	Ez - (Öresund direkt business; mugaren beste aldean enpresak jartzea ahalbidetzen du)	Ez	Ez
Mugako langileari laguntzea mugaren beste aldean enplegua bilatzen	Bai - Bulego bat Malmö: Oresunddirekt information centre - Bulego bat Kopenhagen: International Citizen Service East in Copenhagen	Bai	Ez
Mugako langileei laguntza juridikoa	Bai	Ez	Ez
Mugako langileei laguntza administratibo edo fiskala	Bai - Danimarkako eta Suediako gizarte-segurantzari buruzko informazioa - Zergei buruzko informazioa Danimarkan eta Suedian	Bai - Soldatapekoei eta enpresei Europako lan- eta bizi-baldintzen eta legediaren inguruan informazioa ematea, eta bereziki Grande Region-eko kide diren eskualdeei: prestazio sozialak, zergak, langabeziagatiko prestazioak, gaixotasuna, amatasuna, erretiroa eta abar.	Ez

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

Adierazlea	Öresund Direkt (et Örestat) (DANIMARKA-SUEDIA)	Frontaliers Lorraine (FRANTZIA-LUXEMBURGO-BELGIKA- ALEMANIA)	Eskualde arteko enplegu-behatokia (FRANTZIA-LUXEMBURGO-BELGIKA- ALEMANIA)
Mugako langileak prestakuntzako erakundeekin harremanetan jartzea (etengabeko prestakuntza, ikaskuntza)	Ez	Bai - Mugaz gaindiko lanbide heziketa garatzea eta sustatzea	Ez
Enpresen sektorearekin eta kontsulen zerbitzuekin harremanetan jartzea	Ez	Ez	Ez
Egituraren integrazioa (asoziazio-akordioa, lotura inbertsio-egiturekin)	Bai Bazkideak : - Service Public de l'emploi en Suecia (Arbetsförmedlingen) - Agence de l'assurance sociale en Suecia (Försäkringskassan) - Agence des impôts en Suecia (Skatteverket) - Länsstyrelsen Skåne (Conseil du Comté de Skåne), - Région Skåne - Conseil Nordique des Ministres	Bazkideak: - Réseaux EURES Grande Région, Rhin Supérieur - OIE (Observatoire Interrégional du marché de l'Emploi) - Arbeitskammer des Saarlandes - Task Force Frontaliers - MOSA Forbach - Enterprise Europe Network Lorraine - CCI Internationale Lorraine - Pôle Emploi Lorraine - CARSAT Alsace-Moselle - CAF Moselle et CAF Meurthe-et-Moselle - CARSAT Nord Est - CPAM Moselle et CPAM Meurthe-et-Moselle - les collectivités (Mairie de Longwy, Mairie de Metz, la Communauté d'Agglomération "Portes de France Thionville").	Finantza-bazkideak: - Ministère de la famille, de l'Intégration et à la Grande Région du Grand-Duché de Luxembourg - Ministère des Affaires sociales, du Travail, de la Santé et de la Démographie de la Rhénanie-Palatinat - Ministère de l'Economie, du Travail, de l'Energie et des Transports de la Sarre - GIP Lorraine Parcours Métiers en Lorraine - Institut Wallon de l'Evaluation, de la Prospective et de la Statistique (IWEPS) en Wallonie.
Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa	Bai : Örestat)	Ez	Bai
Auzoko hizkuntza ikastea	Ez	Ez	Ez

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

	EURES-T Rhin Supérieur (FRANTZIA-ALEMANIA)	« Mugarik gabe lortu » proiektua (Rhin Supérieur) (FRANTZIA-ALEMANIA)	Maison du Luxembourg (Thionville) (FRANTZIA-LUXEMBURGO)
Egituraren integrazioa (asoziazio-akordioa, lotura inbertsio-egiturarekin)	Bai Enplegu-administrazio publikoak: - Pôle emploi - SECO (Suisse) - Bundesagentur für Arbeit (DE) - Canton de Bâle-Ville (Amt für Wirtschaft und Arbeit) (CH) - Basel Landschaft (CH) - Canton d'Argovie (CH) - Canton de Soleure (CH) - Canton du Jura (CH) Hizketakide sozialak: - Arbeitgeber - LVU Die Unternehmer in Rheinland-Pfalz - MEDEF Alsace - Arbeitgeberverband Basel - LGR CSIR - IGR/CSIR EUREGIO Baden – Bas Rhin – südliche Pfalz Kolektibitateak: - Land de Rhénanie-Palatinat (DE) - Land de Bade-Wurtemberg (DE) - Préfet de la Région Grand Est - Région Grand Est - Conseil départemental du Bas-Rhin - Conseil départemental du Haut-Rhin - Canton de Bâle-Ville (Amt für Wirtschaft und Arbeit) (CH) - Basel Landschaft (CH) - Canton d'Argovie (CH) - Canton de Soleure (CH) - Canton du Jura (CH)	Bai Bazkideak: - Région Grand Est - Ministerium für Wirtschaft und Finanzen Baden-Württemberg - Ministerium für Wirtschaft, Klimaschutz, Energie und Landesplanung Rheinland-Pfalz - Fondation Entente Franco-Allemande - Office Franco-allemand pour la Jeunesse - Rectorat - Académie de Strasbourg - Direction Régionale de l'Alimentation, de l'Agriculture et de la Forêt d'ALSACE - Pôle Emploi - Chambre de métiers d'Alsace - Chambre d'Agriculture de Région Alsace - Industrie und Handelskammer Karlsruhe - Eurodistrict PAMINA - Direction Rgionale des Entreprises, de la Concurrence, de la Consommation, du Travail et de l'Emploi - Eurodistrict Strasbourg-Ortenau - Industrie und Handelskammer Hochrhein Bodensee - Industrie und Handelskammer der Pfalz - Industrie und Handelskammer Südlicher Oberrhein - Regionaldirektion Rheinland-Pfalz-Saarland der Bundesagentur für Arbeit - Regierungspräsidium Karlsruhe - TechnologieRegion Karlsruhe - Regierungspräsidium Freiburg - Maison de l'Emploi et de la Formation du bassin de Strasbourg - Regionaldirektion Baden-Württemberg der Bundesagentur für Arbeit - Handwerkskammer Freiburg - Landwirtschaftskammer Rheinland-Pfalz - Handwerkskammer Pfalz - Handwerkskammer Karlsruhe - Agentur für Arbeit Offenburg - Agentur für Arbeit Freiburg - Handwerkskammer Konstanz - Chambre de commerce et d'industrie Alsace - Landesakademie für Fortbildung und Personalentwicklung an Schulen	Bai Kolektibitateak: - CA Thionville Portes de France - CA Val de Fensch - CC Arc Mosellan - CC Pays Haut Val d'Alzette - CC Cattenom et environs - CC Bouzonvillois Trois Frontières Beste bazkide batzuk: - Taskforce Frontaliers - Interreg Grande Région - Grand Duché de Luxembourg - EuRegio SaarLorLux+ - Cedies - CNS - CNAP - Caisse pour l'avenir des enfants (LU) - Association des Frontaliers au Luxembourg - Comité du tourisme du Luxembourg

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

	EURES-T Rhin Supérieur (FRANTZIA-ALEMANIA)	« Mugarik gabe lortu » proiektua (Rhin Supérieur) (FRANTZIA-ALEMANIA)	Maison du Luxembourg (Thionville) (FRANTZIA-LUXEMBURGO)
Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa	Bai - Lan-merkatuaren monitorizazioa (demografiari, ekonomiari, enpleguari, mugako langile-fluxuei, langabeziari buruzko datuak)	Ez	Ez
Auzoko hizkuntza ikastea	Ez	Bai - Ikastaroak eta praktikak	Ez

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

Adierazlea	Öresund Direkt (DK-SE)	Frontaliers Lorraine (FR-LU-DE-BE)
Egitura juridikoa	- Danimarkak eta Suediak , eta tokiko kolektibitateek (Zelande eta Scanie eskualdea, Kopenhage eta Malmö) finantzatutako Interneteko plataforma	- Baliabide eta Dokumentazio Zentroaren Interneteko plataforma, Europako Batzordeak eta Grand Est eskualdeak finantzatutako elkarteak
Webgunea	- http://www.oresunddirekt.se/in-english	- www.frontalierslorraine.eu
Mugaz gaindiko enpleguan aholkulari espezialistak sarean jartzea	Bai	Bai
Mugaren beste aldean aukera profesionalei buruz enplegu-eskatzailerei informazioa ematea	Bai	Bai
Hautagaien eta mugaren beste aldean estali gabe dauden enplegu-eskaintza potentzialen arteko doiketa	Ez	Bai - Enpleguaren aurreikuspenen kudeaketan parte hartzea, laneko merkatuaren egoera ebaluatzea eta ekintza komunitarako proposamenak egitea
Mugako langileen kontratazioa ahalbidetzeko mugaren beste aldean enplegatzaileak mobilizatzea	Ez - (Öresund direkt business; mugaren beste aldean enpresak jartzea ahalbidetzen du)	Ez
Mugako langileari laguntzea mugaren beste aldean enplegua bilatzen	Bai - Bulego bat Malmö: Oresunddirekt information centre - Bulego bat Kopenhagen: International Citizen Service East in Copenhagen	Bai
Mugako langileei laguntza juridikoa	Bai	Ez
Mugako langileei laguntza administratibo edo fiskala	Bai - Danimarkako eta Suediako gizarte-segurantzari buruzko informazioa - Zergei buruzko informazioa Danimarkan eta Suedian	Bai - Soldatapekoei eta enpresei Europako lan- eta bizi-baldintzen eta legediaren inguruan informazioa ematea, eta bereziki Grande Region-eko kide diren eskualdeei: prestazio sozialak, zergak, langabeziagatiko prestazioak, gaixotasuna, amatasuna, erretiroa eta abar.
Mugako langileak prestakuntzako erakundeekin harremanetan jartzea (etengabeko prestakuntza, ikaskuntza)	Ez	Bai - Mugaz gaindiko lanbide heziketa garatzea eta sustatzea

7. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

Adierazlea	Öresund Direkt (DK-SE)	Frontaliers Lorraine (FR-LU-DE-BE)
Enpresen sektorearekin eta kontsulen zerbitzuekin harremanetan jartzea	Ez	Ez
Egituraren integrazioa (asoziazio-akordioa, lotura inbertsio-egiturekin)	Ba Bazkideak : - Arbetsförmedlingen (Swedish Public Employment Service), - Försäkringskassan (Swedish Social Insurance Agency), - Skatteverket (Swedish Tax Agency), Länsstyrelsen Skåne (County Administrative Board of Skåne), - Region Skåne - Nordiska Ministerrådet (Nordic Council of Ministers).	Bazkideak: - Réseaux EURES Grande Région, Rhin Supérieur - OIE (Observatoire Interrégional du marché de l'Emploi) - Arbeitskammer des Saarlandes - Task Force Frontaliers - MOSA Forbach - Enterprise Europe Network Lorraine - CCI Internationale Lorraine - Pôle Emploi Lorraine - CARSAT Alsace-Moselle - CAF Moselle et CAF Meurthe-et-Moselle - CARSAT Nord Est - CPAM Moselle et CPAM Meurthe-et-Moselle - les collectivités (Mairie de Longwy, Mairie de Metz, la Communauté d'Agglomération "Portes de France Thionville").
Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa	Ez (Örestat ikusi)	Ez
Auzoko hizkuntza ikastea	Ez	Ez

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

7.3. Europako mugaz gaindiko beste eskualde batzuetan aplikatutako jardunbide egokiak

Aztertutako adibide ugarien artean, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean mugaz gaindiko enpleguari begira orientabide batzuk eman ditzaketen jardunbide egoki batzuk identifikatu dira. Jardunbide egoki horiek azterketa honetarako beharrezkoak diren kategoria batzuen arabera egituratu dira:

- Auzoko herrialdeko hizkuntza ikastea
- Mugaren beste aldeko enplegu-aukerei buruzko informazioa
- Langileei laguntza administratibo edo fiskala
- Mugaz gaindiko langilea prestakuntza-erakundeekin harremanetan jartzea
- Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa

Kategoria horietako bakoitzerako jardunbide egokien bi adibide proposatzen dira, baita zenbait gomendio ere, Euroeskualdeko mugaz gaindiko enpleguari laguntzeko.

Auzoko hizkuntza ikastea

Auzoko hizkuntza ezagutzea baldintza garrantzitsua da mugaren beste aldean enplegura sarbidea izateko. Pirinio Atlantikoetan, Frantziako biztanleen artean gaztelaniaren ezagutza badirudi oztopoa dela Euskadin edo Nafarroan enplegu-merkatuara sartzeko. Euskara ikaskuntza nabarmen areagotu da Pirinio Atlantikoetan norabide horretan aplikatutako hizkuntza-politikei esker (euskara ikasten duten lehen hezkuntzako umeen ehunekoa 2004an % 24 izatetik 2015ean % 38 izatera pasatu da), baina hura bakarrik erabiltzea (gaztelaniarik gabe) ez da nahikoa Euskadin edo Nafarroan lan egiteko. Badirudi, gainera, Pirinio Atlantikoetako agintariek euskararen erabilera sustatzen dutela, baina gaztelaniak ez du babes hori jasotzen, nahiz eta hura erabiltzea beharrezkoa den Euskadin edo Nafarroan lan-munduratzeko.

1. jardunbide egokia: La Maison Ouverte des Services pour l'Allemagne (MOSA) (Frantzia-Alemania) MOSA ez du berez hizkuntza-ikastarorik proposatzen, baina bertako aholkulari eta kontseilariak auzoko hizkuntza (alemana) ikasteko dauden aukerei buruzko informazioa ematen dute.

2. jardunbide egokia: « Réussir sans frontières » proiektua (Frantzia-Alemania) Interreg proiektuaren baitan finantzatutako Interneteko plataforma da. Zehazki, Frantziako aldean aleman-ikastaroak jasotzeko informazioa proposatzen du (Grand Est eskualderako konexioak, Pôle Emploi eta alemana ikasteko zentroak) edo Alemanian ikastaro linguistikoa egitea (Voltaire programa, bi nazioetako ikastaroak tandemean, murgiltze-egonaldiak...).

Mugaren beste aldeko enplegu-aukerei buruzko informazioa

Europako muga batzuetan, mugaz gaindiko enplegurako laguntza-zerbitzuek mugaren beste aldeko aukera profesionaleri buruzko informazioa proposatzen dute. Euskal mugan,

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Pôle Emploi eta Lanbide elkarlanean ari dira, baina badirudi Espainiako nazionalitatearen duen publikorantz bideratzen dutela ekintza batez ere (mugaz gaindiko enplegu-azoka antolatzea). Informazio horren arabera, Pôle Emploi, Frantziako aldean, zerbitzua gainezka du Euskadin lana bilatzen duten Espainiako nazionalitateko pertsonen eskariari erantzuteko.

1. jardunbide egokia: Europako Mugaz gaindiko Elkartek (GTE) (Frantzia-Suitza) Suitzako lan-merkatuari buruzko informazioa eskaintzen du (lana bilatzeko webguneak eta lanpostu-agentziak, hitzarmen kolektiboak, aholku praktikoak eta abar). Hala ere, informazio horietara sartu ahal izateko, GTE elkarteko kide izan behar da. Honako zerbitzu hauek eskaintzen zaizkie bazkideei:

- Lan-bilaketan laguntzea, prestakuntza-tailerrak, hitzaldiak, banakako elkarizketak edo telefono bidezko egonaldiak.
- Suitzako lan-baldintzei eta lan-merkatuari buruzko informazioa eskuratzea (lana bilatzeko webguneak eta lanpostu-agentziak, hitzarmen kolektiboak, aholku praktikoak eta abar).
- CVA uztea webgunean eta Suitzako enplegu-eskaintzak kontsultatzea
- Elkarte horretako kide diren Suitzako 197 enpresak ezagutzea

2. jardunbide egokia: «Lorrena mugakoak» webguneak Luxenburgon, Alemanian eta Belgikan enplegua bilatzeko informazioa eskaintzen du. Espezializatutako gida batzuk daude online eskuragarri eta mugakide den herrialdean lan egiten jarraitzeko prozedura multzoa dituzte

- Kontratatzen dituzten sektoreak
- Lana bilatzeko kontsultatu beharreko Interneteko webguneak
- Proiektu profesional bat ezartzeko jarraitu beharreko prozedura
- Lan-baldintzen deskribapena alboko herrialdean
- Hizkuntzen ezagutza
- Titulazioak edo diplomak aitortzea
- Araututako lanbideak (osasuna)
- Lana bilatzeko prozedurak
- Beharrezko tresnak
- Alboko herrialdean lan egiteko tailerrak
- Harremanetan jartzeko Frantziako EURES eta alboko herrialdeko EURES orientatzaileen zerrenda

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Luxenburgon lana bilatzeko gida



Iturria: Lorrena mugakoak

Langileei laguntza administratibo edo fiskala

Oztopo administratibo edo fiskala badirudi oztopoa dela mugaz gaindiko enplegurako. Gai honek Frantziako aldean bizi diren eta Espainiako aldean lan egiten duten espainiarrei bereziki eragiten dien arren, mugakoak ez dirudi Frantzian bizitzen jartzen direnean edo mugaren beste aldean lana bilatzen dutenean jarraitu beharreko prozedura administratiboan inguruan informazio egokirik dutenik. Gaur egun zerbitzu hori emateko aholkularitza pribatu batzuk soilik daude. Azterketa honen baitan mugako langileen artean egindako inkestaren arabera, arrazoi fiskalak Euskadin-Nafarroan bizi eta Akitania Berrian lan egiten duten pertsonen % 60k aipatu ditu, eta Akitania Berrian bizi eta Euskadin-Nafarroan lan egiten dutenen % 30ek.

Europako muga batzuetan prozedura administratibo eta fiskalak ahalbidetzeko zerbitzuak eskaintzen dira:

1. jardunbide egokia: La Maison du Luxembourgok (Frantzia-Luxemburgo-Belgika -Alemania) osasun-estalduraren, lan-baimenaren, fiskalitatearen inguruko aholkularitza eskaintzen du. Webgunean jakinarazita daude jarraitu beharreko prozedurak eta Luxemburgon harremanetan jari beharreko zerbitzuak. Mugako langile batek, horrez gain, Thionville-ko Maison du Luxembourg-en lokaletara jo dezake, han orientatzaileekin egoteko.

2. jardunbide egokia: Europako Mugaz gaindiko Elkartek (GTE) (Frantzia-Suitza) fiskalitate arloko adituen zerbitzua eskaintzen du, mugako langileari errenta-aitorpena betetzen laguntzeko, zergen ordainketaren inguruko simulazioak egiteko, fiskalitateari buruzko egiaztapenak egiteko eta erreklamazio-prozedurak izanez gero, haiek egiten laguntzeko. Zerbitzu hori ordaindu egin behar da eta GTEko bazkideentzat soilik dago eskuragarri.

Mugako langilea prestakuntza-erakundeekin harremanetan jartzea

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Elkarizketa egindako pertsonen emandako informazioaren arabera, Espainiako aldean Lanbide Heziketako edo etengabeko prestakuntzako aukerak ez dirudi oso ikusgarriak direnik mugako langileentzat edo ikasleentzat. Gainera, Frantziaren eta Espainiaren arteko diplomaren arteko baliokidetasunen arazoa agertzen da.

Mugako lana babesteko ekimen batzuek alboko herrialdean prestakuntza bilatzen laguntzeko zerbitzu espezifikoak proposatzen dute.

1. jardunbide egokia: MOSAk (Frantzia-Alemania) ikasketa, prestakuntza-ikastaro eta egonaldiak buruzko aukeren berri ematen du (diplomak, gradu bikoitzak eta abar aitortzeko prozedura).

2. jardunbide egokia: EURES-T Rhin Supérieur-ek (Frantzia-Alemania) webgunean mugaz gaindiko lanbide heziketari buruzko informazio xehatua, baita Alemaniaren eta Frantziaren arteko txandakako ikasketen inguruan ere Rin Garaian. Aurkeztutako elementuak honako hauek dira:

- Nola funtzionatzen du mugaz gaindiko lanbide heziketak eta txandakako ikasketek?
- Zein dira mugaz gaindiko lanbide heziketaren abantailak?
- Zein dira baldintzak?
- Zer modalitate daude?
- Nork laguntzen dio ikasleari prestakuntza egokia izan dezan enpresa bat topatzen eta non topa daiteke mugaz gaindiko lanbide heziketari buruzko informazio osagarria? (informazio osagarria duen eskuliburua badago online eskuragarri).

Rin Garaiko mugaz gaindiko lanbide heziketari buruzko eskuliburua



Iturria: EURES-T Rhin Supérieur

Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Azterketa honen helburua da, hain zuzen ere, Euskadi, Nafarroa eta Akitania Berriaren arteko mugako alde bateko eta besteko mugako langile kopurua objektibatzea. Kopuru hori zehaztu ahal izateko, datu estatistikoak (INSEE, EUSTAT, NASTAT) eta administratiboak (gizarte-segurantza) bildu behar izan dira. Mugako beste eskualde batzuetan ez bezala, Euskadin-Nafarroan/Akitania Berrian ez dirudi lehentasuna denik mugako langile kopuruaren estatistika mailako jarraipena egitea, fluxuen intentsitatea murrizta baita. Estatistika-institutuek ezin dute kopuru zehatzik eman, udalerri batzuetan, mugakoen kopurua hain urria izanik, udalerri mailan estatistika-sekretua urratuko bailuke.

Hala ere, beste muga batzuetan dauden jardunbide egoki batzuk datoz jarraian:


1. jardunbide egokia: Eskualde arteko Enplegu Behatokia-OIE (Frantzia-Luxenburgo-Belgika-Alemania) 2000. urtean Grande Region-eko kideek sortutako erakundea da. Grande Region izeneko mugako langile kopuru gehien duen Europako mugaz gaindiko lurraldeetako bat da (225.000 mugako 2016an). OIEk zenbait kide ditu: EURES sareak, Grande Regioneko estatistika-bulegoak eta Grande Regioneko Batzorde ekonomiko eta soziala. OIEk honako gai hauei jarraipena egitea bermatzen du:

- Lan-merkatuaren egoera
- Mugakoen mugikortasuna
- Demografia (populazioaren egitura eta bilakaera, proiektzio demografikoak)
- Gazteen egoera (alderdi demografikoak, enplegua, langabezia, gazteen mugikortasuna, murrizketa eta txirotasuna).
- Lanerako eta enplegurako modu bitxiak (obra-kontratuak, aldi baterakoak, lanaldi partzialeko lana, gutxieneko soldatak, Frantzian lan egiteari buruzko legedi mailako berrikuntzak)
- Lan-munduen digitalizazioa
- Grande Regioneko zaintzen lan-merkatua
- Lanesku kualifikatua – gakoak Grande Regionen garapen ekonomiko eta sozialerako

Egindako dokumentuen artean, mapa batekin urtero Grande Regioneko mugako langile kopuruaren bilakaerari jarraipena egin dakiok.

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Grande Regioneko 2016ko langileen fluxuen mapa




Iturria: OIE

2. jardunbide egokia: Örestat-ek, Öresund eskualdeko atari estatistikoak (Danimarka-Suedia), mugako langileen kopuruaren bilakaera jarraitzeko aukera eskaintzen du; batez ere Kopenhage eta Malmö artean kontzentratzen dira langileak (3.500 mugako inguru 2016an). Örestat-en webguneak mugako langileen fluxuari buruzko datu-basea du (nazionalitatearen, adinaren, sexuaren, jatorrizko udalerriaren eta helmugaren eta abar) eta azterketa egiten du arlo hauetan: demografia, ekonomia, enplegua. 2012an, eskuragarri dauden datuetatik abiatuta, argitalpen bat egin zen (TendensÖresund). Ataria hiru hizkuntzatan dago: danieraz, suedieraz eta ingelesez.

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Öresund eskualdeko mugako langile kopuruaren bilakaera
1998 eta 2016 artean



Iturria: Örestat

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

8.1. Laburpena eta ondorioak

Txostenari esker, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean mugaz gaindiko enpleguarekin lotuta eta hura garatzen den testuinguru ekonomiko eta soziala aintzat hartuta zenbait egiaztapen egin ahal izan dira. Honako puntu hauetan laburbil daitezke:

- Testuinguru demografiko orokor gisa, Pirinioen alde batean edo bestean nolabaiteko desberdintasuna aipatu behar da, hegoaldeko biztanlerian geldialdia izanik (Gipuzkoan izan ezik) eta aurrerapena iparraldean (batez ere Akitania Berriko biztanleriaren % 50 biltzen duen itsasaldeko eremuan, itsasotik 60 km baino gutxiagora). Hala ere, eta lan-ikuspegi garrantzitsuagoa dena, nabarmendu beharrekoa da hiru eskualdeek zahartze demografikoaren dinamika handia dutela, eta horrek etorkizun ez oso urrunean laneko belaunaldi-erleborako zailtasunak ekar ditzakeela, belaunaldi gazteak ez baitira kopuruz nahikoak izango datozen urteetan erretiroa hartuko duten pertsonen multzo handiak ordezkatzeko (Akitania Berrian, batez beste urteko 67.000 erretiro izango direla kalkulatzeko da 2022ra arte eta Euskadin 26.000 baino gehiago).
- Prestakuntzari dagokionez, Euroeskualdeak Europako batez bestekoa baino prestakuntza hobea duen biztanleria du, Europa 2020 Estrategiaren helburuak gaindituz. Hala, 25 eta 64 urte arteko biztanleen artean, hirugarren mailako ikasketak dituztenak % 31 dira Akitanian, % 49 Euskadin eta % 45 Nafarroan (nahiz eta, kontrapartida gisa, azken bi eskualde horietan tarteko kualifikazioak dituzten pertsonen nolabaiteko gabezia dagoen).
- Prestakuntza arloan, horrez gain, mugaz gaindiko lan-mugimenduetarako ahultasun edo oztopo nagusietako bat "beste aldeko" hizkuntzen ezagutza eta ikaskuntza txikiari dagokio, zehazki, Euskadiko eta Nafarroako biztanleen % 20k inguruko soilik ditu frantseseko ezagutzak (neurri ugari); Akitanian ere gaztelaniaren ezagutzak maila baxua du (nahiz eta eskuragarri dauden datuak ez diren berriak). Aldiz, euskararen ezagutza, erabilera eta ikaskuntza gero eta handiagoa da mugatik gertueneko eremuan.
- Hiru eskualdeetako lan-merkatuei dagokienez, espezializazio ekonomikoaren arloan alde nabariak aipatu behar dira (zerbitzuen sektorean enpleguak garrantzi handiagoa du Akitanian, Euskadin eta Nafarroan, aldiz, industriak, Nafarroan nekazaritza-sektorearekin batera) baita langabetuen profilean ere (Euskadin eta Nafarroan arazo handiagoa dago iraupen luzeko langabeziari lotuta eta 55 urte eta kualifikazio baxuko pertsonekin lotuta eta abar). Horrez gain, antzeko elementuak ere ikus daitezke, jarduera- eta langabezia-tasa ez hain desberdinekin (eta beherantz, atzerapen handiaren eraginaren ostean), edo nahiko antzekoak diren batez besteko soldata mailak (legez ezarritako gutxieneko soldatetan ahal ez den arren).
- Mugako eremuan, egoitza arloko interpenetrazioa desorekatua da eta oso kontzentratuta dago mugatik gertueneko lurraldean. Horrek esan nahi du Espainiako nazionalitatea duten pertsona kopuru nahiko garrantzitsua ari dela bizitzen Akitania Berrian (12.000 lagun baino gehiago, eta funtsean Hendaia, Urruñan eta inguruan

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

biltzen direla, eta konparazioz, Frantziako nazionalitatea duten eta Euskadin edo Nafarroan bizi direnak gutxi dira (ez dira guztira 3.000 lagunetara iristen).

- Euroeskualdean enpleguaren mugaz gaindiko fluxuei dagokionez, oso ahulak eta irismen urrikoak direla nabarmendu behar da, Europako beste muga batzuekin alderatuta. Euroeskualdeko muga erregularitasunez 3.860 lagunek soilik gurutzatzen dute beste aldera lanera joateko, aldiz, Frantziako beste muga batzuetan hamar milatik gora dira.
- Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen kasuan, gainera, lan-fluxu horiek iparralde-hegoalde noranzkoan gertatzen dira batez ere (Akitania Berritik Euskadira eta Nafarroara, guztira 3.200 lagun) eta funtsean egoitza-arrazoiagatik izaten dira. Hau da, Frantziako mugako eremuan bizi diren eta Espainiako nazionalitatea duten pertsona gehienak lanarekin loturarik ez duen arrazoiengatik dute bizilekua han, hain zuzen ere, bi aldeetako etxebizitza-merkatuen artean dagoen desberdintasunarekin (bereziki duela hamarkada bat, gutxi gorabehera) lotutako eta beste arrazoi pertsonal eta familiarekin lotuta arrazoi batzuegatik.
- Bestalde, estatistika ofizialek jasotako hegoalde-iparralde fluxuak (Akitania Berrian lan egiten duten eta Euskadin edo Nafarroan bizi direnak) are urriagoak dira (650 lagun inguru, guztira), nahiz eta kasu honetan lan-arrazoiarekin lotura gehiago duten, hau da, pertsona horientzat interesekoak izan diren enplegu-aukerekin lotuta.
- Lehen aipatutako hizkuntza arloaz gain, arlo administratibo, fiskal eta sozialek ere zailtasun gehigarriak dituzte mugaz gaindiko enplegurako, nahiz eta badirudien, oro har, horren inguruko erabakietan ez direla elementu erabakigarriak. Hala, Administrazio fiskalek mugako langiletzat hartzeko aplikatutako eskakizunak desberdinak dira eta nolabaiteko nahasmendua dago eragina duten pertsonen artean. Gainera, zerga-ondorioetarako mugako eremuaren kontzeptuak mugako langilearen estatusaren onurak mugatzen ditu geografikoki; ez da egokia eta eguneratu beharra du. Bestalde, bizitoki den herrialdearen eta lan egiten den herrialdearen artean zuzeneko zerga-tasetan eta ekarpen sozialetan dauden aldeak ere eragiten dute.
- Bestalde, Gizarte Segurantzako sistema nazionalek mugaz gaindiko mugikortasunean oztopoak sor ditzakete (prestazioak emateko irizpide desberdinak, prestazio batzuk esportatzeko aukerari dagokionez hutsuneak, mugako langileen familien aldetik osasunerako sarbidea, profesional jakin batzuekiko tratamendu berezia...).
- Hala ere, oztopo nagusietako bat sarri mugaz gaindiko langileentzat informazio egokirik (irismaria eta ulergarria) ez izatea da, eta enpleguari eragiten dioten gaietan eskumena duten nazio mailako administrazioen artean ezagutza eta koordinazio nahikorik ez izatea. Informazio-gabezia hori bera gertatzen da informazio estatistiko homogeneo eta alderagarriari dagokionez ere, bai mugaz gaindiko enpleguaren errealitateari buruz eta oro har mugaz gaindiko harreman ekonomiko eta sozialei buruz, baita enpleguaren estimazio eta behaketarako tresnei buruz ere (erabilitako nomenklaturak, proiektzio-helburuak...).
- Esan beharra dago, gainera, mugaz gaindiko ikuspegia (enplegua barne) ez dela lehentasuna Bidasoaren bi aldeetako enpresa-sektorerako. Hurbilketa-ekimen ugari

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

sustatzen ari badira ere, logikoa den moduan, negozio-aukerak eta jarduera komuna bilatzea izaten dute helburu (komertzialak, azpikontratazioa, produkzio-sinergiak edo garapen teknologikoa eta abar), mugaz gaindiko enpleguaren alderdia kasu gehienetan funtsezko elementua izan gabe (salbuespenak salbuespen, esaterako, merkataritza-sektorean).

- Lehenetsun-gabezia horrek ez du eragozten hiru eskualdeetako ekonomien artean osagaritasunak egotea eta etorkizunera begira aukerak eskaintzea. Hain zuzen ere, hiru eskualdeetako bakoitzetik ondoko herrialdera (Frantzia, Euskadiren eta Nafarroaren kasuan, eta Espainia, Akitania Berriaren kasuan) fluxu komertzialak aztertuta, horiek oso garrantzitsuak direla ikusi da, nahiz eta eskuragarri dagoen datuekin ezin den jakin zer neurritan kontzentratzen diren fluxu horiek euroeskualdearen eremuan zehazki. Edonola ere, osagaritasun horien garapenak, zalantzarik gabe, enpresen interpenetrazio handiagoan eragina izango du, eta ondorioz, epe luzeko mugaz gaindiko enplegu maila handiagoa eragingo du.
- Hain zuzen ere, nabarmendu beharrekoa da epe ertainean lanekuaren behararen aurreikuspenak garrantzitsuak direla Euroeskualderako. Hala ere, lehen esan dugun moduan, enpleguaren sorrera garbiari begira (aldeko egoera ekonomikoa izan daitekeela aurrez ikusita), eragin askoz txikiagoa izango dute hiru eskualdeetan biztanleria aktiboaren adin-piramidearen eraginez izango diren erretiroagatik irteera masiboek baino.
- Epe laburrean, enplegu-eskaintzan eragin nabarmena dute egoera-aldaketek (eraikuntzaren berreskuratzaren egungo adibidea, bai Espainian, bai Frantzian), baina bolumenean, eraginak urtaroen arabera enpleguarenak baino mugatuagoak dira, ohikoak eta oso garrantzitsuak eremu turistikoetan edo landa-eremuetan (ardo eta mahastizaintza, arbolazaintza, nekazaritza). Bestalde, eta oro har, ezin dira alde batera utzi robotizazio- eta digitalizazio-prozesuen enplegu-eskariaren gaineko eraginak, bai industrian, bai zerbitzuetan, oraindik lausoak direla.
- Euroeskualdeak, beraz, kuantitatiboki kontratazio-behar handiak ditu aurrean, eta nahiko "sinpleak" diren hirugarren mailako jardueri dagozkie baliabide gehienak: mantentzea eta birgaitzea, salmentak, mantenua, pertsonen arreta, ostalaritza-jatetxea edo arreta sozio-sanitarioko establezimenduak.
- Hala ere, "presio" hori, oraingoz, urria da mugaz gaindiko migrazio-fluxu adierazgarriak sortzeko. Espainia iparraldean eta Frantzia hegoaldean lan- eta bizi-baldintzak pixkanaka antzekoagoak direnez, soldadari dagokionez edo aukera profesionali dagokienez (bi zentzuetan) esperotako irabaziaz murriztak dira mugaz gaindiko mugikortasunak berekin dakartzan eragozpen eta gailentze administratibo, ekonomiko eta sozialak konpentsatzeko.
- Txostenean zehar zehaztutako oztipoek, esaterako, hizkuntzari lotutakoak, prozedura administratiboaren konplexutasunak, araubide fiskalean eta sozialean dauden aldeak, estatutu profesionalen heterogeneotasunak, konparaziozko informazio-gabeziek eta abarrek badute beren rola desmotibazio horretan. Era berean, nahiz eta funtsezkoa den Europar Batasunaren baitan gero eta irekiagoa eta bateratuagoa den lan-

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

merkatua sustatzeko borondate orokorretik gertakari hori zuzentzen saiatzea, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean mugaz gaindiko mugikortasuna ez dirudi nabarmen handituko denik, kontuan hartutako eremuko pertsona aktiboen aldetik aurrez aipatutako arrazoiak ahulak baitira, Bidasoaren eskuineko marjinan familia-bizitoki batzuk aukeratu arren.

8.2. Gomendioak

Aurreko ondorioak ikusita, honako gomendio hauek egin daitezke Euroeskualdeko enplegu-politiken eragileentzat eta garapen ekonomiko eta lehiakortasuneko politiken eragileentzat, eta oro har, Euroeskualdeko eragile sozioekonomiko eta enpresarialentzat:

- **“Auzoko” hizkuntza ikastea sustatzea.** Argi geratu da lan esparruan ezinbestekoa dela komunikazioaren eskakizuna, lan egiteko muga gurutzatzea planteatu ahal izateko. Eskoletan frantsesa/gaztelania ikasiko duten ikasleak ugaritu behar dira, eta Euroeskualdeko hizkuntzek pertsona aktiboen etengabeko prestakuntzaren zati izan daitezen lortzea.
- Enplegua bilatzen duten pertsonen eta biztanleria aktiboari, oro har, **“beste aldeko” enplegu-aukerei buruzko informazioa** ematea. Aukera horiek ezagutu ezean, zaila da biztanleria aktiboak (langabetuak edo enplegu hobearen bila dabiltzanak) aldaketak planteatzea eta dauden aukerak aprobetxatzea.
- **Mugaz gaindiko langileen laguntza administratibo, sozial eta fiskala ematea.** Oztopo nagusia ez dira alde bateko eta besteko araudi mailako aldeak, baizik eta haiek ez ezagutzea eta lan arloko eta sarri zailak diren erabakiak hartu behar dituzten pertsonentzat (beste herrialde batera lanera joatea) planteatzen den ziurgabetasuna, baita mugaz gaindiko jardueran zehar planteatzea daitezkeen egoeretan ere.
- Aurrekoarekin lotuta, gomendagarria da bi aldeetako **administrazioetarako prestakuntza-ikastaroak (fiskala, soziala, lan arlokoa eta abar)** egitea ere, baita bi administrazioen arteko ezagutza-bilerak ere, lankidetzaren egonkorra eta arina garatzen laguntzeko.
- **Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoaren eskuragarritasuna hobetzea.** Oinarritzko gaia da hori ere. Azterketa honek agerian jarri ditu arlo horretan dauden mugak eta desadostasunak. Eskualdeko erakunde estatistikoaren eta enplegu-politiken eragileen artean koordinazioa behar da, informazio homogeneoa egon dadin alderaketan oinarritutako azterketak egiteko eta euroeskualdeko lan-merkatuaren egoerari jarraipena egiteko.
- **Langileen, ikasleen, irakasleen, ikerlarien trukea handitzea.** Horrek, zalantzarik gabe, eragile sozioekonomikoen, enpresa arlokoen, hezkuntzako, unibertsitatekoen, teknologikoen artean interpenetrazio handiagoa eta elkar hobeto ezagutzea ekarriko du, eta horrek, era berean, interpenetrazio ekonomikoa eta lanekoa handitzen lagunduko du.

8. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

- **Enpresen arteko lankidetzak sustatzen jarraitzea, bereziki sektore estrategikoetan.** Sektore gako batzuetan abian diren ekimenek erakusten dute epe ertain/luzean emaitzak lortzeko modu bakarra dela, euroeskualde mailan zerbitzuen eta produkzio-jardueraren elkarren arteko erlazioa oinarri izango duen elkarrekiko ezagutza ahalbidetuko baitu.
- **Enplegu-zerbitzu publikoen artean lankidetzak handitzea.** Enplegu-zerbitzuen artean lankidetzak indartzea eta egonkortzea da helburua; horretarako, prestatzen ari diren hitzarmenak ezarri eta erlazio arinagoa ahalbidetuz, modu protokolizatuan mugaz gaindiko lan-mugimenduen ondoriozko arazoak lantzeko gai izan dadin Elkarrengandik ikastea ere bada planteamendu horren helburuetako bat, egiteko moduei, aplikatutako programei, langabetuen talde jakin batzuen tratamenduari eta abarri dagokienez.
- **Ikaskuntzaren eta Lanbide Heziketaren arloan koordinazioa hobetzea.** Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeek eskumen handiak dituzten eremua da, eta bertan, sinergiak bilatzeak garrantzitsua izan daitekeen potentziala eskaintzen du, espezialitate jakin batzuen eskaintzan osagarritasuna lortzeko, prestakuntza-curriculum koordinatuak, ikasle-trukea eta abar. Hori bereziki garrantzitsua izan daiteke oraindik garatu gabe dagoen prestakuntza-eskaintza berriak landu beharko dituen "etorkizuneko konpetentzietarako".
- **Mugaz gaindiko langileen eta prestakuntza-erakundeen arteko konexio-/informazio-sistemak,** langile horiei lan-bizitza osoan etengabeko prestakuntza-jarduerak gara ditzaten ahalbidetzeko, nahiz eta mugaz gaindiko eremuan garatu.
- Azterketa honetan identifikatutako gai esparru espezifikoaren inguruan lan-programak definitu eta garatuko dituzten **lantaldeak sortzea** (fiskalitatea, gizarte segurantzak, hizkuntza, prestakuntza, estatistikak eta abar) eta pixkanaka jarduera-ildoak, arazo espezifikoaren irtenbideak eta abar planteatzea.



AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA
NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE

Interreg
POCTEFA



UNIÓN EUROPEA
UNION EUROPÉENNE

Eskualdeen Garapenerako Funts Europarrekin (FEDER)
diruztatutako proiektua



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre



ren laguntzarekin